Hirigintzaren oinarriak

Unai Fernández de Betoño Sáenz de Lacuesta

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UEU

HIRIGINTZAREN OINARRIAK

Unai Fernández de Betoño Sáenz de Lacuesta

Udako Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea
Bilbo, 2014

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Euskal Herriko Unibertsitatea
© Unai Fernández de Betoño Sáenz de Lacuesta

UEUren ISBNa: 978-84-8438-529-5
Lege-gordailua: BI-1782-2014

Inprimategia: PRINTHAUS S.L., Bilbo
Azalaren diseinua: Igor Markaida
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org
www.ueu.org

Euskal Herriko Unibertsitatea
www.ehu.es/argitalpenak
argitalpenak@ehu.es

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Eskerrak Josemari Alkorta eta Bixente Taberna hirigileei,
hirigintzaren euskarazko irakaskuntzaren bidea irekitzeagatik

Aurkibidea

1. HIRIAREN DIMENTSIO-ANIZTASUNA 7
1.1. Hiria 7
1.2. *Terra, urbs, polis* eta *civitas* 10
1.3. Hirigintza 11

2. *TERRA:* LURRALDEAREN DIMENTSIOA 13
2.1. Lurraldearen ulerkera 13
2.2. Hiri-sareak 22
2.3. Hirien kokalekuak 27
2.4. Lurraldearen eraikuntza 30

3. *URBS:* FORMAREN DIMENTSIOA 35
3.1. Hirien morfologia 35
3.2. Kalea 40
3.3. Plaza 43
3.4. Lorategia 47
3.5. Garraiobideak eta mugikortasuna 50
3.6. Hiri-hazkunde motak 61
3.7. Eraikinen tipologia 77

4. *POLIS:* ARAUAREN DIMENTSIOA 89
4.1. Zonifikazioa 89
4.2. Ordenantzak eta hirigintza-parametroak 97
4.3. Hirigintza-zuzenbidea 102
4.4. Lurralde-, egitura- eta garapen-plangintza 111

5. *CIVITAS:* HIRITARGOAREN DIMENTSIOA 129
5.1. Ikuskizunaren hiri postmodernoa 129
5.2. Parte-hartzea 141
5.3. Hiri iraunkorra 149

6. BIBLIOGRAFIA 163

7. AURKIBIDE ONOMASTIKOA 169

1. Hiriaren dimentsio-aniztasuna

1.1. HIRIA

Hiria pilaketa da. Hainbat giza interesen metaketa: ekonomikoak, politikoak, sozialak, kulturalak, komertzialak, militarrak, profesionalak… Definizio teknikoagoa eman baino lehen, horixe aurreratu daiteke, hau da, hiriak duen baliabide ezberdinen bilgune-izaera. Hori da Lewis Mumford historialariak 1938an azpimarratu zuena: «Komunitate baten boterearen eta kulturaren kontzentrazio goreneko puntua da hiria»[1]. Dentsitatearen ezaugarri hori da, hain zuzen, jendea erakartzen duena; hainbeste, non egungo munduko biztanleriaren erdia —ia 3.500 milioi pertsona— dagoeneko hiri-aglomerazioetan bizi den. Areago, Europan % 70era igotzen da hiritarren ehunekoa[2], eta ez dirudi hiriaren erakargarritasun-joera epe ertainera ezer murriztuko denik. Hirian elkarrekin pilatzen jarraituko dugu gizakiok, antza.

Hiriaren historiak gizakiaren historia ere biltzen du neurri handi batean, nomada izateari utzi eta toki egonkor batean nekazaritzaz, abeltzaintzaz eta merkataritzaz taldeka bizitzea erabaki zuenetik —genuenetik—, gutxienez. Ziur aski, orduan ere —Neolitoan, duela 8.000 edo 10.000 urte— hasiko zen lurzoruaren jabegoaren ideia, hiriaren funtsa osatzen duena, hain zuzen ere. «Hori nirea da» esango zuen norbaitek, eta, inork aurkakorik esatera ausartu ezean, hala aginduko zen, eta, denborarekin, eskubide bihurtuko. Espazio pribatuekin batera, bestalde, lehen espazio publikoak ere ia modu naturalean adostuko ziren, partzela ezberdinei ezinbesteko sarbide antolatua eman ahal izateko. Urteekin, espazio publikoek osatutako sarea hiriaren ezaugarri nagusietakoa bilakatuko zen. Hori da hiriaren muina José Ortega y Gasset filosofoarentzat, 1927an azaldu bezala: «Hiria, ezer baino lehen, hauxe da: plazatxoa, foroa, agora. Elkarrizketarako, eztabaidarako, elokuentziarako, politikarako lekua. Zentzu hertsian, hiri klasikoak ez lituzke etxeak zertan eduki, plaza bat ixteko beharrezkoak diren fatxadak baizik ez, hori baita animalia politikoak nekazaritza-espazioaren gainean zedarritzen duen eszena artifiziala»[3]. Aurretik, 1925ean, hauxe esana baitzuen Ortegak berak, zentzu berean: «Etxetiarraren aurkako sen batetik

1. Egilearen itzulpena. Mumford, L. (1970): *The culture of cities*, Harcourt Brace, New York [ISBN 0-15-623301-0], 3. or.

2. Population Reference Bureau (2010): "2010 world population data sheet", PRB, Washington DC [ISSN 0085-8315], 10-13. Hemen eskuragai: <http://www.prb.org/pdf10/10wpds_eng.pdf> [kontsulta: 2012-8-22].

3. Egilearen itzulpena. Ortega y Gasset, J. (1963): *Obras completas. Tomo II. El espectador (1916-1934),* Revista de Occidente, Madril [6. argit. ISBN gabe], 543. or.

abiatzen da hiri klasikoa. Etxea barnean egoteko eraikitzen bada ere, hiria etxetik irteteko sortzen da, haien etxetik era berean irtendako beste batzuekin biltzeko»[4].

Espazio libre publikoa ez da etxetiarraren aurkako edo, hobeto esanda, osagarri bakarra. Hirian eraikin publikoak ere badira, kolektibitatearen jabetza diren zuzkidura-ekipamenduak. Gehiengoa diren etxebizitza-erabilerarako eraikin pribatuen mordoaren artean nabarmentzen dira eraikin publikoak, bai funtzionalki, bai estetikoki, mugarri gisa funtzionatuz, erakarpen-puntu bihurtuz. Hiriko elementu nagusi horietako batzuk gogoangarri ere bilakatzen direnean, haien edertasunagatik edo esanahi sinbolikoagatik, monumentu izendatzen dira (latinezko *monumentum* terminoak oroigarri esan nahi du). Handik aurrera, elementu iraunkorrak izatera igarotzen dira, hiriaren nortasun komunaren zati bihurtuz, Aldo Rossi arkitektoak azaldu bezala: «Monumentuak, arkitektura-printzipioen bidez adierazi den borondate kolektiboaren ikur, elementu nagusi gisa hautematen dira, puntu finkoen moduan hiri-dinamikaren erdian»[5]. Hainbatetan, hiri historiko osoa —alde zaharra— ere jo izan da monumentutzat, oroigarritzat, baina ez da komeni ahaztea bertan jendea ere bizi denik, hau da, ez dela museo huts bat.

Idazketa garatu bezain pronto, K.a. 3. milurtekoan, ondasun higiezinak neurtzeko eta zenbatzeko lehen erregistroak idatzi omen ziren Egipton. *Agrimensura* edo lur-neurketaren ogibidea —topografiaren aurrekaria— faraoiarentzako zergak sistematikoki biltzeko helburuarekin sortu zen. Adam Smith ekonomialariak 1776an esan bezala, «edozein herrialderen lur osoa jabego pribatu bilakatu bezain laster, lurjabeek, gainerako gizon guztiek bezala, inoiz erein ez duten tokian uzta bildu nahi izaten dute, nekazaritza-produkzio naturalagatik ere errenta eskatuz»[6]. Zergak biltzeko erregistroa den katastroa, hortaz, egungo Europako mendebaldean ezagutzen dugun bezala XVIII. mendean garatu bazen ere, jabetza pribatuaren ia sorreratik bertatik existitu da modu batean edo bestean. Partzela —landatar zein hiritar— guztien inbentarioa den neurrian, partzela-katastroak sekulako eragina izan du antolakuntza-planik gabeko hirien zabalpen organiko edo espontaneoan, maiz hirigintza-planaren ordezko informal bilakatuta. Jabegoaren lerroa sakona bezain iraunkorra izan da hiriaren eraketan, eta, iraultza erabatekorik egon ezean, badirudi hala izaten jarraituko duela.

Hainbatetan, jabegoaren lerro abstraktuek hiriaren muga ere zehazten dute. Bestetan, ordea, muga hori fisikoagoa da, naturak ezarria (itsasoa, ibaiak, orografia) edo gizakiak eraikia (harresiak, trenbideak, errepideak). Jean-François Sobry arkitektoak muga itxi eta seguruaren ideia hori azpimarratu zuen 1776an, honakoa esanez: «Harresirik gabeko hiria ez da hiria»[7]. Hala izango zen gerra-garaietan,

4. Egilearen itzulpena. Ortega y Gasset, J. (1963), *op. cit.,* 331. or.

5. Egilearen itzulpena (Rossi, 1999: 63).

6. Egilearen itzulpena. Smith, A. (2008): *An inquiry into the nature and causes of the wealth of nations*, Forgotten Books, Charleston [ISBN 978-1-60680-210-6], 39. or.

7. Egilearen itzulpena. Sobry, J.-F. (1776): *De l'architecture*, Couturier, Amsterdam, [1. argit. ISBN gabe], 150-151.

non babesa eta uzkurdura bizirauteko behar-beharrezkoak baitziren, baina, egungo komertzio-garaiotan, irekitzea eta interkonektatzea dira derrigorrezkoak, eta, ondorioz, hiriak bere muga fisikoak gainditzeko eta are ezabatzeko joera nabarmena du. Garraio-azpiegitura handiak kenduta —XXI. mendeko egiazko harresiak—, oro har, gero eta muga lausoagoa dugu hiriaren eta landaren artean. Megalopoli handietan —Tokio, Delhi, Seul, Jakarta, Manila, Mumbai, New York—, batez ere, zaila da esatea non hasten den hiria eta non bukatzen.

Aipatutako gune metropolitar horietan, bereziki, hiriak sistema handiago baten zati dira, hiri multzo baten parte, non ohiko udalerrien muga administratiboek dagoeneko zentzua erabat galdu duten, osotasun berriaren mesedetan. Hala ere, hiri guztiak erdigunea eskuratzeko lehia bizian daude, era berean. Erdigune hori, kontzeptuala izateaz gain, geografikoa ere bada, hirien garrantzi sozioekonomikoa irisgarritasunarekin erabat erlazionatuta dagoelako. Ondorioz, «erdigune txiki asko daude, baina erdigune handi gutxi»[8], Walter Christaller geografoak 1933an esan bezala, hau da, giza finkamenduen[9] artean berezko hierarkia bat antolatzen da lurraldean: auzoak, barrutiak, herrixkak, herriak, hiriak, metropoliak… Hierarkia hori finkamenduen merkatu-azaleran oinarritzen da batik bat —eskaeraren eta eskaintzaren arteko erlazio geografikoan—, zeina garraio-sareen eta biztanle-dentsitatearen arabera alde batera edo bestera eraldatzen den. Horrela, ondo komunikatutako eta tamaina handiko hiriek gero eta zerbitzu espezializatuagoak eskainiko dituzte, zerbitzu horiek eskatuko dituzten bezeroak errazago erakarriko dituztelako, maila goragoko erdigune bilakatuz. Bistan da azken urteotan metropoli handien merkatu-azalerak Lur osoa barne hartzen duela, batez ere Interneten agerpenaz geroztik. Hirien arteko lehia inoiz baino zabalagoa da, beraz.

Ondorioz, hiriaren ezaugarriak aipatu ahala, gero eta argiago geratzen da oso zaila dela haren konplexutasun osoa biltzen duen definizio sintetikorik aurkitzea. Horrexegatik da hain egokia Louis Wirth soziologoak 1938an luzatutako definizio itxuraz xumea, hiriaren nolakotasun garrantzitsuenak barne hartzen dituena, eta gaurkotasunik oraindik galdu ez duena: «Asmo soziologikoetarako, honela defini daiteke hiria: sozialki heterogeneoak diren gizabanakoen finkamendu handi samarra, dentso eta iraunkorra»[10]. Lan honen ildoa bereziki soziologikoa izango ez bada ere, bat gatoz definizio orokor eta zehaztugabe samar horrekin: askotariko pertsonen finkamendu handia, dentso eta iraunkorra dugu hiria.

8. Christaller, W. (1966): *Central places in Southern Germany*, Prentice-Hall, New Jersey, [ISBN 0-131-22630-4], 63-65.

9. Lan honetan *finkamendu* terminoa erabili da ingelesezko *settlement* eta espainierazko *establecimiento* adierazteko. Halaxe erabili da Euskal Herriko Unibertsitateak euskarara berriki itzulitako *Hiri-formaren historia* liburuan ere (Morris, 2010).

10. Egilearen itzulpena. Wirth, L. (2005): "El urbanismo como modo de vida", *Bifurcaciones*, **2**, 4 [Santiago de Chile. ISSN 0718-1132]. Hemen eskuragai: <http://www.bifurcaciones.cl/002/ reserva.htm> [kontsulta: 2012-8-22].

1.2. TERRA, URBS, POLIS *ETA* CIVITAS

Hiriaren dimentsio-aniztasuna azaltzeko grezierazko eta latinezko hiru termino erabili ohi dira: *urbs*, *polis* eta *civitas*[11]. Substantibo horietako bakoitzak hiria taxuz aztertzeko kontuan hartu beharreko esfera bati egiten dio erreferentzia. Hala ere, laugarren dimentsio bat ere gehi dakioke ohiko zerrenda horri: *terra*. Laukote horren bidez, beraz, hiriaren konplexutasuna ederki antzematea dugu helburu, lau ikuspegi ezberdin baina osagarriren bidez.

Terra latinezko terminoak lurra esan nahi du. Hortaz, hirigintzaren testuinguruan, lurraldeari egingo dio erreferentzia, hiriari eusten dion substratuari, eta, hedaduraz, baita geografiari eta hiriaren kokapenari ere. Funtsezko osagai horri ingurune naturala edo fisikoa ere esan ohi zaio, hiriaren erroa dena. Hiriak lurralde jakin batean errotuta daudela Pernandoren egia dirudien arren, hirigintzaren historian ez da beti kontuan eduki, eta, gero eta lurzoru lau eskasagoa dugun honetan —Euskal Herriko iparisurialdean bereziki antzematen da hori, adibidez—, inoiz baino sakonago aztertu eta ganoraz antolatu beharreko osagarria dugu lurraldea.

Urbs latinezko terminoak hiria esan nahi du. Jatorriz bereziki Erromari egiten zion erreferentzia, eta, batik bat, hiriburu hartako eraikinen, espazio publikoen eta azpiegituren multzoari, alegia, dimentsio formal edo eraikiari. Antolakuntza espazial eta arkitektonikoaren esferak erabat baldintzatzen du hiria eta, jakina, baita bertan bizi direnak ere, haien bizitzak garatzeko eszena finkoa eratzen baitu. Ingurune eraiki edo solido horren nolakotasunak, hortaz, hiriaren irudia osatzeaz gain, hiritarren eguneroko bizi-kalitatean eta (des)erosotasunean berebiziko eragina du.

Polis grezierazko terminoak estatu-hiri esan nahi du. Hiriaren izaera administratiboari egiten dio erreferentzia, eta, bide batez, *politika* terminoaren jatorrizko esanahia argitzen digu: estatu-hiriari dagokiona. Desairez esaten denean hirigintza politika baino ez dela, beraz, etimologikoki ere nabarmena den gauza bat baieztatzen da. Hiriaren funtzionamendu egokiak gutxieneko arau batzuk eskatzen ditu, bai eta horiek betearaziko dituen administrazio publiko zuzena eta eraginkorra ere. Esfera politiko-administratiboak ere —tokiko erakundeetatik lurralde-mailako instituzioetara—, hortaz, hiria zeharo baldintzatzen du.

Azkenik, *civitas* latinezko terminoak hiritargoa esan nahi du, eta hiritarren dimentsioaz jarduteko erabiltzen da, alegia, harrigarriki gehiegitan alde batera uzten dena: jendartea. Alabaina, jenderik gabe ez dago hiririk, arestian definitu den moduan; eta hirigintzak gizarte osoaren interes orokorra zaintzea du betebehar, gizabanakoen

11. Euskal Herriko kultura-testuinguruan aipagarria da, esaterako, Bernardo Atxaga idazleak 2007 baino lehenagoko hainbat hitzalditan esandakoa: «Hiriaz ari garenean zer hiru errealitate izendatzen ditugun azaldu nuen [jardunaldi] haietan, zer hiru gauza den *Hiria*: gune fisiko bat, aurrena, latinoek *urbs* deitzen zutena; jendarte edo bizilagunen multzoa bigarren, *civitas*; azkenez, antolamendu politikoaren aldetik ikusita, *polis*. Jakina, ez zen nik asmatutako teoria. Ehunka liburutan azaltzen da. Hirigintzako ABC edo katoietan ere bai». Atxaga, B. (2007): "Astoa eta Euskal Hiria", in <http://www.atxaga.org/blog/17> [kontsulta: 2013-9-17].

eskubideei muzin egin gabe. Horretarako, desberdintasun ekonomikoen eraginez hirian jazotzen den segregazio espaziala ekiditen lagundu beharko luke, besteak beste. Halaber, ohiko hiri-plangintza hierarkikoaren aurrean, hiritarren parte-hartze loteslea ere sustatu beharko luke, hiritarrei dagozkien gai gatazkatsuen inguruko erabakiek —hirigintzaren alorreko ia guztiek— onarpen zabalagoa eduki dezaten.

1.3. HIRIGINTZA

Hiriaren egintza helburu duen jakintza-arloa da hirigintza; hiriaren iragana eta oraina aztertu, eta etorkizunerako aldaketa urbanoa proiektatzen duen diziplina. Hala ere, hiria lurraldean ezarrita dagoenez, haren lurralde-mailako errealitatea ere kontuan hartu beharra dago. Hori dela-eta, jarduera-eskala anitzetan hartzen du parte: auzoan, barrutian, udalerrian, eskualdean, herrialdean. Jakintza-arlo zabaletan gertatu ohi den bezala, beraz, hirigintzaren diziplinan ere zaila da eremua zehazki mugatzea.

«Hirigintza kaleen eta eraikinen diseinua dela baieztatzea agerikoa da, lehengo eran pentsatzen bada» zioen Solà-Morales hirigileak (1988), hirigintzaren egungo konplexutasuna aldarrikatuz, besteak beste. Hori dela-eta, arestian hiriaren dimentsio-aniztasuna azpimarratu bada ere, oraingoan hirigintzaren ikuspegi poliedrikoa ere azaldu behar da. Asko laburbilduz, hirigintzari dagokionez historian muturreko hiru ikuspegi nagusi daudela esan ohi da (Sánchez de Madariaga, 2008: 17-84). Lehenik, hirigintza artea dela aldarrikatzen duen ikusmoldea dago; bigarrenik, hirigintza zientzia dela ziurtatzen duena; eta, hirugarrenik, hirigintza politika dela dioen ikuspuntua. Azkenik, berriki ezarritako hirigintzaren lurralde-ikuspegia aldarrikatzen duen laugarren ikusmoldea ere aztertzekoa da. Errealitatea, ziur asko, lauren arteko nahasketatik osatuko da. Hala ere, didaktikoa da lau ikuspegien arrazoibideak ezagutzea.

Hirigintza artea dela ziurtatzen duen ikuspegia betidanik izan da, Errenazimentuan eta garai barrokoan sakonago garatzen hasi bazen ere. Ikusmolde estetiko horren defendatzaileentzat hirigintza arazo formala da, batez ere. Jarduera subjektiboa. Hiriak osatzen duen gertakari konplexu eta artistikora gerturatzeko tresna, hortaz, morfologiaren erabilera litzateke, hots, egitura-formaren azterketa. Ikuspegi honek, jakina, hiriaren *urbs* delako dimentsioa azpimarratzen du.

Hirigintza zientzia dela aldarrikatzen duen ikuspuntua bereziki XIX. mendean hasi zen garatzen, Industria Iraultzaren garaian. Ikuspegi tekniko horren babesleentzat hirigintza arazo funtzionala da, ororen gainetik. Diziplina objektiboa. Hiria, beraz, ganoraz funtzionatu behar duen tresna edo makina bat da, eta haren antolakuntza hiriko arazo guztien (higienea, zirkulazioa, ekonomia, giza pilaketa…) ebazpen argi eta pragmatiko baten emaitza da. Ikuspegi honek, batez ere, hiriaren *urbs* eta *civitas* dimentsioak azpimarratzen ditu.

Hirigintza politika dela baieztatzen duen ikusmoldea, era bertsuan, XIX. mendeko industria-hiriaren gizarte-arazoak konpontzen saiatzeko garatu zen, batik bat. Ikuspuntu filosofiko-moral horren aldarrikatzaileentzat hirigintza gizartea eraldatzeko tresna da. Jarduera kolektiboa. Hiria, beraz, gizakia justiziaren eta berdintasunaren esparru egingarria da. Ikuspegi honek hiriaren *civitas* eta *polis* dimentsioak azpimarratzen ditu bereziki.

Azkenik, hirigintzaren laugarren ikuspegi bat azaleratu da azken urteotan, ingurumenaren paradigma agertu denez geroztik. Hirigintza lurraldearen eraikuntzaz arduratzen den diziplina dela ziurtatzen du, eta, ikusmolde horren arabera, ez dago ezberdintasun nabarmenik landaren eta hiriaren artean, biak ala biak baitira lurraldearen zati. Hirigintza, hortaz, lurralde osoaz arduratzen da, eta, ondorioz, modu integralean aztertu eta planifikatu behar du ingurunea. Ikuspegi honek, oroz gain, hiriaren *terra* dimentsioa azpimarratzen du.

2. *Terra*: lurraldearen dimentsioa

2.1. LURRALDEAREN ULERKERA

Lurraldea termino polisemikoa da. Ezaugarri bereziak biltzen dituen lur-eremu jakin bat izendatzeko erabil daiteke —eskualde bat, herrialde bat—, baina baita ingurune fisiko osoari buruz hitz egiteko ere. Muga non ezartzen den. Hala ere, ez da lurzoru hitzaren sinonimo soila (Petxarroman, 2011). Lurraldeak sistema geografiko oso bati egiten dio erreferentzia, non elementu fisikoez gain, hainbat landare, animalia eta gizakiren habitatak ere badauden, elkarren artean erlazionatzen direnak. Geografikoa izateaz gain, beraz, lurraldea sistema ekologikoa da.

Alabaina, sistema soziologikotzat ere jo daiteke lurraldea. Izan ere, aditu batzuen ustez (Lafont, 2009: 215), lurzoru soilari giza identitatearen geruza gainjartzen zaionean agertzen da lurraldea. Lurzoruaren eta —gizakiaren— kulturaren batuketa litzateke lurraldea, ikusmolde horretatik. Hortaz, sistema ekologikoaren ikuspegiari sistema soziologikoarena gehitzen bazaio, emaitza argia da: lurraldea sistema sozioekologiko bat da. «Gizakia eta natura» binomioa, edo, hobeto esanda «gizakia naturan» kontzeptu holistiko, sistemiko eta integratzailea biltzen duen sistema sozioekologikoa.

Muga politiko-administratiboak alde batera utzita ere, badira eremu aski bereizgarriak lurraldean zehar. Eskualde natural oinarrizkoena, hain zuzen ere, bailara da. Ibaiaren arroa, eremu naturala izateaz gain —bioeskualdea, batzuen esanetan, azken boladan—, maiz esparru funtzionala eta kulturala ere bada, eta, horregatik, lurraldearen antolakuntzarako kontuan izateko unitate garrantzitsuenetakoa. Horixe aldarrikatu zuen duela 100 urte baino gehiago Patrick Geddes biologoak, Vidal de La Blache geografo erregionalistaren hainbat ideia oinarri: «Geure ibaiaren bailarari buruzko informazioa biltzea hirien ikerketarako hasierarik ganorazkoena izango da. (…) Erabilgarria da oinarrizko ikuspuntu hau —naturalistaren berezko lanbidea— etengabe berreskuratzea, baita hiri handienen kasuan ere»[12].

12. Egilearen itzulpena. Geddes, P. (1905): "Civics: as Applied Sociology", cit. in Hall, 1996: 151.

Bailararen kontzeptuak dagoeneko inozo samarra eman dezake XXI. mendeko bigarren hamarkada honetan, non eremu metropolitar batzuen hedadurak amaigabea dirudien, baina, harana txiki geldituz gero, beti dago sakonera-eskala urruntzeko aukera: gertuko ibaiaren arroa nahikoa ez bada, hura ere barne hartzen duen hurrengo arro hidrologiko handiagora zabal daiteke azterketen eta proiektuen esparrua. «Eskualdearen mitoa» (Gómez Piñeiro, 2012a: 16), oinarri sendoak edukitzeaz gain, kontzeptu malgu samarra da, hortaz.

Geddesen 1905eko teoriaren arabera, haranaren sekzioan giza finkamendu bakoitza —herrixka, herria, hiria— toki jakin batean ezartzen da, ohiko lanbideekin gertatu bezala (ikus 1. irudia). Horren ondorioz, lekua, lana eta biztanleak modu harmoniatsuan leudeke harremanean, XX. mendearen hasiera hartan, gutxienez.



1. irudia. Haranaren sekzioa. Patrick Geddes, 1905 (Hall, 1996: 153)[13].

Bigarren Mundu Gerra amaitu eta gero, ordea, garraiobideen garrantzia biderkatu egin zen, batez ere motordun ibilgailuentzako errepideena. Eraikuntza-tekniken hobekuntzek tunelak, eustormak eta biaduktoak azkarrago eta errazago egitea ahalbidetu zuten, eta, ondorioz, lurraldearekiko lotura galdu zen, neurri handi batean. Azken hamarkadotako autoak eta trenak gero eta abiadura handiagoan doazenez, gainera, orduan eta biraketa-erradio luzeagoak behar dituzte, garraiobideak topografiaren errealitate fisikotik erabat bananduz.

13. Ezkerretik eskuinera: meatzaria, egurgilea, ehiztaria, artzaina, nekazaria, lorezaina eta —bailararen hondoan— arrantzalea.



2. irudia. Mundu-mailako hiri berri hierarkikoa, John Friedmann irakaslearen arabera (1986)[14]. Iturria: egileak berregindako eskema.

Globalizazioak ere eragin handia eduki du logika geografikoaren deserrotze-prozesu horretan. Izan ere, aipatutako garraiobideen hobekuntzei finantzen liberalizazioa eta Interneten hedapena ere gehitu behar zaizkie, hiruren artean mundu-mailako merkatu bakarra eratu baita (ikus 2. irudia). Ondorioz, lehengaiak zein elikagaiak munduko edozein txokotatik inportatu eta edozein tokitara esportatu ahal dira. Horrela, gertueneko eskualdearen garrantzia alboratu da, hein handi batean, baita antolakuntza espazialari dagokionez ere. Horregatik, ezinbestekoa da lurraldearen antolakuntzaren hastapenak gogoratzea: egungo energia-krisia gaindituko bada, bidean albo batera utzitako lurraldearen ikuspegi interesgarriak berreskuratu behar dira, garai berrietara egokitutako ikusmolde iraultzaileak —eraberritzaileak— hezurmamitzeko.

Geddesek bailararen unitatea aldarrikatzen zuen garai bertsuan —XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran— hasi zen lurraldeaz hitz egiten hirigintzaren alorrean, batez ere hiri handien arazoen karietara (biztanleen pilaketa demasekoa, kutsadura…). Londres Handia izan zen lurralde-begirada horietako askoren jomuga, Industria Iraultza izan eta gero izugarri hazitako hiria baitzen (munduko handiena, 1825 eta 1925 artean[15]). Lurraldea orekatzeko, hortaz, hiriburuaren tamaina mugatuko edo txikituko zuten deszentralizazioaren aldeko bideak aztertu ziren, eraztun berde murriztaile handi bat antolatuz eta jendea

14. Friedmann, J. (1986): "The World City Hypothesis", *Development and Change,* **17,** 69-83 [ISSN 1467-7660].

15. 1825ean 1,35 milioi biztanle zituen eta 1925ean, 7,5 milioi inguru. Chandler, T. (1987): *Four Thousand Years of Urban Growth: An Historical Census*, Saint David's University Press, Lewiston [ISBN 0-88946-207-0].

hiritik landa-eremura lekualdatzeko estrategia zorrotzak haztatuz. Lorategi-hirien mugimenduak, esaterako, ideia horiek landuko zituen, beste batzuen artean[16]. Hiria, beraz, eskualde handiago baten zati gisa ulertzen hasi zen orduan.

Hala ere, egiazko lurraldearen antolakuntzaren hastapenak bailararen eskala gertuenarekin egon ziren erlazionatuta. 1930eko hamarkadan gauzatu zen lurralde-plan aitzindarietako bat, AEBko Tennessee ibaiaren bailaran, hain zuzen, ia 106.000 km^2-ko azalera duena. Helburu nagusia izan zen haran —artean— atzeratu horren garapen ekonomikoa suspertzea, Franklin D. Roosevelt presidentearen *New Deal* programaren barne, 1929an hasitako Depresio Handiaren testuinguruan. Horretarako, Tennessee Valley Authority (TVA) korporazio edo partzuergo publikoa sortu zen 1933an, zeinak bailaran energia elektrikoa ekoizteko hainbat azpiegitura —eta ondoriozko lanpostuak— sustatu zituen, besteak beste. Hain zuzen ere, hogei urtetan hogei urtegi berri eraiki zituen (ikus 3. irudia), eta, horretarako familia ugari lekualdatu bazituen ere —15.000 inguru—, osotasun-perspektiba handiarekin hartu zuen kontuan ibaiaren arro hidrologiko osoa: «Lilienthalek[17] dioenez, lehen esperimentua da Amerikaren historian "lurra, ura, basoak, mineralak, nekazaritza, industria eta gizakia batera kontuan hartzen dituena, bata besteari josten"» (Sica, 1981: 692). Gaur egun, gainera, TVA AEBko energia-enpresa publikorik handiena da, baita elektrizitate-ekoizle handienetakoa ere. Nabarmentzekoa da TVAren jarduera ez dela Tennessee estatuaren azalera administratibora mugatzen: ibaiaren arro osoa antolatzeko eskumena duenez, Virginia, Ipar Carolina, Georgia, Alabama, Kentucky eta Mississippi estatuetako zati batzuk ere barne hartzen ditu. Haren mugak, beraz, geografikoak dira, ez politikoak. Edo, beste era batera esanda, hango —AEBko zona hartako— muga administratiboek ez dute zerikusirik ibaien arro naturalekin.

Antzeko adostasunik eza jazotzen da AEBko beste hainbat estaturen mugetan, inolako zerikusirik ez dutenak errealitate geografikoarekin. Kolonien ondorengo XIX. mendeko Estatu Batuen sorreran gertatu zen bat ez etortze hori. 1818an zedarritutako iparraldeko muga 49. paraleloan ezarri zuten zehazki, mendebaldeko itsasertzarekiko paralelo doan Mendi Harritsuak mendilerroaren kontra; berdin gertatzen da mendebaldeko ondorengo beste hainbat estaturen mugekin (ikus 4. irudia): zenbait muga 37. paraleloan ezarri zituzten (Kansas eta Oklahoma arteko muga, Colorado eta Mexiko Berria artekoa, Utah eta Arizona artekoa), eta beste zenbait, ordea, 42. paraleloan (Idaho, Utah eta Nevada arteko muga, eta Oregon, Nevada eta Kalifornia artekoa). Argi dago muga horiek ez zirela *in situ* adostu, baizik eta bulegoko negoziazio-mahai batean.

16. Ikus lorategi-hirien mugimenduaren manifestu seminala: Howard, E. (1902): *Garden Cities of To-morrow*, Swan Sonnenschein & Co., Londres [1. argit. ISBN gabe]. Hemen eskuragai: <http://archive.org/details/ gardencitiestom00howagoog> [kontsulta: 2012-8-22]. Espainierarako itzulpena: Aymonino, 1978: 131-213.

17. 1933an sortu zutenean TVAk hiru zuzendari zituen. David E. Lilienthal (1899-1981) horietako bat izan zen.



3. irudia. AEBko Tennessee bailarako urtegi berrien eraikuntza 1939an. Goian, sekzioa; behean, oinplanoa[18]**.**



4. irudia. AEBko banaketa administratiboen —marra nagusiki zuzenez— eta zatiketa hidrologiko garrantzitsuenen gainjartzea[19]**.**

18. Irudiaren jatorria: AEBko legebiltzarreko liburutegia.
19. Irudiaren jatorria: AEBko Nazio Atlasa.

Europan gutxiago jazotzen dira horren artifizialak diren banaketa administratiboak. Hala ere, urrutira jo gabe, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldea antolatzeko Eusko Jaurlaritzak 1997an mugatu zituen udalerriz gaindiko hamabost area funtzionalek (EAEko Administrazioa, 1997: 298-306) hainbat desegokitasun geografiko dituzte. Gipuzkoako sei area funtzionalek, esate baterako, ez diete jarraitzen sei bailara nagusien —Artibai eta Altzania bailarak alde batera utzita, zatirik handienak gipuzkoar herrialdetik kanpo dituztelako— muga berdinei. Badirudi azalera antzeko esparruak egiteko helburua ezaugarri fisikoen gainetik ezarri zela (ikus 5. irudia), 1834an gauzatutako barruti judizialen banaketa aski arbitrarioarekin jazo bezala. Horrela, deigarria da Legazpiren kasua, adibidez, zeina Urola bailarako udalerria izanik, batetik, zati handiena Deba bailaran duen Bergarako barruti judizialean dagoen, eta, bestetik, zati handiena Oria bailaran duen Goierriko area funtzionalean. Hortaz, Urola bailaran egindako hirigintza-delitu bat Deba bailaran epaitua izatea gerta daiteke, Oria bailarako zati bat bereziki antolatzeko idatzitako plan bat ez betetzeagatik. Horra geografia-logikari ez jarraitzeak —bailaren osotasuna apurtzeak— dakartzan paradoxak.

5. irudia. Gipuzkoako muga administratiboen, geografikoen eta urbanistikoen arteko bat ez etortzea. Goian ezkerrean, herrialdea; goian eskuinean, zortzi bailarak; behean ezkerrean, sei area funtzionalak; behean eskuinean, hiru geruzen gainjartzea[20].

20. Irudiaren jatorria: egilearena.

Era bertsuan, Euskal Herriko egiazko iparraldea eta hegoaldea ez daude Espainiak eta Frantziak 1856an adostutako muga artifizial batek bananduta[21]. Euskal Herriko benetako muga bi ur-isurialdeen arteko banalerroa da, mendebaldetik ekialdera hurrengo mendilerro nagusiek osatuta dagoena: Gorobel, Gibijo, Gorbeia, Anboto, Elgea, Aizkorri, Aralar, Saioa, Irati eta Abodi. Muga horrek isurialde kantauriarra —benetako iparraldea— eta mediterraneoa —benetako hegoaldea— banatzen ditu, Euskal Herriko bi unitate geografiko nagusiak[22]. Isurialde mediterraneoa, halaber, bi azpizati nabarmenetan bana daiteke: erdialdeko goi-ordokiak eta hegoaldea. Hau guztiau erabat erlazionatuta dago ohiko hirigintza eta lurralde-antolakuntzarekin, zeren eta, Julio Caro Baroja antropologo eta historialariak 1949an ohartarazi bezala, hiru unitate geografiko nagusi horiekin batera, hiru herri-finkamendu mota ezberdin garatu ziren Euskal Herrian: baserriz osatutako auzo barreiatuak isurialde kantauriarrean, herri txiki eta gertuak goi-ordokietan —Arabako Lautadan zein Iruñerrian—, eta herri handi eta urrunak hegoaldean (ikus 6. irudia).



6. irudia. Euskal Herriko orografiaren araberako hiru giza finkamendu motak. Goian, oinplanoa; behean, sekzioa[23].

21. Muga administratibo ofiziala Espainiako Elisabet II.a Borboikoa erreginak eta Frantziako Napoleon III.a enperadoreak adostu zuten, 1856ko abenduaren 2an sinatutako Baionako Itunean. Espainian errege-dekretu batek berretsi zuen ituna: Estatu Ministerioa (1857): "Real Decreto", *Gaceta de Madrid*, **1.704** [1857/09/04], hemen eskuragai: <http://www.boe.es/datos/pdfs/BOE/1857/1704/A00001-00001.pdf> [kontsulta: 2012-8-22].

22. Euskal Herriko iparraldearen eta hegoaldearen arteko ohiko zatiketari dagokionez, gainera, gogorarazi beharra dago Bizkaia ez dagoela Zuberoa baino hegorago.

23. Irudiaren jatorria: Caro Baroja, 2000: 46.

Halaber, XX. mendera arte, garraio-azpiegitura handiak ere topografiarekin derrigorrean uztartu behar ziren, baliabide teknikoak egungoak ez zirelako. Bordele eta Astorga lotzen zituen *iter XXXIV* erromatar galtzada —*Ab Asturica Burdigalam* ere deitua—, Euskal Herria zeharkatzen zuena, esaterako, korridore naturalez maisuki baliatu zen. Ez da harritzekoa, zentzu horretan, Nafarroako Iruñea eta Arabako Iruña —Beleia[24]— lotzen zituen bide horrek Arakil ibaiak sortutako bailara estuari, Sakanari, probetxu atera izana. Korridore natural beraz baliatuko zen ondorengo Erdi Aroko Donejakue bidearen adar bat, baita berrikiago ezarritako hainbat garraiobide ere, zaldiz, trenez edo autoz ibiliak izateko taxutuak (ikus 7. irudia).



7. irudia. Goian, Euskal Herriko galtzada erromatarrak (nagusiak, lerro jarraituaz)[25]. Behean, zalditeri liberalak erabiltzeko ibilbidea Gasteiz eta Iruñea artean (1873-1875)[26].

24. Sarritan *Veleia* idatzi bada ere, v letraz, *Beleia* gisa agertzen da Antoninoren *Ibilbidea*n. Blázquez, A. (1892): "Nuevo estudio sobre el 'Itinerario' de Antonino", *Boletín de la Real Academia de la Historia*, **21**.

25. Irudiaren jatorria: Caro Baroja, 2000: 56.

26. Planoaren egileak: Arlaban 24 zalditeriko Felipe Ramos kapitaina eta Juan Merino lehen tenientea. Irudiaren jatorria: Carrascal Minguela, J. (koord.) (2003): *Cartografía antigua del Ayuntamiento de Vitoria* (1617-1950), Gasteizko Udala, Gasteiz [1. argit. ISBN 84-95577-36-4], 254. or. (egileak eraldatua).

XX. mendetik aurrera, ordea, lurralde-errealitate fisikoaren eta garraiobide-azpiegituren arteko lotura zuzena gero eta gehiago desegin da, esan bezala. Azken urteotan eraiki diren autobideak, autobiak, saihesbideen saihesbideak eta abiadura handiko trenbideak erabat aldendu dira lurraldearen ohiko ulerkeratik. Azkarrago joan ahal izateko gero eta biraketa-erradio handiagoko bideak ezarri dira nonahi, bailaren logika geografikoa guztiz apurtuz[27]. Eta, ondorioz, azken hamarkadotan eraiki diren hiri-zati berriak —parke teknologikoak, industrialdeak, merkataritza-guneak, lohiriak— komunikazio-ardatz handi horien menpe bereziki antolatu dira. Hein handi batean, komunikazio-fluxuen ulerkera berriak gainditu egin du lurraldearen ohiko ulerkera, mugikortasunak —*mugikorkeriak*— lurralde-antolakuntzaren diziplinaren protagonismo ia osoa erakarriz.

Lurralde-antolakuntza, ordea, ez da soilik mugikortasunaz arduratzen. Lurraldearen kudeaketa arduratsua bere gain hartzen duen jakintza-arlo zabala izanik, hirigintzaz, geografiaz, soziologiaz, ekologiaz eta ekonomiaz ere arduratzen da, besteak beste. «Lurraldearen Antolamendua diogunean, lurraldearekin zerikusia duen oro ekartzen da hizpidera» (Lasagabaster, 2008: 3). Hala ere, arlo horien artean ekonomia gailendu ohi da, bereziki herrialde- edo estatu-eskalari dagokionez, jardueren banaketa espaziala oso garrantzitsua bada ere[28]. Europako Kontseiluak, hain zuzen, horrela definitu du lurralde-antolakuntza *Europako lurralde-antolakuntzaren gutuna* delakoan:

> Lurraldearen antolakuntzak adierazpen espaziala ematen die gizartearen ekonomia-, gizarte-, kultura- eta ekologia-politikei. Hiru gauza da aldi berean: diziplina zientifiko bat, teknika administratibo bat eta politika bat, diziplina anitzekoa eta ikuspegi globalekoa, zeinak helburu dituen eskualdeen garapen orekatua eta estrategia orokor jakin baten araberako espazio-antolakuntza fisikoa[29].

Aipatutako estrategia orokor jakin horren funtsak bizi-kalitatea hobetzea beharko luke izan —ohiko errenta-mailaren ikuspegi ekonomizistaren aurrean—, bistan da, ingurumena eta natura-baliabideak kolokan jarri gabe. Lurralde-antolakuntza, hortaz, tresna publiko bat da, zientzian, administrazioan eta politikan bermatzen dena, esandako hiru helburu nagusiak lortzeko: garapen orekatua lagundu, bizi-kalitatea hobetu eta ingurumena babestu.

---

27. Ikus, adibidez, nola ezarri zen 1970eko hamarkadan AP-8 autobidea, Gipuzkoako bailaren norabideari elkarzut, edo nola zeharkatuko duen Urola bailara —Zumarraga-Urretxuren altueran— azken urteotan eraikitzen ari den abiadura handiko trenbideak.

28. Ingelesez, hain zuzen ere, lurralde-plangintza fisiko-espazialari *Spatial Planning* esaten zaio. *Regional Planning* delakoa, ordea, eskualde-plangintzaren ikuspegi sozioekonomikoagoa lantzeko erabiltzen da. *Aménagement du territoire* frantsesak, bestalde, bi ikuspegiak hartu ohi ditu barne.

29. Egilearen itzulpena. Europako Kontseilua. Lurralde Antolakuntzako Ministroen Komitea (1984): "R (84) 2 zenbakidun gomendioaren eranskina: Europako lurralde-antolakuntzaren gutuna", hemen eskuragai: <https://wcd.coe.int/ViewDoc.jsp?Ref=Rec%2884%292&Language=lanEnglish&Ver=original&Site=CM&BackColorInternet=C3C3C3&BackColorIntranet=EDB021&BackColorLogged=F5D383> [kontsulta: 2012-8-28].

Europan, hain zuzen ere, asmo horrekin idatzi zen 1999an *European Spatial Development Perspective* (ESDP) edo Europar Lurralde Estrategia izeneko agiria (Europako Batzordea, 1999). Loteslea ez bada ere —Europar Batasunak ez baitu lurraldea antolatzeko eskumenik—, eragin handia eduki du Europako herrialdeen lurralde-antolakuntzarako politiketan. ESDPk, gainera, Europako lurralde-kohesioa —herrialdeen arteko nolabaiteko oreka sozioekonomikoa— lortzeko bi tresna ekonomiko garrantzitsu zehaztu zituen: egitura-funtsak eta kohesio-funtsak[30]. Horien onuradun nagusien artean Espainia, Grezia, Irlanda eta Portugal izan dira[31], hain zuzen ere PIGS sigla peioratiboaz izendatutako herrialde-taldea[32].

Alabaina, Europako Batzordearen jarduera-eremua lurraldea antolatzeko ez da mugatu banaketa fisiko-espazialera, Europar Lurralde Estrategiaren bidez, edo laguntza ekonomikoetara, orekarako funtsen bidez. Ingurumenarekin eta bioaniztasunarekin erlazionatutako hainbat lege —zuzentarau— sektorial ere indarrean jarri ditu, esaterako, Natura 2000 Sarea delako babes-eremu garrantzitsua sorrarazi dutenak[33].

Azkenik, arestian aipatutako 1983ko Europako lurralde-antolakuntzaren gutunak dioena ozen eta argi gogorarazi beharra dago, maizegi ahazten baita begirada laburreko politikaren ondorioz: «Lurralde-antolakuntzak beharrezkoa du ikuspegi demokratikoa, globala, funtzionala eta etorkizunekoa»[34].

2.2. HIRI-SAREAK

Hiria zabalagoa den eskualde batean txertatuta dagoela ulertuta, ia beti hautemango da hiri multzo handiago baten zatitzat. Alegia, isolatuta ez daudenez, hiriek hiri-sistemak sortu ohi dituzte, zeinetan hirien artean erlazio ageriak —eta ez hain ageriak— sortzen diren. Hiri-sare horietako finkamendu guztiek, ordea, ez dute garrantzi bera: hiri-sistema orok du zentro bat edo batzuk —demografikoki, ekonomikoki, kulturalki…— erakargarriagoak eta, beraz, arrakastatsuagoak direnak.

30. Egitura-funts nagusiak lau hauek izan dira: eskualde-garapenerako Europako funtsa, Europako gizarte-funtsa, nekazaritza bideratu eta bermatzeko Europako funtsa eta arrantza bideratzeko finantza-tresna.

31. Fuentes Losada, L. (2004): "Ampliación y debate sobre los fondos estructurales europeos", in Hainbat egile (2004), *I seminario sobre control de gasto público en el ámbito del ministerio de defensa*, Dykinson, Madril [1. argit. ISBN 84-9772-365-1], 113. or.

32. Portugal, Irlanda, Grezia eta Espainia —*Spain*, ingelesez— herrialdeen siglek osatzen dute PIGS, ingelesez *txerriak* ere esan nahi duena. Askotan —2011tik aurrera, bereziki— Italia ere sartu ohi da, PIIGS osatuz.

33. Natura 2000 Sarea 92/43/EEE Zuzentarauak sortu zuen. Hemen eskuragai: <http://eur-lex.europa.eu/ LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:1992:206:0007:0050:EN:PDF> [kontsulta: 2012-8-28].

34. Egilearen itzulpena. Europako Kontseilua. Lurralde Antolakuntzako Ministroen Komitea (1984), *op. cit.*



8. irudia. Alemaniako hegoaldeko hiri-sarearen zazpi mailako hierarkia, Christallerren arabera[35].

Hiri-sareak hierarkizatzen dituen hirien erakargarritasun hori zientifikoki aztertu zuen Walter Christaller geografoak XX. mendearen hasieran, ekonomiaren ikuspuntu kuantitatibotik. Jardueren kokapen egokienei buruz teorizatu zuten beste alemaniar batzuen[36] lanaren ildoari jarraituz, Christallerrek bere Erdigunearen Teoria argitaratu zuen 1933an[37], zeinak argi utzi baitzuen hiriak isolatuta aztertu barik, sistema handiagoen partetzat jo behar direla. Erdigunearen Teoriak esan zuen lurralde ideal isotropiko batean hiriak merkatu-eremuen arabera jaio, hazi eta hiltzen direla. Hau da, hirien erakargarritasuna datzala haiek eskain ditzaketen zerbitzu-mailan, eta, ondorioz, eskaintza horren araberakoa dela hiri-sistema batean ezartzen den hierarkia: zerbitzu garrantzitsuenak eskaintzen dituen hiriak erdigunea hartzen —irabazten— du; bigarren mailako zerbitzuak eskaintzen dituenak, bigarren lerroko gunea, eta abar (zazpigarren maila arte; ikus 8. irudia).

Alegia, herri txiki-txiki batean tabernarik izan daiteke, baina farmazia bat aurkitzeko, zerbitzu espezializatuagoa den heinean, herri handixeagora lekualdatu beharko da bertako biztanlea. Herri handixeago horretan, ordea, taberna eta farmazia egonagatik, agian ez dago zinemarik, zerbitzu bereziagoa delako; zinema bat aurkitzeko hiri ertainera jo beharko da, beraz. Eta, hiri ertainean, era bertsuan,

35. Irudiaren jatorria: Christaller, W. (1966): *Central places in Southern Germany, op. cit.,* 4. irudia.

36. Johann Heinrich von Thünen eta Alfred Weber, bereziki. Von Thünenek landa-jardueren kokapen egokienei buruz teorizatu zuen eta Weberrek, ordea, manufakturen kokalekuez.

37. Christaller, W. (1966): *Central places in Southern Germany*, *op. cit.*

zinema egonagatik, agian ez dago ospitalerik, aparteko zerbitzua delako, eta, beraz, hiri handira joan beharko da ebakuntza garrantzitsu bat egiteko. Finkamenduen hierarkian, hortaz, hiri handi horrek erdigunea hartuko du, lehen mailako zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituelako, merkatu-eremu handiagoa bilduz, hots, eragin-eremu zabalagoa jasoz. Esandako hiri txikiak, berriz, bigarren mailako erdigunea hartuko du; herri handiak, hirugarren mailakoa, eta, herri txikiak, azkenik, laugarrenekoa.

Alabaina, azken hamarkadotako garraiobideen hobekuntzak hiri handien erdiguneen xurgatze-efektua biderkatu egin du, maila ertaineko finkamenduen kalterako: herri txikietako biztanleak gero eta gutxiago doaz maila ertaineko eskualdeko hiriburura, maila goreneko herrialdeko hiriburua inoiz baino eskuragarriago —gertuago— dagoelako. Hiri handiek, hortaz, inoiz baino biztanle eta jarduera gehiago erakartzen dituzte, zulo beltzen moduan. Hainbeste hazi dira, non haien ohiko izaera trinko eta jarraitua aspaldi desegin den. Egungo hiri handiek erdigune bat baino gehiago dituzte, hortaz. Polinuklearrak dira. Eskualde-mailako hiri-sistema handiago baten parte izateaz gain, haiek berak dira sistemak. Sistemak, sistemen barne, elkarrekin erlazionatuta. Hain zuzen ere, Brian J. L. Berry geografoak Christallerren ideiak sistemen teoriarekin[38] aberastu zituen 1960ko hamarkadan, hiri-sareen erlazio-ezaugarriak oraindik gehiago azpimarratuz:

> Sistema bat da objektu multzo bat (adibidez, hiri-erdiguneak), objektu horien ezaugarriak (biztanleria, dendak, enpresak, trafikoa), objektu horien arteko erlazioak (erdiguneen kokalekuak), ezaugarri horien arteko erlazioak, eta objektu eta ezaugarri horien arteko erlazioak (erdiguneen hierarkia)[39].

Zentro anitzeko sistemen izaera hori nabarmena da egungo hiri-aglomerazioetan, hots, gune metropolitar handietan: Alemaniako Ruhr bailara eta Herbehereetako Randstad konurbazioa (bakoitza 7,5 milioi biztanlekoa), São Pauloko hiri-aglomerazioa (20 milioi biztanle), Txinako Perla ibaiaren delta (120 milioi biztanle 10 hiri erraldoitan banatuta; ikus 9. irudia)…

Eta esan bezala, globalizazioa hasi zenetik, gainera, metropoli polinuklear horiek oraindik handiagoa den sistema baten parte ere badira: planeta osoa. Garraiobideen hobekuntzak, Internetek eta hark biderkatutako globalizazioak Christallerren teoriaren eskala nabarmenki eraldatu baitute. Orain, planeta-mailako hiri-nodoak ere badaude, ohiko hiri globalek[40] osatuta (New York, Londres, Paris, Tokio, Hong Kong…), bai eta hiri mordoxka deszentralizatu eta espezializatu batzuek osatuta

38. Sistemen teoriak multzo bateko klase ugariko osagaien ezaugarri komunak azpimarratzen ditu. Izena Ludwig von Bertalanffy biologoak erabili zuen lehendabizi 1950ean.

39. Egilearen itzulpena. Berry, Brian J. L. (1964): “Cities as system within systems of cities”, cit. in Capel, 2003: 40.

40. Mundu-mailako gaietan (sozioekonomikoa, kultura, politika…) eragina duten hiriak dira hiri globalak. Izena Saskia Sassen soziologoak erabili zuen lehen aldiz 1991n (Sassen, 2001).

ere: Silicon Valley (Kalifornia, AEB), Baden-Württemberg (Alemaniako hegomendebaldea), *Hirugarren Italia* delakoa (Italiako Emilia-Romagna, Markak, Toskana eta Veneto eskualdeak)… Mundu-hiri eta -eskualde horiek ekoizpenaren industria zaharra kostu baxuagoko beste herrialde batzuetara deskokatu dute, haien ekonomia laugarren sektoreko ezagutzaren industria berrian oinarritzeko. Hortaz, era guztietako informazioa dute oinarri hiri globalek (Vegara eta De las Rivas, 2004: 245-265)[41].



9. irudia. Txinako Perla ibaiaren delta (lauki-sareek 10 km-ko zatiketak dituzte)[42].

Azkenik, nabarmena den gauza bat, hiri-sareei dagokienez: Lurra planeta gero eta urbanizatuago dagoela, hau da, sare-globalaren hutsune urbanizatugabeak gero eta murritzagoak direla. Eta planeta osoa erabat beteko duen hiri bakarra oso urrun ikusten bada ere —zientzia-fikzioak ideia horrekin maiz espekulatu du[43]—, dagoeneko badira gune batzuk zeinetan hiri-lurzoruaren ehuneko altua nahiko kezkagarria den. Euskal Herrian, hain zuzen, hainbat udalerritako hiri-luzoruaren

41. Ideia horri jarraiki, hain zuzen, eraiki ziren Euskal Herriko parke teknologikoak XX. mendearen azken hamabost urteetan, industria-birmoldaketa gertatu eta gero lurraldearen ekonomia ikerketa, garapen eta berrikuntzaren laugarren sektore berrian murgiltzeko.

42. Irudiaren jatorria: Global Metropolitan Observatory (Ingurune Diseinu Eskola, Berkeley, Kaliforniako Unibertsitatea), Landsat satelitearen argazki batean oinarrituta. Hemen eskuragai: <http://www.ced.berkeley.edu/research/ metropolitanlandscapes/?page_id=115> [kontsulta: 2012-10-02].

43. Esaterako, Trantor hiri-planeta, Isaac Asimoven hainbat eleberritan agertzen dena, edo, Coruscant, Star Wars filme-sagan agertzen den planeta erabat eraikia.

azalera nabarmen altua da: 2011n, 17 udalerri zeuden EAEn, Eustaten arabera, haien azaleraren % 15 baino gehiago urbano gisa sailkatuta zutenak. Santurtzik, esaterako, azalera osoaren % 56 zuen urbanoa, eta, Sestaok, % 71!

Zientzia-fikzioko sortzaileek ez ezik, idazleek eta hirigileek ere amestu dute planeta-hiri jarraitu horrekin. Italo Calvino idazleak Pentesilea deitu zion irteerarik gabeko hiri horri (Calvino, 2005: 164-165). Kevin Lynch hirigileak, ordea, Pantopolis esan zion, eta, Konstantinos Doxiadis arkitekto eta hirigileak, berriz, Ekumenopolis (ikus 10. irudia). «Desagertuko al da hiria, ala planeta osoa giza erlauntz erraldoi bat bihurtuko al da?» galdetu zuen 1961ean, zentzu berean, Mumfordek[44]. Dena den, gero eta gehiago urbanizatzen ari garen mundu honek ez du hiri erabat jarraitu baten tankera, baizik eta hiri barreiatu batena, zeinak gero eta muga lausoagoak eta hautemateko zailagoak dituen. Hori dela-eta, postmetropoli terminoa sortu da AEBko Los Angeles bezalako metropolien ondorengo sakabanatu eta zabala izendatzeko. Edward Soja geografoak azaldu ditu postmetropolien ezaugarriak: azkar moldatzen dira merkatu librearen eskakizunetara; globalizazio-fenomenoaren erakusgarri dira; haien kanpoko aldirietan jasaten dituzte hazkunderik handienak, bertan erdigune berriak sortzen direla; polo zatikatuen edo ghettoen bidez daude segregatuta; artxipelago etenak dira, zeinetan auzo itxiak agertzen diren; eta simulazioaren erakusgarri dira, Disney Worlden modukoak (Martín, 2004: 91-98). Biziki konplexuak dira, inondik ere, egungo hiri-sarerik handienak.

10. irudia. XXI. mendearen amaierako Ekumenopolis global eta saretua, Doxiadis hirigileak 1967an iragarri bezala[45].

44. Egilearen itzulpena (Mumford, 2012: 9).

45. Irudiaren jatorria: egilearen eskema, Konstantinos Doxiadisen marrazki bat oinarri (1968).

2.3. HIRIEN KOKALEKUAK

Hainbat arrazoi egon daitezke lurralde zabal batean toki jakin bat aukeratzeko giza finkamendu bat ezartze aldera. Alabaina, ia kasu guztietan baliatu nahi izaten da lekuan bertan aurretik existitzen den aberastasun-iturriren bat, bai naturala (ura, ehiza, lehengaiak, lurraren emankortasuna, altuera handiagoak ematen duen kontrola) bai gizakiak sortutakoa (bide bat —areago bidegurutze bat—, eraikin esanguratsu bat, muga administratibo eta estrategiko bat). Eta, jakina, norbaiten edo norbaitzuen borondatea —maiz politikoa edo erlijiozkoa—, bertan zerbait egonkor eraikitzen hasteko, partzela eraikigarriak eta espazio publikoak bananduz (Esteban, 2001: 22-23).

Caro Barojaren ustez, hiru finkamendu edo herri mota bereizten dira haien kokalekuaren arabera (2000: 30):

a) Ibai edo erreka baten gaineko maldan edo mendi-mazelan kokatutako herriak.
b) Ibai edo erreka batetik gertuko muinoan edo goi-ordokian kokatutakoak.
c) Ibai edo erreka batetik gertuko behe-ibar edo lautada zabalagoan kokatutakoak.

Euskal Herriko herri gehienak hiru mota horietan sailka daitezke, zeren eta, itsasoaren bazterrean kokatu direnak ere —Caro Barojak zehazki aipatzen ez duen egoera—, ibai baten ahoaren alboan baitaude ia kasu guztietan. Interesgarria da Caroren sailkapena, soilik kokalekuaren araberako sailkapena osatzen duelako. Beste aditu batzuek, berriz, kokalekua eta funtzioa nahastu dituzte herri motak sailkatzeko orduan. Spiro Kostof historialariak, esaterako, lehen aipatutako kokaleku klaseeekin batera —ñabardura batzuekin—, *hiria defentsa-toki gisa* ere aipatu du, topografiaren garrantzia azaltzerakoan (1991: 53-57). Hala ere, komeni da kokalekuak eta funtzioak bereiztea, gauzak argi uzte aldera, erlazio handia eduki arren.

Erdi Aroan, non Europako hiri asko sortu eta gehienak egonkortu baitziren, bi funtzio nagusi zituzten hiriek: militarra eta komertziala (Gómez Piñeiro, 2012b: 143). Batetik, funtzio militarra hiria bera babesteko izan zitekeen —hiri gotortuak edo gaztelu-hiriak—, lurraldea defendatzeko —mugaldeko hiriak—, edo biak batera ere jazo zitezkeen. Eta, bestetik, funtzio komertziala, egun bezala, salerosketan oinarritzen zen; horretarako funtsezkoak ziren artisauen etxabeetan zeuden tailerrak, ondasunak ekoizteko, eta, jakina, feriak eta azokak —merkatu-hiri hutsak ere sortu ziren—, trukeak gauzatzeko. Erdi Aroan «hiri osoa zen merkatua»[46].

Esan bezala, bi funtzioak —militarra zein komertziala— erabat erlazionatuta zeuden hirien kokalekuekin. Hiri militarren kokalekurik normalenak muinoak ziren, garaiera-ezberdintasunak eskainitako kontrolaz baliatzeko. Hiri komertzialak, ordea,

46. Saalman, H. (1988): *Medieval Cities,* George Braziller, New York, cit. in Morris, 2010: 13.

lehengaien ekoizpen-tokietatik gertu egotea zen ohikoena, baina haietatik urrun ere sor zitezkeen, bestelako aldeko faktoreak egonez gero, bidegurutze baten existentzia, kasu.

Gasteizen kokalekuari dagokionez, esaterako, aipatutako ezaugarri gehienak jazo ziren: funtzio militar argiarekin finkatu zen bost hektareako muinotxo baten gainean, Arabako lautadako inguruko lurren mailatik 25 metro gorago; ibai batetik gertu, bi kilometro eta erdira Zadorra baitzegoen, eta bi erreka txikik inguratuta (Zapardiel, mendebaldetik, eta Errekatxiki, ekialdetik); eta funtzio komertziala ere bermatua zuen, bide garrantzitsu baten alboan baitzegoen, Donejakue bidearen barnealdeko adarra, antzina *iter XXXIV* erromatar galtzada izandakoa. Jatorrizko hiribilduaren forma luzangak ere —380 x 130 m inguru—, gainera, zerikusi zuzena du kokalekuarenarekin; eta berdina gertatzen da XIII. mendean egindako bi handipenekin, muinoaren sestra-kurbei —hiru dimentsiotan— erabat moldatzen zaizkienak (ikus 11. irudia).



11. irudia. Gasteizen hiri-finkamendua 1181ean, 1202an eta 1256an (López de Lucio, 1994: 37).

Horregatik da hain garrantzitsua lekuaren fisikotasunaren azterketa egokia: hirien kokalekua zehazteko ezaugarri erabakigarria delako, hazkunde organikoa zein planifikatua duten finkamenduetan. Ez da harritzekoa, hortaz, Geddesek aspaldi esan izana plangintzak hasi behar duela eskualdearen baliabideen azterketatik (Hall, 1996: 149). Haren ustez, plan orok eduki behar du zimendu gisa mundu errealeko informazioan oinarrituriko azterketa sakon bat (*survey* delakoa). Eta atariko analisi horren zati garrantzitsu bat, esan bezala, tokiko topografiaren azterketak bete beharko luke.

Gaur egun eskura dugun kartografia zehatzak asko errazten du azterketaren aurreneko fase hori. Sestra-kurbek eta kotadun puntu altimetrikoek doitasunez

adierazten dizkigute lurraldearen fisikotasunaren nondik norakoak. Hala ere, erliebearen adierazpide zaharragoak eta intuitiboagoak beharrezkoak dira oraindik ere, bereziki, itzalak eskuz marrazteko antzinako metodoa. Egia da hegaldien eta sateliteen bidezko ortoargazkiek eta, batez ere, ordenagailuen bidez lortutako lurralde-eredu digitalek —DTM, ingelesez— emaitza doi-doia eta azkarra ematen digutela (ikus 12. irudia), baina erraztasun eta automatikotasun horrek azterketaren intentsitatea ere jaitsaraz dezake.



12. irudia. Gipuzkoako plano hipsometrikoa (goian, ezkerrean), erliebeduna (goian, eskuinean) eta biak batera gainjarrita adierazten dituena (behean). Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Eskuz egindako marrazketa topografiko historikoek ez dute egungo GIS (Informazio Geografikorako Sistema) direlako programa informatikoen zehaztasuna eskaintzen, egia, baina askoz ere adierazgarriagoak dira maiz. Esaterako, XIX. mendean hedatutako lerro normalak marratzeko teknikak, gehieneko maldak adierazten zituena —batzuetan itzalen arabera ere nabarmenduta—, emaitza aski egokiak eman zituen. Aipatutako itzalak eskuz marrazteko metodoak ere oso emaitza adierazgarriak ematen ditu, planoaren egileak trebetasun nahikoa badu

bai marrazketan bai topografiaren irakurketan. Teknika artistiko horretan hiru dimentsioko efektua irudikatzen da argilunen bidez, eguzkiak ipar-mendebaldetik eta 45º-ko okertasunarekin joko balu bezala, Mendebaldeko ohiturak agintzen duenez. Helburua, jakina, lurraldearen erliebea errazago irakurtzea da, aurretik dagoena zuzen aztertzeko edo hiri-handipenen eta finkamendu berrien kokalekuak ere egokiro erabakitzeko.

2.4. LURRALDEAREN ERAIKUNTZA

Urbanizatzeko prozesuaren sinonimotzat jo daiteke *lurraldearen eraikuntza* esamoldea, modu orokorrean. Hala ere, landa-lurzoruan edo lurzoru urbanizaezinean garatzen diren eraikuntza-prozesuei buruz aritzeko erabiliko da hemen, bereziki. Landa-eremuan ere eraikitzen baita. Eta lurraldearen eraikuntzaz aritzerakoan, lehenik, paisaia izeneko kontzeptu lausoarekin egiten dugu topo. Geografo ugarirentzat ia-ia geografia osoaren sinonimo da, Gómez Piñeiroren hitzetan kasu: «(…) litosfera, hidrosfera, atmosfera eta biosfera biltzen ditu paisaiaren esferak edo geografiaren esferak» (2012a: 31). Adiera zabal horren arabera, gure Lurreko edozein espazio zati, edozein lurralde puska litzateke paisaia, beraz, naturaltasun- edo artifizialtasun-maila gorabehera. Paisaia zabal hori lau osagaitan banatu ohi da: *ager* delakoa —espazio laboratua—, *saltus* delakoa —espazio landugabea—, habitata —espazio jendeztatua— eta bideak.

Beste aditu batzuek, ordea, ñabardura garrantzitsu bat egiten dute, arestiko definizioari pertzepzioaren ezaugarria gehituz (Maderuelo, 2005). Horixe erantsi zuen 2000n Europar Kontseiluak, esaterako, Paisaiaren Europar Hitzarmenaren lehen artikuluan bertan: «Paisaia da jendarteak hautematen duen lurraldearen edozein zati, zeina natura- eta giza ezaugarrien elkarrekintzaren emaitza den»[47]. Hauteman egiten duen subjektuarengan datza ezberdintasuna, hortaz, paisaiaren subjektibotasuna azaleratuz. Paisaia, nolabait esateko, ez da «hor kanpoan dagoena», baizik eta «hor kanpoan ikusten —entzuten, usaintzen— duguna». Errealitatea deskribatzeko eraikuntza mentala da paisaia, beraz. Geografoen «lurralde puska» soila baino gehiago, lur puska horretaz gizakiok dugun pertzepzio subjektiboa.

Paisaia, esan gabe doa, hiritarrok edo kalekumeok asmatutako kontzeptu erromantiko eta artistikoa da, XIX. mendeko margolaritzan jatorri nagusia duena. Zentzu horretan, baserritar batentzat mendia ez da paisaia, baizik eta lantokia. Horretan ere bereizten dira *hiritar menderatzaile*aren eta *landatar agindupeko*aren begiradak, Leonardo Benevolo arkitekto historialariaren bereizketa klasikoari jarraikiz (1981: 18). *Homo Aestheticus* delakoaren begirada estetizatzaileak du paisaia aurkitzen. Edozein tokitan. Baita baserritarrek inolako asmo estetikorekin egindako eraikuntzetan ere: abere-larreak zedarritzeko harresiak, baserriaren jabaria mugatzeko sarobeak, kortak, magaletan lautadak egokitzeko mailadiak eta zapaldak,

47. Egilearen itzulpena. Jatorrizkoa, hemen eskuragai: <http://conventions.coe.int/Treaty/en/Treaties/Html/ 176.htm> [kontsulta: 2012-10-25].

negutegiak… Logikoa den moduan, nekazariak lurraldearekiko duen ikuskerak erabilgarritasuna baitu helburu. Produkzioa. Hala ere, aipatutako landa-eraikuntza praktiko horien gaineko berrirakurketa aberasgarriak —eta ez soilik estetikaren alorrean erabiltzekoak— eskura ditzake arkitekto eta hirigile garaikideak.

Saroiak, sarobeak edo kortak aipa daitezke lehenik eta behin, antzinako larre biribilak, harrespil megalitikoen ondorengo baliagarritzat jo daitezkeenak. Euskal Herriko eta inguru gertuetako basoetan sortutako zirkulu-formako soilgune horiek abeltzaintzarako erabili izan dira orain dela gutxi arte. Horietako asko, hain zuzen, oraindik daude ikusgai (ikus 13. irudia). Biribilaren barnean ola edo etxola egon ohi zen, eta, erdi-erdian, artamugarria edo hausterretza: suaren ikurra. Gutxi ikertu da haien inguruan, baina argi dago ez zirela artzainek eraikitako esparru hutsak: ez zituzten modu isolatuan egiten, baizik eta multzoka. Beraz, lurraldea antolatzeko tokiko egiazko partzelatze-sistema oso baten isla ziren saroiak (Zaldua, 2006). Erromatarrak lurrak kolonizatzeko 50 hektareako azalerako zenturia ortogonalaz baliatu ziren bezala, Iberiar penintsulako iparraldeko nekazariek 2 eta 34 ha bitarteko biribila hautatu zuten beren jabegoa sistematikoki neurtzeko eta zedarritzeko.

13. irudia. Dima (Bizkaia) aldeko partzela-planoa (iparra, ezkerrean). Bertan, 4 eta 5 ha arteko azalerako hamasei bat saroiren jabego-aztarna biribilak ikus daitezke. Iturria: SIGPAC.

Jabegoaren mugatzeaz aritu ondoren lur-azalera lauak lortzeko teknikaz jardun dezakegu bigarrenik, hots, malden geometrizazioaz. Malda handiko baratzeak nekezagoak baitira ereiteko eta uzta biltzeko, nekazariek aspalditik dakiten moduan. Horregatik geometrizatu izan dituzte antzinatik mendi-mazelak, oinarrizko eustorma txikien laguntzaz, handik eta hemendik zapaldak edo mailak sortuz. Nekazari-terraza horiek herrialde ugariren paisaia osatu dute. Mailakatzea hain estrategia ona izan da lur pikoak kolonizatzeko, ezen, nekazaritzaz harago, hiriak ere maldan ezartzeko sistema gisa maiz erabili izan den. Hainbatetan, elkarren ondoan ezarri dira eraikin mailakatuak eta nekazari-terrazak, topografia malkartsuarekin bat egiten duten multzo ederrak sortuz. Inken Machu Pichu, XV. mendekoa, lurraldean ezartzeko sistema horren adibiderik gogoangarriena izan daiteke. Horrelako multzoetan zaila da jakitea zer jarduera izan zen lehena: hirigintza ala nekazaritza?

Etimologiari jarraikiz, nekazaritza eta lurren kolonizazioa erabat uztartuta daudela gogorarazi beharko litzateke hirugarrenik, latinezko *colōnus* terminoak 'nekazari' esan nahi baitzuen. Hain zuzen ere, nekazari mota jakin bat zen kolonoa: lursail bat maizter bezala lantzen zuena. Esaterako, erromatar konkistatzaileen bitarteko garrantzitsuak izan ziren kolonoak —kolono bakoitzari zenturia baten heren bat edo hamarren bat banatzen zitzaion[48]—; horrexegatik, ez da harritzekoa gaur egun ia-ia sinonimo bezala erabiltzea kolono eta konkistatzaile hitzak. Kolonoen erabilera lurralde berriak konkistatzeko, ordea, ez da soilik antzinako kontua. Esandako bi adiera horiek ezin hobeki uztartu ziren, adibidez, XX. mendearen erdialdeko Israel estatuaren sorreran, *kibbutz* eta *moshav* —hebreeraz 'bilkura' eta 'finkamendu', hurrenez hurren— izeneko nekazaritza-komuna sionistetan.

Oso jendetsuak izan ez ziren arren, jabego kolektiboan eta kooperatibismoan oinarritutako bi kolonia mota horiek erabakigarriak suertatu ziren judutar lurralde-antolakuntzaren ikuspuntutik, sozialismoa eta elikagai-subiranotasuna indartzeaz gain, basamortuko lur antzuak pixkanaka emankor bihurtu zituztelako, eta, batez ere, eremu berrien konkistarako tresna ezin eraginkorragoak bilakatu zirelako. Hirigintza-diseinuaren ikuspuntutik, gainera, bereziki interesgarriak dira finkamendu israeldar horietako asko, lorategi-hiri ingelesen trazadura-estiloari jarraikiz planifikatu zirenak (ikus 14. irudia). Gaur egun ia erabat pribatizatu badira ere, Israelen mugen defentsarako baliagarriak dira oraindik —700 bat *kibbutz* eta *moshav* daude[49]—, palestinar azpiratuen eta haien kulturaren kalterako.

Eta, azkenik, nekazariaren eta abeltzainaren garrantzia azpimarratu beharko litzateke sastrakatzearen fenomenoaren aurkako agente gisa; aldarrikapen modura, gainera, haren presentzia gainbeheran baitago. Landa-espazioak duen garrantzi

48. Zenturia hirutan zatitzeko teknikari *conternatio* esaten zitzaion, eta, hamarretan zatitzekoari, ordea, *per decuriae*. Olesti, O. eta Molina, J. (2002): "La *sortitio* y el catastro de *Ilici*", in Hainbat egile (2007): *Acta XII congressus internationalis epigraphiae graecae et latinae*, Institut d'estudis catalans, Bartzelona [ISBN 978-84-7283-921-2], 1.045-1.054.

49, Zehazki, 265 *kibbutz* eta 448 *moshav* zeuden 1986an. Chapin Metz, H; (ed.) (1988): *Israel: A Country Study*, Library of Congress, Washington. Hemen eskuragai: <http://countrystudies.us/israel/57.htm> [kontsulta: 2012-10-30].

kuantitatiboa argi dago: Euskal Autonomia Erkidegoan, esaterako, 7.233 km^2-ko azalera osotik 6.607 km^2 urbanizaezin sailkatuta zeuden 2010ean (Eustat), hots, lurralde osoaren % 91 baino gehiago. Hala ere, nekazaritza eta abeltzaintzarako zorua ez da ailegatzen landa-lurzoru horren % 30era, eta joera, gainerako Europan bezala, beheranzkoa da.

Izan ere, lurralde-antolakuntzari dagozkion erabakiak gehiengo menderatzaileak hartzen ditu, alegia, hirietan bizi diren kalekumeek. Eta hiritarrentzat, gehienetan, landa zera izan ohi da: edo guztiz babestu beharreko eta asteburuetan gozatzeko aisialdi-paisaia; edo azkar-azkar zeharkatu beharreko zerbait, non hiritik gertu nahi ez diren azpiegitura guztiak barreia daitezkeen; edo nahi beste urbaniza daitekeen lurzoru oraindik eraikigabea, hain zuzen ere, José María Aznarren Alderdi Popularrak sustatutako 1998ko Espainiako Lurzoruaren Lege indargabetuak ulertarazi bezala[50].



14. irudia. Migdal landetxearen ondoko finkamendurako hirigintza-plan ez eraikia. Iparraldeko barrutia, Israel. Richard Kauffmann, 1925 inguruan[51].

50. Espainiako Lurzoruaren Lege guztietan eliminazioz sailkatutako lurzoru mota urbanizaezina izan bada ere, 1998ko Legeak, 9. eta 10. artikuluetan, logika hori irauli zuen, eliminazioz lurzoru urbanizagarria sailkatuz. Alegia, babesteko beharrik ez zuen lurzoru guztia —hiri-lurzorua izan ezik, jakina— bihurtu zen urbanizagarri. Hemen eskuragai: <http://www.boe.es/boe/dias/1998/04/14/pdfs/A12296-12304.pdf> [kontsulta: 2012-10-30].

51. Kauffmann, R. (1926): "Planning of Jewish settlements in Palestine", *The Town Planning Review,* XII, 2, 93-116 [ISSN 0041-0020]. 17. irudia. Ikus bedi Parker eta Unwin hirigileek 1904an Ingalaterran diseinatutako Letchworth izeneko lehen lorategi-hiriko erdigunearekin duen antzekotasuna.

Nekazariek eta abeltzainek eraikitzen eta lantzen duten paisaia orok ez du nahitaez kalitate handiagoa eduki behar; hortxe dago, kasurako, transgenikoen monolaborantza intentsibo suntsitzailea. Hala ere, gaur egun ezagutzen dugun gertuko paisaia —Europako ingurune erabat antropizatua— haiek mantentzen dute hein handi batean. Nekazaririk eta abeltzainik gabe, lurraldea sasiz eta sastrakaz beteko litzateke, suteak gertatzeko arriskua dezente handituz, bai eta biodibertsitatea gutxituz ere[52].

52. Aipagarria da, esaterako, Espainiako Doñanako Parke Nazionaleko kasua, zeinean sastrakak untxientzat oso kaltegarriak suertatu diren, eta, hori, azkenean, katamotz iberiarrarentzat ere hilgarri bilakatu den, untxia baita katamotzaren harrapakin nagusia. Bañuls, S; Urdiales, C. eta Ramos, B. (2005): *Plan de Manejo del Lince en el Parque Nacional de Doñana. Memoria de Actuaciones Año 2004*, Ministerio de Medio Ambiente, Doñana.

3. *Urbs:* formaren dimentsioa

3.1. HIRIEN MORFOLOGIA

Morfologia, oro har, forma aztertzen duen zientzia da. Hiri-morfologia, hortaz, hirien forma aztertzen duen diziplina. Askotan, hala ere, morfologia hitza bera erabiltzen da forma terminoaren sinonimo gisa, metonimia[53] baten ondorioz-edo. Horregatik entzun ohi da hiri batek halako edo bestelako morfologia —forma— duela. Hiria haren ezaugarri formalen arabera ikertzea, jakina, murrizte sinplista da, baina, jabegoaren mugak hain sendoak eta iraunkorrak izaki, hirigintzarako ezinbesteko tresna dugu morfologia.

Jabegoen arteko mugak aztertzen baititu bereziki hiri-morfologiak. Hiriaren genetikak espazio partzelatuen eta espazio libre publikoen arteko erlazioan duelako oinarria. Harreman hori da, hain zuzen ere, landa-lurzorua eta hiri-lurzorua bereizten dituen ezaugarri nagusia: landa-espazioan ia dena da pribatua, bideak eta beste zenbait elementu kolektibo kenduta; hiri-espazioan, ordea, partzela pribatuak —eta publikoak— egoteaz gain, espazio libre publikoen sare egituratua ere nabarmentzen da (Esteban, 2011: 19). Esan daiteke landa-lurzoruko bideak kale bihurtzen direla hiri-lurzoruan sartzean, hortaz[54]. Kalea baita hiriaren osagai nagusietakoa. Eta hiri bihurtzea edo urbanizatzea, beraz, hirian beharrezkoak diren zoladurak eta instalazioak ezartzeaz gain, espazio partzelatuen eta espazio libre-publikoen sarea definitzea ere bada funtsean, hau da, hiri-sarea antolatzea.

Espazio partzelatua da partzelez —banakoen edo elkarteen jabetza diren lursailez— osatuta dagoen lurzorua. Partzela horiek hiri-lurzoruan baldin badaude, oro har, eraikigarriak dira, hau da, orube-izaera hartzen dute, gutxieneko urbanizazio-maila erdiestean; eta, gehienek, gainera, etxebizitza-erabilera nagusia. Landa-lurzoruan, berriz, nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako erabilerak bildu ohi dituzte partzelek. Partzelen forma —eta tamaina—, jakina, haien barnean hartzen duten erabilera nagusiarekin dago estuki lotuta: ez dira berdinak patata-soro baten behar formal eta kuantitatiboak, edo etxebizitza familiabakar bat egiteko orube batenak (ezta partzela horien gaineko hirigintza-presioa ere). Espazio partzelatua, beraz, etena da, zatituta dago, lursail bakoitzean funtzio ezberdinak garatu baitaitezke modu independentean (ikus 15. irudia).

---

53. Erretorikako tropo edo izen-aldaketa, zeinean gauza bati harekin nolabaiteko erlazioa duen beste gauza baten izena ematen zaion.

54. Batzuetan hiri-lurzoruaren barnean errepideak —eta zeharbideak— ere badauden arren.

15. irudia. Ezkerraldean, hiri-lurzoruko partzelak; eskuinaldean, landa-lurzorukoak. Irungo partzela-katastroa (iparra, ezkerrean). Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Espazio libre publikoen sarea, ordea, hiri-lurzoruan bereziki agertzen da. Haren forma aztertzeko egitura eta osagaiak bereiztea komeni da; hau da, eskema, alde batetik, eta, elementuak, bestetik. Bateko, hiru eskema oinarrizkoren arabera antolatu ohi delako espazio libre publikoen sarea, planifikatu gabeko hazkunde organikokoak alde batera utzita: eskema erretikulatua, eskema erradiala eta eskema lineala. Dena den, errealitatean muturreko hiru eskema horien arteko era guztietako nahasketak jazotzen dira, noski. Eta, besteko, hiru elementu nagusik osatzen dute espazio libreen sarea: kaleek, plazek eta lorategiek. Espazio libre publikoen sarea —espazio partzelatua ez bezala— jarraitua da, komunikatzeko funtzioa betetzen duelako, bai pertsonena bai hiri-instalazioena.

Forman oinarritutako sailkapen ugari egin izan dira hiriak sailkatzeko asmoarekin. Aipagarria da Kevin Lynchen sailkapen sintetikoa (1992: 73-98), hiri-ereduak hiru multzo formal handitan bereizten dituena: hiri kosmikoak, hiri funtzionalak eta hiri organikoak. Lynchen ustez, unibertsoaren eredu magikoen moduan, makina praktikoen moduan edo organismo bizien moduan ulertu baitira hiriak, asko laburbilduz, egiazki forma soiletik harago ere badoan bere sailkapen originalaren arabera.

Hiri kosmikoetan, lehenik, garrantzitsuak dira geometria garbia, erritual erlijiosoa, menderatze psikologikorako hierarkia monumentala, eta mikrokosmosaren sinbologia; horren erakusgarri dira, esaterako, Txinako, Japoniako eta Indiako hiri tradizionalak (jauregi inperialak buru zituzten Chang'an —egungo Xi'an—, Heijō-

kyō eta Heian-kyō —egungo Kyoto—, edo mandala-formako Varanasi eta Madurai), edo Errenazimentuko hiri idealetarako eredu erradialak (adibidez, Filarete arkitekto teorialariak 1460 inguruan irudikatutako Sforzinda hiri izar-formakoa; ikus 16. irudia).



16. irudia. Hiri kosmikoa: Sforzinda hiri idealaren oinplanoa. Filarete, 1460 inguruan[55]**.**

Hiri funtzionaletan, bigarrenik, hiri-osotasunaren sinbolismoa txikiagoa denez, garrantzi handiagoa hartzen dituzte zatiek, beharraren arabera eransketa mekanikoz gehitzen direnak. Horren adibide dira zenturiazioan[56] oinarritutako erromatarren kanpamentu militar behin-behinekoak —gerora hiri iraunkor ugariren hazia izan direnak—, XVI. eta XVIII. mendeen artean espainiarrek Hego Amerikan sortutako sare-formako kolonia berriak (ikus 17. irudia) —Ipar Amerikako kolonizazioan ere nolabaiteko jarraipena izan zutenak—, XIX. mendearen bigarren erdialdeko Europako hiri askotako zabalgune burgesak, eta XX. mendeko Mugimendu Modernoaren ideietan oinarritutako auzo eta hiri arrazionalistak.

55. Irudiaren jatorria: Wikimedia Commons (jabari publikokoa). Jatorrizkoa: Filarete (c. 1464): Trattato d'architettura, Milan.

56. Zenturiazioa —*centuriatio*, latinez— lurraldea zenturiatan banatzeko antolakuntza-sistema erromatarra zen. Zenturia bakoitza —infanteriako unitate militarraz gain— 710 metroko karratu bat zen.



17. irudia. Hiri funtzionala: Córdoba (Argentina) hiriaren fundazio-planoa. Lorenzo Suárez de Figueroa, 1577. Iturria: Wikimedia Commons (jabari publikokoa).

Hiri organikoetan, hirugarrenik eta azkenik, metafora ez da kosmosa, ezta makina ere, baizik eta izaki biziduna. Hirugarren eredu honetan berariaz planifikatutako hiriak soilik sailkatzen ditu Lynchek (1992: 88-98), XVIII. eta XIX. mendeetatik aurrera sortutakoak, baina, egiazki, aurretik eraikitako eta katastroaren jabego-mugetan oinarritutako hirigintza-planik gabeko hiri-hazkunde espontaneo guztiak ere —adibideak zenbaezinak dira— bertan sar daitezke. Planifikatutakoen artean aipagarria da industrializazioaren ondorio latzen aurrean hiri-eredu alternatibo osasuntsuagoa eskaintzeko saiakera nabarmen bat: lorategi-hiria.

Ebenezer Howard hirigileak XIX. mendearen amaieran teorizatutako hiri mota berri horrek hiriaren onurak landak eskaintzen zituenekin uztartu nahi izan zituen —bien desabantailak saihestuz—, hirigintza-eredu organikoaren bidea zabalduz. Ideia horiei jarraikiz sortu ziren, esaterako, Letchworth (ikus 18. irudia) eta Welwyn lorategi-hiri ingelesak. Halaber, Bigarren Mundu Gerraren ondoren Ingalaterran sortutako *New Towns* (hiri berriak) direlakoetan ere —Harlow, Stevenage, Basildon— antzeman daiteke metafora biologikoaren inspirazioa, zeinetan hazkundea komunitate edo auzo ia autarkikoen erreplikaz gauzatzen den, zelula bizien moduan, ohiko hiri handietako hipertrofia amaigabearen aldean.



18. irudia. Hiri organikoa: Pixmore Hill auzoko etxe-uhartea —270 x 210 m, 170 etxebizitza—, Lechtworth, Ingalaterra. Raymond Unwin eta Barry Parker, 1903[57]**.**

Aipatutako hiru hiri motak sailkatzeaz gain, Lynchek hiri-morfologiaren pertzepzioarekin zerikusi zuzena duen beste bereizketa interesgarri bat proposatzen du, espazioaren egituraketaren nolakotasunari dagokionez (1992: 407-409). Haren ustez, hirietan —eredu kosmikoan, zein funtzionalean edo organikoan— hiru era nagusitan antolatzen dira espazio libreak eta eraikinak, hau da, hutsak eta beteak: masan sortutako hutsuneen moduan, espazioan ezarritako objektuen moduan, eta zuhaitzez hornitutako aldirien moduan (ikus 19. irudia).



19. irudia. Hutsaren eta betearen arteko erlazioa ulertzeko hiru modu nagusiak, Lynchen arabera: ezkerrean, hutsuneak masan; erdian, objektuak espazioan; eskuinean, landaredia aldirian[58]**.**

57. Irudiaren jatorria: Wikimedia Commons (jabari publikokoa).
58. Irudiaren jatorria: egilearen eskema, Kevin Lynchen hiru marrazki oinarri (1992: 407-408).

Lehen kasua Europako hiri tradizionaletan hauteman daiteke, zeinetan kaleak eta plazak neurrizko altuerako eraikin-masa trinko batetik erauzitako hutsune gisa agertzen diren; eraikin-masaren fatxada jarraituak espazio librea eratzeko eszena-hondoa osatzen du. Bigarren kasuan, ordea, aldrebes gertatzen da: eraikin isolatuen bolumenak dira nagusitasuna hartzen dutenak; espazio libreak ez du forma zehatzik, objektu eraikiak modu askean kokatzeko hondoa besterik ez baita. Lynchek gehitzen duen hirugarren kasuan, berriz, aldirietako landarediak hartzen du nagusitasuna, espazioa zuhaitzen artean disolbatzen eta sakabanatzen dela; hirugarren espazio mota horrek aurreko biak baino ahulagoa edo ganoragabeagoa dirudi, baina arras ulergarri suertatzen da AEBko —eta gero eta herrialde gehiagoko— hirigintza-testuinguru barreiatuan, lorategi-hirien oinordeko dena. Errealitatean, noski, esandako hiru kasu espazialen arteko nahasketak ere jazotzen dira.

3.2. KALEA

Espazio libreen sareko elementu lineala da kalea, gehienetan publikoa dena. Hiri-instalazioak —lur azpitik, eskuarki— eramateko espazioa izateaz gain, pertsonen zein ibilgailuen komunikaziorako elementu nagusia da, bai eta hiriko partzeletarako sarbidea ahalbidetzeko bidea ere. Kalea multifuntzionala da, errepidea ez bezala, sarbide- eta komunikazio-funtzioaz gain beste hainbat jarduera garatzeko espazioa baita: jolasteko, borrokatzeko, erlazionatzeko, manifestazioak egiteko, azokak antolatzeko, desfilatzeko, prozesioan ibiltzeko…

Bitxia bada ere, euskaldunon inkontziente kolektiboan halako kutsu negatiboa eduki du kaleak. Baserriari kontrajarri zaion mundua deskribatzeko terminoa izaki, kale hitzak hiri osoa izendatzeko balio izan du, eta hala izaten jarraitzen du: «Baserrian jaio zen, baina aspaldidanik kalean bizi da» esan ohi da, kalea ia-ia infernuaren —erdal munduaren— sinonimo balitz bezala. Ez da harritzekoa, hortaz, *kalekume* terminoa mespretxuz oraindik erabilia izatea, edo *kale egin* hedadurazko adieraren existentzia, hutsegiteak adierazteko, hain zuzen.

Autoaren erabileraren orokortzeak kalearen bereizketa nabarmena —galtzadaren, espaloiaren eta bestelako errei aparteko batzuen arteko segregazio zorrotza— eragin du, bereziki Bigarren Mundu Gerraren ostean. Hirietan gurdiak soilik erabiltzen zirenean ere baziren espaloiak, jakina —oraindik ere ikusgarriak dira, esaterako Antzinako Erromako Ponpeiako espaloiak[59]—, baina egungo kaleetako espezializazio espaziala zorrotzagoa da, ibilgailuen eta oinezkoen arteko etena handiagoa den heinean, kale monomodalak ere sortzen hasiak garela (oinezkoentzako kale esklusiboak, garraio publikorakoak…). Eta ez hori bakarrik: kaleen diseinua bera —zabalera, biraketa-erradioa, bidegurutzea— autoaren logikak erabat baldintzatuta dago gaur egun. Autoaren existentziak, halaber, kaleen arteko hierarkia

59. Latinez, *crepidines* edo *semitae* deitzen ziren. Eta, bitxia bada ere, aipatutako Ponpeiako espaloiak jabego pribatukoak ziren, erabilera publikoko zorra bazuten ere. Raposo, N. (2014): "Las aceras de Pompeya", in *Jornadas Pompeyanas. Reflexiones y aportaciones de investigadores noveles sobre Arqueología, Historia y Filología en Pompeya, Herculano, Estabia y Oplontis*, UCM, Madril.

argiarazi du, trafikoa mailaz maila bideratzeko beharraren ondorioz: handitik txikira, hiri-errepideak —berez, kale-izaerarik ez dutenak—, bide nagusiak edo arterialak, bide kolektoreak edo banatzaileak, eta tokiko bideak. Azken horiek dira kale-izaera biziena —funtzio-aniztasun handiena— dutenak.

Aurreneko hausnarketa orokor horiekin batera, ohiko kaleak dituen osagai espazial nagusiak zerrendatu daitezke jarraian: oinezkoaren espazioa —espaloia—, ibilgailuen espazioa —galtzada—, erdibitzailea eta erdialdeko erreserba-espazioa, aparkalekua, alboko eraikinen aurrealdea, eta instalazioen espazioa.

Kaleetako oinezkoaren espazioari dagokionez, esan beharra dago espaloia ere —kale osoa bezalaxe— multifuntzionala dela, eta, oinezkoa, profil anitzekoa: helduak, umeak, adinduak, elbarrituak, haur-kotxeak daramatzatenak, aterkiak daramatzatenak… Dimentsionatzerakoan guztiak hartu behar dira kontuan, sen oneko neurriak gainditu gabe, goitik zein behetik, segurtasuna eta erosotasuna bermatze aldera. Zentzu horretan, gogorarazi beharra dago hirietan 2 metroko gutxieneko zabalera aipatzen dela hainbat hirigintza-arauditan, oztoporik gabeko espaloietako espazioari dagokionez, aldirietan 1,5 metrora ere txikitu daitekeena, ondo justifikatuta egotekotan, esaterako, dentsitatea 12 etxebizitza/ha baino urriagoa denean (EAEko Administrazioa, 2000: I. alezatia, 24). Maldei dagokienez, % 6ko gehieneko luzetarako malda ezarri ohi da, eta % 2ko zeharkakoa, irisgarritasun egokia ahalbidetzeko (EAEko Administrazioa, 2000: I. alezatia, 25). Azkenik, espaloian bertan —edo oinezkoentzako kaleetan— zerrenda edo banda espezializatuak badaudela kontuan hartu behar da, espresuki zehaztuta egon ez arren: zirkulazio-zerrenda, jarraitua eta oztopoz erabat librea; egoteko zerrenda, etena eta hiri-altzariz hornitua (eserlekuak, markesinak, kabinak…); eraikinen zor-zerrenda, zirkulaziorik gabeko fatxaden albo-alboko metro erdiko trantsizio-bandak osatua; galtzadaren zor-zerrenda, ibilgailuen espazioaren alboko metro erdiko bandak osatua (bereziki aparkalekuak egotekotan); eta, bereizketa-zerrendak, galtzadaren zor-zerrendaren eta oinezkoen zirkulazio-zerrendaren —edo egoteko zerrendaren— artean egon ohi direnak, askotan landaredia jasotzen dutenak.

Kaleetako ibilgailuen espazioari dagokionez, esan beharra dago galtzaden neurriak autoen —eta beste ibilgailu batzuen— zirkulazio- eta maniobra-beharren arabera erabat baldintzatuta daudela. Auto mota ugari egon arren, gutxieneko neurri batzuk ezarri ohi dira erreien zabalerei dagokienez, lehen esandako kale-hierarkiaren arabera: bide arterial nagusietan zein kolektore banatzaileetan, errei bakoitzaren zabalera 3 eta 3,5 metro artekoa izaten da; tokiko bideetan, ordea, 2,5 metrora ere txikitu daiteke, batez ere ibilgailuen abiadura nabarmen jaitsarazi nahi bada. Kurben erradioei dagokienez, bestalde, komeni da espaloi-zintarriaren gutxieneko erradioa 6 metro baino txikiagoa ez izatea tokiko bideetan, eta 10 metrokoa bide kolektore banatzaileetan eta bide nagusi arterialetan[60].

60. Madrilgo Udaleko Administrazioa. Hirigintza Saila (2000): *Instrucción para el Diseño de la Vía Pública*, Madrilgo Udala, Madril. 4.1. fitxako 2.1.2. taula. Hemen eskuragai: <http://www.carreteros.org/normativa/ travesias/pdfs/ccaa_pdf/ivp_ay_madrid.pdf> [kontsulta: 2012-11-14].

Erdibitzaileari eta erdialdeko erreserba-espazioari dagokienez, esan beharra dago haien agerpenak —egonez gero— baduela alde onik zein txarrik. Erdibitzaileek oinezkoen eta ibilgailuen segurtasuna handitu dezakete bi norakoko galtzadetan, baina, bestalde, kaleen zabalera gaindimentsionatzeko joera areagotu dezakete, bai eta nolabaiteko barrera-efektua sortu ere. Horregatik, komeni da erdialdeko erreserba-espazioak, 2 metroko gutxieneko zabalera ingurukoak, norako bakoitzeko 3 errei edo gehiago dituzten kaleetara mugatzea (Santamera, 2007: 26).

Aparkalekuari dagokionez, esan beharra dago haren kokapen ohikoena galtzadaren eta espaloi-zintarriaren arteko zerrendan izaten dela, bestelako aukerak dauden arren. Dimentsionatzeko orduan, plazen neurriak kontuan edukitzeaz gain —azken urteotako autoen kasuan 2,4 x 5 metrokoak izaten direnak—, ateak irekitzeko eta, batez ere, maniobra egiteko espazioa ere eduki behar da gogoan. Horren arabera aukeratzen da aparkalekuen antolamendua: lerroan edo zeharka (hainbat okertasun-mailarekin). Gogorarazi behar da, halaber, galtzaden gehieneko zabalerak kalteak ere ekar ditzakeela, ibilgailuen abiadura areagotzeaz gain, bigarren ilaran aparkatzea ere susta dezakeelako.

Kaleen alboko eraikinen aurrealdeari dagokionez, esan beharra dago kalearen ezinbesteko osagaia dela. Hutsa beteak mugatzen baitu: eraikinen aurrealdeek mugatzen dute kalea, eta, beraz, hura gorpuzten. «Kalerik gabeko hiririk ez dagoen bezala, badakigu ez dagoela arkitekturarik gabeko kalerik» dio, zentzu berean, Fernando Terán hirigileak (1996: 8). Kaleak, hortaz, hiru dimentsioko luzetarako elementua dugu, normalean eraikinen erlaitzek —estalkien hasierako hegal babesgarriek— mugatutakoa. Areago: batzuetan, kale garrantzitsuetan bereziki, kalearen hirudimentsiokotasuna eraikinen barneraino ere zabaltzen da, arkupeen —eta atikoen— bitartez. Jabegoari dagokionez arkupeak espazio partzelatuan egon ohi badira ere —jabetza pribatukoak izaten dira—, kalearen erabilera publikorako eranskin estimatuak dira, dudarik gabe, batez ere euria gogotik ari duen egunetan.

Eta, azkenik, instalazioen espazioari dagokionez, esan beharra dago kaleak baduela lur azpiko osagai bat ikusezin bezain ezinbestekoa: hiri-zerbitzuak garraiatzeko hoditeria. Estolda-sistemak aspalditik ezagutzen diren arren —Erromako *Cloaca Maxima* ospetsua kasu, K.a. VI. mendekoa dugu—, XIX. mendean eraikitako zabalgune burgesetan hasi ziren sistematikoki ezartzen, Europan bederen (ikus 20. irudia). Egun, gero eta handiagoa da gure hirietako lurpeetatik daramagun hornidura-sarea: eraikinetarako energia elektrikoa, gasa, telefonoa, edateko ura, ur zikina, ureztatzeko ura, kaleak argiztatzeko energia, trafikoaren erregulaziorako energia, zuntz optikoa… Gehienetan espaloiaren azpian ezartzen dira guztiak, haien mantentze-obrek galtzadetako ibilgailuen joan-etorriak oztopa ez ditzaten. Hodi horiek guztiak egokiro antolatzeko urbanizazio-proiektuak idazten dira, non, gainazaleko hiri-xehetasunak finkatzeaz gain, lurpeko hirigintza —hirietako erraiak— ere zehazten den.



20. irudia. 35 m-ko zabalerako kale baterako bi estolda-sistema. Ildefons Cerdà, 1855. Iturria: MAEB (Bartzelonako Zabalgunerako Aurreproiektuaren Memoria), XXXVI. ir.

Kalearekin amaitzeko, baina, ñabardura legalaz —eta ez soilik legala— ere ohartaraztea komeni da. Hirigintza-legeei dagokienez, kalea ez da espazio libre publikotzat jotzen; aparteko garraiorako eta komunikaziorako bide-sarearen zatitzat jotzen da. Ezberdintasuna espazioaren funtzio nagusian datza: autoaren eta gainazaleko garraio publikoaren trafikorako bide-sarea ez baita espazio libretzat hartzen; oinezkoentzako bide-sare esklusiboa, ordea, bai. Lehena —autoentzako bidea—, monofuntzionalagoa da, bereziki garraiorako erabiltzen delako; bigarrena —oinezkoentzako bidea—, multifuntzionalagoa da, mugitzeko izateaz gain bertan egoteko ere erabil daitekeelako. Esandako bereizketa autoaren nagusitasunak eta oldarkortasunak ekarria da, batik bat, haren eskakizunen hazkundeak bestelako funtzioak —jolastea, lasai paseatzea, eserita egotea…— ia-ia galarazi eta lekualdarazi dituelako, espaloi arruntak horretarako nahiko ez direlako. Eta nora lekualdatu dira egonaldi- eta jolas-funtzioak? Hain zuzen ere, espazio libre publikora.

3.3. PLAZA

Espazio libreen sare publikoko elementu zabala da plaza. Egoteko balio duten hiri-espazioen artean nagusia da —lorategiaren baimenarekin—, bertan burutzen baitira mota guztietako azokak, feriak eta jai publikoak. Hain da horrela, ezen hiriaren metaforatzat ere jo den: «Hiria da fatxadek inguratutako hutsune edo plaza bat»[61], esan zuen Ortega y Gassetek, esaterako, 1926an, plazaren —eta hiri-izaeraren— publikotasuna azpimarratuz.

61. Egilearen itzulpena. Ortega y Gasset, J. (1963), *op. cit.,* 441. or.

Euskaldunontzat ere publikotasunaren sinonimo da plaza. Arestian kale hitzaren kutsu negatiboa aipatu bada ere, plaza terminoaren izaera positiboagoa kontrajar daiteke hemen, ostera. Azokaren sinonimo izateaz gain —espainieraz bezala, gutxiago erabilia izan arren—, plaza hitza plazaratu aditzaren sorreran ere badago: *plazara joan*, edo, maizago, *argitaratu*. Kaleratu aditza, azken adiera horrekin berdinarekin ere erabiltzen den arren, badu beste esanahi negatibo bat: *kanporatu*. Eta, lehen aipatutako *kalekume* mespretxuzkoaren aurrean, *plazagizon* —eta azken urteotan erabiltzen hasi den *plazandre*— laudoriozkoa dugu euskaraz. Kalea eta plaza, elkarren aurkakoak, euskal inkontziente kolektiboan, gutxienez.

Plazaren jatorriak arakatzea hiriaren historian bertan murgiltzea da. Erabilera publikoko plazak antzinako *temenos* sakratuen —Mediterraneoko kulturen erlijio-esparru itxiak— irekitze-prozesu batetik eratortzea ere ezin da baztertu. Dena den, antzinate klasikoan topatzen dira plazaren bi eredu muturrekoak, haren egituraketa espazialari dagokionez, bederen: agora greziarra eta foro erromatarra (ikus 21. irudia). Biak ala biak ziren egoteko hiri-hutsuneak, hirien erdigunean kokatutakoak, baina ikuspegi zeharo ezberdinetatik sortuak: garai joniarra baino lehenagoko agora greziar klasikoan, eraikinak —tenpluak, estoak, palestrak— era simetriko zorrotzean diseinatzen ziren bitartean, espazio librea hondarrekoa zen, ifrentzu antolagabe ireki eta irregularra[62]; foro erromatarrean, ordea, espazio librea zen zorrozki antolatzen zena, modu itxian, maiz simetria-ardatzen arabera, eraikinak diziplinaz hari egokitzen zitzaizkiola (Gruber, 1983). Agoran, hortaz, eraikinak ziren diseinuaren jomuga; foroan, espazio librea. Horixe baitzen eta izaten jarraitzen du arkitektura-proiektuen eta hirigintzaren etengabeko tirabira, betearen eta hutsaren arteko tentsioa, plazaren ikusmoldearekiko jarrera hartzean garbiro azaleratzen dena.



21. irudia. Ezkerrean, Atenasko agora irekia, K.a. V. mendean (eraldaketa ugari jasan zituen denboran); eskuinean, Erromako foro inperial itxiak (K.a. 46 - K.o. 113)[63].

62. Charles Delfante hirigileak paisaiagintzarekin erlazionatzen du agora greziarraren irregulartasuna: «(…) espazioan jazotzen diren erlazioak nahita asimetrikoak diren efektu pintoreskoak sortzen dituzte, naturarekin eta paisaiarekin osotasun bat eratuz» (2006: 66). Egilearen itzulpena.

63. Irudien jatorria: Wikimedia Commons (*Madmedea* eta *3coma14* egileena, CC-BY-SA).

«Igande gauean —ez ziren bederatziak baino— herriko plaza nagusitik pasatu behar izan nuen aspaldiko partez. Euripean, bere egitekoaren porrot totala irudikatzen zuen plazak: huts-hutsik zegoen» dio etsipenez Anjel Lertxundi idazleak (*Berria*, 2012/11/06), enparantzarena barik, gauza publikoaren gainbehera metaforikoki iragarriz. Zeren eta, uki daitekeen plaza errealaz ari bada, ezin bat etorri: plaza ez dago eta ez da inoiz egon hutsik, bertan adierazi baitira, aspalditik, hiriko botere nagusiak: politikoa, erlijiosa, ekonomikoa, soziala… Horren erakusgarri nabarmenak dira Erdi Aroan zabaldutako hiru plaza mota nagusiak, batez ere eguneroko erabilgarritasun-arrazoiengatik organikoki lortutakoak, ia-ia eraikinen atarien moduan: udaletxearen plaza, elizarena eta merkatuarena; azken hori, harresietatik kanpoko errebal luzangetan, gehienetan. Plaza horien irregulartasuna leunduz eta homogeneizatuz joango zen Errenazimentuan, bereziki Italian, non plaza hiriloriaren ikur bihurtuko baitzen, geometrikoki planifikatutako boterearen antzeztoki. Ideia hori oraindik gehiago garatuko zen garai barrokoan, XVII. mendean, erret plazen tipo erregular eta itxiaren sorrerarekin —Frantzian *place royal* eta Espainian *plaza mayor* deitutakoa—, zeinetan funtzio nagusia baitzirudien erregearen estatua ezartzeko hiri-eszena izugarria antolatzea, perspektibaren tresna aurkitu berriek lagunduta. Ondorengo garai neoklasikoan ere jarraituko zen plaza erregularraren ereduarekin, estilo oraindik uniformeagoz; Euskal Herrian bertan dugu horren adibiderik gorenetakoa: Gasteizko Plaza Berria, Olagibelek 1781ean proiektatua eta hamar urte ondoren eraikitakoa (ikus 22. irudia).



22. irudia. Gasteizko plaza berri karratua (62 x 62 m) egiteko planoa. Justo Antonio Olagibel, 1781. Ezkerrean, Erdi Aroko merkatu-plaza zahar irregularra[64]**.**

64. Orduko merkatu-plaza zaharra egungo Andre Maria Zuriaren plaza da. Irudiaren jatorria: Galarraga, 1996: 230.

Industria Iraultzaren ondoren plazaren izaera dezente aldatu zen. Alde batetik, plaza terminoa bera gutxika ordezkatua izan zen, zeren, hirigintza-diziplina agertu eta gero, *espazio libre* izendapen teknikoagoa erabiltzen hasi baitzen. Bestetik, ibilgailuen kopurua handitu zen heinean, trafiko-plazak ere ugaritu ziren, hau da, ibilgailuen trafikoa bideratzeko asmatutako hiri-espazioak eta biribilguneak (Santamera, 2007: 117). Trafikorako lehen biribilgunea, hain zuzen ere, Eugène Hénard hirigileak diseinatu zuen XIX. mendea amaitu baino lehen. Alabaina, ezin esan hiri-glorieta horiek benetako plazak zirenik —direnik—; izatekotan, ibilgailuen funtzionamendu egokirako bidegurutze hutsak lirateke.



23. irudia. Camillo Sittek XIX. mendearen amaieran aztertutako Europako hainbat plaza-oinplano (1980).

Plazaren izaeraren gainbehera hori dela-eta, hainbat hirigilek haren garrantzia aldarrikatu zuten, baita XX. mendea hasi baino lehen aldarrikatu ere. Aipagarriak dira, zentzu horretan, Camillo Sitte arkitektoak 1889an idatzitako hirigintza-errezetak, zeinetan plaza ederren betebeharrak —modu inozo samarrean, dena esate aldera[65]— zerrendatu baitzituen, Europako hainbat herrialdetako enparantzak aztertu ondoren (ikus 23. irudia), bai ikuspegi estetikotik bai funtzionaletik: erdigunea hutsik edukitzea, proportzio egokia izatea, itxitasuna, irregulartasuna eta plaza-multzoak eratzeko gaitasuna (Sitte, 1980).

65. «[Sitteren] akatsa ereduak bilatzea izan zen; hirigintza-arazoa eta teknika- eta higiene-arazoa bereiztea, kontu formal hutsa balitz bezala aztertuz» (Hilberseimer, 1999: 4). Egilearen itzulpena.

XX. mendearen bigarren erdialdeko autoaren erabileraren gorakadak, jakina, ez zion ezer onik ekarri ohiko plazari. Areago, plaza —kalea bezala— hirigintzaren eguneroko tresnen multzotik baztertu zuten Mugimendu Modernoko arkitektoek, Le Corbusier handi(uste)ari jarraikiz[66]. Arkitekto modernoek berdegune handi eta irekien alde egin baitzuten apustu, ohiko plaza —aski— itxiaren aurka. Azken hamarkadotan, ordea, 1970eko eta 1980ko hamarkadetako ideia postmodernoen eraginez, hiri-espazioen balio arkitektonikoak aldarrikatu zituztenak, plazak loraldi berri bat jasan du.

Eta, sozialki, zer esanik ez, plaza pil-pilean dago, azken urteotako herri-mugimendu iraultzaile nagusien aldarrikapen jendetsu eta haserretuen agertoki izaten jarraitzen duelako (Fernández de Betoño, 2014: 24): Pekingo Tiananmen, Buenos Aireseko Maiatzeko Plaza, Habanako Iraultzaren Plaza, Moskuko Plaza Gorria, Kairoko Tahrir, Madrilgo Puerta del Sol, Atenasko Sintagma, Istanbulgo Taksim… Iraultza zein zapalkuntza ugariren ikur bihurtu dira plaza horiek, eta, horrenbestez, logikoa da botereak nolabaiteko agorafobia izatea: Manuel Delgado antropologoak esan bezala, ona da boterea plaza batean gerta daitekeenaren beldur izatea[67]. Nolatan sinistu, bada, plazak porrot egin duenik?

3.4. LORATEGIA

Lorategia hiri-espazio libreen —eraikigabeen— sareko hirugarren elementu nagusia da, kalearekin eta plazarekin batera. Pribatuak ala publikoak, ia beti edukitzen dituzte hurrengo hiru osagaiak: landaredia, ura eta esparrua. Izan ere, egungo lorategi eta parke publiko gehienek hesirik ez eduki arren, hainbat hizkuntzatan erabiltzen diren *garden* (ingelesez), *jardín* (espainieraz), *jardin* (frantsesez), edo *giardino* (italieraz) izenek, alemanezko *garten* terminoaren *gart* sustraia dute jatorri, esparru itxia esan nahi duena. Lorategi-esparruaren itxitasun-maila, ordea, aldakorra izan da historian zehar, garai bakoitzeko ezaugarrien arabera, maiz txandakatu —eta erabat irauli— direnak.

Antzinako Egiptoko lorategi etxetiarra, adibidez, erabat itxia zen. Greziakoa, halaber, patio-izaera zuen, etxearekin erabat erlazionatuta izaki. Erroman *hortus* izeneko ekoizpen-espazioekin hornitu zituzten etxeetako atzealdeak, eta, landetxe handietan, gainera, lorategi irekiagoak ere garatu zituzten. Erdi Aroan, ordea, lorategia dezente itxi zen berriro ere, garai hartako *hortus conclusus* izen deskribatzaileak iradoki moduan. Errenazimentuan berriz irekiko zen lorategia, perspektiba aurkitu berria lantzeko eszenografia handiak sortuz, barroko frantsesak muturreraino eramango zuen joerari hasiera emanez. Azkenik, paisaia-lorategi erromantiko ingelesak pintoreskismoa landuko zuen, hiri-parke handiak diseinatuz, itxuraz natural-naturalak zirenak, benetan aurrekoak bezain artifizialak izan arren.

66. «Kalea desagertuko da» idatzi zuen Le Corbusierrek 1929an (Boesiger; Stonorov, 1964: 114). Egilearen itzulpena.

67. Delgado, M. (2004/11/8): "Agorafobia y poder", *El País*.

Izan ere, lorategiaren beste ezaugarri garrantzitsu bat naturalaren eta artifizialaren arteko tentsioa da. Itxuraz aurkakoak diren bi osagai horien uztartzearen ondorio baita hiri-espazio mota hori. Baina zertarako uztartu natura eta artifizioa esparru bakarrean? Bada, horretarako, lorategi bat egiteko, hiru arrazoi nagusi egon daitezke, batik bat: erabilgarritasuna, gozamena eta sinbolismoa. Eta hiru zio horietan nahasten dira bai naturak sortutako elementuak bai gizakiak eratutakoak.

Erabilgarritasunari dagokionez, antzinatik baratze gisa erabili ziren hainbat lorategi, etxeetako janaritegiak hornitzeko, hain zuzen. Erdi Aroko hiribilduetako etxe europar ohikoek, esaterako, ortu moduan erabiltzeko lorategi pribatua zuten lursailaren atzealdean —ahal zenean, ibaien aldera—, gaur egun erabat beteta —eraikita— egon arren. Gozamenari dagokionez, giza zentzumenen plazererako eraikuntza estaligabea dugu lorategia. Horren erakusgarri, Granadako Alhambra jauregiko lorategi eder eta sentsualak ikustea —eta entzutea, eta usaintzea, eta ukitzea— besterik ez dago. Eta sinbolismoari dagokionez, ezin da ahaztu mito erlijiosoa, lorategi orok —Mendebaldean, behinik behin— irudikatzen baitu jatorrizko paradisu galduaren metafora. Paradisu hitza, hain zuzen ere, *pairideza* antzinako pertsiarretik omen dator, esparru esan nahi zuena, alegia, lorategi. Lorategiaren espiritu-dimentsio hori oso argi antzematen da, adibidez, Erdi Aroko monasterioetako klaustro edo patio handietan, Edenaren egiazko arkitektura-sinboloak. Ez da harritzekoa, beraz, San Bernardo Clairvauxkoak XII. mendean hurrengoa esan izana: «Vere claustrum est paradisus» (egiazki, klaustroa da paradisua)[68].

Arestian aipatutako adibideetako lorategiek, hala ere, ez dute hiri-mailako garrantzirik. Pribatuak dira —jatorriz, gutxienez—, eta erabat itxiak. Kontua da lorategiak eta parkeak ez zirela hiri-ekipamendu publikotzat jo XIX. mendera arte. Garai barrokoan pasealeku arboladun publikoak jada bazeuden ere, haien funtsa estetikoa zen soilik. Benetan, industrializazioaren ostean hasi ziren parkeak hiriaren zati garrantzitsutzat jotzen, hain zuzen ere, hiri industrial zikinek natura zati horien premia zutelako, inoiz ez bezala. Garai hartako erromantizismoak, gainera, naturaren benetakotasuna goresten zuenak, joera horren alde nabarmenki eragin zuen.

XIX. mendeko lorategigintza publikoaren aitzindarien artean Olmsted paisaiagilea aipatu beharra dago. Parke gogoangarriak diseinatzeaz gain —esaterako, New Yorkeko Manhattan erdi-erdiko 320 ha-ko Central Park erraldoia—, hainbat lorategi kateatuk osatutako parke-sistema handien asmatzailetzat ere jotzen da. Horietako ezagunenetakoa, 1860ko hamarkadan proiektatutako Bostongo Emerald Necklace (esmeralda-lepokoa) parke linealen sistema, 11 km baino luzeagoa da (ikus 24. irudia).

68. Egilearen itzulpena. Bernardo Clairvauxkoa (c. 1135): *Sermones de diversis*, cit. in Laguna, J. (1823): *Casos raros de vicios, y virtudes, para escarmiento de pecadores, y ejemplo de virtuosos*, Sierra y Martí, Bartzelona [ISBN gabe], 290. or.



24. irudia. Emerald Necklace parke-sistema, Boston eta Brookline, Massachusetts, AEB. Frederick Law Olmsted, 1860ko hamarkada[69].

Parke-sistemen ideia dezimononikoa oso garrantzitsua da, haren bidez hiriko landaredia modu integralean ulertzen hasten delako, biodibertsitateak hain beharrezko duen jarraitutasuna ere kontuan hartuz (ikus 25. irudia). Parke solteak handik eta hemendik sakabanatu ordez, berdeguneen sareak ahal den jarraituena izan beharko lukeela ulertuko da handik aurrera. Ideia hori izan daiteke, hain zuzen ere, hainbat hiri inguratzen dituzten eraztun berdeen jatorrietako bat —1935ean zirriborratutako Londreskoa dago ezagunen artean, zeinaren eraztun berdeak hirihazkunde amaigabea mugatzeko funtzioa ere bazuen, jakina—, askotan hirien erdiguneraino luzatu dena hainbat falka berderen bidez.



25. irudia. Biodibertsitatearen jarraitutasunaren arrazoi nagusia: lurraldearen zatiketak habitaten eraldaketa bortitza dakar[70].

69. 1894ko oinplanoa. Irudiaren jatorria: Wikimedia Commons (jabari publikokoa).

70. Iturria: Hainbat egile (2013): *Directrices. Gran Conector Ecológico: Sierras del Norte de Portugal – Cordillera Cantábrica – Pirineos – Macizo Central – Alpes Occidentales,* Espainiako IUCN, Madril, 30. or.

Le Corbusier arkitekto eta hirigile moderno ezagunak ere modu integralean ulertu zuen hiri-lorategia. Edo, beharbada zehatzagoa litzateke lorategi-hiria esatea, aldrebes, harentzat hiri osoa ulertu behar baitzen parke erraldoi baten moduan, erradikalki; hiri osoak izan behar zuen «hiri berdea». Hain zen horrela, non haren hirigintza-plan batzuetan ia-ia % 90eraino iristen baitzen berdeguneen lurzoru-okupazioa[71].

Gaur egun, hainbat parke mota bereizten dira, tamainaren, kokapenaren eta erabileraren arabera: aldiri-parkeak, hiri-parkeak, kirol-parkeak, lorategiak eta —oro har— berdeguneak dira ohikoenak. Azken berdegune horiei buruz ohartarazi beharra dago gutxieneko kalitatea eta kantitatea behar dutela eduki, ganorazko espazio libre publiko gisa zenbatu —eta erabili— ahal izateko. 1975eko Espainiako lurzoruaren legea garatzeko 2159/1978 Erret Dekretuaren eranskinean, esaterako, gutxieneko 1.000 m^2-ko azalera eskatzen zen, egutera-izaera, bai eta bertan 30 m-ko diametroko zirkunferentzia bat inskribatu ahal izatea ere[72]. Horrez gain, gehieneko malda ere kontuan hartu beharko litzateke, jakina, eta zuhaitzak landatzeko aukera.

Hiri-mailan ere berdeguneetarako gutxieneko erreserba bat bermatu beharko litzateke. Aipatutako 1978ko dekretuak jada eskatzen zuen 5 m^2/biztanle-ko azalera gordetzea hiriko berdegune eta parke publikoetarako[73]. Eta, bitxia bada ere, 28 urte ondoren onetsitako EAEko Lurzoruaren Legean neurri berdin-berdina agertzen da, 78. artikuluan. Hala ere, kantitatean bezainbeste, berdeguneen arteko artikulazioan eta sistema-izaeran jarri beharko litzateke arreta, hirietako espazio berdeak modu holistikoan ulertuko badira. Eta hirigintza-legeek gutxi esan ohi dute halako kontuez.

3.5. GARRAIOBIDEAK ETA MUGIKORTASUNA

Pertsonak zein merkantziak lekualdatzeko da ezinbestekoa komunikaziorako bide-sarea. Bai landan bai hirian. Horregatik, hiriaren sorreratik bertatik behar-beharrezkoa den funtzioa da mugikortasuna. Helburu horrekin, gurpila eta bela izan dira asmakizunik erabilienak urteetan zehar, lurzoruaren zein uraren gainazaletik mugitzeko. Izan ere, galtzadak eta portuak, historiako lehenengoetako obra publikoak, lehen hiri-finkamenduak bezain zaharrak dira.

Garraioa gizaki- eta animalia-trakzioan oinarritu da lurrun-makina asmatu arte, XVIII. mendearen amaieran. 1781ean James Watt ingeniariak ur-lurrunetik mugimendua sortzeko motorraren hobekuntza patentatu zuen —Newcomenek lurrun

71. Anbereserako (Belgika) 1933ko hirigintza-plan handian —Eskalda ibaiaren ezker-bazterrean—, esaterako, % 88koa zen proposatu zuen berdeguneen okupazioa (Boesiger, 1995: 158).

72. Espainiako Administrazioa. Obra Publikoko eta Hirigintzako Ministerioa (1978): "Real Decreto 2159/1978, de 23 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Planeamiento para el desarrollo y aplicación de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana", BOE, **221**, eranskinaren 4. art. Hemen eskuragai: <http://www.boe.es/buscar/ doc.php?id=BOE-A-1978-23729> [kontsulta: 2012-12-28].

73. *Ibid.* 19. art.

atmosferikoko makina 1710 inguruan ondu ondoren—, Industria Iraultzaren ateak behin betiko zabalduz. Asmakizun hura oinarri, 1804an lehen tren-makina jarri zuen abian Richard Trevithick ingeniariak, zeinaren diseinua laster hobetuko baitzitzaion, hiriaren eta hirigintzaren historia ere goitik behera irauliz nahiko denbora gutxian.

Izan ere, masa-garraiobide bihurtutako trenak hirien hazkundea berehala biderkatu zuen, bai populazioz bai hedaduraz, landa-eremutik modernitateko lehen exodo handia eraginez. Hortaz, eskualde-mailako lurralde-antolakuntzan ere sekulako eragina eduki zuten trenbideek; esaterako, funtsezkoak izan ziren Amerikako Estatu Batuetako mendebaldearen garaipenean (ikus 26. irudia) zein Indiaren eta Afrikaren konkista europarrean[74]. Eta, maila urbanoagoan, aldiriko trenbideek 1850 eta 1920 artean eraikitako hiri-kanpoalde —bereziki britaniar eta estatubatuar— askoren hazia ezarri eta bizkortu zuten (Mumford: 839), *commuter* izeneko herritar berria sortuz, alegia, lanera egunero trenez —autobusez, autoz…— luze samar bidaiatzen duena.



26. irudia. AEBko populazioa eta trenbide nagusiak 1850ean eta 1900ean.
Iturria: *The Cambridge Modern History Atlas,* 1912.

Denborarekin trenak ere espezializatuko ziren, aldirikoetan eta ibilbide luzekoetan bereiziz. Edonola ere, trenbideek zauri iraunkorrak ezarriko zituzten hainbat hiritan, haien ondorengo garapena erabat baldintzatuz, eta tren-geltokien azalera handiek ere ondorio urbano nabarmenak eragin zituzten behin baino gehiagotan. Aipagarria da, zentzu horretan, Bilboko kasua, zeinean Renferen aldiriko trenbideen hego-saihesbide bat planifikatu behar izan baitzen 1994ko Hiria Antolatzeko Plan Orokorrean, 2000n eraikitzen amaitu zena, hiriaren erdigunea eta ibaiaren bazterreko ibilbideak oinez lotu ahal izateko, hainbat urtez bananduta egon ondoren.

74. Capel, H. (2007): "Ferrocarril, territorio y ciudades", *Biblio 3W*, **717** [ISSN: 1138-9796].

27. irudia. Madrilgo Puerta del Sol plazatik Hiri Linealerako bidaia. Iturria: Compañía Madrileña de Urbanización (1911): *Datos acerca de la Ciudad Lineal,* Ciudad Lineal, Madril [ISBN gabe].

Alabaina, beste kasu bakanago batzuetan trenbidea hirigintzarekin batera ulertu izan da, modu integralean. Horren adibiderik gogoangarrienetako bat Madrilgo Hiri Lineala dugu, Arturo Soria Mata ingeniariak 1882tik aurrera teorikoki garatu eta 1894tik aurrera partzialki eraiki zuena. Azkenean eraikitako Hiri Lineala, mila bat etxebizitza familiabakarrerako lorategi-hiri modukoa, 5 kilometroko zerrenda luze batean antolatu zen —hasiera batean ia 50 km-ko luzera eduki behar zuena—, tranbia-linea bikoitza bizkarrezur gisa erabiliz, zeina 40 metroko zabalerako hiribide arboladun baten erdian hedatzen baitzen (ikus 27. irudia)[75]. Hiriaren forma lineala, hortaz, lokomozio-beharren ondorio zuzena zen. Interesgarria da, halaber, nola kudeatu zituen Soriak hirigintzako kontu hertsiak ez ziren beste hainbat alor:

75. Etxe-uharteak 200 x 80 metro ingurukoak ziren —bakoitzean 17-20 partzela inguru zeudela—, eta, haien artean, 20 m-ko zabalerako kaleak zeuden, erdiko hiribidearekiko elkarzut. Ertzetan, 12 bat metroko kale bana zegoen antolatuta, eta, azkenik, 100 m-ko zabalerako baso-zerrenda bana. Sambricio, C. (1982): "Arturo Soria y la Ciudad Lineal", *Q*, **58**, 22-30 [ISSN 0214-1108], 25. or.

Compañía Madrileña de Urbanización delako enpresa sortu zuen 1894an bertan, Hiri Linealaren sustapena eta eraikuntza gauzatzeko ez ezik, bertako tranbia ustiatzeko helburuarekin ere; enpresaren akzioak saldu zituen, eta, ondoren, bai akziodunei bai lursailetako erosleei Hiri Linealeko tranbia-bidaietan prezio merkeagoa eskaini; eta, hori guztia jakitera emateko, *La Ciudad Lineal, Revista de Higiene, Agricultura, Ingeniería y Urbanización* munduko lehen hirigintza-aldizkaria sortu zuen 1896an (Sica, 1981: 79; Terán, 1999a: 110). Hirigintzaren alor guztiak ukitu zituen Soriaren hiri-proiektu madrildarrak, beraz.

Trenaren eragin urbano handiak txiki geldituko ziren, ordea, beste asmakizun berri batek, autoak, sortutakoen aldean. Lehiakide gogorra azaldu zitzaiolako trenari. Autoak ez baitzuen —eta ez du, oraindik ere— ez ordutegiekiko ez geltokien kokapenekiko mendekotasunik, ezta burdinbideekiko esklabotzarik ere. Eta askatasun horrek oso arrakastatsu bihurtuko zuen, onerako zein txarrerako.

Karl Friedrich Benz ingeniariak 1886an patentatu zuen barne-errekuntzako motorra zerabilen lehen autoa, hiru gurpil soilik zituena. Benetako iraultza, berriz, Henry Ford enpresaburua hasiko zen gauzatzen, 1908an Ford Model T autoa ekoizteko muntaia-katearen sistema doitzean, eta, ondorioz, modu masiboan fabrikatzeari —eta saltzeari— ekitean. 1925ean Model T bakoitzaren prezioa hasierako —1908ko— 850 $-etik 240 $-era jaitsia zen, eta 9.000 unitate baino gehiago ekoizten ziren egunero[76]. Erdi-mailako klaseko estatubatuar orok eduki zuen, beraz, auto bat erosteko aukera, eta, ondorioz, 1920ko hamarkadaren amaieran, bakarrik Amerikako Estatu Batuetan, 23 milioi auto baino gehiago zeuden[77]. Horrela, *commuter* delako herritarrek ez zuten ordurako trenbideetatik gertu bizi behar, eta aldiriak biderkatu egin ziren, eta lurraldean oraindik gehiago sakabanatu; AEBko lurzoru urbanizatuaren hedadura orduan hasi zen eztanda egiten.

Lehen hirigintza-arazoa, baina, sinpleagoa —baina konpontzeko zaila— izan zen: oinezkoen eta autoen arteko bizikidetza bateraezina, hain zuzen. Izan ere, kaleak laster bete ziren autoz, joan-etorrian zein aparkatuta, eta lasai egoteko espazio libre publiko izateari utzi zioten, autoen mendeko komunikaziorako bide hutsak bihurtuta. Arazo hori konpontzeko hainbat saiakera jazo ziren. Ezagunenetakoa, eta gerora eredu bilakatuko zena, Radburn izeneko New Jerseyko aldiri txikian gauzatu zen, Clarence Stein eta Henry Wright arkitekto hirigileek 1928an diseinatutako eskemari jarraikiz[78]. Bertan, oinezkoen eta motordun ibilgailuen arteko bereizketa zorrotza ezarri zen, etxebizitza familiabakarrak *cul-de-sac* edo kale itsuetan hogeinako multzoetan pilatuz. Era horretan, etxeen atzealdean —edo aurrealdean, nola begiratzen den— autorik gabeko espazio libre handi bat erraz antola zitekeen, berdeguneekin zein oinezkoentzako bideekin (ikus 28. irudia).

76. Sandler, M. W. (2003): *Driving around the USA. Automobiles in American Life*, Oxford University Press, New York [ISBN 0-19-513230-0], 21. or.

77. *Ibid.* 35. or.

78. Raymond Unwin hirigilearen laguntza ere izan omen zuten (Osborn; Whittick, 1963: 277).



28. irudia. Radburnerako bi superetxadiren hasierako azterlana (marraduna autorik gabeko espazio libre publikoa da). C. Stein eta H. Wright, 1928-1929. Iturria: City Housing Corporation.

Radburneko eskema argi horretako gune gatazkatsu bakarrak autoentzako eta oinezkoentzako bideen arteko gurutzeak ziren. Kasu horietarako maila-bereizketak proposatu ziren, autoak zertxobait jasoz eta oinezkoak beste horrenbeste jaitsiz, zubi edo tunel txikien bidez. Malgutasun handikoa suertatu zen Radburneko eredua, ondoren hainbat hiritan gauzatu zelako —AEBko Greenbelt (Maryland) 1937an, Ingalaterrako Stevenage (Hertfordshire) 1946an eta Harlow (Essex) 1947an…—, tokian tokiko baldintzetara egokituz. Izan ere, autoaren mehatxua gero eta nabarmenagoa izaten hasi zen. Colin Buchanan hirigileak hurrengo iragarpen ilunak luzatu baitzituen 1960an, trafikoari buruzko bere txosten ezagunean: «Suntsitzeko ahalmen handia duen munstro bat elikatzen ari gara. Hala ere, gure indar guztiekin maite dugu. (…) Autoa gure zibilizazioa hondatzeko gai da, argi eta garbi» (1973: 15); «Hiri handietako motor-zirkulazioaren bolumen potentzial guztiari aurre egiteko beharrezkoak diren neurriak hain dira izugarriak, ezen gizarteak serio eztabaidatu beharko baitu noraino iritsi nahi ote duen motor-ibilgailuekin» (1973: 41)[79].

79. Egilearen itzulpena.

Radburneko antolakuntzaren garai bereko beste hirigintza-proposamen batzuk, ordea, ez zioten inolako kalterik ikusi autoaren nagusitasunari. Areago, hiri-eredu berri baterako primerako aukeratzat jo zuten. Frank Lloyd Wright arkitekto ezagunaren Broadacre City autoaren aldeko multzo horretakoa genuke. Broadacre (akre[80] zabala edo akreko zabalera) Wrightek berak azaldu zuen 1932ko *The Dissapearing City* liburuan, lehen aldiz —1959an hil arte garatzen jarraituko baitzuen—, mintzaira aski ameslariz:

> Imajinatu paisaian txertatutako autobide zabalak… Errepide erraldoiak, arkitektonikoki ere ederrak, gasolindegi publikoak zeharkatuz, itsuskeria gehiagorik gabe, mota guztietako zerbitzuak eta erosotasuna eskaintzeko hornituak. Hainbat unitate sorta elkartuko eta bereiziko dituzte: landetxe-unitateak, lantegi-unitateak, errepide-bazterretako merkataritza-guneak, lorategi-eskolak, bizitegi-guneak (etxe bakoitza akre bateko banaka apaindutako eta landutako bere lursailean), plazererako eta aisialdirako tokiak. (…) Osotasun horrek eratuko du herrialde hau guztiau inguratzen ikusten dudan hiri handia, etorkizuneko Broadacre hiria[81].

Wrightek dentsitate baxuko hiri deszentralizatu eta hedakor bat proposatu zuen, hortaz, sare-formaz partzelatuta, ahalmen handiko autobideek zeharkatuta (ikus 29. irudia). Lur-akre bat estatubatuar familia bakoitzeko[82], erabilerak modu zonifikatuan antolatuta lurraldean zehar, eta banako autoa garraiobide gisa, askatasunaren eta modernotasunaren ikur. Egiazki, ordura arte ohiko hiritzat jotzen zenaren aurkako aldiri antiurbano amaigabea zen Broadacre. Jabegoan eta demokrazian oinarritutako amets amerikarraren paisaia-hiri barreiatua. Etorkizunerako utopia bat, gauzatu ez zena. Edo, hobeto esanda, Wrightek proposatu moduan zehazki gauzatu ez dena, zeren eta azken hamarkadotan mundu-mailan hedatutako *sprawl* delako hiri-sakabanatzeak zerikusi handiegia du Broadacre hiriko ezaugarri anitzekin. Zentzu horretan, interesgarria da Wrightek berak iragarritakoa: «Ipar Amerikak ez du laguntzarik behar Broadacre hiria eraikitzeko. Bera bakarrik eraikiko da, halabeharrez» (Frampton, 2005: 192).

Autoaren asmakizunak hirigile europar ugari ere liluratu zituen. Interesgarriak izan ziren, bereziki, Ludwig Hilberseimer eta Le Corbusier arkitektoen hainbat hiri-proposamen, autoarekin, eta, oro har, mugikortasunarekin zuten erlazio estuagatik. Biek ala biek bereizi zituzten autoaren eta oinezkoaren mailak, baina ez soilik elkarren arteko bidegurutzeetan, Radburnen bezala, baizik eta hiriaren hedadura osoan. «Trafikoa garraiobide moten arabera ordenatu beharra dago (…), maila bakoitzean mota bereko ibilgailuak soilik mugi daitezen aldi berean» esan zuen Hilberseimerrek

80. Azalera-unitatea, 4.046,87 m^2-koa.

81. Egilearen itzulpena. Wright, F. L. (1932): *The Dissapearing City,* William Farquhar Payson, New York [ISBN gabe].

82. 1930ean 123 milioi biztanle zeuden AEBn, baina, gaur egun, 314 milioi inguru daude. 132 milioi etxe-unitate daudela kontuan hartuta (United States Census Bureau, 2011), eta AEBren azalera 9,8 milioi km^2-koa dela jakinda, etxe-unitate bakoitzari lur-akre bat emango balitzaio AEBren azalera osoaren % 54 okupatuko litzateke.

(1999: 13)[83], Leonardo da Vincik 1488ko «Hiri ideala» proiekturako pentsatutako segregazio bertikalaren ildo beretik jarraituz[84]. Hilberseimerrek proposatu zuen autoak beheko mailan ezartzea, eta, oinezkoak, goragokoan; Le Corbusierrek, ordea, aldrebes, autoak oinezkoen gainetik.



29. irudia. Broadacre hiriko 259 ha-ko lau zatiren oinplanoa (guztira, 1.036 ha). Autobide azkarra, ezkerrean. Frank Lloyd Wright, 1945[85].

«Hiri bertikala» izeneko Hilberseimerren proiektu teorikoan, 1927an argitara emana, segregazio argia proposatu zen, ia-ia bi hiri banatzen zituena bertikalki: behean, negozioen hiri komertziala eta haren ibilgailu-zirkulazioa (60 m-ko zabalerako kaleetan), eta, goian, bizitegi-hiria eta haren oinezko-zirkulazioa (10 m-ko zabalerako pasabideetan). Azkenik, ohikoa den moduan, hiri- eta eskualde-mailako zerbitzuak zein metroa, lurpean. Guztia, sare-formako oin isotropo eta metodiko bati jarraikiz. Beheko hiri komertziala 5 solairuko etxe-uharte handi

83. Egilearen itzulpena.

84. Da Vinciren jatorrizko marrazkiak Parisko Frantziar Institutuan dagoen *B* delako eskuizkribuan daude.

85. Iturria: Wright, F. L. (1945): *When Democracy Builds,* University of Chicago Press, Chicago [ISBN gabe].

batzuetan antolatuko zen —600 x 100 m-koak, metro-geltokien arteko tarteen araberakoak—, eta, goiko bizitegi-hiria, berriz, aurrekoen gainetik altxatuko ziren 15 solairuko eraikin lineal altuetan. Asmoa zen pertsona bakoitza haren lantokiaren gainean bizitzea, eta, hortaz, ibilbide gehienak bertikalak izatea —hortik izena—, eraikinetatik irten beharrik gabe; eta, behean, lurzoruaren mailan, jakina, autoak espazio guztiaren jaun eta jabe (ikus 30. irudia).



30. irudia. Hiri bertikala, hainbat maila bereizitan antolatua (ekialdetik mendebalderako kale bat). Ludwig Hilberseimer, 1924-1927.
Iturria: Hilberseimer, 1999: 19.

Le Corbusierrek, esan bezala, nahiago izan zuen autoak oinezkoen gainetik eramatea, oro har. Horixe ikus daiteke haren hainbat proiektutan, behinik behin. Hasteko, 1922ko «Hiru milioi biztanlerako hiri garaikidea» delako hiri-planean, non iparretik hegorako eta ekialdetik mendebalderako autobide handiak lurzoruaren mailatik jasota planteatu baitzituen (Boesiger; Stonorov, 1964: 38). Antzeko zerbait proiektatu zuen 1925eko Pariserako Voisin planean, zeinari buruz hauxe esan baitzuen: «Hari baten moduan horizontean desagertzen den kolomadi bikain hori norako bakarreko autobide jaso bat da, zeinaren bidez autoek Paris zeharkatuko duten tximistaren abiaduraz» (Boesiger; Stonorov, 1964: 119)[86]. Hitzotan orduko abiaduraren bertigo mozkorgarri eta erakargarria nabari da.

86. Egilearen itzulpena.

Errepide jasoaren ideia, baina, oraindik modu erradikalagoan planteatuko zuen 1929an egindako hirigintza-proposamen eskematiko eta utopiko samar batzuetan, Hego Amerikako Buenos Aires, Montevideo, Rio de Janeiro eta São Paulo hirietarako egindakoak. Ñabardurak ñabardura, lau proposamen probokatzaile horietan ideia bat errepikatzen zen: errepide jasoa, eta, haren azpian, etxebizitza-eraikin lineala; edo, beste era batera esanda, etxebizitza-eraikin lineala, eta, haren estalkian zehar, errepidea. *Boutade* edo txantxa gisa uler liteke burutazioa, biaduktu-hiriaren ideia gehiago landu izan ez balu 1930 eta 1934 artean, Argelerako Obus plana delakoan, zeinean 180.000 biztanlerako eraikin lineal erraldoi bat proposatu baitzuen, 60 eta 90 m-ko garaieran autobide zabal bati eutsiko ziona (Boesiger, 1995: 140-143). Hirigintzaren eta mugikortasunaren afera nolabait arkitekturaren bidez konpondu nahi izan zuen Le Corbusierrek, beraz.



31. irudia. Europar industria-hiri lineala. Le Corbusier eta ASCORAL[87], 1942-1943. Iturria: egilearen eskema, Le Corbusierren marrazki bat oinarri.

Eta merezi du Le Corbusierren beste bi hirigintza-proiektu aipatzea, horietan ere mugikortasunaren gai konplexua ikuspegi integral eta ausart batetik maneiatu zelako. Lehena, proiektu teoriko bat; bigarrena, errealitatean gauzatutakoa. Izan ere, 1942 eta 1943 artean, beste hiri lineal erradikal bat proposatu zuen, Nikolai Miliutin arkitekto errusiarraren eskema batzuk oinarri (ikus Sica, 1981: 295), aurretik zeuden

87. Le Corbusierrek berak 1942an sortutako arkitekura-talde frantsesa zen ASCORAL *(Assemblée de COnstructeurs pour une Rénovation Architecturale).*

hiriak teorikoki lotuko zituena, garraiobideak hainbat zerrenda espezializatutan ordenaz bereiziz. Ondorengo eskema handinahiago batzuetan, gainera, hiri lineal hori Europa osora hedatzea proposatuko zuen. Etxebizitzez eta industriez osatutako zerrenda-formako hiri amaigabe horrek are mundu osoa zeharkatzeko joera zuen, tarteko eskualdeak nekazaritzarako eta natura-paisaietarako utziz (Moholy-Nagy, 1970: 270). Horratx, Le Corbusierren mundu-mailako hiri-soluzio xalo eta berehalakoa, mugikortasunaren forma linealean oinarritutakoa (ikus 31. irudia).

Hala ere, teoriatik errealitaterako jauzia eman behar izan zuenean, kolonialismotik askatutako Indian hiri berri oso bat planifikatuz 1951tik aurrera, Le Corbusierrek ez zuen aintzakotzat hartu ez garraiobideen arteko garaiera-ezberdintasuna, ezta hiri linealaren sinpletasuna ere. 500.000 biztanlerako diseinatutako Chandigarh hiriaren funtsa garraiobideen garrantziaren araberako kaleen hierarkia konplexua izango baitzen. Horretarako, hiria 1.200 x 800 m-ko sektore handitan banatzeaz gain, zazpi bide mota bereizi zituen, *la Règle des 7 V (Voies de circulation)* —7 zirkulazio-bideen araua— delako sistemari jarraituz: V1 edo eskualde-mailako igarobidea; V2 edo hiribide nagusia (kapitolioa, geltokia eta unibertsitatea lotzen zituena); V3 edo espaloirik gabeko bidea, trafikorako esklusiboa; V4 edo dendez, zinemez, liburutegiez eta abarrez hornitutako ohiko kale nagusia; V5 edo etxebizitzetara gerturatzeko bigarren mailako kale edo adarra; V6 edo etxeetako atarirainoko zidorra; eta V7 edo ekipamenduez (eskolak, kirolguneak...) hornitutako parke linealak. Eredu horri kritikatu izan zaio kaleak zabalegiak zirela eta elkarrengandik urrunegi zeudela, arreta —Mendebaldean ohikoagoa zen— autoarengan gehiegi jartzeagatik[88]. Dena den, mugikortasunean oinarritutako maila ezberdineko kaleen sistematizazio serioagatik bakarrik —kapitolioko eraikinen balio arkitektoniko eztabaidaezina alde batera utzita— interes handikoa da Chandigarh.

Hirigintza eta mugikortasuna arrakastaz bateratu dituen azken urteotako beste adibide esanguratsu bat Brasilgo Curitiba hiriko garraio-sistema da. Bertako *Rede Integrada de Transporte* (garraio-sare bateratua), 1964an gauzatzen hasia, merke samarra eta oso eraginkorra suertatu da, azken finean autobus publikoan oinarritutako garraio masibo sinplea delako (ingelesez *Bus Rapid Transit* —BRT— esaten zaio). Metroaren maiztasuna, trenbideen korridore-esklusibotasuna eta autobusen malgutasuna uztartu ditu Curitiban Jaime Lerner arkitektoak (ikus 32. irudia). Autobus-geltokietan ere funtsezko aldaketak jarri ditu martxan, ontziratze-hodi jasoak proposatuz, sarbide errazagoa eta kobratze-sistema azkarragoa lortzeko. Curitibako sistema arrakastatsua izan delako frogarik argiena da hainbat hirik —Bogotá izan da agerikoena— eredu berdina kopiatu dutela. «Autoa amaginarreba bezalakoa da: harekin ongi moldatu beharra dago, baina ezin zaio zure bizitza zuzentzen utzi» esan du Lerner adierazgarriak[89], hiriko alkate ere hirutan aukeratu

88. Frampton, K. (2002): *Le Corbusier*, Akal, Madril [ISBN 84-460-1306-1], 148. or.

89. Egilearen itzulpena. Lerner, J. (2007): "Jaime Lerner sings of the city", *TED Talks*, Monterey [hitzaldia]. Hemen eskuragai: <http://www.ted.com/talks/jaime_lerner_sings_of_the_city.html> [kontsulta: 2013-7-4].

dutenak. Metro garestia, beraz, ez da garraio kolektiboa bideratzeko —eta auto pribatuari alternatiba bat eskaintzeko— sistema bakarra.



32. irudia. Curitibako *Rede Integrada de Transporte.* Ezkerrean, Argentinar Errepublikaren hiribidea, erdiko bide espezializatuarekin; eskuinean, espazio berdeak eta autobus-sarea 2000n[90].

Azkenik, aipatu beharra dago azken boladako hirigintza-diskurtsoan badela termino bat mugikortasun hitza ordezkatzen ari dena: irisgarritasuna. Baina ez hainbeste arkitektura-trabak gainditzeko kontzeptuari dagokionez —neurri antropometrikoei, maldei eta halakoei buruz aritzeko—, baizik eta helmugetara iristeko ahalbideari dagokionez. Aldaketa terminologikoak jauzi kontzeptuala dakarrelako: mugikortasunaz soilik arduratzen bagara, garraiobideak sustatzea izan daiteke gure xede bakarra; aldiz, irisgarritasuna bada gakoa, joan-etorrien beharra bera jar daiteke kolokan, ondasunak, zerbitzuak eta kontaktuak irisgarri bihurtuz, hots, mugitzea ez beharrezko bilakatuz. Hortaz, kontua ez da hainbeste etengabe mugitu ahal izatea, baizik eta mugitzeko beharra txikitze aldera, irisgarritasuna erraztea, jarduera-tokiak erabiltzaileengandik gertu kokatuz.

90. Irudien jatorria: ezkerrekoa, Wikimedia Commons (*Mariordo* egilearena, CC-BY); eskuinekoa, Curitibako Ingurumen Udal Idazkaritza.

3.6. HIRI-HAZKUNDE MOTAK

Ezaugarri komunak dituzten zati bereizgarriak edo ehundurak daude hirietan. Alde zaharrak, zabalgune erromantikoak, lorategi-hiriak, etxebizitza-poligonoak… Haiek zeharkatzean nolakotasun espazial ezberdinak nabaritzen ditugu. Proportzio desberdinak, batez ere haien eraikinen eta espazio libre publikoen artean. Normalean auzo bereiziek osatzen dituzte hiri-zati horiek, baina gerta daiteke garai bertsuetan eraikitako hainbat auzok ere, elkarrengandik urrun izanagatik, ezaugarri antzekoak edukitzea. «Hiri-hazkunde mota» bereiziak osatzen dituztela esaten da, batez ere Manuel Solà-Morales hirigilearen teorien eraginez (2008).



33. irudia. Ezkerrean, Olinto hiriari iparrera egindako zabalpenaren oin orokorra. Eskuinean, Olintoko bost insulae (90º biratuta, oin orokorrarekiko). Iturria: David M. Robinson, 1946[91]**.**

Izan ere, Solà-Moralesek 1969tik erabili izan du inguru akademikoan hazkunde moten kontzeptua, hiri-prozesuak ikuspegi morfologiko batetik azaltzeko oso baliagarria delako; hiri-hazkunde motak identifikatuz hirian dauden forma iraunkorrak ezagutu daitezkeelako, hau da, hiri-proiektua bera zein den jakin daitekeelako. Haren esanetan, hain zuzen, arkitektura-estilo iragankorrez harago, hazkunde motak hiru ekintzek ezaugarritzen dituzte: partzelazioak, urbanizazioak eta eraikuntzak. Esan nahi baita hiri-hazkunde mota bakoitzean erlazio berezia ema(te)n dela partzelazioaren —lursailen banaketaren—, urbanizazioaren —azpiegituren— eta eraikuntzaren —arkitekturaren— faseen artean, batez ere egikaritze-epeei dagokienez. *Tempo*a baita gakoa, alegia, hirien eraikuntza-prozesuaren beraren denbora edo erritmoa. Batzuetan, ordena horretan —lehenik partzelazioa, bigarrenik urbanizazioa eta, azkenik, eraikuntza— burutu dira faseak; beste batzuetan, ordea, hirurak batera.

91. Wycherley, R. E. (1949): H*ow the Greeks Built Cities,* Macmillan, Londres [ISBN gabe], 22-24.



34. irudia. Trazadura hipodamikoko greziar eta erromatar hiriak. Ezkerrean, Mileto (Hipodamo Miletokoa, K.a. V. mendea). Eskuinean, Timgad (Trajano, II. mendea)[92].

Antzinako Greziako heleniar hirietan bertan —Mileton, Prienen, Olinton (ikus 33. irudia), Pellan eta Abderan, besteak beste— hauteman daiteke eraikuntzaren, azpiegituren eta hiri-formaren arteko erlazio zuzena, hau da, etxe-uharteka batutako patio-etxean eta sare hipodamikoan oinarritutako hiri-hazkunde mota bereizgarria. Orduan hasi baitzen hirien plangintza sistematikoa (Morris, 2010: 42-45). Antzinako Erromako hirietan ere antzeman daiteke antzeko ehundura ortogonala, jada aipatutako (ikus 37. orrialdea) zenturiazio pragmatikoaren ondorio zuzena, kastro militarretan jatorria zuena (ikus 34. irudia). Horrexegatik, hain zuzen ere, Erromako *insulae* edo etxe-uharte askok —Ponpeiakoek, Korintokoek[93], Emporiaekoek, Kordobakoek— 35 metroko zabalera zuten: 710 metro inguruko zabalera zuten zenturiak *actus* izeneko 20 zatitan banatzearen emaitza zirelako. Hala ere, bestelako arrazoiak ere egon daitezke 35 metroko zabalera horretara ailegatzeko, Grezian neurri berdintsua erabilia zelako aurretik, esaterako, Olinton (35 x 90 m-ko *insulae*) eta Prienen (35 x 46 m-koak); hots, eraikuntzarekin —egitura-hutsarteekin, bereziki— eta garai hartako etxebizitza-tipoarekin zuzenkiago erlazionatutako arrazoiak.

92. Irudien jatorria: Wikimedia Commons (ezkerrekoa, jabari publikokoa, Armin von Gerkan arkeologoak 1935ean egindako planoa oinarri; eskuinekoa, Frederik Pöll egilearena, CC-BY-SA).

93. K.a. II. mendean Korinto greziarra suntsitu ondoren, Julio Zesarrek hiria birsortu zuen K.a. 44an *Colonia Laus Iulia Corinthiensis* izenarekin. Korinto erromatar haren hiri-egitura 1 x 2 *actus*eko —35 x 70 m— etxe-uhartean oinarritu zen. Gilman Romano, D. (2006): "Roman Surveyors in Corinth", *Proceedings of the American Philosophical Society*, **150**, 62-85 [ISSN 0003-049X].



35. irudia. Erdi Aroko hiribilduak, gaur: ezkerrean, Gasteiz; eskuinean, Arrasate[94]. Iturriak: Gasteizko eta Arrasateko alde zaharrak Eraberritzeko Plan Berezi Integratuak[95].

Erdi Aroan ere hiri-hazkunde mota jakin batzuk garatu ziren Europako mendebaldean. Ezagunenetako bat hiribildua izan zen, zeinean lote edo partzela estu eta luzeen batuketaz osatutako etxadiak antolatu baitziren, errege-gutuna jasotako hiri-finkamendu batean (ikus 35. irudia). Izan ere, askotan esaten den arren hiri gotikoek gehiegi antolatu gabeko berezko hazkuntza-prozesu bat eduki zutela, «ez dago ezer faltsuagorik hiri gotikoa organikotzat edo espontaneotzat jotzea baino» (Rossi, 1999: 92). Hasiera batean, etxebizitza familiabakar atxikiak eraiki ziren antolatutako lote gotiko haietan, maiz artisau-tailerrak behe-solairuan edukitzen zituztenak, baita ortu bat atzealdeko espazio eraikigabean ere. Denborarekin, baina, hiribilduak gotortuta zeudenez, eta harresiek hazkunde horizontala eragozten zutenez, dentsifikatze-prozesu nabarmena jazo zen, etxe mota eraldatu zuena (ortuak bete egin ziren, etxeak hainbat solairutako familianiztunak bihurtu…). Halaber, harresietatik kanpoko auzo lineal eta desantolatuak eraiki ziren hiribilduetara ailegatzen ziren bideen bazterretan: errebalak.

94. Oinplanoak ez daude eskala berean. Gasteizkoan iparra goian dago; Arrasatekoan, ezkerrean.
95. Gasteizkoa 2006koa da; Arrasatekoa, 2008koa.



36. irudia. Monpazier bastida, 1285ean Dordoinan (Akitania) sortua. Iparra, ezkerrean. Iturria: E. Viollet-le-Duc, 1856[96].

Euskal Herrian bertan 100 bat hiribildu sortu zituzten Erdi Aroan, Nafarroako zein Gaztelako Erresumek XII. eta XIV. mendeen artean[97]. Horrez gain, 500 bastida inguru ere sortu zituzten Euskal Herritik oso gertu —baita bertan sortu ere—, batez ere Akitanian eta Okzitanian, Frantziako zein Ingalaterrako Erresumek, Nafarroakoak ere baten bat sortu arren[98]. Bastidak sorrera berriko hiriak izan ohi dira, lurraldea kolonizatzeko XII. eta XIV. mendeen artean finkatutakoak.

Kokapenaz eta garaiaz gain, haien berezitasuna hiri-trazaduraren erregulartasun geometrikoan datza: gehienetan kale-sare ortogonal batean oinarritzen dira, erdialdean laukizuzen-formako plaza bat eratzen duena, zeinak merkatuaren eta udaletxearen *halle* izeneko eraikin funtzioaniztuna jasotzen duen. Partzelak, gainera, tamaina berekoak izan ohi dira bastida osoan, kolonoei —nekazariak izaten zirenak, eta bastidaren inguruan soroak ere edukitzen zituztenak— eskubide, eta, hedaduraz, jabego berdinak aitortzeko. Horren adibide gogoangarria da, esaterako, Dordoinako Monpazier bastida, zeinean erlazio estu-estua dagoen lotizazioaren eta bide-sarearen trazaduraren artean (ikus 36. irudia).

96. Viollet-le-Duc, E. (1856): *Dictionnaire raisonné de l'architecture française du XIe au XVIe siècle. I,* A. Morel, Paris [ISBN gabe], 12. or.

97. Unzurrunzaga, X. (2006): "Informe urbanístico. Adecuación de las DOT a las actuales expectativas de ordenación del territorio. Criterios urbanísticos para reflexión pluridisciplinar previa a la revisión de las DOT", in EAEko Administrazioa. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila (2006): *LAGen diagnosiaren 2006ko txostenak*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz [ISBN gabe].

98. Esaterako, Nafarroa Behereko Bastida (*La Bastide-Clairence*), 1288an sortua, eta Bearnoko Nabarrengose (*Navarrenx*), 1316koa. Aipatzekoa da, halaber, Morrisen arabera bi bastida daudela Ingalaterran, eta beste hamar Galesen, hirigintza-ezaugarri hutsei erreparatuta (2010: 119-131).



37. irudia. Orozko udalerriko lau elizate: Gallartu (goian ezkerrean), Murueta (goian eskuinean), Urigoiti (behean ezkerrean) eta Zaloa. Iturria: Orozkoko Arau Subsidiarioak, 2003[99].

Alabaina, Erdi Aroan hirigintza-planifikaziorik gabeko auzo espontaneoak ere izan dira. Euskal Herrian, sarritan eliza baten inguruan bildutako hainbat baserrik osatutakoak (ikus 37. irudia). Elizateak esaten zaie, hain zuzen ere, metonimia baten ondorioz, auzo horietako elizetako ateen ondoko arkupeetan herria antolatzeko batzarrak egiten zirelako[100]. Baserri multzo organiko horietan, hiri-bazterretako edo -kanpoaldeetako urbanizazioetan bezala (Solà-Morales, 2008: 23), lursailak partzelatu egiten ziren, eta, ondoren, zuzenean eraiki, apenas ezer urbanizatu gabe. Hala ere, kontuan hartzeko modukoak dira, bai haien xumetasun ederragatik bai elizate ugarik ondorengo hiribildu askoren hirigintza-hazia eratu zutelako.

Lauki-sare sisteman oinarritutako XIX. mendeko Europako zabalgune burgesetan, antzinako hiri antolatuen era bertsuan, banatuta jazo ziren hiri-eratzearen hiru faseak, baita arestian esandako ordenan jazo ere: lehenik partzelazioa, bigarrenik urbanizazioa, eta hirugarrenik eraikuntza. Solà-Moralesek honela baloratu du: «Zabalgunearen ideia zehatza eta erabakigarria da, bide-sarearen, azpiegituraren eta eraikinen tipologiaren arteko erlazioa ezartzen baitu» (2008: 64). Oin hipodamikoko greziar eta erromatar hirietan baino modu are kontzienteagoan, gainera, jabegoaren egitura konplexuagoa —sakabanatuagoa— zelako XIX. mendean.

99. Gris ilunez, 2003an finkatuta edo kontsolidatuta zeuden partzelak.

100. Metonimia berdina jazo da kontzejuekin, jatorriz leku bateko biztanleen batzarra izendatzeko erabiltzen zena —latinezko *concilium* bilera da—, baina, denborarekin —Araban eta Nafarroan, behinik behin—, nolabaiteko administrazio-autonomia duen herria izendatzeko bilakatu dena.

Bartzelonaren kasuan, esaterako, hiriko harresiak 1854an eraitsi ondoren, zabalgunerako bide-sarearen trazadura erabaki zen lehenik eta behin, etxe-uharteak ere —*intervías*, Cerdàren beraren esanetan— ondorioz definitu zituena; horixe izan da, gainera, 1859an marratu zenetik gaur arte mantendu izan dena, ia aldaketarik gabe: hiri-trazadura. Hori da benetan gauzatutako Cerdà Plana: lerrokadura-planoan datorrena, 1861ean onetsi moduan. Izan ere, etxe-uharteen barneko etxebizitza-eraikinak denborarekin gero eta gehiago dentsifikatuko ziren, hasierako planeko etxe-uharte irekiekin alderatuta (ikus 38. irudia), baina, trazadura, iraunkorra baino iraunkorragoa suertatu da.

Zurruntasun eta malgutasun anbibalente horixe bera azpimarratu izan da Cerdàren planaren izaera aberatsari buruz: «Etxe-uharterako (*Intervías*) haren [Cerdàren] proposamenak irmoa izateko bertutea eduki zuen, bideen eta bidarteen arteko banaketari dagokionez: lerrokaduren mugak ez ziren gerora aldatu, harresien lursailetako hirigune zaharrarekiko lotura behin konponduta, behinik behin. Baina, aldi berean, malgua izan zen dentsifikazio-prozesuarekiko, jatorrizko eredua, zeinak patio bat gordetzen baitzuen etxe-uhartearen barnean, funtsean eraldatu gabe»[101].



38. irudia. Bartzelona eraberritzeko eta zabaltzeko plana. Ildefons Cerdà, 1859. Iturria: Wikimedia Commons (jabari publikokoa).

101. Egilearen itzulpena. Magrinyà, F. (2009): "El *ensanche* y la *reforma* de Ildefons Cerdà como instrumento urbanístico de referencia en la modernización urbana de Barcelona", *Scripta Nova,* 296 [ISSN 1138-9788].

XIX. mendeko zabalgune burgesek hiri berri bat osatu zuten, aurreko hiriguneekin batera, betiere. Handipenak ziren, alde zaharrekin batera osotasun berri bat eratu zutenak. XX. mendearen hasierako lorategi-hiriek, ordea, erabateko osotasun berri bat ekarri zuten, jada existitzen ziren hiriguneetatik apartekoa. Teorian, gutxienez. Izan ere, haien jatorrizko helburua hiri handien hazkunde amaigabea etetea izan zen, hiri zaharrei eraztun berdeak ezarriz, handipenak sorrera berriko aparteko satelite-hiri batzuen bidez bideratzeko. Horrela, Ebenezer Howard lorategi-hiriaren teorialariaren ustez, erdiguneko hiri handien tamaina 58.000 bat biztanlera murriztu beharra zegoen, eta, haien handipena, 32.000 biztanlerako lorategi-hiri moduko satelite bereizietan planteatu (Sica, 1981: 17). Lorategi-hiriok hiri-hazkunde mota berria osatuko zuten, bertako egoileei hiriaren eta landaren arteko hirigintza-nahasketa orekatu bat eskaintzeko helburuarekin, noiz eta industria-hiriguneetako bizibaldintzak —kutsaduragatik, jende-pilaketagatik— gehien okerrarazten ari zirenean.

Lorategi-hiriak etxebizitza familiabakar lorategidunean oinarrituko ziren. Howarden hasierako eskemetan, gainera, logika erradialeko erabilera-zonifikazio bat oinarri; baina benetako gauzatzean, ordea, trazadura organikoko lo-auzo ia-ia funtziobakarrak eratu ziren, *cul-de-sac* edo kale itsu ugari zituztenak (ikus 18. irudia). Jatorriz langileentzat pentsatu baziren ere, denborarekin sektore aberatsagoei zuzenduko zitzaizkien bereziki. Eta sorrera berrikoak izaki, partzelazioa eta urbanizazioa ia aldi berean gauzatu ziren, eraikuntza amaierarako utziz (Solà-Morales, 2008: 23).



39. irudia. Bilboko Matiko auzoko lorategi-hiria edo loruria. Pedro Ispizua, 1922[102]. Iturria: Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Testu Bategina, 1995 (erabilera xehatuen planoa).

102. Eraikin familiabikoak dira gehienak, familiabakarraren bat kenduta. 112 etxebizitza zeuden jatorrizko planean. 100 inguru geratzen dira gaur egun.

Hasierako lorategi-hiri ingelesek —Letchworth (1903), Hampstead (1909), Welwyn (1919), Wythenshawe (1927)—, baina, zerikusi gutxi zuten Euskal Herrian 1920ko hamarkadan eraikiko zirenekin, batez ere azken horien tamainagatik. Donostiako Ondarreta (1921), Bilboko Matiko (1922; ikus 39. irudia), Gasteizko Batan erreka ondoko lorategi-hiria (1926) eta Iruñeko Argarai kolonia (1933), adibidez, askoz ere txikiagoak izan ziren: lorategi-hiri osoak barik, kooperatiba-erregimenean sustatutako lorategi-auzoak baino ez ziren. Hala ere, aski bereizgarriak dira oraindik ere, eta ez bakarrik beren euskal estiloko arkitektura erregionalistagatik, baizik eta erlazio bereziak dituztelako —beste hiri-zatiekin alderatuta— partzelazioaren, urbanizazioaren eta eraikuntzaren arteko erlazioari dagokionez, edo, bestela esanda, bide-sarearen, azpiegituren eta arkitekturaren arteko batuketari dagokionez. Horrexegatik, komeni da gogoraraztea azken hamarkadotan hainbeste ugaritu diren etxebizitza familiabakarretako urbanizazioek ez dutela inolako zerikusirik XX. mendearen lehen erdialdeko lorategi-hiri horiekin. Benetako lorategi-hirian kalea ez baita oraindik desagertu.

40. irudia. Grisez, 1914 eta 1933 artean Frankfurt inguruan eraikitako *siedlung* koloniak[103]. Iturria: Werner Hebebrand, 1946-1948[104].

Lorategi-hiriekin lotura zuzenagoa eduki zutenak Alemaniako *siedlung* (alemanez, finkamendu edo kolonia) modernoak izan ziren, bereziki Weimarko Errepublikaren garaian eraiki zirenak, 1919 eta 1933 urteen bitartean. Alemaniakoak

103. Kilometroro daude marratuta zirkunferentziak. Iparra, goian. Praunheim, Römerstadt (Heddernheim ondoan), Höhenblick eta Westhausen finkamenduak ipar-mendebaldean daude, Nidda ibaiaren bazterretan.

104. Werner Hebebrand arkitektoa Frankfurteko Udalaren Hirigintza Saileko zuzendaria izan zen 1946 eta 1948 artean.

ere langileei zuzendu zitzaizkien, Lehen Mundu Gerraren ondorengo egoitza-behar larriak asetzen saiatze aldera. Haien berezitasuna, Ingalaterrako lorategi-hiriekin alderatuta, Alemaniako administrazio publikoaren esku-hartze esanguratsuan datza, bai eta arkitekturaren estilo modernoagoan —eta industrializatuagoan— ere.

Nabarmentzekoak dira Berlinen eraikitako kolonia jakin batzuk —Britz eta Siemensstadt finkamenduak, besteak beste—, eta, batez ere, Frankfurteko kasua, non 1926 eta 1930 artean 14 *siedlung* eraiki baitziren 15.000 etxebizitza inguru jasotzeko[105], Ernst May arkitektoaren hirigintza-plan integral baten gidaritzapean. Babes publikoko etxebizitza-programa handinahi hori *Das Neue Frankfurt* (Frankfurt berria) deitu zen, eta Nidda ibaiaren bazterreko finkamendu berri handietan eman zituen fruiturik interesgarrienak: Praunheim, Römerstadt, Höhenblick eta Westhausen izeneko kolonietan, hain zuzen (ikus 40. irudia)[106]. Izan ere, Mayk proposatutako plan gidariak hirigunetik dezente aldendutako auzo berriak proposatu zituen, falka berde handi batzuek bananduta: «Izatez, lorategi-hiriaren ideiatik gertuko zerbaiten alde egin zuen: hirigunetik 20-30 km bereizitako satelite independenteen alde»[107]. Errealitatean, distantzia horiek txikiagoak izan ziren, 5-6 km-koak, eta, gainera, garraiobide publikoen —trenbideen— sare egoki batekin hirigunearekin lotuta. Auzo horietako etxebizitza-dentsitatea, bestalde, Ingalaterrako lorategi-hirietakoa baino altuagoa izan zen; Praunheim eta Römerstadt koloniek, esaterako, 50-60 etxebizitza/ha zituzten (Sica, 1981: 217).

Vienan ere babes publikoko etxebizitza-politika antzekoa sustatu egin zen garai bertsuan, gerraosteko 1918 eta 1934 artean, sozialdemokratak udalaren buru zirenean, Austriako Lehen Errepublikaren testuinguruan. *Als Rotes Wien* (Viena gorria, alemanez) deitutako Viena hartan, *hof* (patio) izeneko *gemeindebau* (udal-eraikin) direlakoak hasiko ziren planifikatzen eta eraikitzen, langileak eskala handian jasotzeari begira, modu masiboan. Hain modu ugarian, ezen 1933an Vienako Udalak 66.000 etxebizitza publiko kudeatzen baitzituen, ia guztiak azken hamar urteetan eraikitakoak, 380 baino gehiago *gemeindebau* eraikin handietan (Sica, 1981: 619). *Hof* superetxadietako etxebizitza sozialak, nahiko tamaina txikikoak, alokairu publikokoak izaten baitziren.

Hof eraikin-eredua, etxebizitza kopuru arras altukoa eta lurzoru-okupazio txikikoa, komunitate-ekipamenduz hornitutako superetxadian oinarritzen zen, espazio libredun patio handi itxien —edo erdi itxien— inguruan antolatuta (ikus 41. irudia). *Hof* moduko eraikinak, hala ere, ez dira ohiko etxe-uharteen moduan hautematen: bizitegi-bloke erraldoi jarraituen moduan ageri dira, batzuetan kaleen gainetik ere jauzi egiten dutenak erabateko jarraitutasuna literalki lortzeko

105. Eraiki ez zirenak ere zenbatuz, 24 *siedlung* planifikatu ziren, guztira.

106. Kontuan hartu, gainera, Praunheim eta Römerstadt finkamendu berriek hirigintza-diseinu bateratua osatzen dutela, aurretik zegoen Praunheim herrixka zaharra eta Nidda ibaiaren bihurgunea erdiko ardatz konpositiboan jasotzen dituena.

107. Ward, Stephen V. (2002): *Planning the Twentieth-Century City: The Advanced Capitalist World*, Wiley, Chichester [ISBN 0-471-49098-9], 85. or.

(Pérez, 2005: 18). Zentzu hertsian arkitektura-tipo bat osatu arren, haren tamaina nabarmenagatik hiri-hazkunde mota bereizgarritzat ere jo daiteke *hof* delakoa, hiri-egitura funtsean eraldatu ez zuen arren.

41. irudia. Vienako Heiligenstadt auzoa. Erdian, nabarmenduta, Karl-Marx-Hof udal-eraikin erraldoia (1.382 apartamentu)[108]. Karl Ehn, 1927-1930. Iturria: OpenStreetMap (CC-BY-SA).

Alemaniako *siedlung* kolonien moduan, Vienako *hof* superetxadiak ere hirigunetik urrun eraiki ziren, bertako lursailak merkeagoak zirelako, baina, gehienetan, ahalmen handiko garraiobide publikoak ere lagunduta. *Hof* multzoen estiloa, hala ere, askoz ere monumentalagoa da, ia-ia proletalgoarentzat eraikitako egiazko jauregien modukoa, duintasun arkitektoniko horrek langileen sentimendu kolektiboa positiboki sustatuko balu bezala: «Azken finean, langile-senidetasunaren Falansterio mitikoaren bertsio eguneratua adierazten du Hof-ak» (Gravagnuolo, 2009: 257)[109].

Interesgarria da azpimarratzea Vienako *hof* superetxadiek Mugimendu Modernoko bloke irekiek erakutsiko zituzten ezaugarri batzuk bildu zituztela, hiri-espazio publikoarekiko erlazioari dagokionez, modu apalagoan bada ere. Hainbat kasutan, behinik behin, kalearen lerrokadurarekiko nolabaiteko independentzia antzeman daiteke, haien oinetan atzera-emate ugariak ezarri baitziren espazio libre berde txikiak sortzeko helburuarekin. Zentzu berean, superetxadien autarkia formal eta funtzionala kontzienteki bilatu egin zen, haien mikrokosmos-izaera azpimarratuz eta hiriaren egiturarekiko erlazio naturala apur bat galduz. Hori izan baitzen «ohiko etxe-uhartearen hipertrofia»ren ondoriorik behinena, hiri-ehundurarekiko bereizketa

108. 5.000 pertsona baino gehiago biltzeko eraiki zen eraikina, 1.100 m-ko luzerarekin.

109. Egilearen itzulpena. Falansterioa Charles Fourier filosofo sozialista frantsesak XIX. mendearen hasieran teorikoki garatutako komunitate-eraikintzar utopikoa izan zen, jabego pribaturik gabekoa.

eta are desegitea ere, geroagoko hiri-hazkunde mota modernoetan oraindik gehiago areagotuko zena (Ezquiaga, 1990: 6-8).

Bigarren Mundu Gerraren ostean ere etxebizitza berri ugari behar izan ziren Europan. 1946 eta 1964 arteko *Baby Boom* delako jaiotza-tasaren eztandak behar hori dezente areagotu zuen, gainera. Hortaz, gerraren ondoren hasiko zen aplikatzen eguneroko hirigintza egiazkoan CIAM[110] biltzarraren laugarren saioan —1933an— idatzitako Atenasko Agiria[111], zeinaren *doktrina-puntuak* izeneko atalaren barneko 77. puntuan esaten baitzen hiria lau funtzio nagusien arabera zientifikoki zonifikatu beharra zegoela: bizitzea, zirkulatzea, lan egitea eta gozatzea (fisikoki zein espiritualki: osasuna, hezkuntza, aisialdia…). Halaber, hirigintza modernoaren manifestu horretako 29. puntuan esaten zen etxebizitzak eraikin garaietan eta elkarrekiko oso aldenduetan ezarri beharra zegoela, berdegune handiak antolatzeko asmoarekin, ahalik eta lurzoru gehien eraikitzetik libratzeko. Ideia horiek ondorio argiak eduki zituzten 1950eko, 1960ko eta are 1970eko ia mundu osoko hirigintzan.

Hiri-hazkunde mota berri bat sortu zen, Atenasko Agiriaren gidalerroak hezurmamitzeko: ordena irekiko hiri-ehundura (ikus 51. irudia). Bertan, eraikinak modu isolatuan ageri dira, bloke linealetan zein eraikin garai eta autonomotan, haien artean espazio libre handiak utziz. Hori dela-eta, garraioa motordun ibilgailuz egiten da, errepide ustez azkarrez. Oinezkoarentzat ibilgarria eta atsegina den ohiko korridore-kalea, hortaz, desagertzen da hiri modernoan. «Komunikazio-bideetara ematen duten etxebizitzen lerrokadura debekatu beharra dago» zioen, hain zuzen ere, Atenasko Agiriaren 27. artikulu antiurbanoak. Le Corbusierrek berak idatzi zuen literalki nazka ematen ziola korridore-kaleak (1999: 221). Ordena irekiaren hiri modernoan, beraz, ohiko hirigintza nolabait desagertzen da, arkitekturaren autonomiaren mesedetan.

Errusiar eraginpeko Hanburgon, esaterako, momentuko hirigintza-sentsibilitate urbano ezaren adierazgarri bilakatuko zen proiektutzarra eraiki zen 1949 eta 1956 artean: *Grindelhochhäuser* izeneko etxe-multzoa. 8 eta 15 solairu arteko 12 bloke irekietan 5.400 pertsona ingururentzako 2.122 apartamentu sartu zituzten —batzuk ez ziren 16 m^2-ra ere ailegatzen—, ia guztiak Administrazioak diruz lagundutako alokairukoak. Parke handi batean garatutako proiektua inguruko hiri-egiturarekin alderatzean oso argi ikusten da Mugimendu Modernoak aldarrikatutako ordena irekiaren kontraste bortitza (ikus 42. irudia), zeinean ohiko kalea erabat desagertu den.

110. *Congrès International d'Architecture Moderne* (Arkitektura Modernoaren Nazioarteko Biltzarra).

111. Le Corbusier eta Josep Lluís Sert arkitektoek argitaratu zuten Atenasko Agiria 1942an (Le Corbusier, 1979).

42. irudia. Erdian, ilunago, Hanburgoko Grindel auzoko Grindelhochhäuser bizitegi-multzoko 12 bloke irekiak. Bernhard Hermkes *et al.*[112], 1949-1956. Iturria: OpenStreetMap (CC-BY-SA).

Frantzian ere eraiki ziren alokairuko gizarte-etxebizitza masiboak Atenasko Agiriaren ideiei jarraikiz. 1958ko abenduan dekretu bat[113] kaleratu zuen gobernu zentralak *Zone à Urbaniser en Priorité* (ZUP) eremuak definitzeko, zeinetan *grand ensemble* (multzo handi) ezagunak garatuko baitziren 1960ko hamarkadan (Solà-Morales, 2008: 91). Hirietako aldiriak —lurzoru eraikigarri merkeena— gizatasunik gabeko hormigoi aurrefabrikatuzko bizitegi errepikakorrez bete ziren, etxebizitza sozialen kopurua biderkatuz, baina baita hirietan integratu gabeko ghettoen sorrera nahi gabe sustatuz ere (ikus 43. irudia). *Grand ensemble* multzoen arazo soziourbanistikorik handiena horixe izan baitzen, ez zirela aurreko hiri-egituran integratu.

Ipar Euskal Herriko ZUP nabarmenena Baionako Santa Gurutzekoa da, Marcel Breuer arkitekto ospetsuak 1963 eta 1970 artean diseinatu eta eraikitakoa. Proiektu osoa eraiki ez izanagatik —15.000 baionar inguru jaso behar zituen hasiera batean—, erraldoia da egindako 1.100 etxebizitza biltzen dituen *grand ensemble* moderno hori. Bitxia den arren, auzo nahiko estigmatizatuta izatetik Baionako arkitektura-ondare miretsia izatera igaro da egun.

112. Hermkesekin batera, Rudolf Lodders, Rudolf Jäger, Albrecht Sander, Ferdinand Streb, Fritz Trautwein eta Hermann Zess gazteek osatu zuten arkitektura-taldea.

113. Zehazki, 1958ko abenduaren 31ko 58-1464 zenbakidun dekretua.



43. irudia. 190 hektareako Sarcelles (Val-d'Oise, Île-de-France) *grand ensemble* erraldoiaren oinplanoa. Jacques Henri-Labourdette eta Roger Boileau, 1955-1975[114]**.**

Beste hainbeste jazo zen Espainiako etxebizitza-poligonoekin —Frantziako *grand ensemble* multzoen espainiar baliokideak—, eta baita hiri-isolamenduaz haragoko hirigintza-egoera okerragoak ere, poligonoen ekipamendu kolektiboen eskasia oraindik nabarmenagoa izan zelako, ganorazko eraikuntza eta urbanizazio-lanen urritasun handiagoarekin batera. 1956ko Lurzoruaren Legearen gerizpean eraikiak, modu bateratuan diseinatu, kudeatu eta eraikitako auzo monotonoak ziren etxebizitza-poligonoak; eta, esan bezala, lehengo hiriarekiko autistak, hein handi batean.

114. Iturria: Wikimedia Commons (jabari publikokoa). Eraikinek, 12.800 etxebizitza jasotzen dituztenak —Frantziako *grand ensemble* multzorik handiena—, eremuaren azaleraren % 17 okupatzen dute soilik. Roth, C. (2007): *Textes et images du grand ensemble de Sarcelles. 1954-1976,* Communauté d'agglomération Val de France, Villiers-le-Bel [ISBN gabe].

Poligonoek Espainiako garapenkeria-garaiko etxebizitza sozialen eskaria nolabait ase zuten, bai, baina kalitatean baino, kantitatean: Madrilgo biztanleria, kasu, hirukoiztu egin zen 1940 eta 1970 artean, haren inguruan —eta bereziki hegoaldean— sortutako satelite-herrixka sozial berriei esker (Carabanchel, Palomeras, San Blas, Vicálvaro, Villaverde…). Gasteizen biztanle-hazkundea are ikusgarriagoa izan zen 1960 eta 1975 artean —73.701 biztanletik 170.870 egoilera pasa zen—, estatu osoko hiriburuen artean gorakadarik handiena izaki[115]. Espainian, gainera, Frantziarekin alderatuz, etxeen sustapena gero eta gehiago laga egin zitzaion sektore pribatuari, zeina diru-mozkinez baino ez baitzen arduratu. Francoren azken garaiko garapenkeria ekonomikoaren ikur bilakatu ziren bizitegi-poligonoak, hortaz.



44. irudia. Bilboko Otxarkoaga poligonoko 114 blokeak. 3.672 bizitza (R. Basañez, J. Larrea eta E. Argarate, 1959-1964). Iturria: Igogailuak ezartzeko Plan Berezia, 2006 (tipologia-oinplanoa).

115. Baieztapenaren iturria: González de Langarica, A. (2008): "Vitoria durante el franquismo. El tercer modelo de industrialización vasca (1946-1976)", in M. E. Nicolás eta C. González (koord.), *Ayeres en discusión. Temas clave de Historia Contemporánea hoy*, Universidad de Murcia, Murtzia [ISBN 978-84-8371-772-1]. Biztanle kopuruen iturria: Rivera, A. (2003): *Historia de Álava*, Nerea, Donostia [1. argit. ISBN 84-89569-95-9], 491. or.

Hego Euskal Herriko hiri gehienetako periferietan ditugu 1960ko hamarkadako poligono garapenzaleen adibideak. Horietako asko, *Obra Sindical del Hogar* (OSH)[116] erakundeak eginak. Bilboko Otxarkoaga (1959-1964, 3.672 etxebizitza; ikus 44. irudia), Gasteizko Zaramaga (1959-1975, 4.120 etxebizitza), Donostiako Bidebietako Bakea (1963-1967, 750 etxebizitza) eta Iruñeko Donibane (1963-1973), esaterako, eraiki ziren garaiko etxebizitza sozialen eskari handia asetzeko. Eraiki zireneko ekipamendu publikoen gabezia dagoeneko —azken hamarkadotan— konpondu egin zaie hein handi batean, baina etxe gehienek oraindik ez dute igogailurik. Horrenbestez, auzoon eraberritze-prozesu luze eta garestiari ekin beharko zaio datozen urteetan.

Etxebizitza-poligonoen anabasa urbanistikoarekiko erreakzio gisa, ordena irekiko hirigintzatik ordena itxiko eta etxe-uharteetan oinarritutako hirigintza tradizionalagorako itzulera berri bat jazo zen 1980ko hamarkadan. Modernitate erradikalaren aurrean, zeinean arkitektura-objektua soilik baloratzen baitzen, betiko espazio publiko orekatuaren beharra azaleratu zen azkenean, eta ohiko korridore-kalearekiko lerrokadura errespetatzen zuen eraikuntzaren antolakuntzara bueltatu. Mendearen amaieran, hortaz, betiko hiri trinkoa eredugarri bihurtzen da berriz ere.

XX. mendearen azken laurdeneko zabalgune horiek, eskuarki bilbe angeluzuzenetan antolatutakoak (ikus 45. irudia), hala ere, ez dituzte XIX. mendeko zabalgune burgesen ezaugarri berdinak edukiko. Etxe-uhartearen patio handia, oro har itxia izanagatik, askoz gehiago irekiko da, bereziki behe-solairuan. Gainera, XIX. mendean ez bezala, XX. mendearen amaierako zabalguneetako etxe-uharteetako patio handiak ez dira eraikiko —lurzoruaren mailatik gora, gutxienez—, gehienetan erabilera publikokoak bilakatuz. Ondorioz, zabalgune postmodernoetako kaleak protagonismo pixka bat galduko du, oinezkoak kaletik joan daitezkeelako, baina baita patioen barnealdetik ere (Ezquiaga, 1990: 8).

Horrez gain, XX. mendearen amaierako etxe-uharteak era bateratuagoan sustatu, proiektatu eta eraikiko dira; arrazoi ekonomikoengatik ere, baina, batez ere, autoentzako sotoen tamaina-beharragatik. Kudeaketa-batasun horrek berdintasun estetikoa ere ekarriko du —fatxada berdinak, garaiera bereko erlaitzak—, XIX. mendeko etxe-uharte zatikatu eta anitzekiko alderatuz. Azkenik, etxebizitzen azalera eta sakonera nabarmen txikituko da, XIX. mendean ezinbestekoak ziren argi-patio txikien beharra desagerraraziz.

116. 1939an *Instituto Nacional de Vivienda* (INV) delakoak sortutako erakundea, Francoren diktadurak sustatutako babes publikoko etxebizitzak eraikitzea eta kudeatzea helburu zituena.



45. irudia. Madrilgo Valdebernardo zabalgunea. 1985-1996[117]. Iturria: Madrilgo Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren aurrerakinaren aurreko agiriak, 2012 (hego-ekialdeko zonaren antolakuntza).

Lehen begirada batean, antzekoa, hortaz, baina hiri-hazkunde mota bereizia osatzen du zabalgune postmodernoak. XIX. mendeko eta XX. mendearen amaierako etxe-uharteen arteko aipatutako desberdintasunak direla-eta, gainera, aditu batzuek bloke perimetrala edo etxe-uharte perimetrala ere esan diote etxe-uharte postmodernoari (Pérez, 2005: 158-163). Bereziki, kalearen eta patio handien arteko esandako erlazio berriagatik, zeinean kalea galtzen irteten ohi baitzen. «Etxe-uharte perimetrala oso eraikuntza anbiguoa da, hurrengo kezka soilik planteatzen duena: kaleetan *zehar* paseatzera noa, ala patioetan *barrena*? Eta nik uste dut erantzuna oso sinplea dela. Ibilbide kutunena izango da patioen erditik doana: hortaz, kaleak hondarreko zerbaiten moduan geratuko dira, hutsik eta deigarri izateko gaitasun gutxirekin»[118].

Azken ehundura-forman ikusi bezala, horrenbestez, gogorarazi beharra dago partzelazio-, urbanizazio- eta eraikuntza-faseak ordena antzekoetan jazo arren, emaitza gisa hiri-hazkunde mota zeharo desberdinak gerta daitezkeela, baldin eta espazio partzelatuaren eta espazio libre publikoaren arteko harremanak arras

117. Madrilgo 1985eko Plan Orokorrean sortutako Valdebernardoko PAU-4 zabalgunea kudeatzeko hirigintza-partzuergoa 1989an sortu zen. Jarduera Urbanizatzailerako Programa —José María Ezquiaga eta beste hirigile batzuek idatzia— 1990ean onetsi zen eta ondorengo sei urteetan gauzatu. 6.000 etxebizitza ditu; % 90, babes publikokoak.

118. Egilearen itzulpena. Rowe, C. (1985): "La IBA entre *respublica* y *resprivata*", A&V, **2,** 26-35.

bestelakoak badira. Erakutsi bezala, hiri-hazkunde mota hiri-morfologia aztertzeko eta ulertzeko funtsezko kontzeptua da, azken finean.

3.7. ERAIKINEN TIPOLOGIA

Hiri-hazkunde moten azterketarekin batera, eraikinen tipologia ere oinarrizkoa da hiri-morfologia ikuspegi integralarekin ikertzeko. Arkitekturaren eskala gertuak ere —bereziki etxebizitzarenak— erlazio handia baitu hiriaren eitearekin, eraikin motak harreman zuzen-zuzena baitu partzelaren forma eta tamainarekin, baita azken horren proportzioak etxe-uhartearenarekin ere.

Tipologia da tipoak aztertzen dituen zientzia edo diziplina. Arkitekturaren alorrean, tipoa da egitura formal bereko eraikinen multzoa deskribatzen duen kontzeptua[119]. Hori horrela, esaten da eraikin bat tipo batekoa dela —eraikin-familia batekoa—, baldin eta ezaugarri komun jakin batzuk badauzka. Normalean, ezaugarri horiek gehiago jazotzen dira forma zehatz, funtzio, garai, estilo eta tamaina bereko eraikinetan (ikus 46. irudia). Hala ere, zenbait adituren ustez, tipoaren kontzeptu hertsia, eraikinen egitura formal abstraktuan oinarrituta dagoen heinean, berez, ezaugarri horiekiko independentea da, teorikoki[120]. Adibidez, patiodun hiri-etxe hesitu eta laukizuzenen eraikin-tipo barnerakoiak Antzinako Greziako zenbait hiritako etxebizitzei zein Ludwig Mies van der Rohe arkitektoak 1930eko eta 1940ko hamarkadetan garatutako etxe-proiektuei egin diezaieke erreferentzia, oso testuinguru ezberdinetan —bi milurteko baino gehiago daude haien artean— diseinatuak izan arren[121].

Tipoa eta eredua, hortaz, kontzeptu arras ezberdinak dira, Quatremère de Quincy teorialariak —arkitektura-tipoaz jardun zuen lehena— 1825ean argi esan bezala: eredua kopia zehatzean oinarritzen den bitartean, tipoak ideia metaforikoagoa edo abstraktuagoa du funtsa[122]. Horrela, arkitekturaren historiaren zati handi batek eraikin-tipoaren bilakaera geldoa izan du oinarri, XIX. mendera arte, bederen, zeinean arkitekto artistaren originaltasuna baloratzen hasiko baitzen, tipoaren kontzeptua gutxika alde batera utziz.

---

119. Moneo, R. (2004): "Sobre la noción de tipo", *El Croquis*, **20-64-98**, 584-606.

120. Azpimarragarria da, zentzu horretan, Carlos Martí arkitektoaren doktorego-tesi landua. Martí, C. (1993): *Las variaciones de la identidad. Ensayo sobre el tipo en arquitectura*, Serbal, Bartzelona [1. argit. ISBN 978-84-7628-102-4].

121. Ikus, esaterako, Pere Joan Ravetllat arkitektoaren doktorego-tesia, zeinak Ponpeiako eta Mies van der Roheren patio-etxeak alderatzen baititu. Ravetllat, P. J. (1993): *La Casa pompeyana: referencias al conjunto de casas-patio realizadas por L. Mies van der Rohe en la década 1930-1940*, UPC, Bartzelona [ISBN 9788469092323].

122. Quatremère de Quincy, A. C. (1825): *Encyclopédie Méthodique Ou Par Ordre De Matières: Architecture, Volume 3*, Agasse, Paris [ISBN gabe], 545. or.



46. irudia. Tipo bereko hiru eraikin ezberdin. Ezkerretik eskuinera, XII. eta XIII. mendeetako Parisko, Reimsko eta Amiensko katedral gotikoen oinplanoak. Iturria: É. J. Corroyer, 1893[123].

Laburbilduz, erlazio espazialez gain, bi gai dira funtsezko eraikin-tipoaren konfigurazioan, bereziki bizitegi-funtzioa dutenen artean, hots, etxebizitza-eraikinetan: egitura-tartea eta argiztapen naturala. Izan ere, eustormen eta zutabeen arteko distantziek zein leihoak ezartzeko eskakizun arkitektonikoek —sakonera eta beste— harreman estu-estua dute etxebizitzaren banaketarekin, eta, azkenean, horrek eragin zuzena du eraikin osoaren, partzelaren eta are etxe-uharte guztiaren tamaina eta proportzioan. Alegia, etxebizitzetako gelen tamainek bukatzen dute hiriaren forma ere nolabait baldintzatzen.

Bitxia bada ere, Antzinako Greziako etxebizitzetako habe-hutsarteak ez dira horren ezberdinak gaur egun erabiltzen ditugunekin alderatuta. Aurretik aipatutako Olinto hiriko K.a. V. mendeko zabalpenean, esaterako, non 86,2 x 35,6 m-ko etxe-uharteak baitzeuden (ikus 33. irudia) —bost etxeko bi ilaratan banatuta, drainatzerako eta suteen aurkako etxarte oso estu batek bereizita—, 17,15 m-ko etxe karratuak zeuden eraikita (294 m^2-ko azalerakoak). Ziurrenik, etxe horien neurriak *andron* edo *andronitis* izeneko gela garrantzitsuan —gizonen afaltegia— zeuden oinarrituta, zeinak 4,75 x 4,75 m-ko azalera izan ohi zuen[124] (gela nagusi gehienak ziren 4,5 eta 5 m artekoak; ikus 47. irudia).

123. Corroyer, É. J. (1893): *Gothic Architecture,* Macmillan, New York [ISBN gabe], 59., 68. eta 72. or.

124. Cahill, N. (2002): *Household and City Organization at Olynthus*, Yale University Press, Londres.[ISBN 0-300-08495-1].



47. irudia. Ezkerretik eskuinera, Antzinako Greziako Olinto eta Priene hirietako patio-etxebizitza bana[125].
Iturriak: David M. Robinson, 1946; Theodor Wiegand, 1904[126].

4,5 eta 5 m arteko distantzia hori da, hain zuzen, etxebizitzaren historian gehien erabili den —eta oraindik ere erabiltzen den— habe-hutsartea. Arrazoia agerikoa da: neurri horretan bat egiten dute etxeetarako eskakizun estrukturalek, konstruktiboek zein behar funtzionalek. Horrexegatik ondorengo Erdi Aroko hiri-etxebizitza gotiko estuak ere antzeko zabalera edukiko du, 4,5 m ingurukoa, erdian zutabeen beharrik gabe zurezko habeek aise iragan zitzaketen hutsartea (ikus 48. irudia).

Alabaina, nahiz eta Antzinako Greziako eta Erromako zein Erdi Aroko etxebizitzek 4,5 eta 5 m inguruko zabalerako gela neurriz antzekoak eduki, hirihazkunde mota arras ezberdinak sortu zituzten, gela horiek modu diferenteetan multzokatu zituztelako. Arrazoi nagusia arestian aipatutako bigarren ezaugarrian datza: argi naturala sartzeko modu desberdinean, alegia. Grezian eta Erroman barneko patioak ahalbidetu zuen etxebizitza barnerakoi horiek sakon samarrak —karratuxeak— izatea; Erdi Aroan, berriz, argia aurreko kaletik zein atzeko lorategitik soilik zetorrenez, etxea modu kanporakoiago batean planteatu zen, hasieran bederen: hastapenean artisau-tailerdun etxe familiabakar atxikiak omen zirenak, alde zaharretako ondorengo dentsifikazioak eta espekulazioak eraginda, XVI. eta XVII. mendeetan, kolektibo —eta hainbat solairutako— bihurtuko ziren, aneka-formako[127] tipo luzanga —eta ez hain egokia, argiztapen naturalari dagokionez— sortuz

125. Olintoko etxearen oinplanoko *andron* delakoa da «a» hizkia duena; Prienekoa, 5,30 x 5,30 m-ko gela.

126. Olintoko etxearen oinplanoa: Wycherley, R. E. (1949): *How the Greeks Built Cities, op cit.,* 189. or; Prieneko XXXII. etxearen oinplanoa: Edgell, G. H; Kimball, F. (1918): *A History of Architecture,* Harper & Brothers, New York [ISBN gabe], 93. or.

127. Anekarena —alproja, zakuto— etxearen oinaren formatik eratorritako metafora da: aneketan bezala, etxebizitzaren erdiko aldea asko estutu egiten da, zona zabal bat aurreko kalera eta beste bat atzeko kainura antolatuz.

(Linazasoro, 1978: 158). Askotan, eraikin-tipoak denborarekin bilakatu egiten dira, garaian garaiko erabilgarritasun-, erosotasun- eta ekonomia-beharretara egokitzeko; hala ere, partzelazioa, hiri-bilbearen formaren funtsa, askoz ere iraunkorragoa suertatzen da, lurzoru-jabegoaren banalerroak aldatzea zeharo nekezagoa eta geldoagoa izaten delako.

48. irudia. Gasteizko Alde Zaharreko Pintore kaleko lote gotikoko bi aneka-formako etxebizitzaren oinplano kotadun (egungo egoera). Iturria: egilearena.

Antzeko konparazioa egin daiteke 20 x 20 m-ko bi etxebizitza-partzela ezberdinen artean: XVI. mendeko Napoliko Quartieri Spagnoli delako auzo bereziko etxeen eta Bartzelonako XIX. mendeko zabalgune burgeseko etxe-uharteetako izkina handietako etxebizitzen artean. Biek ala biek dute 400 m^2 inguruko azalera —Bartzelonakoek zertxobait gutxixeago, izkinako alaka dela-eta—, baina hiri-ehundura arras ezberdina sortzen dute, biak karratuak —karratuxeak— izanagatik. Izan ere, Napoliko etxeak, espainiar soldaduak jasotzeko eraikitakoak, oin erregularreko 20 x 20 m-ko eraikin txikietan antolatu ziren —behekoa gehi hiru edo lau solairukoak—, oso pikor koskorreko hiri-bilbea osatuz[128]. Bartzelonakoak, ordea, 20 m-ko sakonerako 113 x 113 m-ko patiodun etxe-uharte aski erraldoietan bildu ziren, etxebizitzen erdiko zona argiztatzeko eta aireztatzeko argi-patio txikien

128. Akaso, Juan Bautista de Toledo arkitekto famatuak auzoaren plangintzan parte hartu zuen; izan ere, dokumentatuta dago auzoaren ekialdeko mugako Via Toledo kale berri ezaguna diseinatu zuela 1546 inguruan, eta, Secundino Zuazoren arabera, baita kale hori eraberritzeko «erasandako auzo berrien planoak egin zituen». Zuazo Ugalde, S. (1964): "Juan Bautista de Toledo y Juan de Herrera", *Cuadernos de la Fundación Pastor*, **9**, 37-67 [ISSN 0532-8551].

beharra ere azalduz, eta askoz ere pikor handiagoko oso bestelako hiri-ehundura sortuz (ikus 49. irudia), ortogonala ere izan arren. Oso erlazio ezberdina dute, beraz, eraikuntzaren eta partzelaren artean.



49. irudia. Ezkerrean, Napoliko Quartieri Spagnoliko etxe-uhartearen oinplano-tipoa; eskuinean, Bartzelonako zabalguneko izkinako etxebizitza-tipo bat eta etxe-uharte osoa, eskala bertsuan[129].



50. irudia. Bartzelonako XIX. mendeko zabalguneko etxe-uhartearen zatiketa-proposamena. Iturria: egilearena, Léon Krierren 1976ko *The New Manzana* marrazkia oinarri.

129. Iturriak: Napoliko etxe-uhartea, Unzurrunzaga, X. (1996): *La construcción del territorio y la ciudad,* EHU, Donostia [apunteak; ISBN gabe]; Bartzelonako izkinako tipoa, Rossi, 1999: 255 (Josefa Villanueva etxea, Juli Maria Fossa Martínez arkitekto modernistarena, 1904-1909; Roger de Llúria kaleko 80. ataria eta València kaleko 312.a); partzela-katastroarekiko fotomuntatzea, egilearena.

Zentzu horretan, Léon Krier hirigile eta teorialariak Napoliko hiri-eskala txikiagoaren alde egin du sutsuki 1970eko hamarkadaren amaieratik. Haren ustez Bartzelonako XIX. mendeko zabalgunearen ereduak sortzen duen kalea luzeegia omen delako, besteak beste. Bere ideia hobeto adierazteko, hain zuzen ere, 1976an Bartzelonako etxe-uhartea lau zatitan banatzea proposatu zuen modu probokatzailean, 24 x 24 m inguruko partzeletan (ikus 50. irudia). Horrela, etxe-uharteetako fatxada publikoen luzera 400 m-koa izatetik 900 m-koa izatera igaroko litzateke, guztira, hiri-aniztasunaren ustezko handipen proportzionalarekin (Fernández de Betoño, 2012: 69-70). Interesgarria izan zen, halaber, proposamen horri Solà-Moralesek emandako erantzun idatzia, zeinean esaten baitzuen etxe-uharteak hainbeste txikiagotzea gehiegizkoa zela, kaleen proportzioa —8,5 m-ko zabalera eta 22 m-ko garaiera— erabat eraldatzen zelako, ia-ia dorreak sortuz (2008: 117-121).

Egungo hirigintza-plangintzan etxebizitzen tipologia sailkatzen denean, eraikinen arteko erlazioa —eraikinak nola multzokatzen diren— zein eraikinen eta partzelen arteko harremana hartzen da kontuan, batez ere. Horrela, hurrengo sailkapena egin ohi da (Santamera, 2007: 70):

a) Eraikuntza isolatua edo bakartua: partzelaren barnean exentu dagoena.
b) Eraikuntza (ilaran) atxikia: mehelinen artean dagoena.
c) Eraikuntza binakatua: bi eraikinek mehelin bakarra elkarbanatzen dutenean (egiazki, eraikuntza binakatua eraikuntza atxikiaren kasu berezi bat litzateke, besterik gabe).

Oinarrizko sailkapen horri, etxebizitza-tipologiaren kasuan, partzelan dauden etxeen kopurua ere gehitu ohi zaio, ondoriozko bi multzo handi osatuz: etxebizitza kolektiboak eta etxebizitza familiabakarrak. Hortaz, oinarri-oinarrian, etxebizitza kolektibo isolatuak daude, etxebizitza kolektibo atxikiak (eta binakatuak), etxebizitza familiabakar isolatuak eta etxebizitza familiabakar atxikiak (eta binakatuak).

Bestalde, egungo hirigintza-plangintzaren alorreko tipologiari dagokionez, eraikuntza itxiaz eta eraikuntza irekiaz ere hitz egin ohi da —edo ordena itxiaz eta ordena irekiaz, dagoeneko aipatu den bezala (ikus 71. orrialdea)—, eraikinen eta espazio libre publikoen arteko harremanaz aritzeko. Batetik, eraikuntza itxia esaten zaio fatxadetako kanpoko lerroak bat egiten duenean partzelaren lerroarekin, eraikinak kalearen lerrokadura errespetatzen duela; eraikuntza itxia, normalean, eraikuntza atxikia izaten da, mehelinen artean eraikitzen dela, etxe-uharte zerratuak osatuz. Bestetik, eraikuntza irekia esaten zaio fatxadetako kanpoko lerroak ez duenean bat egiten partzelaren lerroarekin, eraikinak kalearen lerrokadura errespetatzen ez duela; eraikuntza irekia, normalean, eraikuntza isolatua izaten da —edo nolabait multzokatua—, partzelaren barnean exentu eraikitzen dela, blokeak edo dorreak osatuz. Hala ere, esan beharra dago badirela adituak eraikuntza irekia

modu orokorrago batean ulertzen dutenak. Javier Pérez Igualadaren ustez, esaterako, eraikuntza irekia da «ahalbidetzen duena bere paramentu zabalek kanpoaldearekiko kontaktu zuzena edukitzea»[130], lerrokadurak gorabehera. Horrela, kalearekiko paraleloa izan arren —kontuan hartu behar da *zeilenbau* edo ilara-eraikinetan oinarritutako hirigintza-finkamenduak dezente hedatu zirela—, etxebizitza-bloke kolektibo bat eraikuntza irekitzat jo daiteke, ziurrenik egokiagoa den azken definizio malguago —eta kontzeptualago— horri jarraikiz (ikus 51. irudia).



51. irudia. Ordena itxitik ordena irekirako etxe-uhartearen bilakaera modernoa. Iturria: Ernst May, 1930[131].

Garrantzitsua da eraikuntza itxiaren eta eraikuntza irekiaren arteko lehia eraikin-tipologiaren historia gertua ulertzeko. Izan ere, XX. mendearen lehen erdialdean sortutako Mugimendu Modernoak protagonismo osoa eskaini zion arkitekturari, hirigintzaren kaltetan. Etxebizitzaren afera funtzionaltasunaren ikuspegi arrazional soiletik aztertu zen, industrialki ekoitzi beharko litzatekeen *existenzminimum* edo existentzia minimorako zelula arkitektoniko txikienaren eta merkeenaren bila, Lehen Mundu Gerraren osteko etxe-premia konpontze aldera.

1929an, hain zuzen, *Die Wohnung für das Existenzminimum* (existentzia edo biziraupen minimorako etxebizitza) izeneko kongresu itzal handikoa antolatu zen Frankfurten, Ernst Mayren gidaritzapean, CIAM biltzarraren bigarren saio gisa. Bertan erakutsitako proiektuetan frogatu zen zehazki aztertzen ari zela etxebizitza arrazionalenaren gaia, historian inoiz baino zorrotzago, ziurrenik (ikus 52. irudia).

130. Pérez Igualada, J. (2005): *La ciudad de la edificación abierta. Valencia, 1946-1988*, UPV, Valentzia [doktorego-tesia; ISBN gabe], 9. or.

131. May, E. (1930): "Fünf Jahre Wohnungsbautätigkeit in Frankfurt am Main", *Das neue Frankfurt,* **2/3,** 21-70, 34. or.



52. irudia. 1929ko Frankfurteko *Die Wohnung für das Existenzminimum* kongresuan —CIAM biltzarraren bigarren saioa— erakutsitako hiru panel. Iturria: *Das neue Frankfurt,* 1929[132].

Hala ere, etxebizitzen multzokatzea eta etxe-uharteen osaera aparteko kontua izan zen, baita erabat etsigarria ere, ohiko kalea eta espazio libre publiko tradizionala erabiltzen duen oinezkoaren ikuspuntutik, bereziki. Izan ere, nahiz eta arkitekturaren eskala txiki eta autonomoan oso-oso ikertuta egon etxebizitza-zelula, batez ere eraginkortasun espazialaren ikuspuntutik, hirigintzaren eskala handiagoan —ustez[133]— ondo orientatutako bloke lineala egoera ia guztietarako aski zela pentsatu zen, 1920ko, 1930eko, 1940ko eta are ondorengo hainbat planetan, are hiri berri osoak antolatu behar zituztenetan ere (ikus 53. irudia).

Mugimendu Modernoaren *hirigintza*k —zehazkiago, arkitektura esan beharko litzateke— espazio eraikian jarri zuen arreta guztia, hau da, bolumenetan, espazio libre publikoaren kalterako. Partzelazioaren indarra ere gutxietsi zuen, baita modu harrigarrian gutxietsi ere, partzela baita, hain zuzen ere, eraikinaren eta hiri-formaren arteko bitartekaria, eta, gainera, eraikuntza bera baino hiri-elementu askoz ere iraunkorragoa. Hala ere, Mugimendu Modernoak partzelazioaren diseinua ere ekidin egin zuen, arkitektura-objektuen funtzioak eta edertasunak itsututa (Ezquiaga, 1990: 12).

132. Ezkerreko panela: Siedlung Praunheim, Frankfurt (Ernst May eta Eugen C. Kaufmann, 1926-1929); erdiko panela: Wohnhausanlage Rauchfangkehrergasse, 26, Viena (Anton Brenner, 1924-1925); eskuineko panela: segur aski Siedlung Haselhorst, Berlin-Spandau (Eugen C. Kaufmann eta —Haselhorst izatekotan— Herbert Boehm, 1929). May, E. (1929): "Die Wohnung für das Existenzminimum", *Das neue Frankfurt,* **11,** 209-212.

133. Bloke linealen orientazio egokienari buruz ez dago iritzi bakarra. Baziren fatxada estuena iparrera jartzearen aldekoak, beharbada gehiengoa, etxebizitzek ekialde-mendebalderako orientazio bikoitza eduki zezaten, baina baita kontrakoa uste zutenak ere, etxebizitzen eguneko zona —egongela, jangela— hegoaldera erabat orientatuta egoteko arrazoibidepean.



53. irudia. Sobietar Batasuneko Schtscheglowsk (egungo Kemerovo, Siberia) hirirako plan orokorra eta auzo-unitate zati bat. Ernst May, 1930-1931. Iturria: *Das neue Frankfurt,* 1931[134]**.**

Gaur egun ere antzeko fenomeno bat jazotzen ari da, beste era batean bada ere, ezinbestekoa den eta denboran zehar malguagoa izan daitekeen lurzoruaren tratamenduaren gainetik eraikuntzaren antolakuntza geometriko zehatzari garrantzi erabatekoa ematen zaiolako. Hiriaren proiektu konplexua eraikinen proiektura —edo eraikinen lerrokadura apetatsuetara— murrizten da gehienetan, hirigileen ondoren datozen arkitektoen arbuio logikoa sorrarazi ohi duena, haien diseinu-askatasuna oso txikia delako (ikus 54. irudia).

Hori dela-eta, ondo bereizi beharko lirateke hirigintzan behar-beharrezkoak eta iraunkorrak diren elementuak, bigarren mailakoak eta aldakorrak direnengandik. Alegia, iraunkorra den espazio libre publikoa, eta aldakorra den —aldakorragoa, gutxienez— espazio eraikia. Lehen mailako aldagaia —espazio libre publikoa— partzelen antolakuntza zehatzaren bidez ezarri beharko litzateke, eta, bigarren mailakoa —eraikuntzaren antolakuntza—, ordea, eraikuntza-ordenantza malguen —ahalik eta malguenen— bidez (Ezquiaga, 1990: 14). Eraikuntzaren ordenantza baita partzelaren eta eraikin-tipoaren arteko harremana doitzen duen hirigintza-tresna, derrigorrezko lerrokaduren ohiko diktaduraren aurrean, hirigilearen ondoren datorren arkitektoari askatasun nahikoa eman beharko liokeena.

Eraikinen tipologia, eta, bereziki, etxebizitzena, horrenbestez, ezinbestekoa da hirigintzaren prozesuak aztertzeko, ulertzeko eta proiektatzeko. Alabaina, ez da komeni espazio partzelatuaren eta espazio libre publikoaren arteko harreman garrantzitsutik kanpoko kontu autonomotzat jotzea, ez bazaio garrantzi handiagorik eman nahi arkitektura-objektuari, hiriaren eraikuntza kolektiboaren aurrean.

134. May, E. (1931): "Der Bau neuer Städte in der U.D.S.S.R.", *Das neue Frankfurt,* **7,** 117-134.

54. irudia. Beltzez, Bilboko Mina del Morro auzorako 1992an planifikatuta zeuden etxebizitza-eraikinak[135]. Iturria: HAPOren Testu Bategina, 1995 (erabilera xehatuen planoa; egileak aldatuta).

Izan ere, hirietan betidanik jazo den zatiaren —arkitektura-objektu indibidualaren— eta osotasunaren —eraikinen eta espazioen batuketa kolektiboaren— arteko dialektikan berritasun handia ezarri zuen 1920 inguruan hasitako modernitateak, aurreko guztiarekiko apurketa estetikoaren eta originaltasunaren kontzeptuak historian lehen aldiz balioetsiz. Oso ondo azaldu zuen Carl Petersen arkitektoak hiri modernoak ekarritako aldaketa sakon horren eragina, erabateko gaurkotasuna duten esaldiotan: «Antzinako hirian alde nabarmena zegoen plaza itxietako lur-azalera handiaren eta kale estuen artean; plaza modernoak, ordea, ez du barne-espazio mugaturik: zabalegiak diren kaleen arteko bidegurutze bat baino ez da. Etxeek dagoeneko ez dute osatzen osotasunaren zati bat; haietako bakoitza, orain, aparteko entitate bereizi bat da. Etxe bakoitzak hogei forma eta tamaina ezberdinetako leihoak ditu, hainbat altueratara kokatuta. Etxebizitza-eraikinek dagoeneko ez dute osatzen

135. Federico Arruti Aldape eta Manuel Salinas Larumbe arkitektoena da postmodernotzat jo daitekeen diseinua —1.165 etxebizitza jaso behar zituena 29,12 hektareako eremuan—, ondorengo urteetan dezente aldatuko zena, bereziki hegoaldeko poligonoari dagokionez, non Larreagaburu parkea sortuko baitzen. Informazio gehigarrirako, ikus Martínez Callejo, J. (2009): Bilbao: *Desarrollos urbanos 1960/2000. Ciudad y forma,* COAVN/EHAEO, Bilbo [1. argit. ISBN 978-84-878-1350-4], 314-318.

ekipamendu publiko handietarako eszena-hondo apal eta baketsurik. (…) Bat-batean elementu guztiak desintegratzen dira kontraste-serie ikaragarri batean, zeinak edozein enfasi-saiakera zapuzten baitu»[136].

136. Egilearen itzulpena. Petersen, C. (1920): "Contrastes", in S. Paavilainen (ed.) (1982): *Clasicismo nórdico. 1910-1930,* MOPU, Madril [1. argit. ISBN 84-7433-266-4], 45-47.

4. *Polis:* arauaren dimentsioa

4.1. ZONIFIKAZIOA

Hirigintza, jakintza tekniko eta espezializatu gisa, Industria Iraultzak eragindako hiri-arazoak konpontzeko sortu zen batik bat, XIX. mendean. Arazo horietako asko hiri-erabilerekin zeuden erlazionatuta. Hirian biltzen ziren funtzio ezberdinen arteko bateraezintasunarekin, alegia. Kasurik argiena etxebizitzetatik gertu eraikitako fabrikatzarrek osatzen zuten, dudarik gabe, haien zaratak, keak eta inguruan sortutako garraiobideek bizikidetza lasaia eta osasuntsua ezinezko bihurtzen baitzuten. Zenbat eta industrialagoa izan, orduan eta funtzio-bateragarritasun arazo handiagoak zituzten hiriak eta hiritarrek.



55. irudia. ***Trenez Londres gainetik*** **grabatua. Gustave Doré, 1870. Iturria: Doré, P. G. eta Jerrold, W. B. (1872):** ***London: A Pilgrimage,*** **Grant, Londres [ISBN gabe].**

Horregatik, Londres handia izan zen gertakari horren adibiderik argien eta goiztiarrena, eta arazo horren lekuko geratu zaizkigu, esaterako, Gustave Doré artistaren grabatu ederrak bezain beldurgarriak (ikus 55. irudia).

Hiri-erabilera bateraezinen afera konpontzeko bi saiakera nagusi jazo ziren XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, jada aipatutakoak: batetik, lorategi-hirien mugimendua, eta, bestetik, Mugimendu Modernoak aldarrikatutako ordena irekiaren hiria. Biak ala biak saiatu ziren hiri osasuntsu eta bizigarria proiektatzen, estrategia ezberdinekin, Industria Iraultzaren ondorioek utzitako hiri-arazoen aurrean. Hala ere, biek hartu zuten kontuan hiri-erabileren bereizketa edo segregazio zorrotza, alegia, hiri-funtzioen zonifikazio zientifiko eta antolatua.



56. irudia. Lorategi-hiri abstraktu bateko erabileren zonifikazio-oinplanoak. Iturria: Howard, E. (1902): *Garden Cities of To-morrow, op. cit.*

Ebenezer Howardek zonatan banatu baitzuen Lorategi-hiri izeneko bere *landa-hiria*. Hiriak zirkulu-forma edukiko luke, hurrengo banaketarekin, zentrotik kanpora (ikus 56. irudia): erdi-erdian, lorategi baten inguruan, eraikin publiko nagusiak leudeke (udaletxea, musika-aretoa, antzokia, liburutegia, museoa…); kanporago, parke handi bat, erdian beirazko jauregi bat edukiko lukeena; kanporago, etxebizitzez betetako bi eraztun leudeke, hiribide zabal baten bi aldeetara, beste ekipamendu batzuk ere jasoko lituzkeena (eskola, eliza…). Hiriaren kanpo-eraztunean, berriz, lanarekin erlazionatutako erabilera zaratatsuagoak eta kutsatzaileagoak leudeke: fabrikak, biltegiak, merkatuak, tailerrak... Eta, azkenik, inguruan, nekazaritza-zonak leudeke, baserritarren etxe eta landetxeekin (Aymonino, 1978: 137-141).

Mugimendu Modernoak oraindik modu erradikalagoan proposatuko zuen hiri-funtzioen banaketa. Zentzu horretan, aipatu beharra dago hiri-erabileren bereizketari dagokionez egiazko aurrekaria izan zen proiektu bat, lorategi-hiriaren garai bertsukoa, Mugimendu Modernoko zenbait arkitektorengan —Le Corbusierrengan, esaterako[137]— eragin nabarmena sortu zuena: Tony Garnier arkitektoaren Hiri

137. Montaner, J. M. (1987): "Tony Garnier: la anticipación de la ciudad industrial", *Annals d'arquitectura*, **4**, 81-92.

industriala, hain zuzen. Izan ere, Garnierrek proiektu teoriko interesgarri eta aurreratua proposatu zuen hiri industrialetan agertutako funtzio-arazoak zientifikoki konpontzeko asmoarekin. 1901etik hura garatzen egon arren, 1904an Parisen erakutsi zuen publikoki, *Une cité industrielle* izenpean, hirigintza modernoaren hainbat oinarri ezarriz, proiektuaren behin betiko argitaratzea —oraindik garatuagoa— 1917an izan arren.

57. irudia. Hiri industrialaren plano orokorra. T. Garnier, 1901-1917. Iturria: Garnier, T. (1918): *Une Cité Industrielle. Étude pour la construction des villes,* A. Vincent, Paris [ISBN gabe].

Lyon hiritik gertuko lurraldearen tankera handiko leku —asmatu— batean kokatuta, mendixka baten eta ibai baten artean, hiri utopiko horren helburua 35.000 langileentzako —herritarrentzako— giro osasuntsu eta bizigarria lortzea zenez, hiri-erabileren zonifikazio zorrotz batean oinarritu zen Hiri industriala, espazialki aski ondo bereiziz bizitegiguneak —etxebizitza-dentsitate ertain edo baxukoak—, ospitalegunea, industrialdea, geltokia, hilerria eta hiltegia (ikus 57. irudia). Garnierren Hiri industriala, halaber, jada existitzen omen zen herri —asmatu— baten alboan finkatu zen, zeinak autonomia formala ere mantenduko baitzuen. Eta, gorago, aldenduta, guztiaren energia-hornitzaile izango ziren urtegia eta zentral elektrikoa. Kudeaketa bitxia ere edukiko zuen Hiri industrialak, lurzoru guztiaren jabegoa publikoa izango omen baitzen. «Industriaren garai berrirako Arkadia

sozialista eta mediterraneo baten proposamena zen»[138], azken finean. Zientifikoki eta bere osotasunean zonakatuta betiere, metropoli handi bat izatera ailegatu ez arren, hiri ertain batean ere erabilera-bateragarritasun arazoak suerta zitezkeela agerikoa baitzen.



58. irudia. 58. irudia. New Yorkeko 8. barrutiko erabilera-zonifikaziorako planoa eta legenda-zatia. New Yorkeko *Zoning Resolution* (zonifikaziorako ebazpena), 1916.

Hirietako fabrika kutsagarriekin bezalatsu, antzeko erabilera-bateraezintasunak sortu ziren lehen etxe-orratzak agertu zirenean, XX. mendearen hasieran, oro har erabilera tertziarioak jasotzeko eraikiak izan zirenak. Bulegoetarako eraikin altu berriek itzala sorrarazten zieten etxebizitza-eraikin baxuagoei, baita ikuspegiak oztopatzen ere. Zentzu horretan, New Yorkeko Equitable bulego-eraikinaren 42 solairuko garaierak —164 m— hautsak harrotu zituen 1915ean bukatu zutenean, eta auzotarren kexen ondorioz, demaseko garaieren eta hiri-erabilera ezberdinen arteko arazoa nolabait kontrolatu beharra zegoela argiro azaleratu zen. Gainera, garai bertsuan, tailerrak eta fabrikak ezartzen hasi ziren moda-dendez betetako Fifth Avenue esklusibotik oso gertu, dendari batzuentzat egoera deserosoa eta desatsegina eratuz[139]. Horrenbestez, *Zoning Resolution* izeneko lege-ebazpen aitzindari bat jarri zen indarrean 1916an, zeinak, hiri-erabilerak arautzeaz gain (ikus 58. irudia), etxe-orratzetan altuera batetik gora atzeraguneak ere ezartzen derrigortu baitzituen.

138. Montaner, J. M. (1987): "Tony Garnier: la anticipación de la ciudad industrial", *op. cit.,* 87. or.

139. Burden, A. M. (zuz.) (2011): *Zoning Handbook. 2011 Edition*, Department of City Planning, New York [1. argit. ISBN gabe], 1. or.

Tresna juridiko batez baliatu zen, beraz, hiri-erabileren arteko gatazka konpontzeko asmoarekin, ondorengo urteetan leku askotan kopiatuko eta doituko zena.

Alabaina, hiri-erabileren zonifikazio zorrotzean oinarritutako hirigintzaren aldarrikatzaile nagusiak Mugimendu Modernoko hainbat arkitekto izango ziren, bereziki CIAM kongresuetan parte hartu zuten hirigileak, Le Corbusier gidari. Aurretik esan bezala (ikus 71. orrialdea), Le Corbusierrek eta bere akolitoek hiria lau funtzio nagusien arabera zorrozki bereizi behar zela predikatu zuten, baita sutsuki predikatu ere: bizitzea, lan egitea, gozatzea —fisikoki zein espiritualki— eta zirkulatzea. «[Hirigintzako] planek lau gako-funtzioei esleitutako barruti bakoitzaren egitura zehaztuko dute, bai eta osotasunarekiko haien kokapena adierazi ere» zioen 1933ko Atenasko Agiriaren 78. artikuluak (Le Corbusier, 1979: 120)[140], erabat argi utziz hiri-erabileren nahasketaren aurkako gerra abian zela.

Horrexegatik aldatu zuen Le Corbusierrek bere hirigintza-proposamen generiko handinahia, 1922ko hiru milioi biztanlerako *Ville Contemporaine* (Hiri garaikidea) hierarkiko eta zentralizatutik, 1935ean argitaratutako *Ville Radieuse* (Hiri erradiatzailea) segregatura. Azken horretan, hain zuzen ere, hiri-erabilerak hainbat zerrendatan antolatu zituen: hezkuntzarako satelite-auzoen zona, komertziorako zona, bidaiarien garraiorako zona —trenbideak eta hegazkinak barne—, hotel eta enbaxadetarako gune tertziarioa, etxebizitzetarako zona, berdegunea, industria arinerako zona, biltegi eta merkantzia-trenbiderako zona, eta, azkenik, industria astunerakoa (Frampton, 2005: 182). Teorian infinituraino eta modu independentean linealki heda zitezkeen zerrenda horiek —azken finean Hiri erradiatzaileak eredu linealari jarraitzen baitzion—, beraz, zientifikoki banatzen ziren, elkarren arteko arazoak ekiditeko asmoarekin.

Bereizketa erradikal horretan oinarrituko zen, hain zuzen ere, Brasilgo Brasilia hiriburu berriaren oin orokorra, hiri-zonifikazioaren inoizko adibide garbienetako bat. Lúcio Costa hirigileak 1957ko lehiaketan proposatutako eskema bati jarraikiz —erdiguneko—, Brasilia bi ardatz soiletan oinarritutako hiria da, 500.000 biztanlerako pentsatutakoa: monumentuen ardatza —gobernu-eraikinak eta beste hainbat ekipamendu komunitario biltzen dituena—, ekialdetik mendebaldera doana, eta etxebizitzen ardatza, iparretik hegoranzko kurba leun eta luze batean doana (ikus 59. irudia). Guztia, espazio libre berde erraldoiez hornituta, hiri-distantziak nabarmenki handitzen dituztenak, eta errepide azkarrez lotuta, hiri-ehunduraren jarraitutasuna zeharo apurtzen dutenak.

140. Egilearen itzulpena.



59. irudia. Brasiliako plan gidariko oinplanoaren xehetasuna[141]. Lúcio Costa, 1957 (hiria 1960an inauguratuko zen, hainbat aldaketarekin).

Arkitektura moderno oso ederra izanagatik ere —Oscar Niemeyer arkitektoak zerikusi handia eduki zuen zeregin horretan—, eta 260 x 260 m-ko etxe-uharte handien launakako auzo-unitate aski interesgarriak proposatzeagatik ere, Brasiliako zonifikazio zorrotzak kale egin zuen hainbat hirigintza-alderditan, baita soziologikoan ere: «Brasilia, Le Corbusierren 1933ko *Ville Radieuse* bezala, zatitutako hiri bat zen; sektoretan banatu zen, haren gizartearen klase-egiturarekin bat egiteko. Antolaketa hark gizarte-bereizketa bultzatu zuen» (Frampton, 2005: 260)[142].

Erabileren zonifikazio berezituan oinarritutako hirigintzaren aurrean, beste hainbat saiakera jazo ziren —eta jazotzen dira— aurkako noranzkoan, edo, gutxienez, bestelako norabide batean, alegia, giza eskalaren eta hiri-auzoaren unitatea indartze aldera. Komunitatea kohesionatzeko hirigintza-ereduek Clarence Perry hirigilearen 1929ko auzo-unitatea izan ohi dute sorburu (ikus 60. irudia), lehenago aipatutako Howarden hainbat ideiarekin zerikusi zuzenean (esaterako, lorategi-hirien hazkundea mugatzeko beharra). Auzo-unitatea motordun ibilgailuen barne-trafikorik gabeko eremua da —beraz, trafiko-bideez inguratutakoa—, ahalik eta autarkikoena zerbitzuei dagokienez. Bereziki, lehen hezkuntzari dagokionez; izan ere, Perryren auzo-unitate bakoitzak, 5.000 eta 9.000 biztanle bitartekoak, Lehen Hezkuntzako eskola bat eduki behar zuen, 5 eta 12 urteen bitarteko 1.000 bat umerentzat bideratuta. Biztanleak mugatzeaz gain, auzo-unitatearen tamaina espaziala ere zedarritu zuen Perryk, umeek 800 bat metro baino gehiago ezin zutela oinez ganoraz ibili kalkulatu baitzuen; hortaz, auzo bakoitzak ez zuen 200 hektarea baino handiagoa izan behar.

141. Iturria: Wikimedia Commons (Uri Rosenheck, CC-BY-SA).

142. Egilearen itzulpena.

Halaber, auzoen barneak leku lasaia —kale bihurgunetsuek igarozko trafikoa ekidin eginez— eta berdegunez eta plazez hornitua izan behar zuen —azalera totalaren % 10—, dendak perimetroko bide inguratzaileetan kokatuz, bereziki bidegurutzeen alboetan.



60. irudia. Ezkerrean, auzo-unitatearen ezaugarrien eskema (Clarence Perry, 1929)[143]; eskuinean, Londresko gizartearen eta funtzioen azterketa-oinplanoa (Arthur Ling eta D. K. Johnson, 1943)[144].

Horrela, auzo-unitatea hiri-ehunduraren oinarrizko unitatetzat eta gizarte-egituraren oinarrizko zelulatzat jo daiteke, hots, komunitatearen adierazpen espaziala (Terán, 1982: 44). Ideia horren jarraitzaileentzat, hiria ez da erabilera-zonatan bereizi beharreko makina soil bat, baizik eta auzo autarkikoen —ahalik eta autarkikoenen— batuketa (ganoraz egituratua, suposatzen da).

Auzoaren garrantziaren aldarrikapena ez da berria, inondik inora. XVIII. eta XIX. mendeko saiakera historiko interesgarri batzuk jazo ziren. Aipagarriak dira, adibidez, 1733an James E. Oglethorpek Savannah-rako egindako plan zoragarriko *ward* direlako auzo-multzo gehigarriak; eta 1859an Ildefons Cerdàk Bartzelonarako diseinatutako zabalgune-plan eraginkorreko merkatuen eta gizarte-zentroen inguruko barrutiak (ikus 61. irudia). Ondoren, XX. mendearen hasierako hiri-soziologoek dezente landu zuten: auzoa gizarte-azterketarako unitate nagusia zen, orduan.

143. Iturria: *Regional Survey of New York and Its Environs* (New York eta haren inguruneen Eskualde Azterketa), Russel Sage fundazioak sustatutakoa; 7. liburukia.

144. Iturria: *London County Plan* (Londres Konderrirako Plana), Patrick Abercrombie hirigileak gidatutakoa.



61. irudia. AEBko Savannah (James E. Oglethorpe, 1733) eta Bartzelonako (Ildefons Cerdà, 1859) auzo-unitateak, goian, eta haien hiri-batuketak, behean.

Eta, hirigintzaren alorrean, Perryren arrastoari jarraikiz hainbat hirigile aritu dira geroago auzo-unitatearen gaian sakontzen —beharbada, modu inuzente samarrean (Sica, 1981: 177)—, hiriaren ekologia delakoa lantzen (ekologia terminoak *etxearen azterketa* esan nahi baitu etimologikoki: *oikos* eta *logos*). Nabarmengarrienak Patrick Abercrombie, Gaston Bardet eta Gabriel Alomar izan dira, baita azken hamarkadotan «New Urbanism» izeneko mugimenduaren inguruko hainbat hirigile ere (bereziki, Léon Krier eta Andrés Duany), hirigintza humanistikoaren aldarrikatzaile bihurtutakoak.

Krierrek, hain zuzen ere, 10.000 edo 12.000 biztanletan eta 32 edo 33 hektareatan mugatzen du bere auzo ideala (Krier, 2013: V. kap.), Perryk gomendatutako auzo-biztanleria handituz eta azalera dezente txikituz (beraz, nabarmenki dentsifikatuz). Neurri horretatik gora, biztanleriari zein azalerari dagokienez, uste da auzoak edo barrutiak desitxuratzen —hasten— direla, eta, horrenbestez, identitatea eta gizatasuna galtzen dutela, alegia, komunitaterako hiria birrintzen dela. Azken batean, komunitate aberats eta neurridun horien batuketa egituratuak osatutako hiria sustatzea izan liteke zonifikazioaren hiri segregatuaren aurka jotzeko bide nagusietako bat, «New Urbanism» mugimenduak jarraitutako arkitektura-estilo aski atzerakoia gorabehera.

Argi dago auzoa ez dela kontzeptu zientifiko bat. Eta ez dela kontzeptu soilik soziologikoa, ezta ere. Egia esan, hirigintzan azken boladan hainbeste erabiltzen

den auzo kontzeptuak gehiago du ideologikotik soziologikotik baino. Kontzeptu politikoa da, politikaren zentzu etimologikoan: polisari —estatu-hiriari— dagokiona. Alegia, kontzeptu urbanistiko hutsa da auzoa. Alde horretatik, —komunitaterako— hirigintzarako tresna garrantzitsu gisa hartu beharko litzateke, zalantzarik gabe.

Auzoan oinarritutako XX. mendeko hainbat hirigintza-esperientziak porrot egin izan arren, bada haiengandik zer ikasi. Gakoetako bat autoari eskainitako protagonismo gehiegizkoa izan daiteke; edo, hobe esanda, autoen eta oinezkoen arteko banaketa zorrotzegia. Hiri aberatsetan osagai gehienak nahastu egiten baitira. Eta, beste gakoetako bat tamaina izan daiteke. Zehazkiago, hiri-zatiaren eta -osotasunaren arteko erlazioa. Hiri osoa ez dadin nukleobakarra izan, baina ezta auzo anitzen batuketa soila ere. Horiek izan daitezke —zonifikazio zorrotzaren aurkako— komunitaterako hirigintzaren oinarrietako bi.

4.2. ORDENANTZAK ETA HIRIGINTZA-PARAMETROAK

Kristoren aurreko I. mendean Zesar Augusto enperadore erromatarrak etxebizitza-eraikinen gehieneko altuera 21 metrora —6 bat solairu— mugatu zuen, eraikin altuegien eraispen-arriskua saihesteko, *Lex Julia de modo aedificorum urbis* izeneko legean[145]. Geroago, Trajanok 18 metrora jaitsiko zuen langa hori, *ius variandi* delakoa baliatuz[146]. Hiriaren osasuna, edertasuna, eta, batez ere, segurtasuna bilatzea zen lehen hirigintza-muga horien helburua, izaera juridikoa bazutenak.

Hiria eraikitzeko lerrokadura-planoa aski ez, eta hirigintza-ordenantzak ere idazten hasi ziren, betebeharreko agindu osagarriak ezartzeko. Hirigintzaren eta arkitekturaren artean nolabaiteko bitartekotza egiteko. XVI. mendeko Hego Amerikaren espainiar kolonizazioan, esaterako, Espainiako erregeek hainbat ordenantza sorta argitaratu zituzten, hiri berrien eraikuntzan derrigorrez jarraitu behar zirenak. Kolonizaziorako hiri-ordenantza ezagunenak Karlos V.arenak (1523) eta Filipe II.arenak (1573) izan ziren, besteak beste, hirien hazkunde erregularra eta mugagabea bultzatzen zutenak.

1666ko Sute Handia delakoaren ondoren Londres berreraikitzeko ordenantzek («Rebuilding of London Act 1666») segurtasuna eduki zuten helburu, logikoa den bezala, etorkizuneko bestelako suteen eraginak murrizten saiatzeko (Sute Handian 13.000 etxebizitza inguru erre ziren; erraz esaten da). Esaterako, eraikinen hormen sakonera haien altueraren arabera arautu zen, baita kaleen zabalera zenbateraino handitu ere. Hortaz, esan daiteke eraikuntza-ordenantzak arkitektura eta hirigintza erlazionatzen dituzten arauak direla. Eraikinek zehatz-mehatz nolakoak izan behar duten mugatu barik, —ahalik eta malguenak izan beharko lukete— jarraibide orokor batzuk ezartzen dituzte.

145. Angosto Sáez, J. F. (1998): *El* ius aedificandi *y el derecho de propiedad sobre el suelo urbano*, Universidad de Murcia, Murtzia [ISBN 84-8371-025-0], 21. or.

146. Latinez, aldaketaren zuzenbidea: Administrazioak —interes orokorraren izenean— arauak aldatzeko duen eskubidea.

XIX. mendeko zabalgune burgesen eraikuntzan zeresan handia eduki zuten eraikuntza-ordenantzek. Lerrokadura-planoekin batera, tresna tekniko horien bidez gauzatu baitziren. Zabalguneetako ordenantzek, oro har, etxebizitzetako gutxieneko eta gehieneko altuerak mugatzen zituzten, baita gehieneko solairu kopurua eta balkoietako, begiratokietako eta eskaileretako ezaugarriak ere (esaterako, eskailerek argiztapen naturala edukitzeko beharra). Halaber, partzeletako gutxieneko azalera ezartzen zuten, baita etxe-uharteetako patioak eratzeko eraiki gabe utzi beharreko azalera ere. Gainerakoan, forma orokorra erregularizatzeko beste muga batzuk kenduta (esaterako, mehelinak fatxadekiko perpendikularki eraiki behar izatea), askatasun handia zegoen zabalguneetako eraikinak egikaritzeko orduan. Egun dagoena baino dezente handiagoa. Izan ere, hasierako ordenantza horien jomuga kalearen forma mantentzea zen, eta, handik aurrera, eraikinaren forma —eta, kasu askotan, baita materia ere— gero eta gehiago zehaztuko zen, osasun- eta erosotasun-betebeharrak ere gero eta zorrotzagoak izango zirelako, baina baita ordenantzen ulerkera irentzaileegi eta hertsiegiagatik ere.



62. irudia. Bartzelonako etxe-uhartearen bolumetria-handitzea, ordenantzak aldatu ahala[147]. Goian ezkerreko 1859ko bertsioan 67.200 m^3 zeuden; behean eskuineko 1975ekoan, berriz, 294.770 m^3.

Zabalguneetan bertan aplikatutako ordenantzen bilakaera aztertzea ariketa ezin interesgarriagoa da. Ordenantzen aldaketek eraikinen bolumetria eraikigarria asko handitzea ahalbidetu zutelako zenbait hamarkadaz. Bartzelonako XIX. mendeko zabalgunean gertatutakoa, esaterako, ikusgarria da (ikus 62. irudia): 1857ko ordenantzen arabera, behe-solairua gehi hiru solairu eraiki zitezkeen; 1891n behekoa gehi bost solairura zabaldu zen eraikitzeko aukera; 1932an beste solairu bat igotzea ahalbidetu zen; 1947an atiko berriak egitea baimendu zuten, baina atzeraemanguneak sortuz, kaleetarako eguzki-izpiak ahalik eta gutxien oztopatzeko. Alegia, denborarekin, hasierako bolumen eraikigarria laukoiztea ahalbidetu zuten zabalguneko eraikuntza-ordenantzen aldaketa kontsekutiboek (gerora, bilakaera dentsifikatzaile horri buelta eman zitzaion, neurri batean).

147. Iturria: Wikimedia Commons (*Amadalvarez* egilearena, CC-BY).

Hirigintzaren alorrean eragin handia eduki zuten beste arau juridiko batzuk osasun-ordenantzak izan ziren —ia-ia legetzat jo daitezkeenak[148]—, XIX. mendean sortutakoak. Logikoa den bezala, Industria Iraultzaren ondorio latzenak pairatzen ari zen herrialdean sortu ziren: Ingalaterran. Lehen *Public Health Act* izeneko araumultzoak, 1848koa, kolera-epidemiaren hedatzea moztea zuen helburu, besteak beste. Horretarako, estrategikoak ziren hiri-zerbitzuekin erlazionatutako gaiak, bereziki ur-hornidura, saneamendua bideratzeko estolda-sistema eta drainatzea. Horregatik, hain zuzen ere, ordenantza horien egileetako bat Edwin Chadwick erreformista izan zen, gizarte-gaietan erabat engaiatutako arkitektoa.

Udalerri-mailako eraikuntza-ordenantzekin batera —beste motatako ordenantzak jada Erdi Arotik bazeuden, foruen garapen gisa[149]—, hala ere, beste hainbat ordenantza agertu ziren XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, hirigintzarekin estuki lotuta, beste lege batzuen araudiak osatzeko. Esaterako, erabilera-ordenantzak, zonifikazioaren hirigintza-teknika gauzatzeko pentsatutakoak. Zonifikazio- edo kalifikazio-ordenantzak soilik hiru lurzoru motari buruzkoak ziren hasiera batean: industriari, komertzioari (eta bestelako negozioei) eta etxebizitzari buruzkoak (Benabent, 2006: 36-37). 1929ko New Yorkeko eskualde-planean, ordea, laugarren erabilera-zona bat ere bereizten zen: berdeguneak eta espazio libreak. Denborarekin, baina, konplexuago bihurtu ziren. Dena den, esan daiteke Europako XIX. mendeko zabalgune burgesetan lerrokadura-plano erregulatzailea eta eraikuntza-ordenantzak erabili ziren moduan, Ameriketako Estatu Batuetan zonifikazio-planoak eta -ordenantzak (*zoning ordinances* direlakoak) erabili zirela —eta oraindik ere erabiltzen direla— hiria planifikatzeko eta gauzatzeko (ikus 63. irudia).

Ordenantzak, egungo hirigintzaren jakintza-alorrean, partzelen barneko eraikuntzak antolatzeko —haien formak eta erabilerak zehazteko— erabiltzen baitira. Ordenantza orokorrak deitutakoek partzela guztiek betetzekoak mugatzen dituzte, eta, ordenantza partikularrak direlakoek, berriz, partzelaz partzela zehazten dituzte mugak. Suerta daitekeen kasuistika osoa aurreikusi behar du, hortaz, eraikuntza-ordenantzak ezartzen dituen teknikari-taldeak. Argiak eta ulergarriak izan behar dute, hirigintza-antolakuntza ondo ordenatuz, baina, halaber, arkitektoen sorkuntza-askatasunari ere leku eginez.

148. Ingalaterra eta Gales osoan aplikatzekoak ziren, Londresko eskualdea kenduta (artean antzeko araubidea bazuena). Horregatik esan daiteke legeekiko antzekotasun handiagoa zutela, udal-eskumena gainditzen zutelako. Egiazki, ordenantzekin parekidetasun handiagoa dute ingeles zuzenbideko *by-law* direlakoek.

149. Ikus Porras Arboledas, P. A. (2009): "Las ordenanzas municipales: sus orígenes, contenidos y posibilidades de investigación", *Vasconia*, **36**, 19-35 [ISSN 1136-6834].



63. irudia. Eraikuntzarako proposatutako hainbat bolumen inguratzaile, erabileraren araberakoak. New Yorkeko zonifikazio-ordenantzak, 1929ko eskualde-planean azaldu bezala[150].

Eraikuntza-ordenantzek, hortaz, eraikinek partzelen barruan bete beharreko baldintzak arautzen dituzte (Esteban, 2001: 123). Eraikinek, halaber, kokapen ezberdina eduki dezakete partzelarekiko, eta, horren arabera, hots, eraikinak partzelaren barnean antolatzeko formaren arabera, hirigintza-parametro jakin batzuk mugatu beharko dituzte eraikuntza-ordenantzek. Ez baita berdina eraikinek kaleen lerrokadurei jarraitzea edo partzelaren barnean modu bakartuan ezarriak izatea. Hori horrela, hiru modu paradigmatiko sailka daitezke partzelen barruko eraikinen antolakuntzari dagokionez: lehena, kaleen lerrokaduran oinarritzen den eraikuntzaren antolakuntza mota (zeinean eraikinek, hein handi batean, kaleen jarraitutasuna mantentzen duten); bigarrena, eraikinak partzelen barruan modu isolatuan ezartzen dituen eraikuntza-antolakuntza (zeinean eraikinak partzeletako mugekiko distantzia jakin batzuetara ezartzen diren); eta, hirugarrena, eraikinen bolumetria zehatza ezartzen duen eraikuntza-antolakuntza (kaleen eta partzelen logikarekiko aparteko izan daitekeena). Kontua da eraikuntza partzelaren barnean antolatzeko hiru sistema horietako bakoitzean hirigintza-parametro batzuk zehaztea eta mugatzea izango dela logikoago eta eraginkorrago.

Eraikinek kaleen lerrokadurari jarraitzea nahi bada, aipatutako eraikuntzaren lehen antolakuntza-sisteman bezala, gauza batzuk zehaztuko dira antolakuntza-planoetan eta beste batzuk eraikuntza-ordenantzetan. Kalearen lerrokadura-lerroa eta zabalera, eta ondoriozko etxe-uhartearen oin-definizioa, esaterako, antolakuntza-planoan mugatuko dira. Ordenantzek beste parametro osagarri batzuk finkatuko

150. Iturria: "The 1929 Regional Plan of New York and Its Environs", 174-175 (jabari publikokoa).

dituzte: eraikinen altuera eta solairu kopuru gehienekoa —antolakuntza-planoan ere zehaztu daitezkeen arren—, sakonera eraikigarria, eraikinen atzeraemanguneak eta etxe-uhartearen barneko espazio librea.

Eraikinak partzelaren barruan modu isolatuan ezarri nahi badira, eraikuntzaren bigarren antolakuntza-sisteman bezala, antolakuntza-planoetan etxe-uhartearen oin-definizio geometrikoa agertuko da (ikus 64. irudia), eta, eraikuntza-parametroetan, ordea, gutxieneko partzela eraikigarriaren azalera —lurzoruaren demaseko zatiketa mugatzeko helburuarekin— eta eraikigarritasuna —eraikitako gehiegizko intentsitatea eta bolumetria mugatzeko xedearekin— izango dira parametro nagusiak. Halaber, partzelaren barneko okupazio gehienekoa, eraikinek partzelaren mugetarako bete beharreko gutxieneko distantziak eta partzelaren gutxieneko zabalera mugatu ohi dira. Kontuan hartu behar da eraikuntzaren bigarren antolakuntza mota honetan, gainera, partzelaren hesiak eduki dezakeen eragin estetiko eta urbanistikoa (altueragatik eta opakotasunagatik, besteak beste).

Eta eraikinen bolumetria zehatza ezarri nahi bada, eraikuntzaren hirugarren antolakuntza-sisteman bezala, definizio geometriko osoa antolakuntza-planoetan agertuko da, oinplanoen eta sekzioen bidez. Hortaz, eraikuntza-ordenantzak ez dira ia beharrezkoak izango, kontu zehatzaren bat argitzeko ez bada. Bolumetriaren definizioa malgua izatekotan, hala ere, zehaztutako lerrokadurak gehienekoak izango dira eta ordenantzen beharra handiagoa izango da, bereziki gehieneko eraikigarritasunaren parametroa mugatzeko.



64. irudia. Bikuña guneko 03.1 hiri-arearako orrialde grafikoa, non eraikuntza-, erabilera- eta jabari-baldintzak zehazten diren. Idiazabalgo HAPOren hasierako onespen-agiria, 2011.

Dena dela, gaizki-ulertuak saihesteko helburuarekin, kasu guztietan zehazki definitu beharko da zer jotzen den sotoko —eta erdi-sotoko— solairutzat eta behe-solairutzat; nola eta nondik neurtzen diren hegalak; nola zenbatzen den eraikigarritasuna kasu berezi guztietan (arkupeak, balkoiak, terrazak, zenbait motatako zuloak)… Bete beharreko arauak diren heinean, eraikuntza-ordenantzek ez dute anbiguotasunerako eta zalantzarako esparrurik utzi behar.

Zentzu horretan, ondo legoke hirigintza-plan guztietarako eraikuntza-ordenantzen eredu egoki bat, denak hizkuntza antzekoan mintzatzeko, ulermena —eta betetzea— hobetze aldera. EAEn, helburu horrekin hain zuzen ere, eraikuntzaren eta urbanizazioaren udal-ordenantzetarako ereduak argitaratu ditu Eusko Jaurlaritzak, 2/2006 Lurzoruaren Legearen azken xedapenetako bigarrena garatuz (EAEko Administrazioa. Jaurlaritzaren Lehendakaritza, 2006: 15.569)[151].

4.3. HIRIGINTZA-ZUZENBIDEA

Administrazio-zuzenbidearen adar bat osatzen du hirigintza-zuzenbideak. Lurzoruaren erabilerak, intentsitateak eta jabariak erregulatzen dituzten hirigintza-arau guztiak biltzen ditu bere baitan. Arestian aipatutako eraikuntza- eta urbanizazio-ordenantzak, hortaz, hirigintza-zuzenbidearen zati dira. Hala ere, badira bestelako hirigintza-arauak. Izan ere, hirigintza-zuzenbidearen iturriak konstituzioek, lege organikoek, lege arruntek, dekretuek, araudiek (erregelamenduek) eta ordenantzek osatzen dituzte. Eta, gainera, hirigintza-plangintzako tresnak ere badira —gidalerroak, planak, azterlanak, katalogoak—, aurrekoez gain, hirigintzaren arkitektura juridiko konplexuaren barne ere sar daitezkeenak, maila normatiboa ere badutelako.

Hortaz, hirigintza-zuzenbidea gorpuzten duten fase nagusiak hurrengoak lirateke: lehenik eta behin, hirigintza-plangintza, non hirigintzaren antolakuntza planetan zehazten den; bigarrenik, hirigintza-kudeaketa, zeinean eskubideak eta betebeharrak, epeak eta hirigintza gauzatzeko beste hainbat xehetasun zehazten diren; hirugarrenik, hirigintza-egikaritzea, zeinean hirigintza gauzatzen den; eta, laugarrenik eta azkenik, hirigintza-diziplina, zeinean hirigintzaren legaltasuna babesten den. Hala ere, zerrendatutako lau fase nagusiak hirigintza-legeen eta haiek garatzen dituzten erregelamenduen aterkipean lantzen dira, betiere.

Hastapeneko hirigintza-legeak lehen industrializazioak ekarritako hiri- eta hirigintza-arazoak konpontzeko sortu ziren, XIX. mendearen bigarren erdialdean eta XX. mendearen hasieran. Hain zuzen ere, zabalgune burgesak arautzeko. Espainiako Estatuko lehen hirigintza-legeak, 1864ko ekainaren 29koak, aterki juridikoa eman zien Bartzelonako Cerdàren zabalgune-planari zein Madrilgo Castroren planari,

151. Eraikuntzaren udal-ordenantzetarako eredua, hemen, eskuragai: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/ contenidos/informacion/desarrollo_ley_2_06/eu_def/adjuntos/ERAIKUNTZA%20ORDENANTZAK.pdf>. Urbanizazioaren udal-ordenantzetarako eredua, hemen: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/contenidos/informacion/desarrollo_ley_2_06/eu_def/adjuntos/URBANIZAZIO%20ORDENANTZAK.pdf> [kontsulta: 2014-7-14].

harresietatik haraindiko eraikuntza legalki ahalbidetzeko. Lege horrek arautu zuen zabalguneen kudeaketa-modurik ohikoena: partikularrak arduratzen ziren eraikinen eraikuntzaz —zenbait kasutan horrek hirigintza-espekulazioa ere eragin zuela—, eta, Udala, lurzoruaren urbanizazioaz; horrez gain, bideetarako eta erabilera publikoetarako lurzoruak desjabetzeen bidez lortzen ziren, oro har (Fernández Montalvo, 2007: 78). Hain zuzen ere, derrigorrezko desjabetzeak arautzeko beste lege garrantzitsu bat onetsi zen geroago, 1879an, 1895eko saneamendu eta barne-eraberritzerako legearekin osatuko zena. Lehen hirigintza-legeak, hortaz, hirigunea kanpora zabaltzeko edo barnera eraberritzeko mugatu beharreko urbanizazio-prozesuak arautzeko sortu ziren.

Frantziako Estatuan, era bertsuan, segurtasunaren, osasunaren eta monumentu historikoen arloetako hainbat legeren ondoren, hirigintza antolatzeko lehen legetzat jo daitekeena 1919ko martxoaren 14an eratu zen (*Cornudet legea* bezala ezaguna), Lehen Mundu Gerran birrindutako hirien eta bestelako —10.000 biztanle baino gehiagoko— hiri handien moldaketa, apainketa eta zabaltzea antolatzeko planak derrigorrez idaztea eskatu zuena.



65. irudia. Espainiako 1956ko Lurzoruaren Legeko lurzoruaren *kalifikazio*aren[152] argibide-eskema, Madril adibide gisa hartuta.

152. Egiazki, lurzoruaren klasifikazioa da eskemak argitzen duena, alegia, urbanizazio-mailaren araberako erregimen urbanistikoa (eta ez kalifikazioa, hau da, lurzoruaren erabilera). Hurrengo legeetan argiago azalduko da klasifikazioaren eta kalifikazioaren arteko ezberdintasuna.

Espainiako Estatuko lehen lurzoruaren legea 1956ko maiatzaren 12an onetsi zen, frankismoaren garai autarkikoaren amaiera aldera, Pedro Bidagor arkitekto donostiarraren gidaritzapean. Espainiako hirigintza-zuzenbidearen egiazko hasieratzat jo daitekeen lege itzal handiko horrek —ondorengo legeek hura izan dute oinarri— hirigintza-plangintzarako jauzi kualitatiboa eman zuen, ohiko lerrokaduren eta hiri-lurzoru hertsiaren ikuspegi mugatua gainditu baitzuen, eskualdearen eskala —Espainian— estreinakoz landuz (ikus 65. irudia). Nahiko lege teknikoa izanagatik, bi ideia orokor nagusitan oinarritu zen (Fernández Montalvo, 2007: 78-79):

a) Hirigintza funtzio publikoa da (eta, zentzu horretan, urbanizatzeko eskubidea hirigintza-planak soilik eman dezake, tresna hori baita urbanizazio-prozesuak eragindako gainbalioen banaketa berdintsua —ahalik eta berdintsuena— egiten duena).
b) Plana hirigintza-sistemaren osagai funtsezkoa da, tresna hori baita —lehen ideian esandakoaren ildotik— urbanizazio-prozesuaren ondorioz lurzoruaren jabeari sortzen zaizkion eskubideak eta betebeharrak banatzen dituena.

Hortaz, interes kolektiboak interes pribatuen gainetik ezarri zituen 1956ko legeak —teorian, bederen—, bai eta etorkizuneko hiri osoa plan batean irudikatzeko beharra ere. Hain zuzen ere, 1933ko Atenasko Agirian —84., 94. eta 95. artikuluetan[153]— jada idatzitako (Le Corbusier, 1979: 128, 138-140) bi ideia nagusien arautzea ekarri zuen 1956ko legeak. Horregatik esan da lege horrek hirigintza funtzionalistaren finkatzea ekarri zuela, hein batean, baina plangintzaren ikuspegi sozial samar baten inguruan eraikia (bitxia, frankismoaren erdian idatzita izanda).

Zehazkiago, 1956ko legeak lurzoruaren hirigintza-erregimena definitzeko aldagai nagusia zehaztu zuen, jabeen eskubide eta betebeharrak mugatuko zituena: haren klasifikazioa edo sailkapena. Horrela, lurzorua hiru motatan banatu zituen (63., 64. eta 65. artikuluetan), urbanizazio-mailaren arabera: hiri-lurzorua, hiri-erreserbarako lurzorua (hurrengo legeetan lurzoru urbanizagarria izango zena) eta landa-lurzorua (hurrengo legeetan lurzoru urbanizaezina izango zena).

Eta arestian aipatutako ikuspegi sozial samarra gorabehera, praktikan, hiri-erreserbarako lurzorua garatzeko eskumena jabe pribatuaren esku utzi zuen legeak, hirigintza-antolakuntza gauzatzeko konpentsazio izeneko jarduera-sistemaren bidez —hirigintza kudeatzeko modalitate bat—, nahiz eta legearen hitzaurrean aitortu hoberena litzatekeela hiriak zabaltzeko lurzoru guztia publikoa izatea, «Espainian bideragarri ez dena» ordea. Konpentsazioko sistemaz gain, zeinean hirigintza-antolakuntza egikaritzeko ekimena pribatua den, beste bi jarduera-sistema edo modalitate ere ezarri zituen legeak, ekimen publikokoak, hirigintzaren gauzatzea kudeatzeko: kooperazioa (edo lankidetza) eta desjabetzea (esan bezala, 1879tik

153. 95. artikuluak, esaterako, argi eta garbi zioen: «Interes pribatua interes publikoaren mende jarriko da». Egilearen itzulpena.

legez araututa zegoena; halaber, 1954an beste lege baten bidez[154] berrarautu zituen Francoren gobernuak).

1975ean Espainiako Lurzoruaren Lege berri bat onetsi zen, eta haren testu bategina 1976an argitaratu. Lege berri horren ekarpen nagusiak hurrengo bostak izan ziren:

a) Plangintza-tresnak zertxobait aldatu eta malgutu ziren, hirigintza-estandarrak gehituz (derrigorrez bete beharreko parametroak; esaterako, gehieneko etxebizitza-dentsitatearen kopurua).
b) Derrigorrezko lagapenak gehiago zehaztu ziren, eskubideen eta zamen banaketa-sistemaren garapenean sakonduz. Horretarako, lurzoru urbanizagarriko sektoreetako batez besteko aprobetxamenduaren kontzeptua sortu zuen.
c) Plangintza gauzatzeko jarduera-sistemak sinplifikatu zituen, 1956ko legeko bideetarako lurzoruen lagapen-sistema ezabatuz.
d) Hirigintza-diziplina gogortu zuen, arau-hausteentzako zigorrak handituz.
e) Plangintzarik egon ezean, aplikazio zuzeneko zenbait arau zehaztu zituen.

Lege hura hiru erregelamendu garrantzitsuren bidez gehiago garatu zen, 1978an argitaratutakoak: hirigintza-plangintzaren 2159/1978 Erregelamendua, hirigintza-diziplinaren 2187/1978 Erregelamendua eta hirigintza-kudeaketaren 3288/1978 Erregelamendua, errege-dekreturen bidez onetsi zirenak.

Urte berean, Espainiako Konstituzioa ere onetsi zen, autonomia-erkidegoak sortu zituena, eta, zenbait eskumen-transferentziaren ondorioz, hirigintzan eta lurralde-antolakuntzan eragin handia edukiko zuen. Bereziki eraginkorra izan zen 148.1.3 artikulua, zeinean argi uzten den Espainiako Estatuak ez dituela eskumen zuzenak hirigintzaren eta lurralde-antolakuntzaren alorretan (ezta etxebizitzarenean ere). Hortaz, handik aurrera, Espainiak modu zeharkakoan baizik ezin izango du antolatu lurraldea eta hiria. Bi modutara, bereziki: eskumen horizontalen —transbertsalen— bidez (jabegoaren erregimenarekin eta jarduera ekonomikoekin erlazionatutakoak, batez ere) eta eskumen sektorialen bidez (esaterako, lege sektorialen bidez eta interes orokorreko proiektuen bidez, bereziki autonomia-erkidego bati baino gehiagori eraginez gero).

Espainiako Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-borrokari dagokionez, gogoangarri gertatu zen Konstituzio Epaitegiaren 61/1997 Epaia, 1997ko martxoaren 20koa, zeinean Konstituzioaren aurkakotzat jo zituen Felipe González sozialistaren gobernuak sustatutako1990eko Lurzoruaren Lege berriko —eta 1992ko haren testu bategineko— zenbait artikulu funtsezko —egiazki, legearen

154. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legea (1954ko abenduaren 17ko BOE).

bi herenak—, hain zuzen ere lehen aipatutako Konstituzioaren 148.1.3 artikulua kontuan ez hartzeagatik[155]. Lurrikara juridiko horrek —Tomás Ramón Fernández jurista ezagunak esan zuen sententzia horrek espainiar hirigintza-antolakuntza mila zatitan eztandarazi zuela[156]— argi utzi zuen frankismoaren ondorengo Espainiak ez daukala eskumenik lurraldea —zuzenean— antolatzeko.

Konstituzio Epaitegiaren 61/1997 Sententzia horretan, hain zuzen ere, hirigintzaren definizio interesgarri bat dator, zuzenbidearekin estuki erlazionatutakoa, baina jabegoaren kontzeptu hutsetik urrun dagoena: «Biztanleria-finkamenduen izate sozial edo kolektiboa juridikoki arautzen duen diziplina da hirigintza»; hau da, (hirigintzak) «hiria antolatzeko politikak ezartzen ditu, eta, haien bidez, giza finkamenduak nola, noiz eta non garatu behar diren zehazten; eta helburu hori lortzeko beharrezkoak diren hirigintza-teknikak eta -tresnak prestatzen»[157].

José María Aznar popularraren gobernuak gidatutako hurrengo lurzoruaren legea —hezkuntza-legeekin bezala, gobernu bakoitzak hirigintza arautzeko bere legea ateratzen du— 1998an onetsi zen, hein handi batean 61/1997 Sententziak utzitako arazo juridiko handia konpontze aldera[158]. 6/1998 Legeak lurzorua liberalizatzeko —haren eskaintzaren kopurua dezente handituz— hainbat neurri ezarri zituen. Garrantzitsuena lurzoruaren klasifikazioari zegokiona da, eta ondorio nabarmenak eduki zituen nazioartean ezaguna den Espainiako *adreiluaren burbuila* delakoan: lurzoru guzti-guztia urbanizagarritzat —edo urbanotzat— jo zuen, hura babesteko arrazoi garbiren bat egon ezean[159]. Aldaketa horrek —beste arrazoi espekulatibo batzuekin batera[160]— hirigintzaren eta, ondorioz, eraikuntzaren sektore osoa izugarri suspertu zuen: hainbeste, non 1997 eta 2007 artean Espainiako etxebizitzen eraikuntza % 5 hazi baitzen urtero (ikus 66. irudia). 2006an, hain zuzen ere, Espainian 560 etxebizitza zeuden mila biztanleko, Frantzian 447 eta Erresuma Batuan soilik 379 zeuden bitartean (Eurostat[161]).

155. Hainbat autonomia-erkidegok salatu zuten: Aragoik, Balear uharteek, Gaztela eta Leonek, Kanaria uharteek, Kantabriak, Kataluniak eta Nafarroak (batzuek legea salatu zuten, beste batzuek legearen testu bategina, eta beste batzuek biak).

156. Fernández, T. R. (1997): "El desconcertante presente y el imprevisible y preocupante futuro del Derecho urbanístico español", *Revista española de derecho administrativo*, **94**, 189-201 [ISSN 0210-8461].

157. Egilearen itzulpena. Espainiako Konstituzio Epaitegiaren 61/1997 Sententzia. *Oinarri juridikoak* izeneko II. ataleko 6. puntua (*Hirigintzaren eskumena* izenburukoa).

158. Bitxia bada ere, Konstituzio Epaitegiaren 164/2001 Sententziak 6/1998 Legearen hainbat artikulu ere indargabetuko zituen, arrazoi ia berdinengatik, hots, autonomia-erkidegoen eskumenak ez errespetatzeagatik.

159. Apirilaren 13ko 6/1998 Legea, Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzkoa. Zioen aurkezpeneko 2. puntua.

160. Esaterako, etxebizitzak erosteko hipoteka-maileguen kontrol finantzario eza, etxeak erosteagatiko zerga-arintze nabarmenak, eta arrazoi horien ondoriozko erosle askoren arinkeria.

161. Gaja, F. (2008): "El 'tsunami urbanizador' en el litoral mediterráneo. El ciclo de hiperproducción inmobiliaria 1996-2006", in *Diez años de cambios en el Mundo, en la Geografía y en las Ciencias Sociales, 1999-2008. Actas del X Coloquio Internacional de Geocrítica*, Universidad de Barcelona, Bartzelona.



66. irudia. Espainiako Estatuko arkitektoen elkargoetan bisatutako etxebizitza-proiektuak (milaka) 1960 eta 2006 artean[162], agerian uzten duena 1998ko lurzoruaren lege garapenzalearen eragin bortitza.

José Luis Rodríguez Zapatero sozialistaren gobernua arazo hori konpontzen saiatu zen oraindik indarrean dagoen 2007ko lurzoruaren legearekin —eta 2008ko haren testu bateginarekin—, non garapen iraunkorra lehen aldiz aipatzen den estatu-mailako lurzoruaren lege batean. Horrekin batera, aldaketa garrantzitsu bat ekarri zuen lurzoruaren klasifikazioaren alorrera: ez du aintzat hartzen lurzoru urbanizagarria, lurzoruaren uneko urbanizazio-egoera soilik kontuan hartzen duelako (hortaz, edo landa-lurzorua da, edo lurzoru urbanizatua; urbanizagarri adjektiboak lurzoruaren etorkizuneko balizko egoera bati egiten baitzion erreferentzia). Eta, ildo bertsuan, lurzoruaren klasifikazioaren eremuko aldaketa horrek higiezinen balorazioen alorrerako beste berritasun nabarmen bat ekarri zuen: balorazioa egiteko uneko balorea bakarrik hartu behar da kontuan, etorkizuneko balizko mozkinak barne hartu gabe. Esandako bi neurri horiekin, hirigintza-espekulazioarekin amaitzeko —edo, gutxienez, borrokatzeko— asmo argia zegoen, baita etxebizitzen prezioen gorakada izugarriarekin bukatzekoa ere. Kasualitatez, mundu-mailako finantza-krisia garai bertsuan hasi zen[163], eta Espainiako etxe-prezioen beherakada nabarmena ezin zaio lurzoru-lege berriari —soilik— egotzi.

162. Iturria: CSCAE (Espainiako Arkitektoen Elkargoetako Kontseilu Nagusia).

163. Aurretik egosi arren, aditu askok Lehman Brothers inbertsio-banku estatubatuarraren porrot-deklarazioaren egunean ezartzen dute krisiaren hasiera, 2008ko irailaren 15ean. Izan ere, egun horretan bertan, New Yorkeko burtsak egun bakarreko inoizko jaitsierarik handiena pairatu zuen.



67. irudia. Cornudet legeari jarraikiz idatzitako Parisko eskualderako Prost Planaren eskema, zeinak eraiki beharreko autobide berriak eta erreserbatzeko lurzoru-eremuak erakusten dituen[164].

Frantziaren kasuan, esan beharra dago ez arestian aipatutako 1919ko Cornudet lege goiztiarrak ezta haren 1924ko aldaketak ere ez zutela ia eraginik eduki, Parisko eskualderako Prost Plana kenduta (ikus 67. irudia), zeina 1939an onetsi zen hiriburuaren inguruko hazkunde izugarria antolatzen saiatzeko (Renard, 2000: 68). 1943ko ekainaren 15ean lege berri bat onetsi zuen Vichyko erregimenaren gobernuak, eraikitzeko baimenak arautuz, eta, ondorioz, hirigintza estatu-gai bihurtuz. 1954an, berriz, Hirigintza eta Etxebizitza Kodea (*Code de l'urbanisme et de l'habitation*) onetsi zen, Frantziako hirigintza-zuzenbideko arau guztiak biltzeko. Alabaina, Espainiako 1956ko lurzoruaren legearen kontzeptualizazio-maila ez zen erdietsiko 1967ko legea sortu arte.

1967ko abenduaren 30ean Higiezinen Orientaziorako legea —*Loi d'orientation foncière*— onetsi zen, gaur egun Frantzian erabiltzen diren bi hirigintza-tresna nagusien oinarriak definitu zituena: Antolakuntza eta Hirigintza Eskema Zuzendariak (*Schémas Directeurs d'Aménagement et d'Urbanisme* edo SDAU), hiri-aglomerazio handien epe ertaineko garapena prospektiboki definitzeko, eta Lurzorua Okupatzeko Planak (*Plan d'Occupation des Sols* edo POS), udalerrietako partzeletako jabeen

164. Irudiaren jatorria: Prost Plana (jabari publikokoa).

eskubide eta betebeharrak zehazteko[165]; halaber, Hitzartutako Antolakuntza Zonak ere definitu zituen (*Zone d'Aménagement Concerté* edo ZAC), babes publikoko hirigarapenak arautzeko, 1960ko hamarkadako —eta jada aipatutako— Lehentasunaz Urbanizatzeko Zona (*Zone à Urbaniser en Priorité* edo ZUP) ezagunen[166] oinordeko gisa.

1975eko abenduaren 31n 75-1328 Legea onetsi zen, frantziar Hirigintza Kodea aldatzeko, ekarpen berri batekin: Legezko Dentsitatearen Muga (*Plafond Légal de* Densité edo PLD), zeinak hirigintza-espekulazioaren aurkako antidoto bat osatu nahi baitzuen, eraikigarritasun zehatz batzuetatik aurrera kanon berezi bat edo zerga handiagoa kobratuz. Hasiera batean, 1 m^2/m^2-ko eraikigarritasun-muga ezarri zen (Parisen, handiagoa: 1,5 m^2/m^2), 1983an 2 m^2/m^2-ra igoko bazen ere (Parisen, 3 m^2/m^2-ra). Aditu batzuen ustez, neurriak porrot egin zuen, PLD tresna zerga-biltzaile huts bihurtuz[167].

Aurrerago, 1980ko hamarkadaren hasieran, deszentralizazio-prozesu garrantzitsua abiatu zen Frantziako Estatuan, eskualdeen, departamenduen eta udalen aurrekontuak gutxika igoaraziko zituena, eta hirigintza-plangintzaren alorrerako ere berritasunak ekarriko zituena. 1983an, hain zuzen ere, udalei —*commune* direlakoei— onartu zitzaizkien hirigintza planifikatzeko eta egikaritzeko ekimen nagusiak. Hala ere, 36.500 baino udalerri gehiago izanda Frantzian —alderatzeko, Espainian 8.200 baino gutxiago daude—, garatzen den hirigintza-plangintza barreiatuegia dela diote zenbait adituk, era horretan lurralde-mailako koordinazioa gehiegi zaildu egiten delako (Renard, 2000: 69); sakabanatze horrek eragindako hirigintza-koordinazio eza bereziki nabarmena omen da Parisko eskualdean, zeinean 700 komuna —oso urbanizatu— baino gehiago dauden.

Hala ere, Frantziako banaketa administratiboa etengabeko berrikuste-prozesuan dago azken hamarkadotan, hirigintzaren alorreko koordinazio eza konpontzeko baino, diru-kontuak gehiago arrazionalizatzeko. Horren adibide da 2014ko uztailean bertan Asanblea Nazionalak —polemika handiarekin— onetsitako eskualdeen murrizketa, 22tik[168] 13ra (ikus 68. irudia), zeinarekin urtean 12.000 milioi euro aurreztu nahi diren. Alegia, Frantziako mapa hilabeteotan aldatzen ari da, eta horrek eragin handia izango du, ezbairik gabe, lurralde-antolakuntzaren eta hirigintzaren alorrerako.

165. Partzela bakoitzeko erabilera eta aprobetxamendua —irabazizko eraikigarritasuna— definitzen du POSek, Lurzoruaren Okupazio Koefizientearen bidez (*Coefficient d'Occupation des Sols* edo COS).

166. Aurretik esan bezala, ZUP horiek *grand ensemble* izeneko auzotzarren —Espainiako garai bertsuko etxebizitza-poligonoen baliokideak— kokaleku izan ziren. Arestian zehaztu bezala, 1958ko abenduaren 31ko 58-1464 Dekretuak arautu zituen, orduko demografiaren hazkunde handiari erantzuteko.

167. Hernández Aja, A. (zuz.) (1997): *La ciudad de los ciudadanos*, Ministerio de Fomento, Madril [ISBN 84-498-0305-5], «2.4.2 Francia» kapitulua.

168. Europako Metropolitar Frantzian daude 22 eskualde. Itsasoz haraindi beste 5 eskualde daude: Guadalupe, Guyana Frantsesa, Martinika, Réunion eta Mayotte. 1982an sortu ziren egungo 27 eskualde (région) gehienak, deszentralizazio-programaren barruan.

Laster ikusiko da, esandako aldaketa —oraindik birdoitu daitekeena— 2016ko urtarrilean jarriko omen baita indarrean. Eta ez da baztertzen departamenduen eta udalerrien kopurua ere hurrengo fase batean murriztea.



68. irudia. Frantziako Asanblea Nazionalak 2014ko uztailean onetsitako eskualdeen murrizketa, 21etik —ezkerrean— 12ra (Korsika eta itsasoz haraindiko 5 eskualdeak ez dira aldatu)[169].

1990ean Hirigintza Kodea eguneratu ondoren, 2000ko abenduaren 13an SRU delako lege berria onetsi zen (*Loi relative à la Solidarité et au Renouvellement Urbains*), hirigintza-elkartasunean, garapen iraunkorrean eta deszentralizazioan sakontzeko asmoekin. Bertan, 1967ko SDAU edo Eskema Zuzendariak kendu dira, SCoT edo Lurraldearen Koherentzia Eskemek ordezkatu dituztela (*Schéma de Cohérence Territoriale*). Halaber, POS edo Lurzoruaren Okupazio Planak ere kendu egin dira, PLU edo Hirigintza Plan Lokalek ordezkatu dituztela (*Plan Local d'Urbanisme*).

Frantziako Estatuko hirigintza-zuzenbidearen begirada nahitaez labur honekin amaitzeko, duela gutxiko beste bi lege aipatu behar dira: 2003ko uztailaren 2ko Hirigintza eta Habitataren Lege malguago eta sinpleagoa[170], eta 2014ko martxoaren 24ko ALUR lege berria (*Loi pour l'Accès au Logement et un Urbanisme Rénové*), zeinak SCoT eta PLU tresnen eskalen arteko PLUIak (*Plan Local d'Urbanisme Intercommunal*), 2010ean sortutakoak, gehiago zehaztu dituen. ALUR lege horrek, halaber, berritasun interesgarriak ekarri ditu —6. kapituluan— etxebizitzaren

169. Irudien jatorria: Wikimedia Commons (*Gtaf* egilearena, CC-BY-SA), egileak eraldatua.

170. Esaterako, eraikitzeko gutxieneko partzela-azaleraren beharra ezabatu da. Bassols, M. (2007): "Panorama del Derecho Urbanístico Comparado", in A. Arroyo Gil (koor.), *Estudios sobre urbanismo (Análisis de cuestiones clave no afectadas por la Ley de suelo de 2007)*, Fundación Democracia y Gobierno Local, Madril [Serie claves del gobierno local bild; 5. ISBN 978-84-612-1516-4].

alorrera, jabego kolektiboa arautuz, bai etxebizitza-kooperatibei dagokienez bai autopromozioari dagokionez.

4.4. LURRALDE-, EGITURA- ETA GARAPEN-PLANGINTZA

Hego Euskal Herrian aplikatzekoak diren Espainiako Estatuko egungo hirigintza-tresna nagusiak 1956ko lurzoruaren legean jada definitu ziren, haren 6. artikuluan: lurralde-antolakuntzaren eskala handian, Hirigintza Plan Nazionala —behin betiko inoiz onetsiko ez zena, autonomien estatuaren sorrerarekin, eta, haren eskala zabalagatik, ziurrenik, lausoegia eta zehaztugabeegia izango zena (Lasagabaster; Lazcano, 1999: 32)—, Plan Komarkalak eta Plan Probintzialak; eta, udalerriaren eskala txikiagoan, Hiria Antolatzeko Plan Orokorrak, Hiria Antolatzeko Plan Partzialak eta Urbanizazio Proiektuak.

Horrela, planek Espainiako Estatuko hirigintza-sistemaren tresneria-ardatza osatzen dute. Haiek definitzen dute lurralde-eredua, lurzorua klasifikatuz eta kalifikatuz, eraikigarritasun-intentsitateak banatuz, eta, maiz, are ezaugarri estetikoak finkatuz. Haiek ezartzen dituzte, halaber, hirigintza egikaritzeko moduak eta epeak. Horrexegatik, planek izaera arautzailea dute (Fernández Montalvo, 2007: 92). Hau da, ordenamendu juridikoaren zati dira, publikoak dira, bete beharrekoak —baita Administrazio publikoarentzat ere— eta iraunaldi mugagabekoak.

Plangintza mota ezberdina da antolatu nahi den eremuaren tamainaren arabera. Eskala handiagoan, oro har, ekonomiak hartzen du garrantzi handiagoa, eta, eskala txikiagoan, hots, tamaina errealera gerturatu heinean, antolakuntza fisiko-espazialak. Europaren mailan zein estatuaren maila nazioz gaindikoan eta nazionalean[171], hortaz, plangintza ekonomikoa nagusitzen da —politika ekonomikoa—; autonomiaren edo eskualdearen eskala erregionalean lurraldearen antolakuntza zehazten da; eta udalerriaren maila tokikoagoan hirigintza-plangintza garatzen da, bi eskala nagusitan: egiturazkoan (edo egituratzailean), udalerri osoa aintzat hartzen duena, eta garapenezkoan (edo eskala xehatuan), barrutika edo auzoka egiten dena. Hala ere, bi eskala nagusi horietatik aparteko zenbait tresna osagarri ere badaude (xehetasun-azterlanak, katalogoak…). Eta globalak diren bi antolakuntza-eskala nagusi horiekiko modu paraleloan, gainera, plangintza sektoriala ere badago, sektore bakarrean —errepideak, trenbideak, kostaldea, ibaiak, basoak…— baina eskala edo maila guztietan eragin handia duena.

Hego Euskal Herrian, lehen aipatutako Espainiako Estatuko 8/2007 Lurzoruaren Legea aplikatzeko beharraz gain —zeinaren testu bategina 2/2008 Dekretuaren bidez argitaratu baitzen, oraindik indarrean dagoena—, lege autonomikoak ere indarrean daude. Euskal Autonomia Erkidegoan bi lege nagusi daude: 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, lurralde-antolakuntzari buruzkoa, eta 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa. Nafarroako Foru Erkidegoan, berriz,

171. Nazioaren kontzeptu juridiko ofizialaz ari gara hemen, ez kontzeptu politiko-kulturalaz.

35/2002 Legea soilik, abenduaren 20koa, lurraldearen antolakuntzari eta hirigintzari buruzkoa[172].

Ipar Euskal Herriak ez du eskumenik halako legerik onesteko (ezta Pirinio Atlantikoetako departamenduak edo Akitaniako eskualdeak ere, ez dutelako autonomia legegilerik). Lurralde-antolakuntzari dagokionez, Ipar Euskal Herria ez da existitu instituzionalki 1996an Euskal Herriko Antolaketa eta Garapen Eskema delakoa sinatu arte, non *Pays* gisa agertu zen, 1995eko 95-115 LOADT legeak (*Loi d'Orientation pour l'Amenagement et le Développement du Territoire*) sortutako kontzeptu administratibo berriari jarraikiz, zeinak interes ekonomiko eta sozial bereko komunitateei adierazpide eman nahi dien (Lasagabaster; Lazcano, 1999: 265). Nortasun juridiko sendorik gabeko entitatea, hala ere[173], eta azken hilabeteotan abiatutako frantziar administrazioaren berrantolatze-prozesu ikaragarriarekin (ikus 68. irudia), gainera, erabat desagertuko omen dena.

69. irudia. Ipar Euskal Herriko kostaldeko golf-zelaien kokapen estrategikoa, 1992an. «Euskal Herria 2010» hausnarketa-azterketaren diagnostikoa (292. or; jabari publikokoa).

172. NFEko 35/2002 Legea aldatzeko mugimenduak hasi ziren 2014ko uda baino lehen. Nafarroako Alderdi Sozialistaren ekimenez, iragan irailaren 18an tramitera onartu zen lege-aldaketaren proposamena, bereziki egiturazko hirigintza-plangintza malgutzea bilatzen duena. Ikus Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren 80. zenbakia, 2014ko ekainaren 26koa.

173. Gorostiaga, K. (1998): "Ipar Euskal Herriarendako instituzio bat", *Jakin*, **104**, 51-66 [ISSN 0211-495X].

Esandako 1996ko Garapen Eskemak edo Kontratuak —1992ko «Euskal Herria 2010» izeneko hausnarketa-azterketa interesgarriaren nolabaiteko oinordekoa (ikus 69. irudia)[174]— ez zuen aurrekonturik, baina 111 ekintza zehatz proposatu zituen arlo anitzetarako —azpiegiturak, ingurumena, ekonomia, habitata, hezkuntza, kultura eta hizkuntza—, eta ondoren hitzartuko ziren bi Lurralde Kontratuen aurrekariak ezarri zituen. 2008ko irailaren 8an, 2007-2013 Euskal Herriko Lurralde Kontratua (*Contrat Territorial Pays Basque*) sinatu zuten Baionan. Kontratua Ipar Euskal Herria egituratzen duen eta Hautetsien Kontseiluak[175] eta Garapen Kontseiluak[176] sustatzen duten ekimen instituzionala da. Bertan, 213 milioi euro inguruko kostu orokorra biltzen duten 77 ekimen zehatz biltzen dira, lurralde lehiakor eta arduratsu bat lortzeko helburu orokorrarekin, non ekoizpen-ekonomiari lehentasuna ematen zaion. Hilabeteotan, 2014-2020 Kontratu berriaren lanketa ari dira prestatzen, eta 2014. urtearen amaierarako prest egotea espero da.

Hala ere, Espainia eta Frantziaren gainetik, plangintza-hierarkiaren gorenean Europa legoke, Europar Batasuna zehazkiago, alor honetarako legeak onesteko eskumenak edukiko balitu. Baina ez ditu. Ez zuzenean, behintzat. Horren ondorioz, Europak onetsitako lurralde-antolakuntzako eta hirigintzako tresnak, jada aipatutako 1999ko Europar Lurralde Estrategia —*European Spatial Development Perspective* edo ESDP (ikus 70. irudia)— bezalakoak, ez dira herrialde kideentzako lotesleak, berez.

Alabaina, Europako estatuetako eskualde-mailako lurralde-antolakuntzan eragin handia eduki dezakete, proiektuetarako funtsak[177] —europar diru-laguntzak— lurralde-antolakuntzako tresna ez-lotesle horiek betetzeko baldintzapean eman —edo kendu— daitezkeelako. Zeharka bada ere, beraz, lurralde-zentroaniztasuna hainbeste bultzatzen duen Europar Lurralde Estrategiak bildutako gidalerroei men egitea bultza dezake Batasunak. Horrekin batera, gainera, ingurumenaren alorreko Europako akordioek ere —jada aipatutako Natura 2000 Sarea, esaterako— izugarri baldintza dezakete herrialde kideen lurralde-antolakuntza.

174. Hemen eskuragai: <http://www.lurraldea.net/fr/de-pays-basque-2010-a-pays-basque-2020/pays-basque-2010.html> [kontsulta: 2014/10/30].

175. Hautetsien Kontseilua (*Conseil des Élus*) lurralde-antolakuntzako proiektuak aurrera eramateko 1995ean sortutako erakunde publikoa da. 80 kide ditu: Herriko Etxeetako eta herri arteko egituretako ordezkariak, kantonamenduetako kontseilari nagusiak, jatorriz lurraldekoak diren eskualdeko kontseilariak, Frantziako eta Europako parlamentariak eta gobernuko kide bat.

176. Garapen Kontseilua (*Conseil de Développement*) 1994an sortutako erakundea da, sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetza sustatzea helburu duena, Ipar Euskal Herrirako garapen-proiektuak aurrera eramateko. Asmo horrekin, hain zuzen ere, proposamen zehatzak egiten dizkio Hautetsien Kontseiluari. 121 kide ditu Garapen Kontseiluak, 7 kolegio edo arlo ezberdinetakoak: jarduera ekonomikoak, hezkuntza eta kultura, gizartea eta osasuna, Administrazioa, hautetsiak, adituak eta eskubideko kideak.

177. Jada aipatutako Europako egitura- eta kohesio-funtsak, bereziki.



70. irudia. Distantzien Europako mapa fisikoak periferiako herrialde batzuen isolamendu espaziala nabarmentzen du (esaterako, Greziarena). Europako Lurralde Estrategia (ESDP), 1999 (56. or.)[178].

Dena den, Hego Euskal Herriko lurralde-antolakuntza eta hirigintza autonomia-erkidegoen eskumena da, azaldu moduan, Espainiako Konstituzioak eta jada aipatutako sententzietako jurisprudentziak argi eta garbi utzi bezala. Hirigintza-plangintzako tresnak, ondorioz, pixka bat ezberdinak dira EAEn eta NFEn.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolakuntzari buruzko 4/1990 Legeak hurrengo hiru tresna definitu zituen: Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak (LAG)[179], Lurralde Plan Partzialak (LPP)[180] eta Lurralde Plan Sektorialak (LPS)[181]. Nafarroako Foru Erkidegoko lurralde-antolakuntzari —eta hirigintzari— buruzko 35/2002 Legeak, ordea, hurrengo lau tresna arautu zituen lurraldea antolatzeko: Nafarroako Lurralde Estrategia (NLE), Lurraldea Antolatzeko Planak (LAP), Lurraldean Ekiteko

178. 1999koa denez, mapak ez ditu oraindik kontuan hartzen Europar Batasunaren ondoren gauzatutako handipenak: 2004koa (hamar herrialde gehiago: Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Txekia eta Zipre), 2007koa (bi herrialde gehiago: Bulgaria eta Errumania), eta 2013koa (herrialde bat gehiago: Kroazia). Irudiaren jatorria: ESDP (jabari publikokoa).

179. Hasiera batean, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA) zioen itzulpen ofizialak, nahiz eta Hiztegi Batuak *artezbide* eman. 2012ko azken aldaketan, behin-behingoz soilik onetsia, ordea, Gidalerroak sartu zituzten Artezpideen ordez.

180. Lurraldearen Zatiko Planak (LZP) dio itzulpen ofizial gure ustez ez oso egokiak.

181. Lurraldearen Arloko Planak (LAP) dio itzulpen ofizial gure ustez ez oso egokiak.

Plan Zuzentzaileak (LEPZ) eta Udalez Gaindiko Plan eta Proiektu Sektorialak (UGPPS), bestelako plan sektorialak ere onartzeaz gain (ingurumenekoak, errepidekoak eta abar).



71. irudia. Hego Euskal Herriko lurralde-antolakuntzako tresna nagusiek —LAGek eta NLEk—, bakoitzak bere aldetik, zehaztutako 20 eremu funtzionalak: 15 eremu EAEn, eta, beste 5, NFEn[182].

EAEko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroek —1997an onetsitakoak[183]— eta Nafarroako Lurralde Estrategiak —2005ean onetsitakoak[184]— erreferentziazko marko orokor nagusia osatzen dute, EAEko eta NFEko plangintza-hierarkiaren gailurrean, hurrenez hurren: haien pean dauden tresnek —bai lurralde-antolakuntzakoek bai hirigintza-plangintzakoek— Gidalerroetan zein Estrategian zehaztutako ildo nagusiak bete behar dituzte, haiek ezarritako eredu sozio-ekonomiko-ekologikoaren norako berean; teorian, bederen. Biek ala biek definitu zituzten eremu berri batzuk, funtzionalki ustez homogeneoak, ohiko banaketa administratibo eta geografikoetatik —zertxobait— apartekoak, ondorengo Lurralde Plan Partzialek eta Lurraldea Antolatzeko Planek modu sakonagoan garatzeko. LAGek 15 eremu funtzional zehaztu zituzten, eta, NLEk, 5 eremu edo eskualde (ikus 71. irudia) —eta 10 bitarte-eremu, horrez gain—, horietako bakoitzean LPP eta LAP direlako plan bana garatzeko, hurrenez hurren.

LAGen eta NLEren arteko ezberdintasun nagusia da haien onespen-datatik ondorioztatutako kontzeptu garrantzitsu bat: NLE da 1999ko Europako Lurralde Estrategiari jada egokitutako bakarra. Lurralde-plangintzako bi tresna horietan agertzen da garapen iraunkorraren ideia (ikus 86. irudia), baina NLEn sakonago

182. Irudien jatorria: EAEko 1997ko LAG eta NFEko 2005eko NLE (jabari publikokoak).

183. Alfonso Vegara hirigileak gidatutako *Taller de ideas* izeneko sozietate pribatuak burutu zuen LAGen lanketa teknikoa.

184. Nasursa izeneko sozietate publikoak —egungo Nasuvinsa— burutu zuen NLEren lanketa teknikoa.

garatzen dira —idatzitako teorian, betiere— Europatik heldutako lurralde-orekaren eta lurralde-ekitatearen ideiak. Zehazkiago esateko, biek ala biek defendatzen dute eredu polizentriko bat, baina oreka dezente ezberdinekin: batetik, LAGek EAEko hiru hiriburuek osatutako polizentrismoa du helburu —gainerako herriei garrantzia dezente kenduta—, eta, bestetik, NLEk «hiriguneen eta landa-eremuen arteko lankidetza areagotuko duen hiri-sistema polizentrikoagoa eta orekatuagoa» garatzea du xede (NFEko Administrazioa. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua, 2005: 11). Ñabardura, teorian bederen, esanguratsua da, NLEk polizentrismoaren kontzeptua lurralde osora zabaltzen duelako, bitarteko eskualdeei —hainbeste— muzin egin gabe. Hala ere, bi tresnek zuten helburutzat mundu-mailan lehiatzeko eskualde-hiri handi bat garatzea, horrek dakartzan ingurumen-arazoa —lurraren gaineko presio urbanistikoa— gehiegi kontuan hartu gabe.

Zehazkiago, 1997ko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroen funtzio nagusiak hiru ziren:

a) Jarduera ekonomiko eta sozialetarako finkamenduak lurraldean kokatzeko irizpideak eta arauak ezartzea.
b) EAEko administrazio ezberdinen politika sektorialetarako marko bateratu eta koordinatu bat eraikitzea.
c) Espainiako —eta, neurri apalagoan, Frantziako— Estatuko beste autonomia-erkidegoekin —eta eskualdeekin— batera egin beharreko lurralde-ekintzak aurreikustea.

Hori guztia, hiru erronka nagusirekin, hirurak norako garapenzale samar batekin pentsatutakoak: lurraldea proiektu gisa ulertzea —hura etorkizuneko gizarte- eta ekonomia-jardueretara behar bezala egokituz—, malgutasuna lehenestea —muga lotesle gutxi ezarriz, bideragarritasunaren ustezko izenean—, eta lurralde-mailako hiri-egitura sendo bat osatzea, etorkizunari begira. Horretarako *hirien sistema* deitutakoari eman zion arreta nagusia, hirigintza eta garapen ekonomikoa uztartze aldera, betiere EAE Europako *espazio handien testuingurua*n kokatzeko asmoarekin. Horretarako, azpiegitura-sistemak funtsezkoak omen ziren —omen dira, politika ofiziala ez baita sakonean asko aldatu— EAEren lurralde-lehiakortasuna areagotzeko. Alegia, Arku Atlantikoaren[185] barnean *errotula* edo nodo garrantzitsu bilakatzeko (ikus 72. irudia), EAEk apustu argia egin behar omen zuen Abiadura Handiko Trenaren alde. Zehazkiago, LAGen helburu nagusietakoa zen «Euskal Herria (sic)[186] Abiadura Handiko trenbideen trazaduretan sartzea, batez ere iparralde-

185. Portugaleko, Espainiako, Frantziako, Erresuma Batuko eta Irlandako 21 eskualdek osatzen dute Arku Atlantiko delakoa, Europar Batasunaren *fatxada* atlantikoa eratzen dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoa barne. Bertan 60 bat milioi biztanle bizi dira, Europar Batasuneko herritarren % 12, gutxi gorabehera. 1989an Arku Atlantikoaren Batzordea sortu zen Europar Batasunaren barruan. Haren xede nagusietako bat Garraio Sare Transeuroparra (RTE-T) eratzea da, oraindik ere.

186. Hala dio —itzulpenak—, nahiz eta haren eragin-eremu ofizial bakarra Euskal Autonomia Erkidegoa soilik izan.

hegoalde ardatz jarraituaren bitartez (Paris, Tours, Bordele, Euskal Herria, Burgos, Valladolid, Madril, Sevilla) eta, orobat, Azpiegituren Gida-Planean (1993-2007) aurreikusitako Donostia, Iruñea, Zaragoza konexioa» (EAEko Administrazioa. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, 1997).

Hori bai, ingurumenaren alorrean muga garrantzitsu samar bat ezarri zuten EAEko Gidalerroek: etxebizitza familiabakarrak lurzoru urbanizaezinean eraikitzeko debekua, baldin eta ez bazeuden nekazaritza- edo abeltzaintza-ustiaketa batekin erlazionatuta, hain zuzen ere. Debeku hori ingurumen-matrize batean zehaztu zen, beste zenbait erabilera-bateraezintasunekin batera. Horrez gain, beste arau lotesle eta itzal handiko bat zehaztu zen (LAGen 1.5 eranskinean, bitxia bada ere): zortzi urtera begira egiturazko plangintzan aurreikusi beharreko etxebizitza kopuru gehienekoa finkatzeko formula, 4/1990 Legeko 6.7 artikuluak eskatutakoari jarraikiz, bost parametrotan oinarritu zena: eremu funtzional bakoitzerako lurralde-ereduaren ondorioak, epe horretarako proiektatutako hazkunde demografikoa, eskaintza-zurruntasunaren zuzenketa, bigarren etxebizitza, eta familia-osaeraren bilakaera. Praktikan, hain zuzen ere, familia-tamainaren murrizketa jo izan da argudio ofizial nagusitzat etxe gehiago ia etengabe eraikitzen jarraitzeko —1981ean etxe bakoitzeko 3,73 pertsona zeuden, eta, 2011n, 2,53[187]—, azken 30 urteotan EAEko biztanleria nahiko egonkor mantendu den arren.



72. irudia. Euskal Autonomia Erkidegoa Europa mailako zentraltasun-nodo garrantzitsua bilakatzeko helburua zuten Lurraldea Antolatzeko Gidalerroek. Iturria: LAG, 1997 (jabari publikokoa).

187. EAEko Administrazioa. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila (2014): «LAGen aldaketa, egoitza-kuantifikazioari dagokionez», Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Iruzkin kritiko(ago) bat eginez, egoitza-kuantifikazioa ez da tresna egokiegia izan. Eskaintza-zurruntasuna zuzentzeko harrotze-faktore delakoa gehiegi tenkatu —handitu— zuen beharrezkoa baino gehiago eraikiaraziz, ez zituen prozesu espekulatiboak kontuan hartu, ezta etxebizitza hutsen fenomeno zabaldua ere; eta, batez ere, ez zituen lurralde-desorekak orekatzeko inolako erabilgarritasunik agertu. Esaterako, ez du inolaz ere balaztatu Araba erdialdean —Gasteizen, zehazkiago— eta Mungialdean eraikitako etxebizitza kopuru demasekoa[188]. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak egoitza-kuantifikazioaren berrikuste-prozesua berriki jarri du martxan, behin-behingoz 2014ko ekainaren 4an onetsi dena. Aldaketa horren ikuspegia 1997ko LAGena baino aski moderatuagoa da —gehieneko etxe-kopurua behera doitzen du[189]—, baina lehengoaren akats berdina errepikatzen du: lurraldea antolatzeko benetako tresna kontziente eta kualitatiboa izan barik, tresna tekniko kuantitatibo hutsa izatea[190].

Antzeko iruzkina egin dakioke Nafarroako Lurralde Estrategiari. Polizentrismoaren aldeko —eta *kontzentrismo*aren aurkako— aldarrikapen ozena egiten du, nafar lurraldeko «guneek duten garrantziaren banaketa gero eta simetrikoagoa» teorikoki bultzatuz (NFEko Administrazioa. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua, 2005: 119), baina praktikan ez du Iruñerriaren azken urteotako hazkunde urbanistiko eta demografiko itzela inolaz ere galgatu: 2010ean 2000n baino 50.000 biztanle gehiago zeuzkan, ia 350.000 (INE). Beraz, edo lurraldea antolatzeko tresna ahalmenik gabekoa da, edo, ahalmen nahikoa eduki arren, ez da haren indar guztiarekin gauzatu nahi, arrazoi politiko eta ekonomikoengatik.

Eta, esan bezala, Ipar Euskal Herrian ez dago, gaur gaurkoz, EAEko Gidalerroen edo Nafarroako Lurralde Estrategiaren baliokiderik. Arestian aipatutako Lurraldearen Koherentzia Eskemak (*Schéma de Cohérence Territoriale* edo SCoT) beheragoko maila xeheago batean daudelako, eremu espazial jakin baterako lurralde-plangintza zehatzagoarenean, alegia, EAEko Lurralde Plan Partzialen edo NFEko Lurraldea Antolatzeko Planen maila antzekoan. SCoT horietako bat, gainera, Ipar Euskal Herriaren mugak gainditzen ditu: Baionako eta Landetako Hegoaldeko hirigune

188. Esaterako, 2010ean, Bilbon 7 etxebizitza eraiki ziren 1.000 biztanleko; Donostian, 19; eta, Gasteizen… 75! (Eustat). Gasteizko azken 30 urteotako hazkunde urbanistikoaz gehiago aztertzeko, ikus Juaristi, J. (2014): "Vitoria-Gasteiz: la transformación de una capital autonómica (1980-2010)", *Estudios geográficos*, **276**, 177-218 [ISSN 0014-1496].

189. 2014-2022 eperako gehienez 186.463 etxebizitza berri planifikatu behar direla dio aldaketa berriak, eta, gutxienez, 93.297 etxebizitza berri, EAE osoak behar dituen etxebizitza-behar guztiak (88.144 etxebizitza, antza) asetzeko. LAGek baitiote etxe kopuru jakin bat egiazki eraikitzeko askoz gehiago planifikatu behar dela —horixe da lehen aipatutako *eskaintza-zurruntasunaren zuzenketa*—, bidean promozio dezente gelditzen direlako bertan behera: horregatik etxebizitza-beharra harrotze-faktore nahiko altu baten bidez biderkatu behar omen da.

190. Egoitza-ahalmena kalkulatzeko formula *magikoa* hurrengoa da: EA = (EB x HAR) – BH. Alegia, Egoitza Ahalmena = (Egoitza Beharra x Harrotze-faktorea) – Bizitegi Hutsak. Argitu beharra dago formulako bizitegi hutsak udalerri bakoitzeko etxe-parkearen % 2ra murriztu daitezkeela, benetako kopurua askoz handiagoa izan arren.

edo aglomerazioarena, 2014ko otsailaren 6an behin betikoz onetsia. Eta, gainerako Ipar Euskal Herrian bakarrik dago beste SCoT bat onetsita, hots, Hego Lapurdiko hirigunearena —Ipar Euskal Herriaren Hegoaldeko aglomerazioarena[191]—, 2005ekoa, Frantziako Estatuko lehenetarikoa (ikus 73. irudia). Bi eremu horietatik aparteko Ipar Euskal Herria antolatzeko ez dago lurralde-mailako plangintzarik, alegia, Parisetik modu zentralizatu, abstraktu eta urrunean antolatzen da.



73. irudia. Hego Lapurdiko segregazio sozio-espazial lausoa dentsitate ertaineko herrien —Urruña, Ahetze, Getaria— trinkotzearen bidez berrorekatzeko asmoa erakusten duen eskema[192].

Maila berean, oraindik lurralde-plangintzaren alor-eskala handikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak sakonago garatzeko Lurralde Plan Partzialak (LPP) daude, eremu funtzional bakoitzerako (ikus 71. irudia) idazten direnak. Hamabost LPP daude, horrenbestez. Baten bat behin betikoz onartzea oraindik falta bada ere —Donostialdekoa litzateke kasurik nabarmenena—, LPP gehienak daude jada idatzita, eta, hortaz, indarrean. LPPen funtzio nagusia, beraz, Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak eskualdeka gehiago garatzea da, udalerriz gaindiko eremu funtzional jakin baten eskalan.

Nafarroako lurralde-tresna baliokideak Lurraldea Antolatzeko Planak (LAP) dira, Nafarroako Lurralde Estrategiak zehaztutako bost eskualdetan aplikatzen direnak, udalerriz gaindiko hirigintza-gidalerroak gehiago zehazteko. EAEn ez bezala, Nafarroako bost LAPak batera onetsi ziren, 2011ko maiatzean.

Eskualde-mailako hirigintza-tresna hauetan —EAEko LPPetan zein NFEko LAPetan—, azken finean, esaten dena esaten dela, azpiegitura handien kokalekuak dira garrantzi handiena duten gaiak. Erabili ohi den adierazpen grafikoak, gainera,

191. Hego Lapurdiko Hiriguneak edo Ipar Euskal Herriaren Hegoaldeko aglomerazioak —lehen, Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoa deitutakoa— hurrengo 13 komunak edo udalerriak biltzen ditu: Ahetze, Ainhoa, Arbona, Azkaine, Bidarte, Biriatu, Donibane Lohizune, Getaria, Hendaia, Sara, Senpere, Urruña eta Ziburu.

192. Erdian, Donibane Lohizune. Irudiaren jatorria: Aturri-Pirinioetako Hirigintza Agentzia (*Agence d'Urbanisme Adour Pyrénées*). Hego Lapurdiko Hirigunearen ScoT, 2005 (44. or.).

ez du askoz gehiagorako ematen —edo eman nahi—, planoak gezi erraldoiz, karratu eta biribil potoloz, orban lausoz eta izar handiz beteta egon ohi direlako. Kontuz, iruzkin hau ez doa eskala handiko zein ertaineko lurralde-antolakuntzaren eraginkortasunaren aurka; kritika horiek erabateko malgutasunaren aldeko neoliberalismoaren ikuspegietatik egiten baitira. Hemen esan nahi dena da Hego Euskal Herriko lurralde-antolakuntza azpiegitura handien ezartzeari begira bereziki bideratu ohi dela; eta, horrek, kasu askotan, komunikaziorako bide berrien eraikuntza demasekoa ekarri duela (adibidez, ikusgarria da Iruñeko Gune Metropolitarra egituratzeko Nafarroako Erdialdeko LAPek proposatutako oinplanoa, zeinetan eskuhartze nagusi gehienak garraioen arlokoak diren, esaterako, Iruñea osoa inguratzen duen eskualde-mailako errepide berri handia; ikus 74. irudia). Alegia, globalak edo ikuspegi integralekoak izateko jaioak diren lurralde-plan askok plan sektorialen tankera handiegia edukitzen bukatu dutela.



74. irudia. Iruñeko Gune Metropolitarreko hiri-sistema antolatzeko estrategia-oinplanoa. Nafarroako Erdiguneko Lurraldea Antolatzeko Plana, 2011 (jabari publikokoa).

Egitura-plangintzari dagokionez, Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) da hirigintza-tresna nagusia, bai EAEn bai NFEn. Udalerrien eremu osorako egiten dira HAPO direlakoak. Izan ere, udalerri osoaren aurreikuspen integrala egituratu behar duen hirigintza-tresna da Hiria Antolatzeko Plan Orokorra, hirigintzaren historiako trazadura-plan hutsen zeregin mugatua eta ikuspegi zatikatua[193] erabat gainditzen duena (Terán, 1996b: 173).



75. irudia. Gasteizko 2000ko HAPO espantsionistaren klasifikazio-planoa, zeinetan eremu urbanizagarri handiak ageri diren (bereziki, Salburua, Zabalgana eta Aretxabaleta-Gardelegi)[194].

Hirigintza-lege ezberdinak izanagatik, lau funtzio amankomun dituzte Hego Euskal Herriko —egiazki, Espainiako Estatu osoko— HAPO gehienek, udalerrietako hirigintza-plangintza iragan gertuan jazotako aldaketetara egokitu egin behar dutenak, etorkizunean etor daitezkeen aldaketak ere aurreikusiz[195]:

193. «Zatiketa, planaren ideiarekin berarekin kontraesankorra da» (Terán, 1996b: 184). Egilearen itzulpena.

194. Aipagarriak dira, halaber, zenbait herritan proposatutako lurzoru urbanizagarri demasekoa, esaterako, Miñaon, Lasarten, eta, bereziki, Berroztegietan. Hala ere, eremu horiek oraindik ez daude erabat garatuta.

195. Atenasko Agiriak ere sinetsi egin zuen Plan Orokorraren funtsarengan: «Hiriak enpresa baten izaera eduki beharko du, aldez aurretik aztertutakoa eta plan orokor baten zorroztasunera menderatua» (Le Corbusier, 1979: 128). Egilearen itzulpena.

a) Udalerriko lurzoru guztia urbanizazio-mailaren araberako hiru klase ezberdinetan sailkatzen du: urbanoa, urbanizagarria eta urbanizaezina[196]. Klase bakoitzak dagozkien partzeletako jabeei eskubide eta betebehar ezberdinak ematen eta eskatzen dizkie, erabilera eta intentsitate eraikigarri ezberdinak onartzen edo banatzen dituzten heinean.

b) Udalerriaren egitura orokorra definitzen du, bereziki hiri osoaren eskalako zuzkidura-osagai hauen bidez: komunikazio-sistemako elementuak (errepide, trenbide eta bestelako garraiobide nagusiak), ekipamendu-sistemako elementuak (osasuneko, hezkuntzako, kiroletako eta abarreko ekipamendu nagusiak) eta espazio libreen sistemako elementuak (kale, plaza eta berdegune nagusiak)[197].

c) Proposatutako jardueretarako programazioa definitzen du, bereziki lurzoru urbanizagarriari dagokionez. Horretarako, jarduerak hainbat etapatan banatzen dira, modu antolatuan egikaritu daitezen, eta, horrekin batera, plana gauzatzeko aurreikusten diren gastu guztien azterlan ekonomiko-finantzario bat egiten da.

d) Natura-intereseko zonak eta balio historiko-artistikoko multzoak zerrendatzen eta babesten ditu.

e) Plan Orokorra zer baldintzatan berrikusi behar ote den definitzen du.

Badirudi agiri tekniko hutsei buruz ari garela, baina HAPOek ere —lurralde-antolakuntzako gidalerroek eta planek bezala— badute ideologiatik zerbait —askotxo—, eta, azkenean, ekoizten diren garaiko egoera sozioekonomikoaren isla dira. Hori dela-eta, esan daiteke dagoeneko lau belaunaldi ezberdinetako Plan Orokorrak ezagutu izan direla Espainiako Estatuan, hirigintza diziplina gisa gerraostean ezarri zenetik (Font, 2000):

a) Eraikigarritasun-aprobetxamenduen garaiko planak (1952-1973): bigarren industrializazioaren ondorengo higiezin-boomarekin batera sortu ziren, gerraosteko frankismoaren garai autarkiko delakoaren ondoren. Plan Orokor horietan etxebizitza-poligono berriak planifikatu ziren, hiri-demografiaren gorakada handiari erantzuteko asmoarekin, Plan Partzialen bidez xeheki garatuko zirenak, bloke irekiaren tipologian[198] oinarrituta. Asko eta azkar eraikitzeko asmoarekin idatzitako planak izan ziren.

196. Lehen esan bezala, Espainiako Estatuko 2007ko lurzoruaren legeak ez du kontuan hartzen lurzoru urbanizagarria. Hala ere, autonomia-erkidego gehienetako hirigintza-legediek bai hartzen dutela aintzat.

197. Hiri osoaren eskalako interes orokorreko sistema horietako osagaiei ere, normalean, metonimia baten bidez-edo, sistema orokorrak esaten zaie, higintzaren arloan. Horien aurrean, auzo-eskalako tokiko sistemak edo sistema lokalak daude. Bien arteko ezberdintasun nagusiak eragin-eskala eta haiek lortzeko —eta ordaintzeko— moduan dautzan.

198. Edo *bloke laminarrak*, Fernando Terán hirigilearen esanetan (1978: 16).

b) Demokraziaren berrezarpen-garaiko zuzenketa-planak (1973-1980): petrolioaren lehen energia-krisiaren ondoren sortu ziren, frankismoaren itxurazko desagerpenarekin eta auzo-mugimendu aldarrikatzaileen sorrerarekin batera. Oinordetzan jasotako hirien gabeziak konpontzen saiatu ziren, aurreko garaiko eraikigarritasun demasekoak hainbeste baliatu gabe.

c) Laurogeiko hamarkadako plan morfologiko postmodernoak (1980-1990): hiri-formari eman zitzaion arreta berezia, alegia, hirietako arkitektura fisikoari, ikuspegi sozioekonomikoaren gainetik bazen ere. Horregatik, hirigintza-plan integralez baino arkitektura-proiektu zehatzez hitz egin zen gehiago, ikuspegi zatikakoak begirada holistikoei nagusitu zitzaizkiela.

d) Laurogeita hamarreko hamarkadako plan *berde samarrak* (1990-2000): aldiriaren eta lurraldearen eskalari eta ingurumenari eman zitzaien arreta, lehen aldiz, modu lotsati samarrean izan bazen ere.

Plan Orokorren sailkapen horri azken bi etapa —bosgarrena eta seigarrena— gehitu dakizkioke, biak ala biak mende berriaren hasieran gertatutakoa azaltzeko: XXI. mendearen hasierako urteetako plan garapenzaleak (2000-2007), zeinetan higiezinen burbuila oraindik gehiago puztu zen (horren adibide aparta litzateke Gasteizko 2000ko HAPO espantsionista[199]; ikus 75. irudia), eta, burbuilaren eztandaren ondoren idatzitako planak (2007-2014), mundu-mailako krisialdi ekonomikoaren erdian garatutakoak, gehienetan aurreko garaiko izugarrikeria urbanistikoak zuzentzeko asmoarekin.

Horregatik, Plan Orokorrak belaunaldika antolatzen direnean, argi ikusten da bi hirigintza-plan mota daudela, oro har: oparoaldi ekonomikoetako hedatze-kutsuko hirigintza-planak, eta krisialdi ekonomikoetako atzera-egite eitekoak. Batetik, oparoaldietako planek hirigintza azkarra eta lehiakorra dute helburu zein ondorio gisa; kolonizaziokoak izan ohi dira, hazkundekoak, hiritarren parte-hartzerik gabekoak (zabalgune berrietan auzorik oraindik ez dagoelako bizitzen); ekimen partikularreko edo pribatuko hirigintza espekulatiboa bultzatzen dute, baita aukera-zonen eta gainbalioen araberako plangintza puntuala ere. Bestetik, krisialdietako planek hirigintza geldoa eta solidarioagoa eragiten dute, eraberritzearen eta birziklatzearen defendatzailea, eta parte-hartzearen aldekoa (auzokideak badaudelako bizitzen); iniziatiba kolektiboko hirigintza erreala bultzatzen dute, baita egituraketa globaleko plangintza orokorra ere.

Udalerri osorako egitura-plangintzaren eskala handitik auzoaren eskala txikiagora jaitsiz, bi hirigintza-tresna nagusi ageri dira Plan Orokorrak xeheki garatzeko: Plan Partzialak eta Hiria Antolatzeko Plan Bereziak. Plan Partzialak lurzoru urbanizagarriko sektoreak garatzeko idazten dira, eta, Plan Bereziak, ordea, hiri-lurzoru finkatugabeko areak garatzeko. Hirigintza-antolakuntza xeheaz arduratzen da, hortaz, garapen-plangintza, betiere gauzatze materialerako jarduera zehatzetan pentsatuz. Zehazkiago, hurrengo funtzio nagusiak betetzen ditu antolakuntza xeheak:

199. Luis Rodríguez Fuentes arkitektoak gidatutako taldeak idatzia.

a) Hiri-bilbeak xeheki definitzen ditu. Bereziki, bideen zein eraikinen lerrokadurak eta lurzoru-mailako kotak.
b) Eraikinen tipologiak xeheki definitzen ditu[200], baita haien ezaugarri geometriko nagusiak ere: altuerak, solairu-kopurua, hegalak….
c) Auzo-eskalako zuzkidurak edo sistema lokalak definitzen ditu (bideak, espazio libre publikoak, ekipamenduak, hiri-zerbitzuak…), baita haien loturak HAPOk definitutako udalerri-eskalako sistema orokorrekin ere. Sistema lokal horien kopuruak —zenbat eta zenbatekoak— zehazteko orduan, dagokion lurzoruaren legeak ezarritako estandar minimoak bete behar dituzte.
d) Batera programatu beharreko jarduera integratuak egikaritzeko unitate edo eremuak definitzen ditu, HAPOk aurretik mugatutako lurzoru urbanizagarriko sektoreetan zein hiri-lurzoru finkatugabeko areetan. Halaber, haien egikaritzea kudeatzeko jarduera-sistemak hautatzen ditu (publikoak ala pribatuak), ondorengo berdinbanaketa edo ekidistribuzioa egiteko ponderazio-koefizienteak aurreratuz.
e) Partzeletako erabilerak —edo kategorizazioa— eta eraikigarritasun xeheak definitzen ditu, baita erabilera bateragarriei dagokienez ere. Horrekin batera, debekatutako erabilera xeheak ere definitzen ditu.
f) Hirigintza-betebeharrak gauzatzeko epeak mugatzen ditu.
g) Planaren helburuekin bat ez etortzeagatik antolakuntzaz kanpo gelditu beharreko elementuak (eraikuntzak, instalazioak, erabilerak…) zerrendatzen ditu.

Egitura-plangintzak —garaiaren eta indar politiko-teknikoen arabera— neurri ezberdinetan *delegatu* egin du garapen-plangintzarengan. Izan ere, HAPO batzuek dagoeneko hirigintza-antolakuntza xehea garatzen dute —lurzoruaren legeek gero eta malguagoak dira zentzu horretan—, eta, kasu horietan, antolatzeko gutxiago lagatzen diete zehatzagoak diren eta ondoren datozen Plan Partzialei. 1960ko hamarkadako HAPOak, ordea, zonifikazio orokorraren mailan gelditzen ziren, oro har, eta garapen ia osoa orduko Plan Partzialei uzten zieten (Terán, 1978: 16), etxebizitza-poligonoetako eraikuntza xeheki definitzen zutenak (ikus 76. irudia). Oro har, badago joera ulergarri bat HAPOek antolakuntza egituratzailea eta xehea batera egiteko udalerri txikietan, eta antolakuntza xehea garapen-plangintzari delegatzeko udalerri handietan, bertako kasuistika konplexuagoa eta zabalegia den heinean.

200. Adibidez, etxebizitza kolektibo irekia, industria-pabiloi atxikia, edo bulego-eraikin bakartua.



76. irudia. Ezkerrean, Gasteizko 1963ko HAPOren[201] zati bat, non poligonoen zonifikazio orokorra baino ez den zehazten; eskuinean, Aranbizkarreko Plan Partziala, 1980ko aldaketekin[202].

Azkenik, hirigintza-plangintzako tresna nagusien azaleko begirada panoramikoarekin amaitzeko, merezi du hiri-proiektu delakoaren kontzeptua azaltzea. Plangintza-tresna ofiziala izan ez arren, hiri-proiektua dezente aipatua izan baita arestian esandako 1980ko hamarkadako ikuspegi morfologisten aldeko arkitekto postmodernoen partetik, bereziki. Alegia, hirigintza-plan globalaren aurrean arkitektura-proiektu zatikakoaren aldeko arkitektoen partetik[203].

Hiri-proiektua ez da hirigintza-plan bat, ezta arkitektura-proiektu bat ere (Bohigas, 2004: 26. kap.). Hiri-zati baten forma eta edukia —espazio publikotik arkitekturara— definitzen duen proiektu malgu bat da, ondoren proiektu txikiagoen bidez —eta arkitektura-talde ezberdinen bidez— definitiboki gauzatzen dena. Hortaz, hirigintzaren eta arkitekturaren eskalen arteko proiektu mota bat da hiri-proiektua. Solà-Morales hirigilearen ustez bost ezaugarri ditu (1988):

201. Ignacio Laskibar arkitektoak gidatutako taldeak idatzia.

202. 3.300 etxebizitza inguru bildu behar zituen Aranbizkarra poligonoak. Jatorrizko Plan Partziala, Enrique García Ormaetxea eta Ángel Esteve Juaquotot arkitektoek garatutakoa, 1974koa zen. Irudiak, jabari publikokoak. Puntuen bidez poligonoaren kokapena adierazi da. Fotomuntatzea, egilearena.

203. Bereziki Italiako eta Espainiako arkitektoak izan ohi dira.

a) Bere jarduera-eremu mugatutik harago doazen lurralde-eraginak sortzen ditu.
b) Konplexua eta funtzioaniztuna da; hainbat erabiltzaile mota ditu.
c) Eskala ertainekoa da, eta, hortaz, urte gutxitan guztiz gauzatu daiteke.
d) Hiri-bokazio argia du, eraikin-arkitektura hutsaz harago.
e) Osagai publiko garrantzitsua du; bere programak —zati batek, bederen— erabilera kolektiboak ditu.



77. irudia. Hiri-proiektu handitzat jo daitekeen esku-hartzea: Nova Icària, Vila Olímpica, Poble Nou, Bartzelona. MBM eta A. Puigdomènech[204], 1985-1992 (jabari publikokoa).

204. Josep Martorell, Oriol Bohigas, David Mackay eta Albert Puigdomènech arkitektoek hartu zuten parte.

Bohigasen ustez, gainera, hiri-proiektua oso tresna errealista da, berehalako kudeaketarako sistema ere berez biltzen duelako (hirigintza-plana baino txikiagoa izatean, epe eta parte-hartzaile mugatuagoak dituelako). Arazo partikularretatik hasten omen den tresna da hiri-proiektua, Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren —ustezko— abstraktutasunaren eta burokratikotasunaren[205] aurrean, eta, beraz, ulergarriagoa da herritarrentzat, zeinek eskala mugatuago horretan parte-hartze handiagoa izan baitezakete. Bohigas sutsuarekin erabat ados egon ala ez, hirigintza-plangintzak badu zer ikasi hiri-proiektuak eskaintzen dituen abantaila pragmatikoetatik.

205. Hiri-proiektuaren eskala defendatuz eta ohiko hirigintza-plangintzaren gehiegizko burokrazia kritikatuz, hain zuzen ere, hurrengoa esan du Luis Moya hirigileak, sen onez: «Hiriaren forma asmo formal batetik dator, ez hirigintza-aprobetxamenduaren banaketa ekitatibo batetik». Moya, L. (1995): "La materialización del planeamiento: el proyecto urbano", in M. Ferrer (koord.), *Perspectivas demográfico-sociales, urbanísticas y territoriales en el umbral del siglo XXI*, Nafarroako Unibertsitatea, Iruñea [ISBN 84-313-1337-4].

5. *Civitas:* hiritargoaren dimentsioa

5.1. IKUSKIZUNAREN HIRI POSTMODERNOA

Bigarren Mundu Gerra amaitu baino lehen, Mendebaldeko herrialde boteretsuenek hartutako zenbait erabaki mundu-mailako ordena ekonomiko berri bat osatzen hasi ziren, hirigintzaren alorrerako (ere) izugarrizko eraginak ekarriko zituztenak. Bretton Woods —New Hampshire, AEB— herriko hotel batean 1944ko uztailean hartutako akordioetan, hain zuzen ere, 44 herrialde *aliatu* industrializatuenek Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa sortzea adostu zuten, baita dolarra mundu-mailako moneta nagusi ezartzea ere. Finantza-mundurako erabaki *keynesiar*[206] horiek, garapenerako zein babeserako —kontrolerako— zenbait neurri bildu zituztenak, ongizatearen estatua izeneko antolakuntza-eredu sozioekonomikoari eman zioten hasiera. Gerraostean sortutako beste bi erakunde garrantzitsuk Mendebaldeko kapitalismoarekin bateragarria zen eredu hori gehiago indartuko zuten: Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea (NATO), 1949an sortua, eta Europako Ekonomia Erkidegoa, 1957an sortua.

Asko laburbilduz, aipatutako erabaki ekonomikoek bizi-maila ertainaren demokratizazioa mundu-mailan zabaltzea ahalbidetu zuten, Mendebaldeko herrialdeei dagokienez, gutxienez. Erdi-mailako klasearen hedatzeak sektore ekonomiko estrategiko batzuen hazkunde nabarmena ekarri zuen, hirigintzarekin estuki erlazionatutakoak: etxegintzarena, autogintzarena eta errepidegintzarena, bai eta etxeak zein autoak erosi ahal izateko hipoteka-maileguak eskuratzeko bankuena ere. Estatuen partetik, hala ere, nolabaiteko esku-hartze edo kontrola bazegoen, oraindik.

1973ko petrolioaren krisi latzak eredu horren aurkako ahotsei, hau da, estatuen esku-hartzearen kontrakoei, bereziki Milton Friedman ekonomialariak gidatutako Chicagoko Ekonomia Eskolakoei, protagonismo itzela eman zien. Eta, horren ondorioz, teoria neoliberalak lehentasun osoa hartzen hasi ziren mundu osoko politikarien agendetan, bereziki Erresuma Batuko Margaret Thatcher eta AEBko Ronald Reagan agintariek 1980ko hamarkadaren hasieratik gauza publikoaren desegiteari ekin ziotenetik[207]. Teoria neoliberal horien arabera, merkatu finantzarioa

206. Hala definitu izan dira. Izan ere, John Maynard Keynes ekonomialariak akordioetan eztabaidatzeko Ingalaterraren proposamenak zuzendu zituen. Esaterako, haren ideien eraginez —besteak beste— sortu zen Munduko Bankua.

207. Gauza publikoaren desegiteari buruzko informazio kritiko gehiagorako, ikus Klein, N. (2010): *La doctrina del shock. El auge del capitalismo del desastre*, Paidós, Bartzelona [ISBN 978-84-493-2345-4].

berez erregulatzen da, inolako esku-hartze publikoren beharrik gabe, eta enpresen eta herrialdeen arteko lehia ekonomiko ireki horixe omen da bakoitza bere lekuan jartzen duena, eta lehiakideak gero eta eraginkorragoak izatea bultzatzen ei duen motorra. Are gehiago Internetek eta garraiobideen hobekuntza ikaragarriak erraztu duten globalizazioa agertu denetik, hots, XX. mendearen amaieratik, azken hamarkadotan hainbeste hazitako ekonomia espekulatiboari edo —pixka bat eufemistikoki esaten den bezala— *finantzarizazio*ari ere izugarrizko bultzada eman diona.



78. irudia. Espainiako Estatuko auto-matrikulazioen bilakaera XX. mendean. Iturria: ANFAC Espainiako auto-ekoizleen elkartea.

Aipatutako testuinguru ekonomikoak eragin handia eduki du hirigintzan. Esandako garraiobideen hobekuntza horrek, bereziki 1970eko hamarkadan jazotako auto pribatuaren erabileraren gorakada itzelak (ikus 78. irudia), lurralde-mailako zonifikazio edo erabileren sakabanaketa handia ekarri baitzuen, halaber, XX. mendearen amaieran. Aurretik Mugimendu Modernoak antolatutako hiri-zonifikazioaren ondoren, beraz, postmodernitateak ekarritako lurralde-zonifikazioa jazo zen, mundu-mailako suburbanizazio-prozesuarekin batera. Ondorioz, aldirietan, baita Euskal Herrikoetan ere, hiri espezializatuak agertu ziren nonahi: lo-hiriak —maiz golf-zelaien[208] eta kirol-portuen[209] inguruan finkatutakoak—, unibertsitate-

208. Deigarriak dira, esaterako, Mungiako Berriagamendi edo *La Bilbaína* golf-urbanizazioa (1973an eraikitzen hasia, eta, egun, 2.000 bat pertsona biltzen dituena), Hondarribiko Jaizkibel golf-urbanizazioa, berriagoa den Eguesibarko Gorraitz golf-urbanizazioa…

209. 1985 eta 2006 artean Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-amarraduren kopurua laukoiztu egin zen, 1.280tik 4.825era, Espainiako Estatuko hazkunderik handiena osatuz. Marcos, P. *et al.* (2010): *Destrucción a toda costa 2010. Informe de Greenpeace sobre la situación del litoral español,* Greenpeace, Espainia [ISB gabe], 113. or.

hiriak[210], bulego-hiriak —industria-parkeak eta parke teknologikoak— eta, jakina, merkataritza-gune erraldoiak[211]. Eta aldiri bereizi horiek guztiak lotzeko, bistan da, errepidez josi behar izan zen lurraldea.

Gaur egun, gurpil zoro berean murgilduta jarraitzen dugu, saihesbideen saihesbideak eraikiz —Donostiako bigarren ingurabidea, Bilboaldeko Supersur delakoa, aspalditik eraiki nahi den Gasteizko hego-saihesbidea, Iruñea Metropolitarreko ingurabidea (ikus 74. irudia)— eta gero eta errei gehiagoko autobideak gauzatuz. Arestian esan bezala, hondeatzeko makinek azpiegituren eta topografiaren arteko ohiko erlazio estua desegitea ahalbidetu zutenez, gero eta azkarragoak diren, eta, Abiadura Handiko Trenaren kasuan bezala, biraketa-erradio handiagoak behar dituzten garraiobideak diseinatzen ditugu. Hirigintza-hazkunde berrien euskarriak ez dira bailarak jadanik, baizik eta azpiegitura azkarrak.

Hiriguneetan, berriz, ikuskizunaren hirigintza postmodernoa garatu egin da. Logika neoliberal eta postmodernoak etengabeko hazkunde ekonomikoa du oinarri, eta, ondorioz, hiri handiak ditu joko-zelairik preziatuenak —legebiltzar demokratikoen aurrean—, bertan ezarrita dauden korporazioetan hartzen direlako erabaki nagusiak, bertan bizi delako jende gehiena —kontsumitzaile gehienak—, eta, konpetitibitate librearen merkatu globalean, hiriak berak salgai bihurtu direlako, agintariak edozein gauza egiteko prest daudelako inbertsoreak —multinazionalak, turistak— erakartzeko (Gamarra; Larrea, 2007: 41-45). Administrazioek haien hiriek mundu-mailako hiri-sare hierarkizatu eta lehiakorrean (ikus 2. irudia) toki esanguratsu bat eduki dezaten hartzen dituzte erabaki guztiak. Gauza urbanoa etekinak lortzeko mekanismo bihurtu delako honezkero. Ekonomia- zein hauteskunde-etekinak, esan nahi baita. Ikusmolde horrek eragiten dituen ondorio sozialak gorabehera. Hiria dagoeneko ez baita hiritarrarena, baizik eta kontsumitzailearena (Gamarra, 2005).

Inbertsioak —kapitala— hirietara erakartzeko lehia sutsu horretan arkitektura gako bihurtu da, irudi arrakastatsua komunikatzeko publizitate politikoki zuzena eta, hortaz, ezin egokiagoa den heinean. Askotan barne-edukia hutsala izanagatik ere. Euskal Herrian horren berri badugu; izan ere, 1997ko urrian irekitako Bilboko Guggenheim frankizia-museoa dagoeneko ikuskizunaren hiri postmodernoaren mundu-mailako ikur bihurtu baita[212], beren patrikak hirian husten dituzten turistak erakartzeko makina eraginkorra den heinean. Edukiari dagokionez, ordea, nahiz eta aldakorra izan —turistek zerbait berri beti aurkituko duten esperantzan—, gehienetan

210. Euskal Herriko adibiderik paradigmatikoena EHUren Leioako campusaren ezarpen periferikoa da, 1969 eta 1971 urteen artean eraikia, Sarrikoko campus zaharretik 10 km-ra.

211. Nabarmena da, esaterako, Barakaldo udalerria, aldirian kokatutako azalera handiko komertzioen aldeko apustu handia egin duena (1994an Max Center ireki zen —60.000 m^2—, eta, 2004an, MegaPark, Euskal Herriko komertzio-azalerarik handiena duena —100.000 m^2—: bertan daude Ikea, Leroy Merlin, Decathlon, MediaMarkt eta beste hainbat komertzio handi). Komertzio-politika horrek diru-sarrera handiak ekarri dizkio udalari, baina ia hutsik utzi du erdiguneko komertzio-paisaia.

212. Museo mediatikoen lehia, dena den, Parisko Pompidou edo Beaubourg zentroak hasi zuen, 1977an (García, 2006: 82).

AEBko betiko supermerkatuko pop artelan errepikakorrak erakusten dira museoaren barnean[213], Bilboko museoa New Yorketik zuzendutako satelite-ekipamendu bat delako, azken finean.

Eta, esan gabe doa: munduko hiri gehienak, guztiak ez esateagatik, ari dira, orduz geroztik, kultura-proiektuz mozorrotutako negozio-eredu hori berdin-berdin kopiatu nahian, arte-museo distiratsuak McDonald's zabor-janariko establezimendu espantsionisten modura klonatzen, alegia, Bilboko Guggenheimeko eduki gehienen espiritu-aita Andy Warholen aspaldiko sarkasmoa errealago bihurtzen: «Tokion dagoen gauzarik ederrena McDonald's da. Stockholmen dagoen gauzarik ederrena McDonald's da. Florentzian dagoen gauzarik ederrena McDonald's da. Pekinen eta Moskun oraindik ez dago ezer ederrik»[214].

Berdin dio Bilboren eraberritzerako beste hiru proiektu gertatu izana askoz ere estrategikoagoak eta oinarrizkoagoak: Bilbo Metropolitarreko Itsasadarra Garbitzeko Plan Integrala (Bilboko Ur Partzuergoa, 1979), Abrako kanpoko portua zabaltzeko obrak (Bilboko Portu Autonomoa —egungo Portu Agintaritza—, 1991tik aurrera[215]; ikus 79. irudia) eta, jakina, metroa (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia, 1987-1995). Bilboren eraberritze osoa Guggenheim eraikinari zor zaion ustea zabaldu da mundu osoan. Izan ere, oso barneratuta dago Bilboaldeko antzinako ekoizpen-industria beste industria mota batek ordezkatu duela: kontsumismoaren eta merkantilismoaren industria postmodernoak.

Zentzu horretan, ederki azaldu du Giandomenico Amendola soziologoak hiri postmodernoaren agerpenarekin egon den aldaketa kualitatiboa (1997: 183): «Hiri postmoderno berria XIX. mendean garatutako industria-hiria ari da gutxika baina etenik gabe ordezkatzen. Arintasunaren eta ilusioaren hiria Coketown gogor eta instrumentala ari da ordezkatzen. Plazera funtzioa baino gero eta garrantzitsuagoa bilakatzen ari da egunero»[216].

213. Pop arteak museoetara eraman zituen supermerkatuetako kontsumo-objektu arruntak: freskagarri-botilak, gazta-hanburgesa bikoitzak, haragi-erretilutxoak, edari-tapoiak, zopa-latak, detergente-kaxak… Kontsumo-objektu horiek monumentu bihurtu zituen, bereziki bi mekanismoren bidez: alde batetik, objektuen tamaina handituz (hori izan zen Claes Oldenburg pop artistaren tresnarik erabiliena), eta, beste aldetik, objektuen kantitatea hainbat aldiz biderkatuz (hori izan zen Andy Warholen mekanismorik erabiliena). Ikus Fernández de Betoño, U. (2005): "Arte de supermercado", *El generador (Arte Vitoria)*, **4,** 30-32 [ISSN 1696-2435].

214. Egilearen itzulpena. Warhol, A. (1975): *The Philosophy of Andy Warhol (From A to B & Back Again),* Harcourt Brace Jovanovich, New York [ISBN 0-15-189050-1], 4. kap.

215. Lehen eta bigarren faseak —200 ha-ko azalera gehiago— 1991 eta 2007 artean eraiki ziren. Hirugarren fasean, 2019an amaituko omen dena, 116 ha lehor gehiago lortuko dira.

216. Egilearen itzulpena. Coketown (ingelesez, ikatz-hiri) Charles Dickens idazlearen 1854ko *Garai latzak* eleberriko industria-hiri itsusi eta iluna da.

79. irudia. Hiriguneko ikuskizunaren hiri postmodernoa garatzea ahalbidetu duen Bilbo Metropolitarreko Abrako portuaren oinplanoa, 2011koa. Iturria: Bilboko Portu Agintaritza.

Industria *zikintsu*aren deslokalizazioarekin batera erabilera tertziario *garbiak* ari baitira Lehen Mundu delako hirietako lurzoru ugari betetzen, horrek dakarren aldaketa soziala aztertu ez bada ere. Edo, hobeto esanda, aztertu aztertu egin da, baina ondorioztatzeko ikuskizunaren eta kontsumismoaren hiriaren ereduarekin kritiko diren kolektiboak ez direla ongi etorriak. «Guggenheim museoa kritikatzea susmo politikoak pizten dituen bekatua da, ilusioaren eta sakratuaren ikurraren aurkako erasoa baita» zorroztasunez idatzi du Iñaki Esteban kazetari eta filosofoak[217].

Horrexegatik da hain ezinbestekoa hiri postmodernoan ezarri beharreko kontrola. Eredu distiratsuarekin bat ez datozen hiritarrak zaintzeko. Egungo erdigune lehiakorrek finantza-hiri handien irudi arrakastatsua islatu behar omen dutelako, eta, horrenbestez, hiritar guztiak ez direlako txukun agertzen turistek egindako argazkietan, arkitekto ustez prestigiodunen eta turismo-ibilbideetan txertatzen diren *autore-lan*en ondoan. Ondorioz, hiritar ezatseginak kamara-sistemen bidez zaintzen dira —Bilbo Zaharrean, kasu, 18 kamara ezarri ziren San Frantzisko kalean, 2009an,

217. Egilearen itzulpena. Esteban, I. (2007): *El efecto Guggenheim. Del espacio basura al ornamento*, Anagrama, Bartzelona [ISBN 978-84-339-6264-5].

auzotar askoren iritziaren aurka[218]—, eta espazio publikoa erabiltzeko *ad hoc* fabrikatutako ordenantza gehiegizkoen bidez erregulatzen.

Azken bide hertsatzaile horren adibide paregabea da 2010eko irailaren 23an onetsitako Bilboko Espazio Publikoaren Ordenantza[219], ofizialki «gizalegezko balioak indartzeko» idatzi omen zena, beraz, ia-ia alor moralean sartuz: bizikleta-paseoak debekatu ziren espaloietatik (21. artikuluan), baimenik gabeko herri-bazkariak (22. artikuluan) eta musika-ekitaldiak (38. artikuluan) antolatzea… Guztia, turista eta kontsumistarengan ederki pentsatuta, zerbitzu-sektorea mimoz zaintzeko. Gogoratu besterik ez dago 17. artikuluak espezifikoki debekatzen zuela «ostalaritzako lokaletan erosi ez diren edari alkoholdunak» kalean edatea. Badirudi agintari batzuei ahazten zaiela espazio publikoa guztiona dela, ez soilik ikuskizunaren hiri postmodernoaren irudiarekin bat egiten dutenena (Fernández de Betoño, 2014: 21-24).

Zeren eta, hiritarrak kontrolatzeaz gain, klima —ustez— desatsegina ere kontrolatu nahi da, turismo-ibilbideen eta ostalaritzako terrazen ezartzearen aurkakoa izan ohi delako, bereziki Euskal Herri euritsu honetan. Hori dela-eta, espazio libre publikoa estaltzeko hainbat proiektu burugabe proposatu dira azken urteotan, esaterako, Gasteizko Plaza Berri neoklasikoa (ikus 22. irudia) —gehi Dato eta San Prudentzio kaleak— estaltzeko proiektu zentzugabea, 2008ko uztailean Paxi Lazkoz alkateak aurkeztu zuena (ikus 80. irudia), «komertzio-parke hiritar» handi eta mikroklimatiko bat osatzeko asmoarekin[220]. Alegia, hiriguneetako espazio libre publikoa merkataritza-gune kontrolatu bihurtu nahi da, kosta ahala kosta.

Azken finean, hiriguneak dira hiriek duten bereizgarritasun nagusia. Aspaldi egindako hiriguneak esan nahi baita, azken urteotako bandera-ontzi arkitektoniko distiratsuak edonon klonatzen ari direlako. Zeren eta, Guggenheim efektuaren ondorioz hiri gehienetan eraiki diren ekipamendu ustez bikainak nahiko antzekoak baitira haien artean, eta, azkenean, errepikapenaren errepikapenaz, ez dute balio ezer berezirik eskaintzeko. Bilboko Guggenheim museoari buruz, hain zuzen ere, hurrengoa zioen propaganda ofizialak: «Harriz, titanioz eta kristalez estalitako eskultura ikaragarri baten antzera sortua izan zen Museo honen formak hiriaren lehenaldi industriala eta portuaren inguruko bizimodua gogorarazten dute»[221].

218. Kamara-sistemaren aurka daude, batez ere, auzoaren kriminalizazio-irudia areagotzen duelako eta ez duelako arazoaren benetako erroa inondik inora konpontzen. Ikus Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalako Taldeen Koordinadorak idatzitako "¿Cámaras en San Francisco? ¡No en nuestro nombre!" idazkia: <http://www.barriosaltos.net/Documentos/Camaras-en-San-Francisco/icamaras-en-san-francisco-no-en-nuestro-nombre.html> [kontsulta: 2014-10-4].

219. Helbide honetan eskuragai: <http://www.bilbao.net/castella/espacio_publico/normativa/ordenanzas/ordenanza_espacio_publico_eusk.pdf> [kontsulta: 2014-10-4].

220. Uztailaren 16an iragarri zuen proiektua orduko alkateak, hainbat komertzianteren eskaerari jarraikiz, zera esanez: «Imajina ezazue moda-desfileak edo terrazak urte osoan zehar antolatu ahal izatea». *El Correo*, 2008/7/17 (egilearen itzulpena).

221. Frank Gehry arkitektoari berari buruzko erakusketa baten karira, Bilboko Guggenheim museoak argitaratutako panfletoan. Erakusketa 2001eko urriaren 31 eta 2002ko apirilaren 21 artean izan zen ikusgai.

Alabaina, *kasualitatez*, arkitekto berdinak Los Angeles hirirako diseinatutako Walt Disney Concert Hall eraikin ikusgarriak, 5 urte lehenago diseinatutakoa[222], azal oso antzekoa du —titaniozko xaflen ordez, aluminiozkoak, hori bai—, distiratsu-distiratsua.



80. irudia. Gasteizko erdiguneko kale eta plaza garrantzitsuenak estaltzeko Alondegi Proiektua, 2008an Patxi Lazkoz alkateak aurkeztutakoa. Iturria: Gasteizko Udala (jabari publikokoak).

Eta, ildo berean, Bilbon bertan ikus daiteke ikuskizunaren arkitektura ustez bakanaren beste klon kalkatu bat: Abandoibarreko Iberdrolaren dorre ikonikoa berdin-berdin errepikatu dute —arkitekto berak diseinatu baitu, César Pelli argentinarrak— Sevillan Cajasol aurrezki-kutxa ohiarentzat. Sevillakoa oraindik bukatu ez badute ere, biak ala biak 2007an hasi ziren eraikitzen. Horregatik suertatzen da hain irrigarria politikariei entzutea Bilboko dorrea —edo Sevillakoa— munduan bakana dela[223].

222. Bilboko museoa 1992 eta 1997 artean diseinatu eta eraiki zuen Gehryk, eta, Los Angelesko kontzertu-aretoa, 1987 eta 2003 artean (eraikuntza-prozesua dezente luzatu zelako).

223. Bilboko dorrearen kasuan, gainera, hirirako behar-beharrezkoa zela ere esan izan da, istorio nahiko gorabeheratsua jazo arren: 1990eko hamarkadaren hasieran arkitektoak bulego-dorre bat planteatu zuen; ondoren, 1998an, Bizkaiko Foru Aldundiak iragarri zuen bere bulego guztiak dorrera lekualdatuko zituela; 2003an, baina, bat-batean Aldundiak esan zuen ez zuela dorrea behar; beraz, operazioak aurrera egin zezan, Bilboko Udala tartean sartu zen, esanez orduan bere bulegoak dorrera eramango zituela; hala ere, 2004an, Udala ere damutu egin zen, ez zuelako dorrea behar, eta, urte horren amaieran bertan Iberdrola magikoki *agertu* zen, dorrearen operazioa erreskatatuz; hala ere, istorioa ez da hor amaitzen: dorrea handiegia zenez, hotel bat ere ezartzeko aukera itxi zen, eta, 2008an —obrak jada hasiak zirela—, Iberdrolak dorrearen heren bat saldu zion BBKri, hotelaren ezarpena behin betikoz baztertu zela. Alegia, dorrea eraiki beharra zegoen, kosta lain kosta, eraikuntza-operazioak zekartzan arrisku ekonomiko handiak gorabehera.

Hiri guztiak ari zaizkiolako finantza-hiri arrakastatsuaren irudi berdin-berdinaren arrastoari jarraitzen.

Horrekin batera, hiria bera salgai bilakatzen ari da, esan bezala, mundu-mailan lehiatu behar den merkantzia baten modura, hots, marka erregistratu bat duen produktu baten gisara. Hiri-marketin globalizatu horri dagokionez, Bilboren kasua ere esanguratsua da, eta, bada horri dagokionez jarduera bat aski nabarmengarria. Hain zuzen ere, 2010eko Shanghaiko (Txina) World Expo delako erakusketa nazioartekoan erabilitako izena eta hizkuntza hutsala[224]: «Bilbao Guggenheim ++. PLUS Project of Leadership in Urban Strategy». Alegia, Bilbo osoa bertan eraikitako eraikin batera murriztu zen, ia-ia metonimia bat sortuz, zeinetan Guggenheim izena Bilboren abizen banaezina baitzen.

Interesgarria da, halaber, erakusketa horrekin batera osatu ziren bi propaganda-panfleto[225]: bat, Shanghain bertan banatzeko pentsatuta, eta, bestea, EAEko enpresentzat egindakoa. Lehenengoak, Bilboren eraberritzearen nondik norakoak 25 jardueraren bidez azaltzeaz gain, ikuskizunaren hiri postmodernoaren apustu berria ederki azaltzen zuen: hiri industriala izatetik zerbitzu-hiri zein ezagutzaren hiri bihurtzeko behar eztabaidaezina. Horretarako, hiru estrategia omen dira beharrezko: sormenezko ikuspegia, lidergo instituzionala eta partenariatu publiko-pribatua; alegia, «kultura, ingurumena, gizartea eta ekonomia uztartzen dituen indarberritze-eredu ausart eta berritzaile baten aldeko apustua». Eskerrak aipatutako bigarren panfletoan argiago azaltzen zela egiazko zioa, benetako azken helburua —ezagutzaren gizartearen kalamatrika sasikontzeptualaren atzean dagoena—, izenburuan bertan: «Bilbo Expo Shanghai 2010 erakusketan: aparteko aukera enpresentzat». 4.1. atalean oraindik gehiago xehatzen da horren guztiaren helburu erreal nagusia: «Inbertsioak erakartzea Bilbora, Bizkaira eta Euskadira».

Helburu hori zilegizkoa da, jakina. Alabaina, arazo handi bihurtzen da hiri-gintza-erabaki gehienak horren pean hartzen direnean, eragin sozial guztiak —baita ingurumenaren alorrekoak ere— benetan kontuan hartu gabe, politikoki zuzena den diskurtso ofizialean esaten dena gorabehera. Jarrera ekonomizista huts horren adibide da panfleto ofizialetatik kanpo eta modu lasaiagoan ekonomia adimentsuaren laugarren sektore garbiaren guru-ideologoak ozen esan duena, inongo lotsarik gabe: «Dirutza ikaragarria dago munduan, eta hura erakartzeko proiektuak behar dira»[226].

Izan ere, dirua erakartzeko hiria eraberritzea baldin bada helburu bakarra, zaharberritzearen ondorio sozial negatiboa ez da inondik inora aztertuko: gero eta garrantzitsuagoa den gentrifikazio-prozesua, alegia. Gentrifikazioa *gentry* termino

224. Bilboren erakustokiaren kontzeptua Alfonso Vegara hirigileak gidatutako *Fundación Metrópoli* izeneko sozietate pribatuak diseinatu zuen.

225. Helbide honetan eskuragai: <http://www.bilbao.net/cs/Satellite?cid=3000077032&language=eu&pagename =Bilbaonet%2FPage%2FBIO_contenidoFinal> [kontsulta: 2014-10-5].

226. Alfonso Vegara, *La opinión de A Coruña* (2012/10/4).

ingelesetik dator, burges esan nahi duena[227]; hortaz, auzo baten burgeste edo elitizazioa adierazteko erabiltzen da, zeinak gizartearen derrigorrezko ordezkapen bat eragiten duen: erdi-mailako klaseko jendeak erosteko ahalmen txikiagoa duena auzotik botatzen du, nahita edo nahi gabe, prezioen —etxebizitzen alokairuak, batez ere— igoeraren ondorioz (Fernández de Betoño, 2014: 17). Hiri-birgaitzearen ezkutuko aldea da gentrifikazioa, hortaz; arkitektura-aldizkarietan erakusten ez den fenomenoa.

Betidanik jazo izan da nolabaiteko segregazio sozioespazial bortxatua hirien gizarte-antolakuntzan (ikus 81. irudia), baina neoliberalismoaren hiri postmoderno garaikidean gero eta nabarmenago azaltzen ari da. Hainbeste, non batzuetan hirigunearen birkolonizazio antolatu baten aurrean gaudela dirudien. Anglizismoz betetako istorioa dugu gentrifikazioarena: *blockbusting* (etxadi-leherketa), *real state mobbing* (higiezin-jazarpena), *white flight* (zurien hegaldia), *hyperghettoization* (ghetto bihurtzea), *slum clearance* (auzo txiroen garbiketa), *liquorlining* (likore-dendez marratzea), *redlining* (gorriz marratzea), *mortgage discrimination* (hipoteka-bazterkeria), *predatory lending* (mailegutza harrapakaria), *racial steering* (arrazaren araberako gidatzea), *restrictive covenants* (klausula murriztaileak), *studentification* (unibertsitario bihurtzea), *greentrification* (berde bihurtzea), *gang injunction* (banda-agindua). Izan ere, gentrifikazioaren *artean* anglosaxoiak aitzindari izan dira[228].



81. irudia. Hiri-segregazio espazialaren hiru eredu klasikoak, Chicagoko Soziologia Eskolaren arabera. Ezkerrean, eredu zentrokidea (E. Burgess, 1925); erdian, sektoreen eredua (H. Hoyt, 1939); eskuinean, erdigune anitzen eredua (C. Harris eta E. Ullman, 1945). Iturria: egilearena.

227. Gentrifikazio terminoa berri samarra da, eta oraindik ez dago jasota hiztegi gehienetan. Ruth Glass soziologoak erabili zuen lehen aldiz, 1964an argitaratutako *London: aspects of change* testuan.

228. *Hirigintza*ko teknika bakoitzaren deskribapenerako, ikus Fernández de Betoño, U. (2011): "Gentrifikazioa eta beste. Hirigunearen birkolonizazioa", *Aldiri. Arkitektura eta abar,* **6**, 38-40 [ISSN 1889-7185].

Gentrifikazio-prozesu oro hiru fase nagusitan banatzen da: hastapeneko balio-galtzea, ondorengo ordezkapena, eta hondarreko balio-handitzea. Hasierako depreziazio ekonomiko eta soziala berez gerta daiteke, baina, normalean, berariaz bultzatu egiten da, *posibilitate anitzeko* —politikarien eta higiezin-agentzien argot nardagarrian— hiri-eremu bat agertuz. Hortaz, gentrifikazioa ez da hasten hiri-eraberritzearekin, sarritan esan den bezala, baizik eta lehenago jazotzen den hiri-hondatzearekin, ezinbestekoa dena: etxebizitza-eraikin eta auzo zaharrak —eta ez hain zaharrak— apropos hondatzen uzten dira askotan[229] —ondorengo eraispena soluzio bakarra bailitzan azalduz—, geroko etxebizitza berrien eraikuntzak ekarriko dituen mozkinen esperoan.

1968 eta 1973 artean gentrifikazioaren ordezkapen-fasearen lehen uhin hanhemenkakoa jazo zen, administrazio publikoek ia herabeki sustatuta, New Yorkeko Park Slope eta Londresko Barnsbury bezalako auzoetan. 1978 eta 1988 artean, atzeraldi ekonomikoa iragan eta gero, bigarren uhin biziagoa gertatu zen, zeinetan kapital pribatuak —artista itxuraz bohemioen laguntza ohartu edo oharkabearekin— New Yorkeko SoHo —SoHo efektua ere deitu izan zaio—, TriBeCa eta Lower East Side, eta Londresko Docklands gisako auzoak gentrifikatu baitzituen. Eta, azkenik, 1994tik aurrera, hirugarren uhina jazo da, eskala handiago eta globalagoan, zeinetan kapital publikoak eta pribatuak gentrifikazioa batera eta arras kontzienteki suspertu duten (Lees; Slater; Wyly, 2008: 174-179).

Azken uhin horren paradigma, jakina, jada aipatutako Bilboko Guggenheim efektua dugu. Baina Bilbo ez da gure arteko kasu bakarra. Mundu-mailako merkatuan lehiatzeko eta kanpoko inbertsioak erakartzeko Gasteiz 2012ko Europako Hiriburu Berde eta 2014ko Espainiako Gastronomiaren Hiriburu izendatu dute, Donostia 2016ko Europako Kultura Hiriburu (Iruñearen aurka lehiatu ondoren)[230]… Izendapen horiek, baita izendapenek dakartzaten jarduera gehienek ere, gentrifikazioa eragin dezakete hiri- eta lurralde-mailan, biztanleak konpetentzia globalaren gurpil zoroan sartu ez diren —eta merkeagoak diren— herrietara kanporatuz.

Eta hiriaren merkantilizazioaren eta —ustezko— edertzearen aurkako zantzuak kosta ahala kosta ezabatu beharra dago; baita askatasuna murriztearen truke bada ere. Eta jada aipatutako espazio publikoa arautzeko ordenantzekin batera, badira beste hainbat neurri gentrifikatzaile, hiri-erdigunea turismo-erakargarri eta *balio erantsia* duen salgai bihurtzen saiatzeko, ondorio sozialak gorabehera: diru-laguntza

229. AEBn asmo horrekin erabilitako hainbat jarduera —arestian zerrendatutako hipoteka-bazterkeria, mailegu-harrapakariak eta klausula murriztaileak, kasu—, higiezin-diskriminazioan ederki sakondu zutenak, legez kanpokotzat jo zituzten —ofizialki, gutxienez— 1948an, baina ordurako bazegoen kalte handia egina.

230. Kultura era gupidagabean erabiltzen ari dira azken hamarkadotan hiri-marketinaren ideologo ofizialak. Izan ere, arteak eta artistek, nahita edo nahi gabe, sofistikazio-ukitu ezin egokiagoa ematen diete balioa handitu nahi zaien auzoei. Jada aipatutako New Yorkeko SoHo auzoan erabilitako teknika bera errepikatu nahi da nonahi.

publikoen diskriminazio «positiboa», negozio ustez finak soilik babesteko[231], beste batzuk apropos debekatzen diren bitartean (dibisa nahikoak uzten ez dituen *jendilaje immigrantea* erakartzen duten mintzalekuak eta teteriak, esaterako[232]); ekipamendu «bikainak» —bereziki, museoak— arretaz zaintzea, baita *diseinuzko* arrapala mekanikoz ederki lotuz ere (ikus 82. irudia), glamour txikiagoko baina auzokoentzat beharrezkoagoak direnak —eskolak, osasun-zentroak, liburutegiak— gutxietsiz; kontrol poliziala areagotzea (jada aipatutako kamera-sistemen bidez, edo, komisaria berriak irekiz gaztetxeen ondoan, adibidez, Gasteizko alde zaharrean gertatu bezala); kultura-mugimendu autogestionarioak desaktibatzea, instituzioetatik zerbitzu antzekoak modu kontrolatuagoan eskaintzeko[233]; hirugarren —eta laugarren— sektore ekonomikorako bihurtzea, bulegoek, hotelek eta ikerketa-zentroek etxebizitzak eta eskola ohikoagoak ordezkatuz[234]; parke tematiko bihurtzea, «Erdi Aroko azoka» kitsch eta klonikoak sustatuz[235], eta nazioarteko *best-seller* idazleen omenezko estatuak ezarriz[236]; graffiti politiko eta inkonformisten ordez instituzio-ekimeneko muralak pintaraztea eta hedabideetan zein turismo-ibilbideetan haien *balio dudagabea* iragartzea[237]…

231. Bilbo Zaharrean, esaterako, Lan Ekintza udal-agentziak «aisialdia, artea, kultura, moda eta teknologiarekin lotutako enpresen ezarpena» soilik sustatzen zuten diru-laguntzak eman zituen, 2009an, gutxienez; alegia, diseinu-estudio bat irekitzeko diru-laguntza publikoak bazeuden, baina okindegi arrunt —eta auzokoentzat ziurrenik beharrezkoago— bat irekitzeko, ordea, ez.

232. 2008ko urtarrilean Gasteizko alde zaharrean mintzaleku gehiago irekitzea debekatu zen. Une hartan 69 mintzaleku zeuden auzoan. Patxi Lazkoz orduko alkateak hurrengoa esan zuen, neurria justifikatzeko: «Lokal hauei frenoa jartzea beharrezkoa da, auzoa komertzio txikietarako zona erakargarria bihurtzea eragozten dutelako». *El Correo*, 2008/1/19 (egilearen itzulpena).

233. Bilboko eta Gasteizko alde zaharretako gaztetxe enblematiko okupatuekin zentzu horretan gertatutakoa paradigmatikoa da. Bilbokoaren kasua bereziki aipagarria da: Banco de España kaleko 2. zenbakian ezarri zen 1986 eta 1992 artean, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren jabegoko —eta 18 urte hutsik egondako— eraikin batean; bada, hura desalojatu ondoren —Josu Ortuondo alkatearen garaian—, 1994 eta 1997 artean, Udalak berak kudeatutako kontzertu-areto bat irekitzeko obrak egin ziren handik metro gutxira, Mesedeetako elizan: BilboRock delakoa (Gamarra; Larrea, 2007).

234. Gasteizko alde zaharreko Enpresa Zentroak, adibidez, Arte eta Ofizio Eskola ordezkatu du. Haren publizitate *innobatzaile*ak dioenez, «XIX. mendeko arte eta ofizioetarako eraikin bat berreskuratu da, XXI. mendeko arte eta ofizioetarako». Hemen eskuragai: <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/70/53/47053.pdf> [kontsulta: 2014-10-9].

235. Gasteizko merkatu *tradizionala* Zaragozako Acción Calle Producciones Teatrales, S.L. enpresak antolatu ohi du. Enpresa berak *Erdi Aroko* beste hainbat merkatu eta jai antolatzen ditu, besteak beste, Burgos, Ceuta, Jaka, León, Melilla, Miranda Ebro, Siétamo, Soria eta Zaragozakoak.

236. 2008ko urtarrilaren 10ean, Gasteizko alde zaharreko Burulleria plazan —Santa Maria katedral zaharraren alboan— Ken Follett idazle entzutetsuaren omenezko estatua hiperrealista bat ezarri zuten, Casto Solano eskultoreak egindakoa eta Gasteizko Udalak sustatutakoa.

237. Gasteizko alde zaharreko muralen ibilbideaz gehiago ezagutzeko, adibidez, ikus <http://www.muralismopublico.com> [kontsulta: 2014/10/9].



82. irudia. Gasteizko alde zaharrean *diseinuzko* eskailera garestiak ezarri bitartean hainbat auzokidek bertatik alde egin behar dutela kritikatzen duen marrazkia[238]. Iturria: egilearena[239].

Badaude bi arrazoi pentsatzeko Euskal Herriko hiriguneetan ez dela jazotzen hainbesterako gentrifikazioa: auzootako biztanleak jada erdi-mailako klasekoak izatea, eta, maizterrak barik, gainera, etxebizitzen jabeak ere izatea. Errealitatea, berriz, bestelakoa da: erosteko ahalmen handiko jendeak ia ez du hiri-erdiguneetan bizi nahi, bertan aparkalekurik zein igogailurik gabeko etxebizitza mordoa dagoelako, eta, maiz, auzo zaratatsuagoak izaten direlako. Alde zaharrak bereziki deserosoak dira gai horiei dagokienez. Hori dela-eta, Euskal Herriko alde zahar askotara beste erremediorik ez duena bizitzera doa soilik. Gasteizen, esaterako, alde zaharrean erroldatutako etorkinen ehunekoa (% 22) hiri osoan erroldatuta dagoena halako bi da (Gasteiz osoan % 10 ingurukoa da). Eta, errealitatean, gainera, erroldan ofizialki sartuta ez daudenekin, alde zaharreko biztanleria osoaren (10.000 biztanle[240])

238. Eskailerak, edo, hobeto esanda, arrapala mekanikoak, Roberto Ercilla eta Miguel Ángel Campo arkitektoek diseinatu zituzten, eta, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren saria jaso zuten 2010ean, hiri-diseinuaren modalitatean. Arkitektoen webgunearen arabera, obraren prezioa 3.685.475 €-koa izan zen. Alderaketa egoki bat egin daiteke, esaterako, 2009an alde zaharreko etxeak eraberritzeko aurrekontu publiko osoarekin: soilik 943.774 €. Arrapalen kokapena ere nabarmendu daiteke: alde zaharreko malda handieneko kaleetan kokatu ordez, Artium museoa eta Montehermoso kultura-zentroa ondo lotzeko ezarri ziren (zati bat, gutxienez).

239. *Gara* egunkariaren *Gaur8* gehigarri astekarian argitaratua, 2011ko maiatzaren 14an.

240. Zehazkiago, 8.371 biztanle zeuden 2014ko hasieran. 1965ean bizi ziren 17.690 biztanleen erdia baino are gutxiago (iturria: Gasteizko Udala). Izan ere, auzoak gentrifikazioarekin aski erlazionatutako izugarrizko depreziazio sozioekonomikoa pairatu zuen XX. mendearen bigarren erdialdean. Informazio gehigarrirako, ikus García Ibáñez de Garayo, S. (2013): "El modelo de desarrollo urbano reciente en el Casco Viejo de Vitoria-Gasteiz. Rehabilitación, gobernanza y malestar urbano", *XI Congreso de la Federación Española de Sociología*, Madril.

herenetik ez da oso urrun egongo. Eta bistan da 3.000 biztanle ekonomikoki ahul horiek gentrifikazioa pairatzeko joera handia dutela. Areago, gazteak eta erretiratuak ere zenbatuz gero, auzoaren erdia, 5.000 bat biztanle, *gentrifikagarria* edo ordezkagarria dela ondoriozta daiteke. Ez da gutxi.

Gasteizko erdialdeak, Euskal Herriko gainerako alde zaharrek bezala, eraberritua izateko premia larria du, jakina, bere eraikinak eta espazio publikoak zaharberritzeko beharra. Baina ez dezagun ahaztu auzo zahar bezain eder horietan jendea ere bizi dela. Edo inbertsioak eta turistak erakartzeko edozein prezio ordaintzeko prest al gaude?

5.2. PARTE-HARTZEA

Hiria artelana dela esaten da sarritan. Artelan kolektiboa, gizaldietan zehar hezurmamitzen dena. Estetikoki aztertu eta kritika daitekeen arte-obra, beraz. Euskaraz, gainera, artelan terminoak, ohiko adiera artistikoaz gain, badu bigarren adiera interesgarririk: auzolanaren sinonimo baita, hainbat pertsonaren artean egiten den lana ere badelako artelana. Hortaz, hiria artelana dela esateak talde-lanaren zeregina eta emaitza ere badela onartzea dakar (Fernández de Betoño, 2014: 173-175).

Bigarren adiera horren arabera, talde-interesek gizabanakoen probetxuen gainetik egon beharko lukete. Hiriaren osotasun-ikuspegia eta auzokoen lan kolektiboaren dimentsioa hiri-pusken gainetik gailenduko balitz, gainera, arestian azaldutako ikuskizunaren arkitektura inportatu, onanista eta garestiari amaiera emango litzaioke. Noizean behin bandera-eraikin adierazgarriak beharrezkoak dira, noski, ekipamendu sinboliko eta bakanak, baina joera garesti hori arau bihurtu da azken hamarkadotan, hainbeste arkitektura-kontrasterekin, azkenean, hiria kontrasterik gabeko zerbait bihurtu dela, obra espresionista abstraktuen modura.

Baina, hara, hirian jendea bizi da, eta hiriaren artelana ez du soilik arkitekturak edo formak sortzen. Hiri bikaina ez da arkitektura ikusgarria soilik duena. «Hiri bikaina da gizon eta emakume bikainenak dituena»[241], Whitmanek zioen moduan. Eta, artelan kolektibo hori ez dute soilik ustezko eliteek —botere ekonomikoak, politikoak eta teknikoak, hurrenez hurren— moldatzen eta gorpuzten. Herritarrak ere zeresan handia du. Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da hain luze eta garesti diren eta hainbeste jenderentzat ondorioak dituzten hirigintza-gaiei dagokienez. Bereziki Administrazio publikoaren diru-inbertsioak jasotzen dituzten hiri-proiektuei dagokienez. Eta, parte-hartzearen paradigma berri samarraren kontuan demagogia merkean erortzeko arriskua dagoen arren, hiria benetako artelantzat jotzen badugu, hots, egiazko auzolantzat, auzokoari hasieratik eta zintzoki galdetu beharko zaio haren iritzia.

241. Egilearen itzulpena. Whitman, W. (1902): *Leaves of grass*, Doubleday, New York [ISBN gabe], 229. or.

Taldeka eta kontsentsuz lan eginez gero eraikuntza-prozesuak oro har dezente luzatuko badira ere, parte-hartzeak herritarren berme garrantzitsua emango die hirian gauzatzen diren proiektuei. Hasteko edo abian jartzeko zailagoak izango dira, dudarik gabe, baina, amaitzeko, gizarteak onesteko eta bere egiteko, askoz errazagoak.

Duela hamarkada gutxi batzuk, herritarren parte-hartzea ez zegoen agenda politikoan, ezta hirigintzaren alorrean ere. Kasu gehienetan, parte-hartzea erreakzioaren eremura mugatzen zen, konfrontazioarekin —istiluekin— batera, hirigintza-proiektu bat kolektibitatearen aurkako erasotzat jotzen zen bakoitzean, inongo kontsentsurik gabe planteatu zelako. Halako erreakzio aurkakoak, gainera, NIMBY (*Not In My Back Yard* —nire atzeko patioan ez— esaldiaren akronimo ingelesa) delako jarrera interesatu eta egoistatzat izendatzen ziren askotan —oraindik ere izendatzen dira—, modu mespretxuzkoan. Inolako parte-hartzerik gabeko garai luze horren ondoren, gutxieneko parte-hartzerako eredu bat osatu zen apurka, bai formala, hirigintza-planetarako iradokizunen eta alegazioen bidez, bai informala, inkesten zein iritzi-artikuluen bidezko presio intelektualagoaren bidez. Parte-hartzearen ikuspegi azaleko samar hori ez da nahikoa gaur egun, ordea.

Horrexegatik, azken urteotan, herritarren gertutasunaren eta inplikazioaren kudeaketa konplexua gehiago lantzen ari da, baita hirigintzaren arloan ere. Betiko demokrazia ordezkatzailearekin batera —zeinetan erabakiak hartuko dituzten pertsonak lau urtean behin aukeratzen diren—, demokrazia parte-hartzaileago bat haztatzen ari da, neurri batean. Goitik beherako ohiko plangintza hierarkiko, bertikal eta homogeneoarekin batera, behetik gorako plangintza parte-hartzaileago eta dibertsoagoa ere lantzen hasi da. Azken finean, bi hurrenkera horiek dira osagarri eta beharrezko. Agente interesdun guztien borondateak bildu eta parte-hartzerako tresna egokiak landu behar dira, hortaz, hiri-eredu garaikidea ganoraz eraiki ahal izateko.

Europan, aipagarria da zentzu horretan Europar Batasunak 1994an abiatutako European Awareness Scenario Workshop (EASW) izeneko ekimena, herritarren parte-hartzea antolatzearekin zerikusi handia duena, hiri-ekologiaren testuinguruan[242]. Izan ere, ekimen horren bidez, partaidetzarako metodologia alderagarri bat ezarri nahi izan zen, Danimarkako zein Herbehereetako eredu arrakastatsuak bilduz, leku ezberdinetan modu bertsuan aplikatu ahal izateko. Helburu ezberdinak edukita —ezagutza partekatu, eztabaida sortu, etorkizuna argitu, ideia berriak bilatu—, Europar ekimen horretan zehaztutako EASW motatako partaidetza-tailerrek hurrengo sei ezaugarri funtzional komunak dituzte, edo eduki behar dituzte:

242. Hiri-ekologia da hirien barnean jazotzen diren gizakiaren eta ingurumenaren arteko erlazioak aztertzen dituen jakintza-arlo holistikoa. Hirigintza, ekonomia, soziologia, antropologia, geografia, ingeniaritza, zuzenbidea eta historia bezalako arlo anitzetako hainbat ezagutza biltzen ditu. Arreta berezia jartzen dio baliabide natural zein artifizialen erabilera egokiari.

a) Tokiko administrazio ofizial baten bermea edo babesa eduki behar da, hasieratik bertatik.
b) Talde tekniko profesional gidari bat dago, parte-hartzaileen hautaketa egiten duena eta saioak dinamizatzen dituena[243].
c) Dinamikarako 30 eta 50 pertsona bitartean hautatzen dira, parte hartzeko konpromisoa dutenak.
d) Pertsona horiek hurrengo bost gizarte-kategorietatik hautatzen dira, modu orekatuan: (bertako) herritar indibidualak edo erakundetu gabeak; GKEetako eta gizarte-erakundeetako kideak; teknikari eta ikertzaileak; politikariak eta erabaki-hartzaileak; eta sektore pribatuko ordezkariak (agente ekonomikoak). Hala ere, denen iritziak du balio berdina, eragile guzti-guztiak baitira aditu, ikuspegi ezberdinetik bada ere.
e) Dinamikarako denbora mugatuta dago: egun eta erdi, edo, gehienez, bi egun. Betiere, bi saiotan banatuta. Lehen saioan ikuspegi prospektiboa lantzen da batez ere, etorkizun gertuaren ingurukoa —desiatzen dena zein ekidin nahi dena—, eta, bigarrenean, ikuspegi horren gauzatze erreala eztabaidatzen da, hau da, ideiak martxan jartzeko hartu beharreko ekimenak (ekintza-plana). Bi saio horiek taldeka lantzen dira —interes-taldeen edo talde funtzionalen arabera—, baina, amaieran, tailerraren ondorio gisa, osoko saio bat egiten da, ideia guztiak hierarkizatzeko; bozken bidez, beharrezkoa bada.
f) Tailerraren emaitzak laneko txosten batean biltzen dira, ondoren ahalik eta gehien gizarteratu egin behar dena (Interneten bidez, hedabideen bidez…).

Eragile ezberdinen artean interes kontrajarri ugari egon arren —logikoa den moduan—, helburua da interes komunek bat egiten duten esparrua aurkitzea, askotan hasieran pentsatutakoa baino zabalagoa izaten dena. Horren guztiaren adibide gertu bat da Bilboko Zorrotzaurren 2004ko azaroaren 29 eta 30ean garatutako EASW-tailerra, zeinetan 59 pertsonak hartu zuten parte, hainbat urtez oso industriala izandako penintsularen hirigintza-etorkizunaz hausnartzeko, Euskaldunako Zubia auzo-elkarteak neurri handi batean sustatu egin zuena. Tailerraren laburpen-txosten interesgarriak interes kontrajarrien berri ederki ematen du eta prozesuaren amaieran gehien bozkatutako bost ideiak azaltzen[244].

Zoritxarrez, Zorrotzaurreko EASW-tailerraren adibide horrek partaidetza-prozesuetan askotan —gehiegitan— nabari den arazo larri bat azaltzeko ere balio du: bertan hartutako erabakiek inolako izaera loteslerik ez edukitzea. Izan ere, Zorrotzaurreko EASW-tailerra Zaha Hadid izar-arkitektoaren planaren lehen bertsioa

243. Europar Batasunak onetsitako prozesu parte-hartzailea izateko, teknikoren bat EASW sare ofizialeko monitore aintzatetsia izan behar da.

244. Tailerraren laburpen-txostena, hemen ikusgai: <http://zorrozaurre.org//images/stories/zorrozaurreant/Publications/EASWResults.pdf> [kontsulta: 2014/10/10].

jada mahaigainean zegoela egin zen[245]. Eta, nahiz eta behin betikoz onetsitako Plan Bereziak (ikus 83. irudia) auzokideen hainbat eskaera aintzat hartu dituen —mantendu egin dira, nolabait, plana egin aurretik zeuden etxebizitzak—, arestian aipatutako tailer parte-hartzaileak ezer gutxirako balio izan zuen.



83. irudia. Zorrotzaurreko antolakuntza xehea (lerrokadurak eta inguratzaileak). Hiria Antolatzeko Plan Berezia, 2012ko azaroaren 29an behin betikoz onetsia (jabari publikokoa)[246].

Eta antzeko zerbait gertatu zen Pasaiako Badiaren eraberritze-prozesuaren inguruan. 2009ko maiatzaren 8an eta 29an Jaizkibia sozietate publikoak[247] EASW-tailer bat antolatu zuen, zeinetan lau ekintza nagusi hautatu baitziren[248], eta, kasualitatez —edo ez—, hilabete berean eta modu paraleloan, Gipuzkoa Aurrera izeneko presio-talde publiko-pribatuak[249] nazioarteko lehiaketa bat antolatu zuen

245. Zorrotzaurrerako Kudeaketa Batzordeak, zeina Bilboko Portu Agintaritzak, Bilboko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta jabe handien talde batek osatzen duten —jabe txikiei ez zitzaien parte hartzen utzi—, 2002an hitz egin zuen Zaha Hadidekin, Zorrotzaurrerako *Master Plan* delakoa egin zezan, eta 2003ko irailean ofizialki kontratatu. Planaren lehen bertsioa 2004ko urriaren 29an aurkeztu zen publikoki Bilboko Arte Ederretako museoan. EASW-tailerra egin zenean, beraz, *Master Plan* delakoa bazegoen egina eta aurkeztua.

246. Plan Berezia Estudio Albia SLP enpresak idatzi du —hain zuzen ere, Alberto Santander arkitektoak—, Zorrotzaurreko Kudeaketa Batzordearen zuzendaritzapean. Planaren hasierako bertsioa Arkitektura eta Hirigintza Bulegoa SA enpresak egin zuen, hau da, Antón Agirregoitia eta Iñaki Peña arkitektoek, Zaha Hadidek egindako *Master Plan* delakoa oinarri.

247. Berez, kapital publikoko sozietate anonimo bat zen Jaizkibia, 2006ko abenduaren 1ean sortutakoa Pasaiako Badiaren eraberritzea sustatzeko, hurrengo kideak zituena: Espainiako Estatuko Administrazioa, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Pasaiako Udala, Errenteriako Udala, Lezoko Udala, Oiartzungo Udala, Hondarribiko Udala eta Irungo Udala. Ehunekoari dagokionez, denek zuten parte-hartze berdina.

248. Tailerraren laburpen-txostena, hemen ikusgai: <http://psicologiasocial.uab.es/democit/sites/default/files/200909070118198e47d.pdf> [kontsulta: 2014/10/12].

249. 2008ko maiatzaren 31n osatu zuten Gipuzkoa Aurrera, hurrengo kide pribatu eta publikoak zituena: Kutxa, Adegi, Gipuzkoako Merkataritza Ganbera, Mondragon Korporazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala.

helburu berdin-berdinarekin, hots, Pasaiako Badiaren eraberritzea lantzea, baina ikuspegi zeharo ezberdin batetik, tokiko administrazioak —gaiak zuzenki ukitutako udalak— eta herritarrak kontuan hartu gabe egin zen heinean. Gipuzkoa Aurrerak 2010eko otsailean ezagutarazi zuen lehiaketa haren emaitza[250] —kanpo-portu erraldoiaren eraikuntzak bakarrik (ikus 84. irudia) ahalbidetzen zuena, neurri handi batean—, eta, soilik horren ondoren, herritarrek beren iritziak eman ahal izateko webgune bat jarri zuen martxan.



84. irudia. Pasaiako badia eta kanpoaldeko dartsenaren proiektuaren 2010eko urtarrileko bertsioa. Iturria: Donostialdeko Lurralde Plan Partzialaren hasierako onespena (jabari publikokoa).

Pasaiako kasuak parte hartzeko prozesuetan jazo ohi diren bi arazo handi biltzen ditu, hortaz: *a posteriori* soilik ulertutako partaidetza, eta instituzioek erakutsitako aurpegi bikoitza (Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala Jaizkibiaren zein Gipuzkoa Aurreraren parte ziren). Parte-hartzea modu eraldatzaile eta integralean ez ulertzearen zein serioski ez hartzearen ajeak.

250. Kees Christiaanse arkitektoaren enpresa herbeherearrak (KCAP izenekoak) irabazi zuen, LKS enpresaren eta Ángel de la Hoz arkitektoaren kolaborazioarekin. Bitxi samarra da —eta argigarria— LKS enpresa irabazlea lehiaketaren sustatzaile Gipuzkoa Aurrerako kidea zen Mondragon Korporazioko enpresa bat izatea.

Horixe bera kritika dakieke Nafarroako Foru Erkidegoko 35/2002 eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2/2006 hirigintza-legeetako edukiei: herritarren parte-hartzea aipatu egiten dute —izatez, Espainiako Konstituzioak ere aspaldi aipatu zuen[251]—, baita nolabait arautu ere —bereziki EAEko lege pixka bat berriagoak—, baina ez diote inolako izaera loteslerik aitortzen.

NFEko 35/2002 Legeko 7.1 artikuluak, esaterako, «herritarren parte-hartze ahalik eta zabalena» bultzatu behar dela dio, baina, jarraian, 7.2 artikuluak parte-hartze hori dezente murrizten du ohiko alegazioetarako eta informaziorako eskubideetara, zehaztuz herritarrek parte hartzeko hogei eguneko epea dutela hirigintza-planei behin betiko onespena eman baino lehen, eta plan guztiak jendaurrean jarri behar direla. Horri gardentasuna dei dakioke, baina nekez parte-hartzea. Bestalde, 35/2002 Legeak Lurralde Politikaren Gizarte Kontseilua sortu zuen 15.1 artikuluan, partaidetza eta eztabaida-organo bat izan behar zuena, baina, badaezpada, argi utzi zuen 15.2 artikuluan haren txostenak ez-lotesleak izango zirela[252]. Halako batzordeek ere badute arriskurik —ingeles atsotitzak maltzurki dioen bezala, «gamelua da komite batek diseinatutako zaldia»—, baina, egiazki, zernolako jarrera- eta konpromiso-mailarekin hartuko dute parte kontseilu horretako kideek, haiek erabakitakoa eta idatzitakoa ez bada loteslea izango?

Antzeko zerbait gertatzen da EAEko 2/2006 Legearekin: 8. artikuluan herritarren parte-hartzearen printzipioa zehazten da, esanez ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko dela pertsonek parte har dezaten; baina hori nola gauzatu behar den zehaztean, helburua dezente urardotzen da. Legeak bi tresna —teorian— garrantzitsu sortzen ditu, soilik plangintza egituratzailean —Plan Orokorraren mailan— partaidetza sustatzeko: parte hartzeko programa eta Udal Plangintzaren Aholku Batzordea.

Lehen tresna 108. artikuluan zehazten da: Hiria Antolatzeko Plan Orokorrek herritarrek parte hartzeko programa bat garatu behar dute, hiru mekanismo nagusi edukiko dituena bere esku:

a) Jendaurreko bilkurak egitea.

b) Herri-kontsultak egitea.

c) Zabalkunderako material dibulgatiboa prestatzea (agiri ofizialez gain).

Arazoa da jendaurreko bilkurak soilik HAPOren aurrerakinaren inguruko azalpenak emateko aurreikusten direla, eta herri-kontsultak soilik «eztabaida larriak daudenean» egitea aurreikusten dela, hori zehazki zer den definitu gabe (legea

251. Konstituzioaren 23.1 artikuluan zera esaten da: «Hiritargoak arazo publikoetan zuzenki edo aldikako aukeramenetan bozketa orokorraren bidez libreki aukeratutako ordezkarien bitartez parte hartzeko eskubidea du».

252. Ondoren onetsitako 166/2004 Foru Dekretuak, apirilaren 5ekoak, Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseilua sakonago arautu egin du, berretsiz haren txostenen izaera ez-loteslea, 4. artikuluan.

2006an indarrean sartu zenetik, antza, eztabaida larri gutxi izan dira EAEn, egindako kontsulta kopuru eskasari erreparatuta).

Bigarren tresna 109. artikuluan zehazten da: HAPOak behin betikoz onesteko eskumena duten udal guztiek —7.000 biztanle edo gehiago dituztenek, 91.8 artikuluaren arabera— eratu behar dute Udal Plangintzaren Aholku Batzordea, zeina aholkurako eta eztabaidarako organo lokal bat baita. Alabaina, berriz ere, batzorde horrek idazten dituen txostenak «ez dira izango lotesleak herri-administrazioentzat» (109.3 artikulua). Hortaz, legearen zioak onberak izan arren, helburuak gauzatzeko jarritako tresnak ez dira batere indartsuak juridikoki, eta, ondorioz, txandako administrazioaren borondatearen mende uzten da ardura osoa.



85. irudia. Gasteizko HAPOren berrikuspenaren karira Udalak 2013an antolatutako jendaurreko bilkura parte-hartzaileetako bat[253]. Iturria: Gasteizko Udala (jabari publikokoak).

Indarrean dagoen Espainiako Estatuko 8/2007 Lurzoruaren Legearen testu bateginaren 2/2008 Dekretua ez doa harago, berriagoa izanagatik. Herritarren partaidetza aipatu egiten da, baina ekintza hauetara mugatzen (4. artikuluaren e) atala): alegazioak formulatzea, oharrak egitea, proposamenak aurkeztea, eta erreklamazioak eta kexak jartzea. Badaezpada ere, ez da boterea gehiegi sozializatu nahi.

Zeren eta parte-hartzea informazioa gardenki ematea baita —baita heztea ere, alegia, formatzea, edo, orain esaten den bezala, ahalduntzea— eta informazio horren inguruan eztabaidatzea —interes partikularra eta kolektiboa uztartzen saiatuz—, ados, baina baita informazio horren edukiaz negoziatzea ere, eragile guztiek zerbait irabazteko aukera irekiarekin. Eta, soilik gutxieneko adostasun batera iristea ezinezkoa

253. Ezkerreko argazkiak Aldabe gizarte-etxean 2013ko irailaren 17an eta 24an garatutako bi saioetako bat irudikatzen du; bertan, Aitziber Elorrieta Hirigintza Saileko Plangintza Zerbitzuko burua Gasteizko hirigintzaren bilakaera dago azaltzen. Eskuineko argazkiak Zabalgana auzoan urrian garatutako bi saioetan egindako panel bat erakusten du, *post-it* delakoez beteta dagoena (denborarekin parte-hartzearen estetika oso bat ere garatzen ari da, hutsal samarra, zeinetan *post-it* eta *gometxa* delako itsasgarri koloretsuek ezinbestekoak diruditen).

izaten bada, orduan bozketa lotesle batekin amaitzea negoziazioa, indarrak modu demokratikoenean ponderatzeko. Eta, beharbada, parte-hartze prozesuetan gehien engaiatzen diren pertsonen lana nolabait aintzat hartzea, meritukrazia aktiboa(goa) sustatze aldera. Parte-hartze soilik sinbolikoa (ikus 85. irudia) ez delako eraldatzailea, eta, hortaz, ez delako parte-hartzea. Bestela, parte hartzeko prozesuekiko etsipena zabal daiteke herritarren artean, Peter Eisenman arkitekto entzutetsuak lasai asko dioen astakeria bere hartzen buka dezaketenak: «Eskuineko gobernuak hobeak dira arkitekturarako. Ezkerreko pentsamoldeak adostasuna bilatzen du, eta horrek arkitektura oztopatu egiten du. Kontsentsuak ez du ezer onik eraikitzen»[254].

Amaitzeko, aipa daiteke instituzioek gidatutako parte-hartze publikotik harago badaudela herritarrek beren kasa ere antolatutako ekintza kolektibo eraldatzaileak, partaidetzaren ikusmolde pragmatikoena erakusten dutena: auzolanaren inguruan antolatutako ekimenak, hain zuzen ere. Auzolanak kritika eraikitzailea egiten duelako, alternatibak taldeka egikarituz, lankidetzaren bidez, aitatxo edo amatxo Administrazioak dena egin arte itxaron gabe. Euskal Herriko landa-inguruan dezente sustraitutako —baina nahikotxo ahaztutako— pentsamolde ekintzailea dugu auzolanarena. Eta, dudarik gabe, goitik beherako ekintza publiko administratiboarekin bateraezina ez dena.

Helburua baita gizartearen gehiengoa hirigintza-eztabaidaren zentrotik gertuago jartzea, kapitalaren —eta gutxi batzuei mesede egiten dien— ohiko nagusitasun eztabaidaezinaren aurrean. Alegia, hirigintza gizarte- eta giza patroietatik pentsatu eta gauzatzea, azken hamarkadotan jazotako jokabide-eredu gainbaliozale materialista hutsetatik harago. Eskuineko jarrera erosoetatik entzun ohi den kritika zabalduaren aurka, azken bolada luzeotan egiazko proiektu bat osatzen ari baita ezkerreko pentsamoldean, parametro positiboetatik eraikitakoa, lehiakortasun gupidagabearen aurrean gizarte-efizientzia lehenesten duena, eta hirigintzaren alorrean ere isla eduki behar duena, parte hartzeko mekanismoen testuinguruan, besteak beste.

«Ezin dugu hirigintza-gertaera eta -erabakien konplexutasunaren atzean ezkutatzen jarraitu, betiere nolabaiteko ospe tekniko bat emanez, hain zuzen ere erabaki politikoak adituei soilik dagozkien erabaki teknikoak direla justifikatzen duen ideiaren mesedetan». Aipu hori 2014ko otsailaren amaieran EHUko ekonomia eta enpresako zenbait irakaslek idatzitako «Pertsonen zerbitzurako ekonomia baten alde» manifestu interesgarritik[255] atera da, aldaketatxo batekin: *ekonomia* terminoa kendu egin da, eta haren ordez *hirigintza* terminoa jarri. Azken finean, Administrazio publikoaren finantzazio-tresnarik garrantzitsuena izan baita hirigintza. Eta, ondorioz, ekonomiaren ikuspegi sozialagoa —parte-hartzaileagoa— aldarrikatzen den bezala, hirigintza ere gizarteari begira egitea eskatu behar da. Herritarrekin partekatuz eta adostuz, baita hirigintza-plangintzaren alorreko erabakiak ere.

254. *El País,* 2010/9/11.

255. Hemen eskuragai: <http://pertsonenekonomia.info> [kontsulta: 2014-10-12].

5.3. HIRI IRAUNKORRA

Azken hamarkadotan hirigintza eta lurralde-antolakuntza errealitate fisiko geografikotik dezente aldendu dela jada aipatu da. Baieztapen hori bereziki nabarmena da energiaren alorrean, zeinak iraunkortasunarekin erlazio estu-estua duen. Dagoeneko ohituta gaude basamortuetan metropoli berrien sorrerak ikusten —AEBko Las Vegasen, eta Arabiar Emirerri Batuetako Dubai eta Abu Dhabiren kasuak paradigmatikoak dira—, ur-eskasia larriko eskualdeetan golf-urbanizazioen eraikuntza pairatzen —deigarria da, adibidez, Espainiako Andaluziaren kasua[256]— eta munduko beste muturrean erauzten diren lehengaiak edo ekoizten diren elikagai eta produktuak lasai-lasai kontsumitzen. Ohikoak izanagatik, ordea, ez diote burugabekeria energetikoa —beraz, ekologikoa— izateari uzten. Eta etorkizuneko hiriak iraunkorra izan beharko du nahi eta nahi ez. Hiria izateari utzi nahi ez badio, bederen.

Hirigintza inguratzen duen hizkuntza hutsal eta politikoki zuzenaz harago. Izan ere, hirigintzaren arloko zuzentasun politikoa hirigileen eta agintarien hizkuntzan nabarmentzen da gehien. Bestela, garapen iraunkor leloa oximoron bat izango da, antitesia, mundu mugatu batek ezin baitu garapen iraunkor eta mugagaberik jasan. Horren harira, Nazio Batuen Erakunderako 1987an egindako Brundtland txosten ezagunak[257] esaten zuena berriro ere gogorarazi behar da, beharbada: garapena izango bada etorkizunean, eta garapen hori iraunkorra izango bada, ekonomiaren arloan, gizartearen arloan eta ingurumenaren arloan aurreratua izan beharko du (ikus 86. irudia). Mende laurdena baino gehiago iragan da honezkero, baina, harrigarria izanagatik, hitzok iraultzaileak badirudite oraindik ere.

Izan ere, egunotan hain zabaldua dagoen «eko» etiketaren erabilera ez da batere garbi eta zintzoa, oraingoz erakutsi zaizkigun ekohiriak, ekoauzuneak eta ekoportuak —makroportuen (ikus 84. irudia) aurkako hizkuntza-borrokan sortuak— ekologiatik baino, marketin politikotik askozaz gertuago baitaude. Hirigintza iraunkorra ez dago hain erlazionatuta berdeguneekin eta eguzki-panelen protokolo teknologikoarekin, baizik eta mugikortasunarekin eta hiri-trinkotasunarekin. Donibane Lohizunen eraiki berri duten Alturan ekoauzoak, esaterako, parafernalia bioklimatiko osoa edukiko du, baina hiriko erdigunetik hain urrun eta garraiobide publikorik gabe egonda[258], nekez izango da oso ekologikoa.

256. Andaluziak 97 golf-zelai federatu zeuzkan 2012ko urtarrilaren 1ean, Espainiako golfeko erretfederazioaren arabera: <http://www.rfegolf.es/Noticias/NewsDetails.aspx?NewsId=3522> [kontsulta: 2012-8-31].

257. Honela definitu zuen garapen iraunkorra Brundtland txostenak: «Egungo beharrak asetzea ziurtatzen duen estrategia multzoa (ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alorrekoak), ondorengo belaunaldien beharrak asetzeko ahalmena kolokan jartzen ez duena». Egilearen itzulpena. Hemen eskuragai: <http://www.un-documents.net/wced-ocf.htm> [kontsulta: 2014/10/12].

258. 247 etxebizitzetako auzoa da Alturan *écoquartier* delakoa, Leibar eta Seigneurin arkitektoek diseinatutakoa, Donibane Lohizuneko erdigunetik 3,5 kilometrotara dagoena, autobidearen beste aldean.

86. irudia. Garapen —espazial— iraunkorraren hiru hankak: gizartea, ekonomia eta ingurumena. Iturria: Europar Lurralde Estrategia, 1999 (jabari publikokoa).

Energiarekin batera, mugikortasuna delako hiri iraunkorraren gakoetako bat. Gizakiaren jarduerak areagotutako klima-aldaketaren afera garrantzitsuan gehien eragiten duen gaietako bat, dudarik gabe. Eta, bada arazo handi bat klima-aldaketatik zuzenean eratorria, hirigintzaren alorrera (ere) aldaketa bortitzak ekar ditzakeena: itsasoaren mailaren igoera kezkagarria. Eta, horrez gain, bada beste arazo bat energiaren eta mugikortasunaren gaiak —eta, ondorioz, baita klima-aldaketaren gaia ere— hirigintzarekin eta lurralde-antolakuntzarekin ere erabat uztartzen dituena: *peak oil* delakoa, hots, petrolioaren erauzketa-gailurraren mundu-mailako afera kezkagarria. Ikuspegi prospektiboa serioski landu beharko dugu bi arazo handi horiei aurre egingo badiegu, haien ondorio kaltegarriak murriztuko baditugu.

Esandako lehen arazoak, klima-aldaketak eragindako itsasoaren mailaren igoerak, ondorio nabarmenak ekar ditzake munduko biztanleriaren ehuneko nabarmen batentzat. Izan ere, XIX. mendea baino lehen itsasoa arriskuaren sinonimo bazen ere —erasoaldiak, ekaitzak, itsaslapurrak—, industrializazioa hasi zenetik jendea kostaldean pilatzen ari da; gutxika, baina etenik gabe. Mundu osoan gertatzen ari da itsasalderako fenomeno kezkagarri hori, gora eta gora doan turismorako joera tertziarioak askoz gehiago areagotu duena. Itsasoaren urdinaren bila, itsasertzak gogotik urbanizatu ditugu: harri-lubetak, hondartza berriak, paseoak, betelanak, aparkalekuak, pasarelak, kirol-portuak… Batzuk ederrak, beste batzuk soilik erabilgarriak, ia guztiak itsas ekosistemei nolabait lapurtutakoak (Fernández de Betoño, 2014: 153-156).

Euskal herritarren kopuru handia ere bizi da kostaldean. Hirutik bi, gutxi gorabehera, barnealdeko lau hiriburuetako egoileak kontuan hartzen ez badira. EAEn, zehazkiago, udalerrien % 14 soilik daude kostaldean, baina bertan biztanleria

osoaren % 29 bizi da[259]; ia herena. Barnealdeko herri ertain eta txikiak, hortaz, husten ari dira. Izan ere, Euskal Herriko udalerrien % 60an biztanleria osoaren % 5 soilik bizi da[260].



87. irudia. Singapur uharterako konstelazio-plan zentroaniztun hierarkikoaren eskema, garraio-sistemarako oinarri gisa erabiltzen ari dena, eta 1971ko Concept Plan delakoan jatorria duena[261].

Metaketa demografikoa hirietan eta kostaldean jazotzen ari baita. Pilaketa geografiko arriskutsua —lurralde-antolakuntzan aspalditik esaten da oso gomendagarriak direla bai dibertsifikazioa, zentzu guztietan, bai zentro-aniztasuna (hierarkikoa ere izan daitekeena: ikus 87. irudia)—, bereziki kostaldean zentratutakoa, itsasoaren mailak gora egiten jarraitzen badu. Eta zantzu guztiek hala diote, ezbairik gabe (ikus 88. irudia). Urtean 3 eta 5 mm artean igotzen da, zenbait adituk diotenez (1901 eta 2010 artean, batez beste, gutxienez 19 cm igo dela zientifikoki erabat frogatuta badago[262]). Hainbesteraino, non Greenpeacek dioen igoera horren ondorioz

259. Marcos, P. *et al.* (2012): *Destrucción a toda costa 2012. Informe sobre la situación económica y ambiental del litoral*, Greenpeace, Espainia [ISB gabe], 92. or.

260. Goikoetxea, G. (2013): "Gero eta pilatuago, gero eta hutsago", *Berria*, 2013/7/24.

261. Singapurreko eredu zentroaniztuna hierarkikoa da, ohi ez bezala, satelite-hiri bakoitza alor batean dagoelako espezializatuta. Lurralde-zonifikazio sofistikatu baten emaitza da, hortaz, alde onak zein arriskuak —bereziki, segregazioak eragindako mugikortasun behartua— mahaigaineratzen dituena. Iturria: Hainbat egile (2014): *Climate Change 2014. Mitigation of Climate Change. Working Group III. Contribution to the Fifth Assessment Report of the Intergovernmental Panel on Climate Change* [ISBN gabe], 12. ataleko 60. or. (jabari publikokoa).

262. Hainbat egile (2013): *Climate Change 2013. The Physical Science Basis. Working Group I. Contribution to the Fifth Assessment Report of the Intergovernmental Panel on Climate Change*, Cambridge University Press, New York [ISBN 978-1-107-05799-1], 11. or.

EAEko hainbat hondartza desagertuko direla 2030erako, eta itsas portuetako dikeen tamaina % 20 handitu beharko dugula[263]. Azken urteotako ekaitzen ondorio gero eta nabarmenagoak gogoratu besterik ez dago.



88. irudia. Itsasoaren mailaren igoera global batezbestekoa 1870 eta 2008 urteen bitartean. Iturria: AEBko EPA (Environmental Protection Agency), 2010 (jabari publikokoa).

Hala ere, badirudi Euskal Herriko inguru honetatik arazoa ukatzen jarraitzen dugula, edo, gutxienez, ez diogula erabat aurre egin nahi. Beste herrialde batzuetan, ordea, itsas mailaren igoerara egokitzeko ikerketak eta planak aspalditik egiten hasi dira, etorkizunera begirako ikuspegi estrategiko handiarekin. Nabarmentzekoa da, esaterako, Erresuma Batuko RIBAk —Royal Institute of British Architects— 2010ean plazaratutako «Facing up to Rising Sea Levels: Retreat, Defend, Attack? The Future of our Coastal and Estuarine Cities» azterketa interesgarria[264]. Bertan, Kingston upon Hull eta Portsmouth eremu urperagarrietan zentratuta, hainbat egoera aztertu dira, 90 urtera begira. Azpimarratzekoa da azterlan horretan haztatu diren hiru egoera muturrekoak, lanaren izenburuan bertan aurreratzen direnak (ikus 89.

263. Marcos, P. (2013): *Destrucción a toda costa 2013. Análisis del litoral a escala municipal*, Greenpeace, Espainia [ISB gabe], 49. or.

264. ICErekin (Institution of Civil Engineers) batera ere landutakoa. Hemen eskuragai: <http://www.buildingfutures.org.uk/assets/downloads/Facing_Up_To_Rising_Sea_Levels.pdf> [kontsulta: 2014/10/21].

irudia): atzera egitea —*retreat*— (hiri-finkamenduak barnealdera pixkanaka eta era antolatuan lekualdatuz, itsasoari lapurtutako espazioa itzultzea), babestea —*defend*— (hirien defentsak itsasoaren maila berrira egokitzea, defentsetarako erabilera berriak ere aztertuz), eta erasotzea —*attack*— (itsasoaren gainean hainbat modutan eraikitzea). Alegia, zuzen-zuzenean lotuz lurralde-antolakuntza eta hirigintza klima-aldaketak eragindako itsas mailaren igoerarekin.

Logikoa da Erresuma Batuan kezka handiagoa egotea arazo horrengatik, haren 12.400 km-ko kostaldea Europako beste herrialde gertu batzuenak baino askoz ere luzeagoa delako (Italiakoak 7.600 km dauzka, Espainiakoak 4.900 km, Frantziakoak 3.400 km eta Herbehereetakoak 450 km soilik)[265]. Hala ere, Euskal Herrian aipatutako azken bi estrategiak soilik ari gara probatzen, hots, defentsak apurtzen diren heinean handiagoak berreraikiz, eta itsasoaren gainean eraikiz. Beharbada, bada garaia esandako lehen estrategian ere pentsatzen hasteko: noizbait atzera egin beharko dugu, kostaldeko giza finkamendu batzuk lekualdatuz, edo, gutxienez, zertxobait murriztuz egoera berrira egokitzeko. Denborarekin egiten badugu azterketa eta plangintza, hobeto kudeatuko dugu egin beharreko lan guztia, arazo negatibo bat zerbait positibo bihurtuz.



89. irudia. Muturreko hiru estrategia urbanistiko, RIBA eta ICEren arabera, oinean zein sekzioan, itsas mailaren igoerari aurre egiteko: atzera egin, babestu eta eraso egin[266].

Aipatutako bigarren arazoa, energiaren alorreko petrolio-erauzketaren gailurrarena, ez da atzoko kontua. Marion King Hubbert geofisikoak 1956an jada aurreikusi zuen (ikus 90. irudia), Shell petrolio-enpresa handiarentzat lanean ari zela. Eta, 1973ko petrolioaren lehen krisiak dezente atzeratzea lortu bazuen ere, urre beltzaren erauzketa-kopurua behera doa AEBn 1971tik[267]. Ondoren, 1990eko hamarkadan, Hubberten eredua mundu-mailan aplikatzen hasi zen. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Colin J. Campbell geologoaren lana, zeinak 2000n Association for the Study of Peak Oil (ASPO) elkarte aktiboa sortu baitzuen —honezkero hamar nazioarteko kongresu antolatu dituena petrolio-gailurrari buruz—, eta 2008ko krisi

265. RIBAren azterketatik ateratako datuak.

266. Iturria: arestian aipatutako *Facing up to Rising Sea Levels* txostena, 6. or.

267. 1971n 10 milioi petrolio-upel erauzten ziren egunero AEBn. 2012an asko jota 7 milioi upel inguru erauzi ziren, batez beste. Iturria: U.S. Energy Information Administration (EIA), hemen eskuragai: <http://www.eia.gov/dnav/pet/hist/LeafHandler.ashx?n=pet&s=mcrfpus2&f=m> [kontsulta: 2014/10/14].

finantzario globala hiru urte lehenago iragarri baitzuen. Bada, Campbellek —BP, Texaco, Fina eta Amoco bezalako petrolio-enpresa garrantzitsuetan lan egin duena— ziurtatu du petrolioaren erauzketa-gailurra 2005ean jada igaro dugula[268].



90. irudia. M. King Hubbert geofisikoak 1956an egindako grafiko iragarlea[269]: Egiazki, AEBko petrolioaren erauzketak 1971n joko zuen gailurra.

Ez da harritzekoa, hortaz, Repsol energia-enpresa handiak ere petrolio-gailurra onartu izana 2005ean bertan[270]. Edo Energiaren Nazioarteko Agentzia optimistegiak —*International Energy Agency* edo IEA delakoak— 2010ean azkenean onartu izana, iraganean *peak oil* ukatu ondoren, petrolio-putzuen mundu-mailako produkzioa % 7 jaisten dela urtero[271].

Berriagoa dena zera da, petrolio-murriztearen eta -garestitzearen arazo hori lurralde-antolakuntzarekin eta hirigintzarekin lotzea. Ez da hain harrigarria, hala ere, Mendebaldeko herrialdeetan kontsumitzen den petrolioaren 2/3ak garraiorako erabiltzen baitira, AEBn, bederen[272]. Kontsumo horretan, zer esanik ez, autoarekiko erabat mendeko den urbanizazio-eredu barreiatu garaikideak —Mugimendu Modernoaren segregazio urbanoaren lurralde-mailako bertsioak— eragin izugarria du.

268. Campbell, C. J. (2010): "The Post-Peak World", *Institute for Policy Research & Development (IPRD)*, Londres, 11. or.

269. Hubbert, M. K. (1956): "Nuclear Energy and the Fossil Fuels", Spring Meeting of the Southern District kongresua, Division of Production, American Petroleum Institute, San Antonio, 22. or.

270. Nemesio Fernández-Cuesta Luca de Tena orduko *Upstream* adarreko (hidrokarburoen miaketa- eta ekoizpen-jarduerez arduratzen dena) zuzendariak —2012tik Repsoleko Negozioetako zuzendari nagusi da— onartu zuen publikoki, Madrilen garatutako *European Association of Geoscientists & Engineers* delako elkartearen kongresu batean. Orduan, 2011rako iragarri zuen petrolioaren erauzketa-gailurra.

271. Bueno, G. (2012): "Europar Batasunaren energia-politikaren bidaia-orri berria eta horren ondorioak Euskal Herriko garraio eta eraikuntzan", *Aldiri. Arkitektura eta abar*, **10**, 31-33 [ISSN 1889-7185].

272. Minnesota Pollution Control Agency (2007): "Peaking the oil age". Hemen eskuragai <http://www.nextstep.state.mn.us/download/peakoil.pdf> [kontsulta: 2014/10/20].

Iraunkortasunetik oso urrun dagoen eredu horri dagoeneko erantzun ematen ari zaio hirigintzaren alorretik, modu aski txikian bada ere. Alde batetik, 1980ko hamarkadaren hasieran eratutako —eta jada aipatutako— «Hirigintza berria» delako mugimendua nabarmentzekoa da, adibidez (Léon Krier, Rob Krier, Andrés Duany eta Galina Tachieva bezalako hirigile adituekin). Eta, bestetik, «Hirigintza ekologikoa» delako korrontea aipa daiteke, zeinak arestian esandako Brundtland txostenean agertutako ingurumen-arazoei erantzun urbanistikoa eman nahi dien (Salvador Rueda, Fernando Prats, José Fariña, Moshen Mostafavi eta Gea 21 izeneko taldea nabarmendu daitezke).

Alabaina, petrolioaren arazoa mundu-mailako larrialdi bihur daiteke Txina eta India bezalako herrialde erraldoiek —ia 3.000 milioi biztanle dituztenak— Mendebaldeko kontsumo-ohitura berdinak eredutzat hartzen badituzte. Zeresanik ez gorabidean dagoen BRICS[273] delako multzoko beste herrialdeek ere berdina egiten badute. Horregatik, badira zenbait hiri eta herrialde *post oil* etorkizuna jada prestatzen hasi direnak (Bermejo, 2008): Europako Suedia, Kinsale (Irlanda) eta La Palma uhartea (Kanariak); AEBko Minnesota, Oregongo Portland, eta Kaliforniako Oakland, Kaliforniako Hego Eskualdea eta San Frantziskoko Badia; Australiako Brisbane, Maribyrnong eta Queensland; Asiako Hong Kong… Denak ari dira erregai fosilen kontsumoa txikitzeko jarduera-planak egiten, hidrokarburoekiko hiri-dependentzia jaisteko asmoarekin.

Neurriak antzekoak dira aipatutako kasu gehienetan: hiri-funtzio guztien eraginkortasun energetikoa hobetzea; tokiko gertuko eskala lehenestea, maila guztietan (lanari dagokionez, elikadurari dagokionez, energia-ekoizpenari dagokionez, eta, oro har, kontsumoari dagokionez); hiri-erabilera mistoak bultzatzea, mugikortasun behartua txikitzeko asmoarekin (ikus 91. irudia); garraio kolektiboa sustatzea; oinezko eta bizikletazko desplazamenduak bultzatzea… Neurri gehienak, hirigintzarekin eta hiri-ereduarekin estu-estuki lotutakoak.

Ekintzarako garaia baita, berandu izan baino lehenago, Campbell eta Laherrère adituek aspaldi gomendatu bezala: «Estatuek planifikatzeari eta inbertitzeari ekin beharko liokete jada»[274]. Berriagoa den Hirsch txosten eraginkor bezain aztoragarriaren (Hirsch; Bezdek; Wendling, 2005) egileak dioena ere berandu baino lehen hartu beharko litzateke aintzat: «Petrolio-gailurraren arazoa beldurgarria da egiazki. Nire bizitza osoan inoiz ikusi ez bezalako arazoa da, eta, gero eta gehiago pentsatzen baduzu horrengan, gero eta arreta gehiago jartzen baduzu zenbakiengan, orduan eta deserosoago jartzen da edozein ikuskatzaile»[275].

273. OECD elkartean (Organisation for Economic Co-operation and Development) ez dauden Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika adierazteko akronimo ingelesa, *adreilu* ere esan nahi duena.

274. Egilearen itzulpena. Campbell, C.J. eta Laherrère, J.H. (1998): "The End of Cheap Oil. Global production of conventional oil will begin to decline sooner than most people think, probably within 10 years", *Scientific American,* martxoa, 78-83.

275. Egilearen itzulpena. Hirsch, R.L. (2005), in E. Fishman, (ed.) (2009): *Peak Oil Contingency Plan. Maribyrnong City Council*, Institute for Sensible Transport, Melbourne, 10. or.

91. irudia. Hiru eredu ezberdin, hiri-erabileren nahasketari dagokionez, Manaugh eta Kreider adituen arabera[276]. Iturria: Intergovernmental Panel on Climate Change (IPCC), 2014[277].

Mirari teknologiko salbatzailea ez baita garaiz iritsiko —oso geldoa eta etsigarria izaten ari da auto elektrikoaren garapena, bereziki baterien bizitza erabilgarri laburragatik eta prezio altuagatik[278], zer esanik ez hidrogenorena[279]—, edo, garaiz iritsiz gero, ez baita nahikoa izango. Rodrigo Irurzun ingeniari eta energian adituak sen onarekin argi eta garbi esan du: «Garrantzitsuena da planteatzea zeintzuk diren mugitzeko ditugun benetako beharrak, eta pertsonen zein merkantzien alferrikako desplazamenduak ekidin egiteko eredu urbanistiko eta soziala aldatzea. Auto elektrikoek alternatiba bat eskainiko dute behar-beharrezkoak diren kasuetan soilik erabiliko badira —oso bestelako mugikortasun-testuinguru batean, orain dugunarekin alderatuta— eta energia elektrikoaren ekoizpena iturri berriztagarrietatik soilik

276. Manaugh, K. eta Kreider, T. (2013): "What is mixed use? Presenting an interaction method for measuring land use mix", *Journal of Transport and Land Use,* **6,** 63-72 [ISSN 1938-7849].

277. Hainbat egile (2014): *Climate Change 2014. Mitigation of Climate Change. Working Group III. Contribution to the Fifth Assessment Report of the Intergovernmental Panel on Climate Change, op cit.* 12. ataleko 44. or. (jabari publikokoa).

278. Espainiako Gobernuaren porrota deigarria da: 2010ean aurkeztutako *Estrategia Integral para el Impulso del Vehículo Eléctrico 2010-2014* delakoaren bidez —hemen eskuragai: <http://www.minetur.gob.es/es-es/gabineteprensa/notasprensa/documents/estrategiaintegralveh%C3%ADculo electrico060410.pdf> [kontsulta: 2014/10/21]— 250.000 ibilgailu elektriko egotea erdietsi nahi zen 2014rako. Bada, 2011n 367 eta 2012n 437 saldu ondoren, 2013ko apirilean 6.000 ibilgailu elektriko baino ez zeuden Espainiako Estatu osoan, 3.000 motozikleta elektriko barne. Guztia, IDAEren —*Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía*— datuen arabera. Berria, hemen eskuragai: <http://www.coches.net/noticias/el-vehiculo-electrico-en-espana> [kontsulta: 2014/10/21].

279. Hidrogenoarekin, gainera, mineral ez-berriztagarri bat erabiltzen jarraituko litzateke, platinoa, alegia, orain arte hidrogenoa sortzeko elektrolisian katalizatzaile gisa erabili dena.

etorriko bada»[280]. Hortik egungo lurralde- eta hiri-banaketa espaziala birpentsatzeko behar larria, orain arte ezagutu dugun petrolio ugari, eraginkor eta merkearen ondorengo jokalekura egokitzeko.



92. irudia. Dentsitate berdina, hiru hiri-eredu ezberdin osatuz, garaiera eta tipologia ezberdineko etxebizitza-eraikinen ezartzearen arabera. Iturria: IPCC, 2014[281].

Europar Batasunak dagoeneko ozen esan du ohiko autorik gabeko etorkizunean pentsatu beharra dagoela. Europar Batzordeak 2011n argitaratutako garraioaren liburu zuria irakurtzea besterik ez dago[282]. Bertan zehazten diren hamar helbururen artean lehena 2050erako erregai fosilak darabiltzaten autoak Europako hirietatik desagertzea da. Erabaki paregabe horrek goitik behera irauli dezake egun dugun lurraldearen eta hirien antolakuntza segregatu eta zonifikatua, autoaren mende erabat eraikitakoa. Dagoeneko ez baita bideragarria mugikortasuna eta hirigintza batera ez pentsatzea. Horrexegatik, lehenbailehen zehaztu beharko genuke lurralde iraunkorragoa erdietsi nahi duen eraldaketa hori modu antolatuan gauzatzeko ibilbide-orria.

Euskal Herriari dagokionez ere, berandu baino lehen pentsatu beharko genuke nola izan daitekeen petrolio-gailurraren ondorengo lurraldea eta hiria. Nola nahi dugun izatea *post oil* Euskal Herriko giza finkamenduek osatzen duten sistema. Normaltasun berri batera iritsi behar den hiri-sistema, iraunkortasun-mailaren adierazle jakin batzuk nahitaez bete beharko dituena, Barne Produktu Gordinaren ohiko neurketa soilik ekonomikoez —eta ekonomizistez— dezente harago:

a) Erabileren segregazioari buruzko hirigintza-adierazleak (ikus 91. irudia).
b) Lurralde- eta hiri-konpaktutasunari buruzko hirigintza-adierazleak.
c) Lurralde- eta hiri-jarraitutasunari buruzko hirigintza-adierazleak.

280. Egilearen itzulpena. Irurzun, R. eta García, F. (2009): "Coches eléctricos. Pese a las promesas no resolverán los problemas de la movilidad", *El Ecologista*, **61**, 20-23 [ISSN 1575-2712].

281. Hainbat egile (2014): *Climate Change 2014. Mitigation of Climate Change. Working Group III. Contribution to the Fifth Assessment Report of the Intergovernmental Panel on Climate Change, op. cit.,* 12. ataleko 43. or. (jabari publikokoa).

282. Hemen eskuragai: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/ALL/?uri=CELEX:52011DC0144> [kontsulta: 2014/10/23].

d) Lurralde- eta hiri-dentsitateari buruzko hirigintza-adierazleak (ikus 92. irudia).

e) Oinez zein bizikletaz ibiltzeko gaitasunari buruzko hirigintza-adierazleak[283].



93. irudia. Hiri-iraunkortasunaren estrategiarako oinarrizko marko askotarikoa, 1994ko Aalborgeko agirian zerrendatutako politika-arloak biltzen dituena, Mega eta Pedersenen arabera (1998: 10)[284].

Aspalditik hitz egiten da hiri-iraunkortasuna neurtzeko adierazleei buruz. Duela 20 urte baino gehiago. Nabarmentzekoa da, zentzu horretan, 1994an hasitako eta 1998an argitaratutako Mega eta Pedersen adituen lan aitzindaria, Europar Batzordeak babestutako 1994ko Europako hirien iraunkortasunerako Aalborgeko (Danimarka) agiriari[285] jarraipena eta garapena eman ziona (ikus 93. irudia). Aipagarriak dira lan horretan zerrendatutako hainbat adierazle, bereziki, garraiobide garbien adierazlea, entzun- zein usain- eta ikus-eragozpenena, gizarte-justiziarena,

283. Oinezko zein bizikletazko garraioaren eta hiri-iraunkortasunaren arteko erlazioa bikain azaldu du Jan Gehl arkitektoak, energia-aurreztea eta gizarte-iraunkortasuna harremanean jarriz (2014).

284. Irudia, jabari publikokoa.

285. Hemen eskuragai: <http://ec.europa.eu/environment/urban/pdf/aalborg_charter.pdf> [kontsulta: 2014/10/23].

etxebizitza-kalitatearena, eta parte-hartzearena (Mega; Pedersen, 1998: 15-26), ondorengo hainbat lanetarako erreferentziazkoak bilakatu direnak[286].

Esandako *post oil* Euskal Herri horren iraunkortasun-maila egokiro neurtzeko, hirigintza hertsiaren ikuspuntutik, bederen, arestian aipatutako bost parametroak lirateke oinarrizko, bikoteka ere aztertzea komeniko litzatekeena —erabilera-dibertsitatea *vs* erabilera-bakartasuna, trinkotasuna *vs* porositatea, jarraitutasuna *vs* aldizkakotasuna, dentsitatea *vs* sakabanatzea, eta ibilgarritasuna *vs* motorizazioa—, aukeran, neurketa-eremu bikoitz bat hartuz erreferentziatzat: neurtu nahi den hiria(k) barne hartzen d(it)uen bioeskualde edo bailara zehatzarekiko, eta UTM koordenatuei jarrai diezaiekeen sare abstraktu batekiko (ikus 94. irudia: Bizkaiko Butroe bailara osoa litzateke Mungia bezalako herri ertain baten iraunkortasun-azterketa aurrera eramateko bioeskualderik egokiena, Bilborekin dituen harreman estu eta agerikoak gorabehera). Helburua baita lortutako neurketen bilakaera aztertzea, eta leku ezberdinetan bildutako emaitzak alderatu ahal izatea.



94. irudia. Bizkaiko Butroe ibaiaren bailara eta 30N zonako UTM koordenatuekin bat egiten duen 1 km x 1 km-ko sare ortogonala. Iturria: egilearena, Eusko Jaurlaritzaren kartografia oinarri.

286. Interesgarriak dira, esaterako, Espainiako Ingurumen Ministerioak 2010ean argitaratutako "Iraunkortasun-adierazleen udal-sistema" eta "Hiri handi eta ertainetarako adierazle- eta baldintzatzaile-sistema", urte bereko CONAMAn (*Congreso Nacional de Medio Ambiente*) landutakoak.

Hiri-iraunkortasuna neurtzeko tresna horiek, jakina, hirigintzaren arloko ohiko mekanismoekin uztartu beharko dira, dudarik gabe, lurralde-eredua ganoraz eta ikuspegi prospektibo nahikoaz egokitu nahi bada. Horregatik, esandako iraunkortasun-adierazle kuantitatiboekin batera, hurrengo tresna klasikoagoak —eta kualitatiboak— ere erabili beharko dira: urbanizatzeko desegokitzat jo diren lurzoru urbano zein urbanizagarrien desklasifikazioak, urbanizazio-prozesuak atzeratu ditzaketen desprogramazioak, dentsitate baxuegiko hiri-eremuen birdentsifikazio selektiboak[287], desegokitzat jotzen diren hiri- zein landa- eremuen berrantolaketak, eta erabilera bakarreko zonak sozioekonomikoki dibertsoagoak bihurtzeko hirigintza-ekimenak. Guztia, egungo hirigintza-ereduak autoarekiko duen mendekotasun gehiegizkoa txikitzeko, lurralde eta hiri iraunkorragoak lortze aldera.



95. irudia. Interneterako konexio guztiek 2005ean osatzen zuten mundu-mapa, zeinetan marra bakoitzak bi nodo edo IP helbide ezberdinen arteko lotura adierazten duen[288].

287. Interesgarria bezain polemikoa da Gasteizen gauzatzen ari den birdentsifikazio masiboa, Salburua zein Zabalgana auzo berrietan. Ikus Fernández de Betoño, U. (2011): "Gasteizko birdentsifikazioa. Iraunkortasuna zurigarri gisa", *Aldiri. Arkitektura eta abar*, **8**, 16-19 [ISSN 1889-7185].

288. Iturria: opte.org (CC-BY-SA).

Mota guztietako mendekotasunak txikitzea beharko lukeelako izan hirigintza iraunkorraren azken helburuak. Burujabetasuna handitzea, alegia, maila guztietan. Zirkuitu laburragoen edo gertuagoen inguruan antolatzea gure bizitza garatzeko habitat eraikia. Elikadurari dagokionez, energiari dagokionez, produktuen ekoizpenari eta banaketari dagokienez, hondakinen kudeaketari dagokionez, mugikortasunari dagokionez, erabilitako eraikuntza-materialei dagokienez… Mugaren eta deszentralizazioaren ideiak, alegia, hiri-iraunkortasunaren gako-kontzeptuak, ahalik eta gehien hezurmamitzea. Beren burua aski zuten antzinako estatu-hirien bertsio garaikidea egikaritzea. Alabaina, hemen aldarrikatzen den txikitasun edo gertutasun hori ez da bateraezina mundu-mailako ezagutza-sareekiko konektagarritasunarekin (Guallart, 2012), ezinbestekoa dena egun bizi dugun informazioaren eta komunikazioaren aro garaikidean (ikus 95. irudia). Arazo eta aukera batzuk handiegiak edo globalegiak direlako tokiko maila gertuan soilik konpontzeko eta bideratzeko.

Burujabetasun konektatua erdiestean legoke gakoa, hortaz. Oximoron argia dirudiena. Kontraesana. Hain zuzen ere, 1987tik hainbeste aipatzen den garapen iraunkorraren ideia bezala. Orekaren kontzeptua oso ondo adierazten dutelako mota horretako paradoxek. Beharbada, hiri iraunkorraren ideia bera beste paradoxa bat baino ez da. Iraunkortasuna, esan bezala, oso erlazionatuta dagoelako mugarekin zein deszentralizazioarekin, eta hiria, lan honen hasierako definizioetan agertu bezala, metaketa delako, mota guztietako eta ia mugarik gabeko pilaketa fisiko-espaziala. Baina horixe da erronka. *Terra*, *urbs*, *polis* eta *civitas* direlako dimentsioak biltzen dituen hiri iraunkorraren kontzeptuaren atzean dagoen paradoxa handia adimena aplikatuz gainditzen lortzea. Gure bizilekuak eta gure bizimodua hobetzea helburu.

6. Bibliografia

Amendola, G. (1997): *La ciudad postmoderna. Magia y miedo de la metrópolis contemporánea*, Celeste, Madril [ISBN 84-8211-239-2].

Arbaiza, J. K. eta Lozano, P. (2010): *Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak*, UEU, Bilbo [1. argit. ISBN 978-84-8438-330-7].

Aymonino, C. (1978): *Orígenes y desarrollo de la ciudad moderna,* Gustavo Gili, Bartzelona [1. argit. ISBN 84-252-0489-5].

Benabent Fernández de Córdoba, M. (2006): *La ordenación del territorio en España. Evolución del concepto y de su práctica en siglo XX*, Universidad de Sevilla, Sevilla [1. argit. ISBN 84-472-0869-9].

Benevolo, L. (1981): *Diseño de la ciudad – 2. El arte y la ciudad antigua*, Gustavo Gili, Bartzelona [3. argit. ISBN 84-252-1026-7].

Bermejo, R. (2008): *Un futuro sin petróleo. Colapsos y transformaciones socioeconómicas*, Catarata, Madril [1. argit. ISBN 978-84-8319-388-4].

Boesiger, W. eta Stonorov, O. (ed.) (1964): *Le Corbusier et Pierre Jeanneret. Oeuvre complète de 1910-1929*, Les Éditions D'Architecture, Zurich [ISBN 3-7608-8011-8].

Boesiger, W. (ed.) (1995): *Le Corbusier et Pierre Jeanneret. Oeuvre complète de 1929-1934*, Les Éditions D'Architecture, Zurich [ISBN 3-7608-8012-6].

Bohigas, O. (2004): *Contra la incontinencia urbana. Reconsideración moral de la arquitectura y la ciudad*, Electa, Bartzelona [1. argit. ISBN 978-84-8156-367-2].

Bonet Correa, A. (1995): *Las claves del urbanismo,* Planeta, Bartzelona [1. argit. *Las claves del arte* bild. ISBN 84-08-01250-9].

Buchanan, C. D. (1973): *El tráfico en las ciudades*, Tecnos, Madril [1. argit. ISBN 84-309-0386-0].

Calvino, I. (2005): *Las ciudades invisibles*, Siruela, Madril [12. argit. ISBN 84-7844-415-7].

Capel, H. (2003): "Una mirada histórica sobre los estudios de redes de ciudades y sistemas urbanos", *GeoTrópico*, **1**, 30-65 [ISSN 1692.0791].

Caro Baroja, J. (2000): *Los vascos*, Istmo, Madril [4. argit. ISBN 84-7090-010-2].

Chueca Goitia, F. (2005): *Breve historia del urbanismo*, Alianza, Madril [1. argit. 5. berrinp. *Humanidades* bild. ISBN 84-206-3519-7].

Delfante, C. (2006): *Gran historia de la ciudad. De Mesopotamia a Estados Unidos*, Abada, Madril [1. argit. *Historia del Arte y de la Arquitectura* bild. ISBN 978-84-96258-58-7].

Doxiadis, K. A. (1968): *Ekistics: An Introduction to the Science of Human Settlements*. Oxford University Press, New York [1. argit. ISBN 0-09-080300-0].

EAEko Administrazioa. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila (1997): *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz [1. argit. ISBN 84-457-1153-9].

————————, (2000): "68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena", EHAA, **110**.

EAEko Administrazioa. Jaurlaritzaren Lehendakaritza (2006): "2/2006 legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa", EHAA, **138**, 15.396-15.570.

Erkizia, J. M. (2003): *Hirigintza-plangintzatik lurraldearen antolamendura: eskala-aldaketaren premia. Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz [1. argit. ISBN 84-457-2047-3].

Esteban Noguera, J. (2001): *Elementos de ordenación urbana*, UPC, Bartzelona [1. argit. *Arquitext* bild. ISBN 84-8301-512-9].

————————, (2011): *La ordenación urbanística: conceptos, instrumentos y prácticas*, UPC, Bartzelona [1. argit. ISBN 978-84-7653-585-1].

Europako Batzordea (1999): *ESDP European Spatial Development Perspective. Towards Balanced and Sustainable Development of the Territory of the European Union*, Office for Official Publications of the European Communities, Luxenburgo [1. argit. ISBN 92-828-7658-6].

Ezquiaga Domínguez, J. M. (1990): "Formas construidas, formas del suelo. Reflexiones en torno a los nuevos proyectos de extensión residencial", *Geometría*, **9**, 2-23 [ISSN 0213-4780].

Fariña Tojo, J. (2007): *La ciudad y el medio natural*, Akal, Madril [1. argit. ISBN 978-84-460-1657-1].

Fernández de Betoño Sáenz de Lacuesta, U. (2012): *Tamaño, proporción y escala. Sobre la cantidad en la arquitectura*, COAVN/EHAEO, Bilbo [1. argit. ISBN 978-84-87813-53-5].

————————, (2014): *Hiri gara*, Astero, Donostia [1. argit. ISBN 978-84-941992-3-3].

Fernández de Córdoba, M. B. (2006): *La ordenación del territorio en España*, Universidad de Sevilla / COPT, Sevilla [1. argit. ISBN 8447208699].

Fernández Montalvo, R. (2007): "Legislación urbanística estatal y autonómica. Principios e instituciones comunes", in A. Arroyo Gil (koord.), *Estudios sobre urbanismo (Análisis de cuestiones clave no afectadas por la Ley de suelo de 2007)*, Fundación Democracia y Gobierno Local, Madril [*Serie claves del gobierno local* bild; 5. ISBN 978-84-612-1516-4].

Font, A. (2000): "La experiencia reciente de Cataluña. Planeamiento urbanístico para el siglo XXI", *Urban*, **5**, 60-82 [ISSN 2174-3657].

Frampton, K. (2005): *Historia crítica de la arquitectura moderna*, Gustavo Gili, Bartzelona [3. argit. ISBN 84-252-1665-6].

Galarraga Aldanondo, I. (1996): *Hirien Euskal Herria*, Autoedizioa, Donostia [1. argit. ISBN 84-605-5897-5].

Galarraga Aldanondo, I. *et al.* (2002): *Hiri zabalguneak Euskal Herrian*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz [1. argit. ISBN 84-457-1796-0].

Gamarra Quintanilla, G. (2005): "Ciudad, poder, identidad. Bilbao: pasión y muerte de lo urbano", *Bifurcaciones*, **2** [ISSN 0718-1132].

Gamarra Quintanilla, G. eta Larrea Larrondo, A. (2007): *Bilbao y su doble. ¿Regeneración urbana o destrucción de la vida pública?*, La Llevir, Bilbo [1. argit. ISBN 978-84-88455-70-3].

García Vázquez, C. (2006): *Ciudad hojaldre. Visiones urbanas del siglo XXI*, Gustavo Gili, Bartzelona [1. argit. ISBN 978-84-2521-970-2].

Gehl, J. (2014): Ciudades para la gente, Infinito, Buenos Aires [1. argit. ISBN 978-987-9393-80-2].

Gómez Piñeiro, J. (2012a): *En torno a la geografía. Reflexiones conceptuales, metodológicas y técnicas,* Ingeba, Donostia [1. argit. ISBN 978-84-695-2941-6].

Gómez Piñeiro, J. (2012b): *En torno al territorio y a la ciudad*, Ingeba, Donostia [1. argit. ISBN 978-84-695-2793-1].

Gravagnuolo, B. (2009): *Historia del urbanismo en Europa. 1750-1960*, Akal, Madril [1. argit. ISBN 978-84-460-0627-5].

Gruber, K. E. (1983): *Die Gestalt der deutschen Stadt: ihr Wandel aus der geistigen Ordnung der Zeiten*, Callwey, Munich [4. argit. ISBN 3-7667-0694-2].

Guallart, V. (2012): *La ciudad autosuficiente. Habitar en la sociedad de la información*, RBA, Bartzelona [1. argit. ISBN 978-84-9006-246-3].

Hall, P. (1996): *Ciudades del mañana. Historia del urbanismo en el siglo XX*, Serbal, Bartzelona [1. argit. *La estrella polar* bild. ISBN 84-7628-190-0].

Herce, M. (2009): *Sobre la movilidad en la ciudad. Propuestas para recuperar un derecho ciudadano*, Reverté, Bartzelona [1. argit. ISBN 9788429121186].

Hilberseimer, L. K. (1999): *La arquitectura de la gran ciudad*, Gustavo Gili, Bartzelona [2. argit. *GG Reprints* bild. ISBN 84-252-1798-9].

Hirsch, R. L.; Bezdek, R. eta Wendling, R. (2005): "Peaking of World Oil Production: Impacts, Mitigation, and Risk Management", *Science Applications International Corporation, U.S. Department of Energy, National Energy Technology Laboratory*.

Jacobs, J. (2011): *Muerte y vida de las grandes ciudades*, Capitán Swing, Madril [2. argit. ISBN 978-84-938985-0-2].

Kostof, S. (1991): *The city shaped: Urban patterns and meanings through history*, Thames and Hudson, Londres [1. argit. ISBN 0-500-34118-4].

Kostof, S. eta Castillo, G. (1992): *The city assembled: The elements of urban form through history*, Thames and Hudson, Londres [1. argit. ISBN 0-500-34124-9].

Krier, L. (2013): *La arquitectura de la comunidad. La modernidad tradicional y la ecología del urbanismo*, Reverté, Bartzelona [1. argit. 978-84-291-2302-9].

Lafont, A. (2009): *Epistemología de la ordenación del territorio. Enfoque geopolítico*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo [ISBN 978-84-9860-057-5].

Lasagabaster Herrarte, I. eta Lazcano Brotóns, I. (1999): *Régimen jurídico de la ordenación del territorio en Euskalherria*, IVAP, Bilbo [1. argit. ISBN 84-7777-196-0].

Lasagabaster Herrarte, I. (2008): *Lurraldearen Antolamendua: zer den, eta izan beharko lukeenari buruzko zenbait ideia*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo.

Le Corbusier (1979): *Principios de urbanismo. La carta de Atenas*, Ariel, Bartzelona [4. argit. ISBN 84-344-0705-1].

Le Corbusier (1999): *Precisiones. Respecto a un estado actual de la arquitectura y el urbanismo*, Apóstrofe, Bartzelona [ISBN 84-455-0183-6].

Lees, L; Slater, T. eta Wyly, E. (2008): *Gentrification*, Routledge, New York [1. argit. ISBN 978-0-415-95037-4].

Linazasoro Rodríguez, J. I. (1978): *Permanencias y arquitectura urbana. Las ciudades vascas de la época romana a la Ilustración*, Gustavo Gili, Bartzelona [1. argit. ISBN 978-84-252-0895-5].

López Candeira, J. A. (1999): *Diseño urbano: teoría y práctica*, Munilla-Lería, Madril [1. argit. ISBN 84-89150-29-X].

López de Lucio, R. (ed.) (1994): *Vitoria-gasteiz. El proyecto de una capital para el País Vasco. Historia, planes, proyectos y obras*, Georplán Oficina de Proyectos, Gasteiz [1. argit. ISBN 84-604-7463-1].

Lozano Bartolozzi, M. del M. (2011): *Historia del urbanismo en España II. Siglos XVI, XVII y XVIII*, Cátedra, Madril [1. argit. *Arte. Grandes temas* bild. ISBN 978-84-376-2895-0].

Lynch, K. (1992): *Good City Form*, MIT, Cambridge [8. argit. ISBN 0-262-62046-4].

————, (2001): *La imagen de la ciudad*, Gustavo Gili, Bartzelona [5. argit. *GG Reprints* bild. ISBN 84-252-1748-2].

Maderuelo, J. (2005): *El paisaje. Génesis de un concepto*, Abada, Madril [1. argit. *Lecturas de Paisaje. Hª del Arte y de la Arquitectura* bild. ISBN 84-96258-56-4].

Martí, C. (ed.) (2000): *Las formas de la residencia en la ciudad moderna*. *Vivienda y ciudad en la Europa de entreguerras*, UPC, Bartzelona [2. argit. ISBN 84-8301-383-5].

Martín Ramos, Á. (ed.) (2004): *Lo urbano en 20 autores contemporáneos*, UPC, Bartzelona [1. argit. 2. berrinp. ISBN 9788483017524].

Mega, V. eta Pedersen, J. (1998): *Urban Sustainability Indicators,* Office for Official Publications of the European Communities, Luxenburgo [ISBN 92-828-4669-5].

Moholy-Nagy, S. (1970): *Urbanismo y sociedad. Historia ilustrada de la evolución de la ciudad*, Blume, Bartzelona [1. argit. ISBN gabe].

Morris, A. E. J. (2010): *Hiri-formaren historia. Industria Iraultza arte*, EHU, Bilbo [1. argit. ISBN 978-84-9860-457-3].

Müller, W. eta Vogel, G. (2005): *Arkitektura atlasa 1. Gai orokorrak. Mesopotamiatik Bizantziora*, EHU, Bilbo [ISBN 84-8373-749-3].

————— eta —————, (2007): *Arkitektura atlasa 2. Erromanikotik gaur egunera*, EHU, Bilbo [ISBN 978-84-8373-984-6].

Mumford, L. (2012): *La ciudad en la historia. Sus orígenes, transformaciones y perspectivas*, Pepita de calabaza, Logroño [1. argit. ISBN 978-84-939437-8-3].

NFEko Administrazioa. Gobernuaren Lehendakaritza (2002): "35/2002 Foru Legea, abenduaren 20koa, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa", NAO, **156**.

NFEko Administrazioa. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua (2005): *Nafarroako Lurralde Estrategia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Osborn, F. J. eta Whittick, A. (1963): *The New Towns. The Answer to Megalopolis*, McGraw-Hill, New York [ISBN gabe].

Panerai, P. R. *et al.* (1986): *Formas urbanas: de la manzana al bloque*, Gustavo Gili, Bartzelona [1. argit. *Arquitectura/Perspectivas* bild. ISBN 84-252-1291-X].

Pérez Igualada, J. (2005): *Manzanas, bloques y casas. Formas construidas y formas del suelo en la ciudad contemporánea*, Universidad Politécnica de Valencia, Valentzia [1. argit. ISBN 84-9705-850-X].

Petxarroman, I. (2011): *Lurra, zorua bailitzan*, Txalaparta, Tafalla [1. argit. ISBN 978-84-8136-607-5].

Pizarro Asenjo, J. A. (2011): *Hirigintza Zuzenbidea: hastapenak*, EHU, Bilbo [1. argit. ISBN 978-84-9860-565-5].

Renard, V. (2000): "Perspectiva del planeamiento urbanístico en Francia. Nuevos instrumentos para nuevos retos", *Urban*, **4**, 67-81 [ISSN 1138-0810].

Rossi, A. (1999): *La arquitectura de la ciudad*, Gustavo Gili, Bartzelona [10. argit. ISBN 84-252-1606-0].

Sánchez de Madariaga, I. (2008): *Esquinas inteligentes. La ciudad y el urbanismo moderno*, Alianza, Madril [1. argit. *Alianza Forma* bild. ISBN 978-84-206-8412-3].

Santamera Sánchez, J. A. (2006): *La ciudad. Realidad, pensamiento y acción (meditaciones, ideas y creencias)*, CICCP, Madril [1. argit. ISBN 84-380-0337-0].

————————, (2007): *Introducción al planeamiento urbano*, CICCP, Madril [4. argit. ISBN 978-84-380-0338-1].

Sassen, S. (2001): *The Global City. New York, London, Tokyo*, Princeton University Press, Princeton [2. argit. ISBN 0-691-07063-6].

Sica, P. (1981): *Historia del urbanismo. El siglo XX*, Instituto de Estudios de Administración Local, Madril [2. argit. ISBN 84-7088-275-9].

Sitte, C. (1980): "Construcción de ciudades según principios artísticos", in G. R. Collins eta C. C. Collins, *Camillo Sitte y el nacimiento del urbanismo moderno*, Gustavo Gili, Bartzelona [1. argit. *Biblioteca de arquitectura* bild. ISBN 84-252-0983-8].

Solà-Morales Rubió, M. (1988): "La segunda historia del proyecto urbano", *UR*, **5**, 21-27 [ISSN 0213-1110].

————————, (2008): *Hiri-hazkunde motak*, EHU, Bilbo [1. argit. ISBN 978-84-9860-138-1].

Sorkin, M. (ed.) (2004): *Variaciones sobre un parque temático. La nueva ciudad americana y el fin del espacio público*, Gustavo Gili, Bartzelona [1. argit. *GG mixta* bild. ISBN 978-84-252-1969-8].

Tarragó Cid, S. *et al.* (2009): *La Barcelona de Cerdà. Grupo 2C*, Flor del viento, Bartzelona [1. argit. ISBN 978-84-96495-34-0].

Terán Troyano, F. (1978): "Reflexiones sobre la crisis del planeamiento", *Documentos de apoyo a la cátedra de planeamiento urbanístico: documento 1: seminario de planeamiento y ordenación del territorio*, UPM, Madril [ISBN gabe].

————————, (1982): *El problema urbano*, Salvat, Bartzelona [1. argit. *Aula Abierta* bild. ISBN 84-345-7880-8].

————————, (1996a): "Calles y algo más que calles", *Urbanismo Madrid*, **29**, 6-21 [ISSN 0213-9391].

————————, (1996b): "Evolución del planeamiento urbanístico (1846-1996)", *Ciudad y territorio: estudios territoriales*, **107-108**, 167-184 [ISSN 1133-4762].

————————, (1999a): *Historia del urbanismo en España III. Siglos XIX y XX*, Cátedra, Madril [1. argit. *Arte. Grandes temas* bild. ISBN 84-376-1708-1].

————————, (1999b): *Madrid: Ciudad-Región. II. Entre la Ciudad y el Territorio, en la segunda mitad del siglo XX*, Comunidad de Madrid, Madril [1. argit. ISBN 84-451-1611-8].

Vegara Gómez, A. eta De las Rivas, J. L. (2004): *Territorios inteligentes*, Fundación Metrópoli, Madril [1. argit. ISBN 84-609-2698-2].

Zaldua Etxabe, L. M. (2006): "Saroiak eta kortak: zenbait ezaugarri", *Aranzadiana*, **127**, 209-210 [ISSN 1132-2292].

7. Aurkibide onomastikoa

Abercrombie, Patrick 95, 96
Agirregoitia Aretxabaleta, Antón 144
Alomar, Gabriel 96
Amendola, Giandomenico 132
Angosto Sáez, José Fulgencio 97
Antonino 20
Argarate Uria, Esteban 74
Arroyo Gil, Antonio 110
Arruti Aldape, Federico 86
Asimov, Isaac 25
Atxaga, Bernardo 10
Augusto, Zesar 97
Aymonino, Carlo 16, 90
Aznar López, José María 33, 106
Bañuls López, Sandra 34
Bardet, Gaston 96
Basañez Billalabeitia, Rufino 74
Bassols Coma, Martín 110
Benabent Fernández de Córdoba, Manuel 99
Benevolo, Leonardo 30
Benz, Karl Friedrich 53
Bermejo Gómez de Segura, Roberto 155
Berry, Brian J. L. 24
Bertalanffy, Ludwig von 24
Bezdek, Roger 155
Bidagor Lasarte, Pedro 104
Blázquez, Antonio 20
Boehm, Herbert 84
Boesiger, Willy 47, 50, 57, 58
Bohigas Guardiola, Oriol 125, 126
Boileau, Roger 73
Brenner, Anton 84

Breuer, Marcel 72
Brundtland, Go Harlem....149, 176
Buchanan, Colin D.....54
Bueno Mendieta, Gorka....154
Burden, Amanda M.....92
Burgess, Ernest W. 137
Cahill, Nicholas D.....78
Calvino, Italo....26
Campbell, Collin J. 153, 154, 155
Campo Díaz, Miguel Ángel....140
Capel Sáez, Horacio....24, 51
Caro Baroja, Julio 19, 20, 27
Carrascal Minguela, Juan....20
Castro, Carlos María de 102
Cerdà Sunyer, Ildefons....43, 66, 95, 96, 102
Chadwick, Edwin....99
Chandler, Tertius....15
Chapin Metz, Helen 32
Christaller, Walter 9, 23, 24
Christiaanse, Kees....145
Cornudet des Chaumettes, Honoré 103, 108
Corroyer, Édouard-Jules 78
Costa, Lúcio 93, 94
De las Rivas Sanz, Juan Luis 25
Delfante, Charles....44
Delgado Ruiz, Manuel 47
Dickens, Charles 132
Doré, Paul Gustave 89, 90
Doxiadis, Konstantinos A. 26
Duany, Andrés....96, 176
Edgell, George Harold 79
Ehn, Karl....70
Eisenman, Peter....148
Elisabet II.a 19
Elorrieta Landaluze, Aitziber....147
Ercilla Abaitua, Roberto....140
Esteban Azurmendi, Iñaki....133
Esteban Noguera, Juli 27, 35, 100
Esteve Juaquotot, Ángel....125
Ezquiaga Domínguez, José María....70, 75, 76, 84, 85

Fariña Tojo, José 176
Fernández de Betoño Sáenz de Lacuesta, Unai 47, 82, 132, 134, 137, 141, 150, 160
Fernández Montalvo, Rafael 103, 104, 111
Fernández Rodríguez, Tomás Ramón 106
Fernández-Cuesta Luca de Tena, Nemesio 154
Ferrer Regales, Manuel 127
Filarete 37
Filipe II.a Espainiakoa 97
Fishman, Elliot 155
Follett, Ken M. 139
Font Arellano, Antonio 122
Ford, Henry 53
Fossa Martínez, Juli Maria 81
Fourier, F. M. Charles 70
Frampton, Kenneth 55, 59, 93, 94
Franco Bahamonde, Francisco 74, 75, 105
Friedmann, John 15
Friedman, Milton 129
Fuentes Losada, Luis 22
Gaja Díaz, Fernando 106
Galarraga Aldanondo, Iñaki 45
Gamarra Quintanilla, Garikoitz 131, 139
García Ibáñez de Garayo, Sergio 140
García Ormaetxea, Enrique 125
García Rosillo, Félix 157
García Vázquez, Carlos 131
Garnier, Tony 90, 91
Geddes, Patrick 13, 14, 15, 28
Gehl, Jan 158
Gehry, Frank O. 134, 135
Gerkan, Armin von 62
Gilman Romano, David 62
Glass, Ruth 137
Goikoetxea, Garikoitz 151
Gómez Piñeiro, Javier 14, 28, 30
González de Langarica Mendizabal, Aitor 74
González Márquez, Felipe 105
González Martínez, Carmen 74
Gorostiaga Atxalandabaso, Koldo 112

Gravagnuolo, Benedetto 70
Gruber, Karl E. 44
Guallart, Vicente 161
Hadid, Zaha M. 143, 144
Hall, Peter 13, 14, 29
Harris, Chauncy D. 137
Hebebrand, Werner 68
Hénard, Eugène 46
Henri-Labourdette, Jacques 73
Hermkes, Bernhard 72
Hernández Aja, Agustín 109
Hilberseimer, Ludwig K. 46, 55, 56, 57
Hipodamo Miletokoa 62
Hirsch, Robert L. 155
Howard, Ebenezer 38, 67, 90, 94
Hoyt, Homer 137
Hoz, Ángel de la 145
Hubbert, Marion King 153, 154
Irurzun Martín de Aguilera, Rodrigo 156
Ispizua Susunaga, Pedro 67
Jäger, Rudolf 72
Jerrold, William Blanchard 89
Johnson, D. K. 95
Juaristi Linacero, Joseba 118
Karlos V.a Alemaniakoa 97
Kauffmann, Richard 34
Kaufmann, Eugen Carl 84
Keynes, John Maynard 129
Kimball, Fiske 79
Klein, Naomi 129
Kostof, Spiro K. 28
Kreider, Tyler 156
Krier, Léon 81, 82, 96, 176
Krier, Rob 176
Lafont Mendizabal, Antxon 13
Laguna, Juan 48
Laherrère, Jean H. 155
Larrea Basterra, Julián 74
Larrea Larrondo, Andeka 131, 139
Lasagabaster Herrarte, Iñaki 21, 111, 112

Laskibar Urbiola, Ignacio 125
Lazcano Brotóns, Iñigo 111, 112
Lazkoz Baigorri, Patxi 134, 135, 139
Le Corbusier.....47, 50, 55, 56, 57, 58, 59, 71, 90, 93, 94, 104, 121
Lees, Loretta 138
Leibar, Xabier 149
Lerner, Jaime.....59
Lertxundi Esnal, Anjel 45
Lilienthal, David E.....16
Linazasoro Rodríguez, José Ignacio 80
Ling, Arthur G.....95
Lodders, Rudolf 72
López de Lucio, Ramón.....28
Lynch, Kevin A. 26, 36, 38, 39, 40
Mackay, David 126
Maderuelo Raso, Javier.....30
Magrinyà, Francesc.....66
Manaugh, Kevin.....156
Marcos Rodríguez, Pilar 130, 151, 152
Martí Arís, Carlos.....77
Martín Ramos, Ángel.....26
Martínez Callejo, Javier 86
Martorell Codina, Josep 126
May, Ernst 69, 83, 84, 85
Mega, Voula P. 158
Merino, Juan 20
Mies van der Rohe, Ludwig.....77
Miliutin, Nikolai 58
Moholy-Nagy, Sibyl.....59
Molina Vidal, Jaime 32
Moneo, Rafael.....77
Montaner Martorell, Josep Maria 90, 92
Morris, Anthony Edwin James 9, 27, 62, 64
Mostafavi, Moshen 176
Moya González, Luis 127
Mumford, Lewis 7, 26, 51
Napoleon III.a 19
Newcomen, Thomas.....50
Nicolás Marín, María Encarna.....74
Niemeyer, Oscar.....94

Oglethorpe, James Edward 95, 96
Olagibel Kintana, Justo Antonio 45
Oldenburg, Claes.....132
Olesti Vila, Oriol 32
Olmsted, Frederick Law.....48
Ortega y Gasset, José 7, 8, 43
Ortuondo Larrea, Josu.....139
Osborn, Frederic James.....53
Paavilainen, Simo 87
Parker, Barry 39
Parker, Richard Barry 33
Pedersen, Jørn 158
Pelli, César 135
Peña Gallano, Iñaki.....144
Pérez Igualada, Javier 70, 76, 82
Perry, Clarence Arthur 94, 95, 96
Petersen, Carl 86, 87
Petxarroman Gutiérrez, Iñaki.....13
Porras Arboledas, Pedro A. 99
Prats Palazuelo, Fernando.....176
Prost, Henri 108
Puigdomènech, Albert.....126
Quatremère de Quincy, Antoine-Chrysostome 75
Ramos Losada, Blanca.....34
Ramos, Felipe 20
Raposo Gutiérrez, Noemí.....40
Ravetllat Mira, Pere Joan.....77
Reagan, Ronald W.....129
Renard, Vincent.....108, 109
Rivera Blanco, Antonio.....74
Robinson, David Moore.....61, 79
Rodríguez Fuentes, Luis 123
Rodríguez Zapatero, José Luis.....107
Roosevelt, Franklin D. 16
Rossi, Aldo.....8, 63, 81
Roth, Catherine 73
Rowe, Colin 76
Rueda Palenzuela, Salvador.....176
Saalman, Howard.....28
Salinas Larumbe, Manuel 86

Sambricio, Carlos....52
San Bernardo Clairvauxkoa....48
Sánchez de Madariaga, Inés....11
Sander, Albrecht....72
Sandler, Martin W.....53
Santamera Sánchez, Juan Antonio....42, 46, 82
Santander Orcasitas, Alberto....144
Sassen, Saskia....24
Seigneurin, Jean-Marie....149
Sert López, Josep Lluís....71
Sica, Paolo....16, 53, 58, 67, 69, 115
Sitte, Camillo....46
Slater, Tom....138
Smith, Adam....8
Sobry, Jean-François....8
Soja, Edward W.....26
Solà-Morales, Manuel....11, 61, 65, 67, 72, 82, 125
Solano Marroyo, Casto....139
Soria Mata, Arturo....52, 53
Stein, Clarence S.....53, 54
Stonorov, Oscar....47, 57
Streb, Ferdinand....72
Suárez de Figueroa, Lorenzo....38
Tachieva, Galina....176
Terán Troyano, Fernando....42, 53, 95, 121, 122, 124
Thatcher, Margaret H.....129
Thünen, Johann Heinrich von....23
Toledo, Juan Bautista de....80
Trajano....62, 97
Trautwein, Fritz....72
Trevithick, Richard....51
Ullman, Edward L.....137
Unwin, Raymond....33, 39, 53
Unzurrunzaga Goikoetxea, Xabier....64, 81
Urdiales Alonso, Carlos....34
Vegara Gómez, Alfonso....25, 115, 136
Vidal de La Blache, Paul....13
Vinci, Leonardo da....56
Viollet-le-Duc, Eugène....64
Ward, Stephen V.....69

Warhol, Andy 132
Watt, James 50
Weber, Alfred 23
Wendling, Robert 155
Whitman, Walt 141
Whittick, Arnold 53
Wiegand, Theodor 79
Wirth, Louis 9
Wright, Frank Lloyd 55, 56
Wright, Henry 53, 54
Wycherley, Richard Ernest 61, 79
Wyly, Elvin 138
Zaldua Etxabe, Luis Mari 31
Zesar, Julio 62
Zess, Hermann 72
Zuazo Ugalde, Secundino 80